




marxismo eta
nazional arazoa
euskal herrian

paulo iztueta
jokin apalategi



Paulo Iztueta
Jokin Apalategi

***MARXISMA ETA NAZIONAL
ARAZOA EUSKAL HERRIAN***

Azala: Arrosa

IRATI
BAIONA - 1974

Dépôt légal: troisième trimestre 1.974.

MUGALDE - Imprimerie.

37, Bd. De Gaulle.

64.700 - Hendaye.

Euskadi Nord.

Editeur:

Association ZABAL.

Bourgneuf Karrikan 31.

64.100 Baiona.

AURKIBIDEA

ESKEINTZA.....	4
AITZIN SOLASA.....	6
LEHEN ATALA: LEHENENGO LEHENDAKARI ERRUSOAK, III gn. INTERNAZIONALA eta beren EUSKALDUN JARRAITZAILEAK	9
1.- A. LENIN eta U.R.S.S.	13
1.- B. STALIN eta U.R.S.S.	26
1.- D. III-gn. INTERNAZIONALA eta NAZIONAL ARAZOA	53
1.- E. SAIOAK.....	59
1.- F. VI.-garren AS ANBLEA.....	68
BIGARREN ATALA: KOLONIALISMA eta IMPERIALISMAREN MENPEKO NAZIONAL IRAULTZAK eta beren EUSKALDUN JARRAITZAILEAK	80
2.- A. MAO TSE TOUNG eta TXINA	83
2.- B. HO TXI MINH eta VIET NAM.....	96
2.- D. FIDEL KASTRO eta KUBA	110
2.- E. JEAN-PAUL SARTRE eta BURGOS-KO EPAITZA	128
2.- F. SARRAILH DE IHARTZA eta EUSKAL-HERRIA	136
HIRUGARREN ATALA. BURGOS-KO EPAITUEN eta BESTE ZENBAIT MILITANTE MARXISTA-LENINISTEN TESIA	146
BURGOS-KO EPAITUEN eta BESTE ZENBAIT MILITANTE MARXISTA-LENINISTEN TESIA	148
LAUGARREN ATALA: ONDORIOAK	161
3.- A. BILDUMA.....	161
3.- B. EGUNGO EUSKAL IRAULTZAREN BARRENETIK	166

ESKEINTZA

Gizarte klasegabeko baten alde
Iraultza etenbakoan
Zutik irauten duen
Euskadi osoari, gure Herriari,
nola Ipar hala Hegoari,
herri langile eta herri abertzaleari.

Odoletan bustirik
balaz ebakirik
heriotza aurkitu zutenak oroitzean
haien idealaren gantzua gure izpirituan;
esperantza baten landara
haiek estali lur-gainean.

Presondegietan lodi dira barroreak
desterroan luze basamortuko pausoak;
han eta hemen libertateak ez hegorik,
katetan dago iraultzailea katibaturik.
Zuek zarete gure ben-benetako burkideak,
zuek, gure bidea ede'rragotzen dezutenak.

Hildakoen, espetxeratuen, atzerriratuen,
isilpeko eguneroko ekinean dabilzanen,
zuen seme-alaba horien eskeintzagatik
gure esker ona bi bider gurasotu zeratelako.
Zuen gurasotza gizartekotuari esker
dator umotzen biharko gure gizartea.

Mila modutara maneatua zarelako,
zurekin gatoz euskal emakumezko
deklaratuz gizonetzkoaren pareko.
Beharrezko zara herrigintzarako.

Eta, azkenik
gure Herri honek,
euskaldun nahi duen honek,
bere adiskide goa zabaltzen du
mundu guzirat,
askatasunaren alde burukatzen diren
guzienganat;
eta bereziki burruka abertzalea daramatengana
doa lan honen
esku-laguna.

AITZIN SOLASA

Maite Idirin kantariaren diska batek 1970-ko abenduan Burgos-en gertatu zena kantatzen du:

Burgos-en E.T.A.-ren hileta,
hamasei izanik kondenatuta.
Haien kanpaiak hastean oihuka,
Euskadin bizirik beste mila.

Epaitz kriminal honekin Herri oro altxatu da.
Burgos-ko prezesuan Euskal Herria epaitu da.
Orain mundu guztiak daki Herri bat garela.

Zuek uste ginuzuen hilak,
Euskadi betiko zapaldua.
Negu beltzeko ekaitzen fruitua,
belaunaldi berria zuen aurka

Zuen muturren aurrean «Gora Euskadi askatuta».
Non nahi langileak oporrera eman dira.
Orain, mundu guztiak daki Herri bat garela¹.

Liburu honek ere gertakizun horri zor dio bere sorrera. Euskal Herri osoa bere iraultzagatik epaitua zen une hartan bertan, euskal politikagintzan zihardutenen artean eztabaida gogorrek harrotu ziren! Batzuen iritziz, marxista joerako gehienak politikari dudagarriak ziren; hauen atzetik «espainolak» eta «goxistak» ikusten ziren. Beste batzuen ustez, berriz, euskaltzale eta abertzaleak oro burgeskume batzuk ziren. Denbora ilunak benetan!

Bitartean, 1970-ko abendu hartan, Burgos-en epaituak ziren E.T.A.-ko gudari haiek «marxista-leninista» bezela agertzen dituzte beren buruak. Hauen pentsakera, oro har, hiru puntu nagusietara bil daiteke: klasetasuna, abertzaletasuna eta internazionalisma.

Zer esan nahi dute, ordea, kontzeto horiek? Nola lotzen dira alkarri? Hor dago kakoa.

¹ Ikus: Editions ELKAR, «Larrea», 64100 Urcuit.

Liburu xume honek galdera hau erabakitzen baino gehiago argitzen saiatu nahi luke. Marxista joerako euskal politikarien etxean nazional arazoari buruzko ideiak zertan ziren agertu nahi da hemen.

Sagarrari intxaurretik ez datorrela igartzen zaion bezela, liburu honek berak salatuko du bere egileen joerak zein arboletatik jausten diren. Sinpatiak guziok kilimatzen gaitun ezkerro liburu hau ez zitakeen joerarik gabekoa izan. Halere, guzien gainetik eta bereziki ikerketa saileko lan bat bezela burutua izan da.

Euskal marxisma esplikatzeke iraultza sozialista egin duten autoreetatik partitzen bagara, euskal marxistek autore horien iturri beretik edan dutelako izan da.

Lan honetarako zer irizpide darabilgun? Hona hemen.

Marxista izanik nazional arazoari buruz teorizatu dutenen artetik banaketa bat egin dugu. Sozialista iraultza beren eskualdeetan ardietsiz gero bera praktikoki gidatu duten teorigileetara bakarrik mugatzen gara, nahiz-eta beren teorigintza ez izan gehiegizkoa zenbait alditan. Beraz, marxismaren teorigile izanik ere, halere Herri bateko agintea hartuta gero praktikarik eduki ez dutenak gure saiakeratik at uzten ditugu, nahiz-eta beren teori-lana haintzakotzat hartzeko modukoa izan. Hauen artean sartuko lirake, adibidez: Marx, Engels, Rosa Luxemburgo, Kautsky, Bauer, Trosky eta IV-gn. Internazionala². Gainera, hauetariko zenbaitek euskal marxista zenbaitzuen tesiekin dituen zerikusiak erabat aipagarri dira. Esate baterako, Rosa Luxemburgo-k Polonia Errusia-ko Estaduan ekonomikoki integraturik dagoela konstatatzen duen bezela, SAIOAK II-nak, bidenabar, Euskal Herria Espania-ko eta Frantzia-ko Estaduek asimilaturik dadukatela konstatatzen du³.

Aldi berean, euskal marxismari dagokionean, bere egungo korrante garrantzizkoenen agerpen bat egiten badugu ere, ez dugu izan, ordea, gai hori agortzeko asmorik. Hori egitekotan, garrantzi haundirik ez duen beste zenbait ikuspuntu ere aipatu beharko genituzke. Bi lanek merezi dute batez ere aipamena.

Bata Julen de Madariaga-k 1970-eko urrian agertu zuen lana da: «Análisis y crítica del trabajo titulado = Notas sobre el problema nacional». Lan honetan Lenin-ek eta Mao Tse Tung-ek nazio

² Honi buruz jakin nahi duenak ikus beza «Partisans», Mai-Août, 1971, «La question nationale (1)», Maspero, Paris.

³ Ikus: ibidem, «Rosa Luxemburgo et la question nationale», Michael Lowy.

arazoak dauden Herrialdeetan abertzaletasuna eta internazionalisma batzen zituztela defendituz gero, Euskal Herrika kaso, beste bereizkuntzarik gabe, nazional arazoekiko Herrialde horiena egiten da.

Bestea Beltza izenordearekin 1969-ean argitaratu zen lana da : «A los revolucionarios vascos». Honen tesia, funtsean, Euskal Herria koloni bat bezela hartzean datza, nahiz-eta **kolonia** kontzetoaren mamia hark klasikoki zuenetik bereizturik eman. Ondorioetan, halabainan, ia osoki Sarrailh de Ihartza-ren ikuspuntuekin bat dator.

Ohar hauek kontutan harturik, igaro gaitezen egindakoaren ausnartzera. Metodo bezela, atal guztietan bariabile berdinak erabiltzen ditugu. Diferentziak eta komontasunak argiago eta zehatzago ager ditezten egiten dugu horrela. Bariabile hauk lau dira:

- 1.- Konzetualizazioa
- 2.- Etapak
- 3.- Estrategia eta taktika
- 4.- Soluziobideak.

Nazional arazoaz marxismaren teorian eta praktikan tesi ezberdinak ba daudela konstatatu ondoren, liburua hor bertan bukatzen da. Aztertu ditugun autore horien ezaugupide garbiagoren errespetoagatik, beste ekinaidi baterako uzten ditugu tesi eta joera hoei buruzko ohar kritikoak.

LEHEN ATALA: LEHENENGO LEHENDAKARI ERRUSOAK, III gn. INTERNAZIONALA eta beren EUSKALDUN JARRAITZAILEAK

Euskal politikagintza marxismaren metodoarekin gidatu nahi izan zen egunetik bertatik hauzitan ikusi genuen abertzaletasuna. E.T.A.-ren historia gazteari, zalantzez eta eztabaidez hain bustiari, trabarik lodienak zein hegitik sortu zaizkion begiratu besterik ez dago.

Euskal marxista andana batek, agian gehienek, abertzaletasuna nola planteatu duten jakin nahi bada, beharrezko dela uste dugu marxista klasikoengana itzulitxo bat egitea. Hortara dator, etorri ere, lehen parte hau.

Parte honetan Lenin, Stalin eta III-gn. Internazionala aztertzen dira. Hauen jarraitzaile bezela, Euskal Herrian, SAIOAK ikasle taldea eta VI-gn. ASANBLEA mugimendu politiko multzoa aipatzen dira.

Nazio edo aberriari buruzko autore hauen ikusmoldea, aurrelaburpen gisa, puntu nagusi hautara bil genezake.

Lehenengo. Gizartearen bilakakera, hau bere orokortasunean harturik, klaserik gabeko egoera batetara bideratzean datza. Hauxe da autore hauek historiari ezartzen dioten azken helburua.

Gizartea, bere gaurko bilakakera, xede ezberdinak dituzten klase mailetan dibiditurik bait dago, klase zapalduaren iraultzak markatu behar du historiaren norakoa. Klase zapaldu hau **langileria** da. Eta langilea mundu guztian zehar langile bait da, langileriak ez du aberririk bere zentzu hertsian. Printzipio honek funtsatzen du marxisma klasikoaren mundu-ikuskerak.

Ekintza estrategiko guztiak, beraz, langileriaren bitakatze orokor honi makurtu behar zaizkio.

Bigarren. Printzipio nagusi horren aurrean, beste gizarte arazoak (hauen artean nazio arazoa) bigarren mailako arazoak dira. Zehatzago esanda: nazio arazoa langileriak, berari komeni ziaonez erabiliko duen **instrumentu** bat baizik ez da.

Autore horien baitan abertzaletasuna oro **berez** burgesa da, historikoki burgesiarekin batera sortua delako. Ondorio bezela, beraz, mugimendu nazional batek ez dezake bere **gizarte helburu propio** bat eduki ahal, abertzaletasuna berez burgesa bezela konde natzen bait da. Hau da nehoiz ahantz ez dezakegun beste printzipio bat.

Hirugarren. Abertzaletasuna burgesiaren xedeekin berdintzen denez gero, proletargoak mugimendu abertzaleekin egingo dituen konponketa guztiak, politika mailan noski, beti taktikoak izango dira. Proletargoak erabaki behar du abertzaletasuna nun-noiz zaion herra mintza egoki eta nun-noiz desegoki.

Laugarren. Autore hauek nazio arazoaz egiten duten azterketa, funtsean bederen, **politikoa** da. Ez dituzte ukatzen berez hor dauden eta herri-oinarri diren elementuak: hizkuntza, ohiturak eta abar. Elemento kultural horiek babesten dituen mugimendu politikoen **gidaritza burgesa** ukatzen dute..

Pundu hao oso kontutan hartu behar da, nahasketak alferrik sor ez ditza gun.

Bostgarren. Nazio arazoa **kulturaren** arloa bakarrik mugatzen da: hizkuntzen berdintasuna, eskolak herriko hizkuntzan, eta abar. Eskabide nazionalak hor bukatzen dira. Gizarte bati funtsezko zaizkion beste/mekanismak, ekonomikoak eta politikoak adibidez, ez dira eskabide horietan zuzenki sartzen.

Hau bera urrengo punduan ikusiko da hurbilagotik.

Seigarren. Nazio arazoari irtenbide politiko bat eman behar zaiolarik kulturazko eskabide horiek garantizatzeko hain zuzen ere, autore horien proposamenduak, denak ez, baina bai inportanteenak, hauk dira:

1) *Jabetasun osoa edo separakuntza kolonizatu etako herrientzat bakarrik eskatzen da.* Praktikan, ordea, marxisma klasikoak kolonietako mugimendu abertzaleekin alkarte taktikoak egiteko gogo haundirik ez du agertu izan. Pundu honi buruzko frogantzak liburuaren bigarren partean aurkitzen dira.

2) *Nazionalidade zapalduentzat, autonomia errejionala eskatzen da.* Printzipio hau zutik gelditzen da, nahiz-eta halako kaso konkretu batzuetan beste modu bafera jokatu izan.

Hemen bi fase ematen dira

a) Agintea hartu aurrekoa. Langileriak, bere har-bidean dagoelarik, autodeterminazioaren prinzipioa defenditu behar du.

b) Agintea hartu ondorengoa. Langileriak bere agintea hartuta gero, Nazionalidadeekiko Estaduaren zentralkeriak bere hartan jarraituko du. Langileriak bere agintea gogortu egin behar du.

3) Zentralkeria sozialismak egina denean, ez kapitalismak bezela bortxaz, librokiki eta herrien borondatez baizik, gauza aurreiari bat bilakatzen da. Sozialismak ezartzen duen zentralkeria ona da, beraz.

Zazpigarren. Euskal marxisma, egun 1970-ean, SAIOAK eta VI-gn. ASANBLEA izeneko taldetxoek ez dute gauza **berririk asmatu**. Autore klasiko horien testoak, gure ustez ongi ulertu dituztelarik, Euskal Herriko kasoari aplikatu nahi izan dizkiote. Honela, talde sakabanatu hauen baitan, nazionalidadeekiko Estaduaren menpeko langileriaren esku uzten da Euskal Herriaren etorkizun politikoa.

Euskal marxista hauen iritziz, ezin osa daiteke euskal fronte abertzalerik. Jadanik Euskal Herri zatituaren bir-batasuna zokoraturik gelditzen da. Bestalde, zentralkeriak zapalkuntzaz asimilatu edo bereganatutako egoera bere-hartan uzten da.

Zortzigarren. Euskal marxista zenbaitek, beren buruak abertzale porrokatu deklaratzan dituztelarik, abertzaletasunaren defentsarako Lenin, Stalin-en testoak eta... aipatzen dizkigute, borondaterik onenarekin aipatu ere. Esaten eta bir-esaten entzun ditugu « espainolistek » eta « goxistek » ez dutela behar bezela irakurtzen autore klasiko hauen nazio arazoari buruzko ikuspegia.

Zitak handik eta zitak hemendik, autore hauen nazional planteamoldeak hauzitan jarri ez direlako hain zuzen ere, euskal marxismak denbora eder bat galdu du irteerarik gabeko apologia alfer batetan.

Bederatzigarren. Marxisma klasikoak bere moduko interpretazioa eta erantzuna ematen dizkio abertzaletasunari. Honek ez du esan nahi, ordea, gu hor datorren guziarekin konforme gaudenik, ezta ere guzia arbuiatzen dugunik.

Gure oraingo asmoa autore horien abertzaletasuna noraino doan ikusten ahalegintzea izan da. Abertzaletasun horrekin konformatu ala ez, azken finean irakurleak berak erabaki beza.

Hamargarren. Historia bera frogatzen dator gairak zeudela uste zen aberri-arazoak indar hartzen hasiak direla gero eta pindar gehiagorekin. «Abertzaletasun» hitzak, egun, marxismo klasikoak ematen ez dizkion gizarte-funtzio eta xede politikoak hartzen ditu: etnien gaurkotasuna, nazionalidadeen jabetasuna, Estaduen deserdirakoikeria, eta abar.

Dato hauk gogoan edukitzeak ez dio batere kalterik egingo irakurleari.

1.- A. LENIN eta U.R.S.S.

1.- KONTZETUALIZAZIOA.

Lehenik, Leninek Nazio arazoei dagokien lanen buruan erabili dituen kontzetoak banakatzen eta mugatzen entseiatuko gara. Zeren, Euskal Herrian gai hau erabili duten gehienek sinplekeria anitz egin bait dute. Adibidez, nork ez du behin edo beste entzun eta ikusi, Euskal Herrian noski, Estatu Inperialista eta Kolonialisten menpeko Nazio zapalduak batetik eta Nazionalidadeekiko Estaduen menpeko Nazio azpiratuak bestetik, gauza biok berdintzat hartzen nazio arazoari dagokionean?

Geroago argitzen joango garenez, guzti hau sinplekeria haundia da. Hiru gauza ezberdin dira, izan ere, Estatu Inperialisten menpeko Estatuak (nazionalak ala nazionalidadeekikoak), Estatu Kolonialisten menpeko Nazioak, eta Nazionalidadeekiko Estaduen menpeko Nazioak. Azkeneko hauen kasoan, Nazionalidadeekiko Estaduen hiriburua eduki ohi duen Nazioa, erdirakoikeriaz eta asimilazionismoaz, beste Nazioekiko menperatzaile izan ohi da. Adibidez, hauxe da gaurko Euskal Herriaren kaso.

Ondorengo pasarteetan, Errusiako sozialista politikaren lehen gidariek eta beren menpean egindako hiru Batzar Internazionalak bereizir kuntza guzti hau nahiko ongi ikusten zituztela, konstatatuko dugu, nahiz-eta haiek emandako soluziobideak aski eztabaidagarriak izan, historiak frogatu digunez.

a) Nazionalidadeekiko Estatuak⁴.

Zenbait Estaduk, bere konposizioan, Nazio anitz duela adierazteko erabiltzen du Leninek formula hau. Adibidez, Espainia deitzen den Nazionalidadeekiko Estatuak bere menpeko Nazio anitz du (nahiz-eta, geroago aipatuko dugunez, Leninen aburuan Sartaldeko Europan, egun, Estatu Nazionalak bakarrik dauden). Eta Euskal Herria hauetariko bat da. Gainera, guzti hau benetan interesgarri da, zeren Leninek hauetarik hasten bait du Nazio arazoa edo kuestioa deitu den azterketa. Halere, arazo honen atalkide bezela, Kolonia eta Inperio diren Herrialdeen arazora ere luzatuko du geroago Nazio arazoaren kontzeto hori bera. Orduan, Nazio arazoaren soluzio edo aterabide bezela «autodeter minazioa» ekartzen duenean, lehen aipaturiko hiru kasu horretan mami ezberdineko kontzetu bilakatuko da autodeterminazioarena. Eta estrategiari eta taktikari buruz ere, beste hainbeste esan beharko da.

⁴ Ikus : Lenine, «Oeuvres choisies», lehen tomoan, Editions du Progrès, Moskun, 1968-ean, «Du droit des nations à disposer d'elles-mêmes» deitzen den atala, 587 gn. or.

Are oraino, epaitza batekin bukatzen du kontzetu honen adierazpena; dionean:

«Nazionalidade heterogeneoz konposatutako Estatuak (Estadu nazionaletatik bereziaz nazionalidadeekiko Estatuak deitzen direnak), arrazoi batengatik ala bestengatik, beren barneko formakeran anormal edo sufizientziarik gabe atzeratuta gelditu diren Estatuak dira beti»⁵.

b) Estadu nazionalak⁶.

Kontzetu hau Estadu bat Nazio batetara mugatzen dela adierazteko erabiltzen du Leninek. Honela, bada hemendik at dago Nazio arazoa edo kuestioa deitu izan dena. Gainera, baiezkontza bat egiten du arlo hau sagaratuaz, dionean:

«Kapitalismaren potto egitea baino lehen, Asia, Europaren modura, Estadu nazionallekiko sistema independientea lortzera ailegatuko den ala ez, guk jakin ez dezakeguna da»⁷.

Bainan, geroago ikusi ahal izanen dugunez, Sartaldeko Europako Nazio arazoari buruz, nahiko ekibokaturik zegoen Lenin, edota nahiko ez jakin zen. Hain zuzen ere, Sartaldeko Europan Estadu nazional gutti eman da. Aitzitik, Frantzia bezela Espanian eta beste Herriaide gehie netan ere, Nazionalidadeekiko Estaduak eman dira, Leninek besterik uste bazuen ere.

d) Kolonialisma eta semi-kolonialisma⁸.

Kontzetu hauk batik bat Leninen bizitzako azken epean dira ugari. Adibidez, «Comment le prolétariat révolutionnaire doit poser le problème du droit des nations»⁹ zatitxoan, honako hau dio:

«Bere nazioagatik menpekotutako nazioentzat eta kolonientzat separakuntza politikoaren askatasuna eskatu behar du nazio menperatzaileko proletargoak»¹⁰.

Eta oraino askosaz garbiago erabiltzen du hau bera «Première ébauche des thèses sur les questions nationale et coloniale» delako lanean. Azkenik, II-gn. Internazionalerako eginikako «Rapport de la Commission Nationale et Coloniale» lanean ere sartzen du **semi-koloniaren**

⁵ Ikus: ibidem, or. 587.

⁶ Ikus: ibidem, or. 587.

⁷ Ikus: ibidem, or. 589.

⁸ Ikus: «Sur les questions nationale et coloniale», Editions Pekin, 1967.

⁹ Ikus: ibidem, «Revolution socialiste et le droit des nations», atalean, or. 7.

¹⁰ Ikus: or. 8.

kontzetua bera. Honela agertzen du:

«Lurreko jendetzaren %-ko 70 inguru herri menpekotuak izanik, hauetarik ala eta zuzenki kolonial dependentziakiko errejimen baten pean lekaturik daude, ala eta Persia, Turkia eta Txina bezelako Estatu semi-kolonialez osotzen dira»¹¹.

Halere, Leninek koloniaren mugatze labur eta zuzenik ez bait du ematen, hori egiten ahaleginduko gara. Ba du honek garrantziarik, gauzak ez ditezen konfundi. Honela, kolonia honoko molde hautan muga genezake: Estatu nazional ala Nazionalidadeekiko Estatu bateko lurraldetik at egonik, hark okupatu eta administratuz gero, harekin lotki politiko, ekonomiko eta kulturalak gordetzen dituen lurraldea da kolonia. Hemen ikus daitekeenez, bi elemento bereitzen dira beharrezko bezela mugatze honetan, hots: bata **lurralde diferentzia** da eta bestea **okupatzaileak administraturik** egotea; hemen, politikazko harremanetan dago printzipalki, ez funtsezki ordea, esplotazioaren iturburua. Adibide bezela askatasun nazionalako gudu aintzineko Argeliaren kasoa aipatuko dugu. Lehenik, lurralde hori Frantziako nazionalidadeekiko Estadutik (gaurdaino horrela dena) at zegoen. Bigarrenkoz, lurralde hori okupatzaileak administraturik zegoen eta, ondorioz, internazional mailan ez zuen nortasun politikorik. Horregatik, argelitarren lehen urratsak Herrialdearen gidaritzara politikoa autoktono edo bertakoen eskuetan jartzea ardietsi zuen. Horrekin, ordea, ez zuten lehen kolpeaz Frantziako nazionalidadeekiko Estaduaren menpekotasuna bera ere osoki gainditu. Zeren, oraino, nahiz-eta beste harreman molde batzuen pean izan, Estatu horrek berak ekonomikoki esplotatzen jarraitu ahal izanen zuen. Inperialisma deituko diogun esplotatze moldeak izango da bera. Eta esplotatze molde hau maltzurragoa da itxurei dagokienean. Zeren, itxuraz, Argelia bere askatasun politikoaz gero bere baitan bilakatzen den Herri bat bait da. Baina errealidadea konplikatu da. Eta Leninen beste kontzetu bat ager tuaz hori ikusten entseiatuko gara.

e) **Imperialismo**¹².

Leninen politilkagintzan gehienetarik sakondutako kontzetoa da bera. Gai hau zela-eta, bere lanik sonatuenetarikoa idatzi zuela adierazi besterik ez dago, hots : «L'impérialisme, stade suprême du capitalisme» (1917-ean) .Hori dela-eta, kontzeto honen esan nahia hedatuki agertu zigun Leninek. Halere, gu egun ikuitzen ari garen Nazio arazoari buruzko idazkietatik ez gara aterako. Baina, hori bai, gero bere idazki sonatu horretan tesi funtsezko izango zena 1916-ean aurreratuta aurkituko dugu. Hara hemen Leninen ikuspegia:

¹¹ Ikus: ibidem, «Rapport de la Commission nationale et coloniale», or. 32.

¹² Ikus: ibidem, «La Revolution socialiste et le droit des nations», atalean lehen orrialdeak.

«Kapitalismaren bilakakeran gorenko maila da inperialisma. Inperialismak kapitalismaren aurkako burrukara itzultzen ditu masak, zeren hauen egoera konplikatzen ari bait da nola ekonomiazko harremanen pean. Hots, trust eta bizitza garestiaren pean, hola politikazko harremanen pean, hots, militarismaren bilakakera, gudateen ugaritzea erreakzioaren indartzea eta abarren pean»¹³.

Hemen, kolonialismaren kasoan ez bezela, ekonomiazko esplotazioa une berean gertatzen da printzipalena eta funtsezkoena. Aitzitik, politikazko harremana bigarren mailako diren errealidade politikoetara mugatzen da, hots, militarismaren bilakakera eta horrelakoetara, baina administraziozko gidaritza maila edo antzekoetara sekula ere. Gainera, inperialismaren kasoan, bere menpeko den Nazioa ala Nazionalidadeak Estatu baten pean **internazionaliki** onartuak izan ohi dira. Halere, nahiz-eta bera Estatu mailan onartua agertu, funtsean eta oinarrian ordea, Yankien ala beste Europako zenbait Estaduren inperialismaren pean murgildua aurkitu ohi da. Eta hori konstatatzeko, horrelako Estaduko kapitalismak duen kontrola eta militar indarrak duen menpekotasuna eta abar... kontsidera besterik ez dago. Adibide ulerkor bat jartzakotan, Espaniako Estaduaren kasoa aipa dezakegu. Baina, une berean hori delako gure kasoa hain zuzen ere, gure Euskal Herria Estatu horretako Nazionalidadeetariko bat dela gogoaraziko dugu eta bertako Nazio dominatzaileak erdirakoikeri harremanez zapalduta dadukala.

Inperialismaren harira bihurtuaz, Leninek hauxe zion :

«Guk ikusten dugunez, inperialismaren barezitasuna honetan datza: batetik zenbaki handi bat osatzen duten herri zapalduak daude eta, bestetik berriz, militar indar bortitzen eta aberastasun izugarrien jabe diren herri zapaltzaileak»¹⁴.

f) Nazio menpekotuak¹⁵.

Behar bada hau da Leninen kontzeto guztien artean hedatuena. Zeren eta, kontzeto honekin aldi berean, kolonialismaren, inperialismaren ala Nazionalidadeekiko Estaduaren menpeko Nazio zapalduak izenda ahal izango ditu. Bestalde, kontzeto honen sorrerako motiboa Kautskyren aldeko politikoei (sozialistek, beraz) Herrian hedaturiko aburu batetatik dator etorri. Inperialismaren haroan, eskubideetan Nazioen berdintasuna kapitalismarekin «lotze baketsu» batez ahalezko zela, zioten¹⁶. Orduan, aburu honi Leninek Nazio menpekotu eta menperatzaileen errealidadea oposatzen

¹³ Ikus: ibidem, atal berean, orr. 1-2.

¹⁴ Ikus: ibidem, «Rapport de la Commission nationale et coloniale», or. 32.

¹⁵ Ikus: ibidem, «La Révolution socialiste et le droit des nations», or. 7.

¹⁶ Ikus: ibidem, atal berean, or. 7.

dio¹⁷. Eta bigarren Internazionalako giroa ere baiezkontza honekin sagaratu nahi izango du:

«*Geuk, II-gn. Intemazionalaren eta burgesiaren demokraziaren aurka, honako bereizkuntza hau ezartzen dugu: Herri menpekotuen eta herri menperatzaileen arteko ezberdintasuna*»¹⁸.

Argi eta garbi dago, bada, sozialisten artean ere bestelakorik ba zela eta horrelakoak izendatzeko beste kontzeto bat erabiltzen du: sozial-txobinista.

g) Sozial-txobinisma¹⁹.

Kontzeto honekin Leninek herrialde aurreratueta autodeterminazioaren aurkako direnak izendatzen ditu. Honelakoek bi mota osotu ohi dute.

Bata, burgesiaren serbitzaile porrokatuena da. Eta hauek, inperialisma eta politiko kontzentrazioa aurrerari bezala eta autodeterminazioa burgesia tipiarena bezala aipatuz gero, menpekotasuna defenditzen dute²⁰. Hauen artean Errusia-Haundiko txobinisma lego ke.²¹

Bestea, berriz, Kautskytar eta abarrek osotzen dute. Hauek, autodeterminazioaz ari direlarik, kontzeto hori hitzetara eta hipokresira mugatzen dute. Ez dute onartzen Nazio menperakotzaileetako sozialisten aldetik iraultzarako **taktika** bat beharrezko denik, Nazio arazoari dagokionean alegia²². Aitzitik, Leninen aburuan, benetako marxista batek, Nazio arazoari dagokionean, **taktika** bat onartu behar du nola teorian hala praktikan. Eta bere aburu hau sendotzeko, Marx-ek Irlandako kasoan hartutako postura aipatzen du²³.

Eta Leninen nazio arazoari buruzko teoria eta praktika bere politika osoaren barnean taktika bat baizik ez dela aipatu dugunez, ikus dezagun strategiaren mamia eta giharra egiten duen beste kontzeto bat.

h) Internazionalis ma²⁴.

Funtsean eta oinarrian, proletargoaren interes espezifikiko edo xede bereziak beste guztien gainetik bilakatzean datza kontzeko honen mugaketa. Orduan, proletargoaren xede berezi ez direnak

¹⁷ Ikus: ibidem', atal berean, or. 7.

¹⁸ Ikus: ibidem, «Rapport de la Commission nationale et coloniale», or. 31.

¹⁹ Ikus: ibidem, «La Révolution socialiste et le droit des nations», or. 13.

²⁰ Ikus: ibidem, or. 14.

²¹ Ikus: ibidem, or. 17.

²² Ikus: ibidem, or. 14.

²³ Ikus: ibidem, or. 14.

²⁴ Ikus: «Premifere ébauche des thèses... », or. 27.

oro (eta hauen artean dago autodeterminazioaren kasoarekin ere), gehienik taktika mailan zaizkio interesatzen. Honela, Leninek honako molde honetan hitz egiten du: burgesia tipiarekin nazionalismak (beretzat nazional eskabide edo errebindikazio oro burgesa da eta nazionalismo burgesiaren errebindikazio bat baizik ez da bere sorreran) nazional berekoikeria ez du inolaz ere desegiten; aitzitik, proletarioaren internazionalismak eskabide hauek ditu: 1) herrialde batetan proletario edo langileri burrukeraren interes edo xede direnak mundu mailako burrukeraren interesetara menpekotuak egotea; 2) burgesia gainditzera ailegaturik dauden nazioak nazional mailan sakrifizio handiak onartzeko prest egotea nazioarteko kapitalismoa erauzteko²⁵. Internazionalismaren gutunak sakonean aintzineko eskabide guztien gainditu nahia darama. Honela, internazionalismaren aintzineko errebindikazioen agertzaile den kontzeto batetara heltzen gara. Ikus dezagun berarekiko jokabidea Leninen aburuan.

i) Demokrazia²⁶.

Behin eta berriro aurki daiteke kontzeto hau Leninen idazkietan. Halere, gehienetan beste adjetibo batez lagundurik etorri ohi da. Eta berauetariko garrantzikoena «burgesa» izan ohi da. Izan ere, Leninentzat garrantziko da kontzeto bat noiz, nun eta norengatik sortzen den jakitea bere balioa juzga ahal izateko. Honela, historia aztertzen hasten bagara, argi eta garbi dago, esaterako, burgesiaren lehen xedeetarik haundienetariko bat demokraziaren kontzetoa izan dela. Gainera, inork dudarik balu, Leninek honi buruz duen ikuspegia konfirmatzen digun frase bat ekarriko dugu:

«Demokrazia bera ere Estatuaren moldeetariko bat besterik ez da, eta honela denez gero, galduko den zerbait beraz, nahiz-eta garai hori sozialismo garaitsuarekin eta komunismo internazionalarekin baieztuarekin bakarrik ailegatu»²⁷.

Halere, beste pasarte batetan sozialismo garaitsuak demokrazia ipini behar duela eta, ondorioz, Nazioen eskubideen berdintasun erabatekoa eta Nazio menpekotuek beren buruaz hautatzeko duten eskubidea aplikazioan jarri behar dutela, dio²⁸. Hau guziaz, halabainan, ez da langileriaren jokabide funtsezko eta berezia.

II.- ETAPAK

Leninek nazional mugidak burgesiaren errebindikazio demokratikoekin paretzen ditu. Eta puntu hau mugatzat harturik, bere garaiko mundua zenbait etapetan sailkatuak banakatzen du.

²⁵ Ikus: ibidem, or. 27.

²⁶ Ikus: ibidem, «La Révolution socialiste et le droit... », or. 2.

²⁷ Ikus : ibidem, or. 2.

²⁸ Ikus : ibidem, or. 2.

Orain etapa hauk zehazki mugatzen ahaleginduko gara.

Lehenik, Sartaldeko Europari dagokionean, Leninen aburua honako hau da: burgesiaren iraultza demokratikoak 1789-tik 1871-ra doan epean eman zirela²⁹. Eta honekin loturik doan kapitalismaren bilakakeran ere bi epe bereiztuko ditu.

-Bata, feudalisma eta absolutisma ereriaz gero, burgesia demokratikoaren Estadua eta gizartea jasotzen direnekoa da. Memento honetan, lehengo aldiz nazional mugidak masa mugida bilakatzen direlarik, populazioaren klase guztiak molde batean ala bestean bizitza politikora lerratzen dira. Epe honen gauzarik tipikoena eta bereziena, beraz, nazional mugiden pizkundera datza.

-Bestea, Estatu kapitalistak zeharo ezartzen diren epea dugu. Langileriaren eta burgesiaren arteko burruka biziki bortitza bilakatzen da. Epe honetako gauzarik tipikoena, beraz, inernazional mailan batutako kapitalaren eta langileriaren mugida internazionalaren arteko burrukan datza³⁰.

Eta marxisten Nazio arazoari buruzko programari gagozkiola, argi eta garbi esan behar da, Leninek lehen epe horretara mugatzen duela, arazo hori, hots, burgesiaren mugida nazional demokratikoen kasora³¹. Eta inolaz ere ez proletargoaren eta burgesiaren arteko burruka tipiko eta espezifikoki bihurtzen den horretara. Bigarren epe honetan aurkitzen diren Sartaldeko Europako estatu burgesak, hain zuzen ere, nazionalki homegeneoak edo nazio berekoak dira Leninen aburuan, hots, Estatu nazionalak dira³². Egun guztiok konstatatzen dugunez, aburu hori faltsoa da. Sartaldeko Europako Estatu gehienak nazionalidadeez osatuak dira gaurdainokoa. Adibiderik nahi bada, Frantziako Estadoa, Suizakoa, Belgikakoa, Espaniakoa, eta abar, hauk guztiak ez al dira Nazionalidadeekiko Estatuak? Bai horixe!

Bigarrenik, sortaldeko europari eta Asiari dagokienean Leninen aburua da burgesiaren iraultza demokratikoen haroa 1905-ean hasi besterik ez zela egin, eta itxu behar dela egon Estatu nazional independenteen eta homegeneoen formakerako joerak dituzten burgesia demokratiko nazionalen mugida hilara bat esnatzen ez susmatzeko³³. Ondorioz, aurrez esan duenez, herrialde hauetan nazional mugidekin kontatu beharko du benetako marxistak.

Halere, Leninen 1916-eko beste lan batetan, hots, «La Révolution socialiste et le droit des

²⁹ Ikus : «Oeuvres choisies», lehen tomoan, «Du droit des nations à dispose d'elles mêmes», or. 594.

³⁰ Ikus : ibidem, or. 590.

³¹ Ikus : ibidem, or. 593.

³² Ikus: ibidem, or. 594.

³³ Ikus: ibidem, or. 594.

nations à disposer d'elles-mêmes» deritzan hortan, Sortaldeko Europako Herrien eta Asiako eta kolonietako Herrien artean jeneralki bereizkuntza bat ipiniko du. Honela, Sortaldeko Europan: Austrian, Balkanetan eta Errusian batez ere, burgesia demokratikoaren mugida nazionalak XX-gn. gizaldian eman direla, esango du. Aitzitik, Txina, Persia eta Turkia bezelako semikoloniak direnetan eta 1.000 miloi bizilagun inguru osotzen duten kolonia guzietan, burgesia demokratikoaren mugidak hasten daudela, ala beren bilakakeratik arras urrun daudela, gaineratuko du³⁴. Eta estrategia-taktikari buruzko gora-beherak ikutzekoan adieraziko dugunez, nola baterako hala besterako jokabidean bereizkuntzak ipiniko ditu.

Baina, aurrez Sortaldeko Europako Herriei dagokienean, ezartzen duen beste zenbait bereizgarri aipatuko dugu. Honela, hasteko, Austriako eta Errusiako nazionalidadeen arteko harremanak zeharo ezberdinak direla, adieraziko du. Zeren, Austria denbora luzez Alemanek dominatzen zuten Estatu bat ez ezik, Alemaniako Nazio guztien nagusitza hartu gogo zuten Austriako alemanez beterik bait zegoen³⁵. Aitzitik, Errusiako baldintza partikularrak, nazional arazoari dagokionean, Austrian ikusi ditugunetatik arras alderantziz dira, dio Leninek. Errusia, izan ere, nazional zentro bakarra da, hau da: erruso-haundiarena duen Estado bat alegia³⁶. Errusian, beraz, bizi garen haroan, nazional arazoaren berezitasun historiko banakoak autodeterminazioaren beharrari garrantzi berezia ematen dio³⁷.

Eta fite, hurrengo punduan alegia, estrategia-taktika aipatzean ikusiko dugunez, nazional arazoa dagoen Herrialde bakoitzeko baldintzei garrantzi haundia ematen diela jabetuko gara.

III.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Leninen aburuan marxista batek ez lezake inolaz ere nazional estrategia bat aukera, proletargoaren xede berezien politika jokatu nahi badu behintzat. Haren ustez, Internazional Komunistaren eskabidek markatu behar dute estrategia oro. Hau da, nazional eta kolonial arazoei dagokienean, Internazional Komunistaren politikak, oinarrian, nazio guzietako langile masen eta proletargoen hurbiltzea behar du lekutu³⁸. Orduan, Leninentzat, nazional arazoak, gehienik ere, taktikazko eskabideak ditu internazionalista den batentzat. Honela, bada, langile klaseak burgesia **nazional pakearen** interesetan bakarrik sostengatuko duela, dio, hots: eskubideetan berdintasunaren interesetan alegia, klase burruka giro egokienean bilaka dadin. Molde berean ere, burgesiaren praktizismo politikoari, proletargoak **printzipioen** politika oposatuko dio nazional

³⁴ Ikus: «La Révolution socialiste et le droit des nations», orr. 12-13.

³⁵ Ikus: «Oeuvres choisies», lehen tomoan, « Du droit des nations... », or. 595.

³⁶ Ikus: ibidem, or. 596.

³⁷ Ikus: ibidem, or. 596.

³⁸ Ikus: ibidem, «Première ébauche des thèses... », or. 24.

arazoari dagokionean, eta, honela, burgesiari **baldintzazko** laguntza bat baizik ez dio eskeiniko³⁹. Azkenengo puntu hau inportantzia haundikoa da Leninen nazional arazoari buruzko politika konprenitzeko. Proletargoak, beraz, printzipioen politika erabili behar du. Klaro dago, orduan, nazio konkretu bateko separakuntzaz marxista bati egindako galderaren erantzuna, «baietz ala ezetz» - era ezin lot daitekeala. Zeren, Leninen aburuz, honelako erantzunak arras «praktiku» den errebindikazioa badirudi ere, errealidadean zentzurik gabekoa da eta bere hegi teorikoari gagozkiola, berriz, metafisikoa da; eta bere alderdi praktikotik so ezker azkenik, bistan dago proletargoa burgesiaren politikara menperatzera daramala galdera horrek⁴⁰.

Eta Leninek nazional arazoari buruz proletargoarentzat hautatzen duen postura taktikoa, «printzipioa» defenditzera mugatzen bada ere, nazional kuestioan proletargoak eginbide praktikorik ere ba duela gehiagotuko du, zeren proletargoa, nazionalisma mota guztien aurka dagoelarik, eskubideetan berdintasun **abstrakto** bat eta pribilejio tippienen gabetasun totala defenditzen entseiatuko da⁴¹. Halere, nazionalisma guztien aurka dagoela esaten duenean, ez da denak berdinak direla uste duelako, fite ondoko eraskin hau ipintzen balt du: «opor tunismoa molde ezberdinetan agertuko dela nazio menpekotu eta menperatzaileen baitan»⁴².

Negatibotik positibora proletargoaren eginbidea markatuz gero, ondorio hauetara dator Lenin.

Lehenik, menperatzaile den Nazioari gagozkiola, honen bortxakerien eta pribilejioen aurka burrukatu behar da; eta menpenkotua den Nazioaren aldetik, berriz, ez da inungo pribilejiorik onartuko⁴³.

Bigarrenik, proletargoaren helburua klasearen xede berezia delarik, honetarako eta honengatik nazionalisma oro burrukatu behar da, une berean nazio ezberdin guztien berdintasunezko **printzipioa** defendituz⁴⁴.

Hirugarrenik, langile klasearen interesek eta kapitalismaren aurkako bere burrukak nazio guzietariko langile batasunik hertsiena eta alkartasunik osoena eskatzen dituzte. Honela, bada, interes horiek edonungo nazionalidadeetako burgesiaren politika nazionalistari erantzun bat ematea

³⁹ Ikus: «Oeuvres choisies », lehen tomoan, «Du droit des nations...» or. 597.

⁴⁰ Ikus: ibidem, or. 597.

⁴¹ Ikus: ibidem, or. 598.

⁴² Ikus: ibidem, or. 598.

⁴³ Ikus: ibidem, or. 599.

⁴⁴ Ikus: ibidem, or. 600.

eskatzen dute⁴⁵.

Eta azkenengo puntu hau arrazoitzen ere entsejatzen da, dionean:

«Kasu guzietan langile jornaleroak esplotazioa sufritzen jarraituko bait du, zapalketa horren kontra burrukatzeko proletargotzak nazionalisma guzitik estrainu izan behar du, hots: proletarioek erabat neutro izan behar dute Nazio ezberdinetan burgesiak bere jabetasun osoa lortzeko daraman burrukaren aintzinean»⁴⁶.

Guzi honekin puntu hau argitzeko aski delakoan, Leninen aterabideak aipatzera igaroko gara.

IV.- SOLUZIOAK

Lan honen buruan aipatu ditugun Leninen estrategia eta munduaren aurrerapenari buruzko bere ikuspegi etapista arakatuaz gero, soluzioak ere nahiko mugatuak emango dizkigula pentsaturik, bere idazkietan buruz behera sartzen gara.

Molde honetan, bere strategiak hala eskaturik, **Internazional Komunista** izango da lehen soluzioa eta, Lenineri historikoki zerionez, III-gn. Internazionalako bigarren Batzarra. Hara zertan datzan, osotara har, bere ikuspuntua: Demokrazia politikoaren errebindikazio guziak, nazionala ere bai, masen burruka iraultzailearen pean burgesiaren gobernuak itzultzera eta sozialisma ezartzera zuzendu behar dira⁴⁷. Eta egungo munduko egoeran proletargoaren diktadura errealdade bat delako, munduko politiko eginkizun guziak puntu zentral batetan biltzen dira, hots; munduko burgesia guztia Errusiako Soviet-en Errepublikaren aurkako burrukan ari da⁴⁸. Ondorioz, ezin muga daiteke nehor Nazio ezberdinetako langileen elkarte bat xeheki predikatzen; aintzitik, nahi eta nahiezko da Errusiako Soviet-ek kolonial eta nazional askatasun magimendu guztiekin geroz eta batasun hertsiaigo bat egitea⁴⁹.

Puntu hau dela-eta, mugida nazional ezberdinekiko zer soluzio proposatzen zituen ikusten ahaleginduko gara, pentsaturik, jakina, soluzioak beti taktikoak direla Internazionalista estra tegian.

Hemen eta orain, **autodeterminazioa** aipatuko zaigu. Eta lehenik kontzeto honekin, oro har, zer ulertzen zuen adierazko dugu. Gero, berriz, hiru auto-determinazio mota bereiztuko dugu. Bata,

⁴⁵ Ikus: ibidem, or. 609.

⁴⁶ Ikus: ibidem, or. 610.

⁴⁷ Ikus: «La Révolution socialiste et le droit des nations», or. 19.

⁴⁸ Ikus: «Première ébauche des thèses... », or. 24.

⁴⁹ Ikus: ibidem, or. 24.

nazionalidadeekiko Estaduaren barneko nazional mugidei dagokiena; bestea, kolonialismaren menpeko nazional mugimendua; eta, azkenik, inperialismaren menpeko mugimendua

Pasarte batean honela definitzen du Leninek autodeterminazioa:

«Nazioen autodeterminazioak hau esan nahi du, hots: atzerriko nazional taldeetatik Estadu bezela bereiztea, Estadu nazional independenteak sortzea, alegia»⁵⁰.

Bainan pasarte hau behar bezela konprenitzeko, beste pasarte batzu gehiagotu behar ditugu, zeren Leninek ez bait du autodetermi nazioa eskubidetik at defenditzen⁵¹. Ikus zer dion:

«Norbaitek digu: separakuntzaren eskubidea sostengatuz gero, nazio menpekotuen nazionalisma burgesa defenditzen duzu... Guk ihardesten diogu: ez, soluzio praktiko bat hartzea burgesiari dagokio; langilei, ordea, printzipioen mailan bi jokabide bereiztea dagokie»⁵².

Are gehiago:

«Determinazio askatuaren aldekoek, hots, separakuntza askatuarenek, separakuntzaren indartzeaz akusatzea hain absurdu eta hipokrita dute non dibortzioren aldekoek sendiaren tokien desegin-tzeaz akusatzea lutekena»⁵³.

Eta areago urrats eginik, autodeterminazioaren eskubidea onar liteken kasoak aztertzea igoroko gara. Leninek dionez, hauk hiru moldetakoak dira.

Lehenik, nazionalidadeekiko Estaduaren kaso da. Baina, honetarako mundua etapetan seinaltzekoan ikusi duguna birberritu behar da. Han esaten genuen kapitalisma aurreratua dagoen Herrietan nazional arazo oro absurdu dela eta hauxen dela, hain zuzen ere, Sartaldeko Europako kaso eta Estadu Batuena. Zentzu honetan, bada, Euskal Herriko nazional arazoa absurdoa litzake. Leninek diona egia balitza, ez luke esistitu behar ere. Baina, hor dago. Gainera, Leninen aburuan Sartaldeko Europako Estaduak nazionalak baziren ere, guk nazionalidadeekikoak edo nazio askotakoak direla konstatatzen dugu.

⁵⁰ Ikus: ibidem, «Oeuvres choisies», «Du droit des nations... », or. 587.

⁵¹ Ikus: ibidem, or. 599.

⁵² Ikus: ibidem, or. 599.

⁵³ Ikus: «La Révolution socialiste et le droit des nations», orr. 12-13.

Bigarrenik, Sortaldeko Europako kasoa dadukagu. Kapitalisma atzeratuta dagoen Herrialdeena da hau, eta hemen aurkitzen dugu autodeterminazioaren eskubidea Leninek ontzat har lezakeen lehen kasoa Herrialde hauetan, proletargoaren eginbideak burgesiaren demokratiko aldakuntzaren alde jokatzeko eta beste herrialdeetako iraultza sozialista laguntzeko badira, helburu hau ezin ongi eraman ahal izanen dira baldin nazioek bere buruaz aukeratzeko duten eskubidea defenditzen ez bada. Eginbide horietan gaitzena, garrantzitsuena ere bai noski, nazio menperatuetako langileen eta nazio menperatzaileetako langile klasearen burruka elkartzean datza⁵⁴.

Proletargoaren estrategia, beraz, nazio menperatu eta nazio menperatzaileen artean, eta organizazioari dagokionean, erabateko osotasun batetan elkartzean datza⁵⁵. Eta egunen batean Komunisten baitan nazioen arazoari buruzko autodeterminazioa eramatea balego, horren molde konkretu bezela **federazioarena** proposatzen digu Leninek... Nazio ezberdinetako langileek erabateko batasuna ardietsi bitarteko pasadizuzko molde bat baizik ez da federazioa, federazioaren utilitatea, bestalde, jadanik frogaturik gelditu da. Hara nola: R.S.F.S.R.-ek beste Soviet Errepublikekin izan dituen harremanetan, esaterako (Hungria, Letonia, Finlandia aintzinatean; gaurregun Azerbaidjan eta Ukraina); R.S.F.S.R.-ek aurrez Estatu partikular bezela esistentziarik gabe ziren nazionalidadeekin eta autonomiarik gabekoekin ere molde hori bera erabili du. (Adibidez, Bachkiria eta Tartaria errepublika autonomoak R.S.F.S.R.-ren barnean 1919 eta 1920 tarte hortan sortutakoak dira)⁵⁶.

Hirugarrenik kolonialismoa edo semi-kolonialismoa sufriltzen aridirenen nazional arazoa dadukagu, eta hau dugu autodeterminazioa aplikatu daitekeen bigarren kasoa. Zertan datza hemen autodeterminazioaren egitekoa ?

Sozialistek kolonietako nazio hauek beren buruaz aukeratzeko duten eskubidea onartu behar dute. Areago joanik, nazional askatasunaren aldeko burgesiaren demokratiko mugimenduetako **elemento** iraultzaileenak. sostengatu behar dituzte, beroiek zapaltzen dituzten inperialista potentzien aurka⁵⁷. Har kontutan, Leninek, **elemento** iraultzaileenekin bat egin behar dela diola eta inolaz ere ez nazional askatasunaren aldeko mugida berarekin. Eta Internazional Komunistaren egitekoaz ari delarik, honela dio: herrialde atzeratuetako eta kolonietako burgesiaren nazional demokratiko mugidak sostengatuko ditu, baldin, etorkizuneko proletargoaren partiduko elementuak

⁵⁴ Ikus: «La Révolution socialiste et le droit des nations», orr. 12-13.

⁵⁵ Ikus : ibidem, or. 8.

⁵⁶ Ikus : «Première ébauche des thèses... », or. 25.

⁵⁷ Ikus : «La Révolution socialiste et le droit des nations», or. 13.

herrialde atzeratu guztietan batuz gero, eginkizun espezifikuetan hezirik badaude. Internazional Komunistak herrialde atzeratueta eta kolonietako burgesia demokratikoarekin elkartze temporal bat egin behar du, taktikoa bera, baina ez da berarekin inolaz ere batuko⁵⁸.

Laugarrenik, inperialismareri menpean daudenen nazional arazoa dago. Hemen aplikatzen da autodeterminazioaren hirugarren kaso. Hau feudal-patriarkal ala nekazari-patriarkal tankerako harreman ekonomikoak dituzten nola nazio bakar ala askotako Estaduetan ematen da. Har dezagun kontutan zer diferentzia dagoen kolonialismaren pean dauden herrialdeetik beste hauetara, zeren haiek Estatu mailarik behin ere ez bait dute sekulan lortu ahal izan eta hauek, berriz, bai.

Kapitalisma aurreko egoera ematen den kasoetan, beraz, esplotatuenik diren nekazarien Sovietak sortzea da Internazional Komunistaren egitekoa⁵⁹.

Eta amaitzeko, Leninek bere lanetako bat bukatzeko erabiltzen duen frasa bera ekarriko dugu, Leninen marxisma hemen egoki biltzen dela bait deritzaigu:

«Kapitalismarekiko garaipena ezin lortu ahal izango da, baldin prolertagoak oro, orobat munduko nazio guztietako eta herrialde guztietako langile masa guztiak oro librokiki eikarganutzen eta batzen ahalegintzen ez badira»⁶⁰.

Proletargoaren egitekoak estrategia osotsen du eta gaineatikoa, nazional arazoa ere bai, aliantza edo taktika gauza da Lenin baitan. Halere, azken boladako bere idazkietan gaineatiko errealidade horri eta nazional arazoari batik bat, Leninek geroz eta balio eta garrantzi haundiagoa eman die bere politikagintzan.

⁵⁸ Ikus : «Première ébauche des thèses... », or. 29.

⁵⁹ Ikus: «Rapport de la Commission nationale et coloniale» or. 36.

⁶⁰ Ikus: «Première ébauche des thèses... », or. 30.

1.- B. STALIN eta U.R.S.S.

Stalin-i nazional arazoan eman ohi zaion sarrera politikoa arras bortitza dela, hau mundu guztiak daki eta ez bide du nehork dudatan jartzen. Abertzaletasuna bidegurutze bilakatu den herrialde orotan, esanen genuke han dagoela Stalin-en giltza teorika, anitzetan praktikoa ere bai, aterabide urratsetan hankak bota ordukoxe. Horrela gertatzeari ez derizkiogu batere harrigarri.

Stalin, hain zuzen ere, lehen herri komunista batetako gidaritzan zuzeneko testigu izana da; gainera, kontuan hartzen bada, Stalin-ek berak terminologi anbibalentez dioen bezela, Errusiak bere baitan hogoi eta bi «errejio» edo «nazionalidadetik» gora daduzkala⁶¹, uste izateko arlo hortan maixutza irabazteko hainbat aukera ba zuela. Ez gaitezen ahantz lurraldearen eta biztanleen zabalera eta ugartasunaz:

«R.S.F.S.R.-ek 140 zituen guzira, eta hauetatik 75 milioi “Errusia-Haundikoak” ziren eta beste gainetiko 65 miloi biztanleak aterabide nazionalaren habetik zintzilika zeuden»⁶².

Stalin-en politikagintzak, bestalde, zenbait denboraz bederen, herri komunista guzietako martxa monopolizatu bezela zuen. Nola European hala Asian, Errusiako esperientzia inposatzen ahaleginduko da, modelotzat praktikatua izan dadin⁶³. Izan ere, garaiko politikagintza internazionalki bi bloke haunditan zatiturik kontsideratzen da. Alde batetik Sobietikoen Errepublikak bateratuak eta, bestetik, munduko indar inperialista guztiak⁶⁴.

Herri komunisten indarra zenbaiterainokoa zen neurtzeko, berriz, nahiko argibide litzaiguke, 1919 martxoan Moskun eginiko III-gn. Internazionalakoan zenbat herritako Alderdi bildu ziren begiratzea: hogoi eta hamabots doi-doia, Sortaldetik eta Sartaldetik etorriak⁶⁵. Zentzu honetan, beraz, Errusiako iraultza inposamendu internazional batean lekutzen zaigu, honela politikamolde unibertsalistaren traza guztiak bereganatzen dituelarik. Eta zer esanik ez nazional arazoari dagokionean.

Iraultza honen modela, berriz, hor dago emanik:

⁶¹ Ikus: «Oeuvres de J. Staline », Editions Sociales, Paris, Traduction par Georges Cogniot, 1950 ; V-gn. tomoan (1921-1923), « X^o Congrès du P.C.R. » atalean, 44-gn. or.

⁶² Ikus: ibidem, «Les tâches immédiates du P.C.R.», 30-gn. or. ; orobat, 125-gn. or.

⁶³ Ikus: ibidem, «Le régime soviétique et la question nationale», 27-gn. or.

⁶⁴ Ikus: ibidem, 28-gn. or.

⁶⁵ Ikus: «Manifestes, thèses et résolutions des Quatre Premiers Congrès mondiaux de l'internationalisme Communiste 1919-1923», Maspero, 5-gn. or.,

«Munduan zehar zenbait talde etniko eta nazioen arteko alkartasun anaikor eta pakezko kohesistentziaren esperientzia onik atera tzen duen bakarra R.S.F.S.R. dugu, zeren hemen ez bait dago ez nazio dominatzailerik eta ez nazio zapalduerik, ez metropoliorik eta ez koloniarik, ez inperialkeriarik eta zapalkuntza nazionalik»⁶⁶.

Ez dakigu gaur hau baiezteko ausardirik izanen lukeenentz. Hain zuzen ere, berak dakarren argudio historikoatik partiturik diogu hau:

«Historiak erakusten digunez, nazional ezberdintasunak kentzeko modu bakarra, herri zapaldu eta ez-zapalduen arteko langileria anaitasun batetan batzeko bide bakarra, kapitalisma kenduz gero, Sobietikoen errejimena ezartzea da, hots langileriaaren diktadura inposatzea, alegia»⁶⁷.

Nahiz-eta barruko eta atzerriko burgesia nazionalagandik aske izan, inperialismaren arriskuetatik ezin salba daitekeala judikatzen, politikoki eta ekonomikoki Sobieten Estadupera arrimatu ezik. Froga bezela, Hungria-ko kaso aipatzen da⁶⁸.

Azken ohar bat. Guk Stalin eta Lenin bakarka ematen ditugu. Halere, ba dago bion artean ezin ukatzeko komuntasun bat nazional plangintzako alorrean. Eta Stalin-en pentsakera airean haizatu ordez, Errusia-ko iraultzaren gurdian sarturik ekarriko dugu, eta zenbaitetan Lenin-ekin batera ere bai. Zeren, gauza ezaguna denez, autore biok sarritan ari izan ziren lanean nazional arazoari buruzko ikuspuntuak gertutzen. Esate baterako, X-gn. Batzarrerako gertutu zen «nazional problemari» buruzko lana biek zuzendutako komisio talde batek aztertu zuen eta, gero Batzarrean, Stalin-ek aurkeztu zuen, bera bait zen «Nazional Arazoetako» buruzagia⁶⁹. Hortik dator, batipat, berari nazional arloan atxiki ohi zaion ohorea.

Hori dela-eta, bere ikusmoldea ahalik eta osotasunik bilduenean borobiltzea komeni zaigu, jakinik batez ere beragan dagoela urte luze eta herrialde hedatueta zehar praktikatua izan den «nazional» teoria politikoaren sakoneko basamendua.

I.- KONTZETO NAGUSIENEN AZALPEN A

a) Nazioa.

Hasieratik definizioari berari helduko diogu eta, gero, elemento bakoitzaren agerpenari lotuko

⁶⁶ Ikus: «Oeuvres de J. Staline », V-gn, tomoa, «Le régime soviétique et la question nationale», 30-gn. or.

⁶⁷ Ikus: « Oeuvres de J. Staline », V-gn. tomoa, « X^o Congrès du P.C.R. », 39-gn. or.

⁶⁸ Ikus: ibidem, or. 39-gn. or.

⁶⁹ Ikus: ibidem, «Les tâches immédiates du Parti dans la question nationale», 35-gn. or.

gatzazkio.

Zer den:

«Nazioa iraunkor den giza-alkarte bat dar historikoki hizkuntzaz, lurraldez, bizitza ekonomiko eta kulturazko giza-alkartea deitzen zaion izakera psikikoz horrela gorpuztu dena»⁷⁰.

Definizio edo mugaketa horri jarraituz, nahiko bistan dago nun ez dagoen aberritasunaren oinarria; oinarri hori ez dator «ez arrazatik eta ez tribuatik»⁷¹. Kontzeto hauk biologiari buruzko kategoria «etnografikoan» lekutzen dira. Eta Stalin-ek, Bauer-en kontra ari delarik, **nazioa** kategoria historiko bat dela esanen du, eta **tribua**, berriz, kategoria etnografiko bat. Ez dira nahasi behar, beraz⁷².

Honela, bada, edozein gizatalde-nazionalki oinarritua izan dadin, biologiako begirameinduetatik at, beste maila historiko batean aztertu beharko da aberritasunaren funtsa. Kasurako, eta diferentziak direfentzi, berdin litzake Afrika-ko beltza izan, edota Europa-ko zuria. Proba bezela arrazoiaketa hau dakar: gaur-egungo zenbait nazio arraza askotariko jendez osaturik dago: Frantzia, Italia, eta abar⁷³.

Beraz, Nazioa historian zehar halako gorputz berezi eta zehatz bat hartu duen gizatalde horietako bat da eta bere barne-egituran zenbait elemento bereizgarri eramango ditu. Orain berezitasun hauk aipatzera gatoz.

1) Giza-alkarte batek bere harremanen asentua gorde dezan, lehenik «iraunkortasuna» eskatzen da. Hain zuzen ere, jendea harat-honat badabil ibili, Inperioetako denboretan bezela, bistan dago egonleku normalik ez lukeela izanen horrela dabilen gizatalde herrek. Horregatik eskatzen zaio, bada, **iraunkortasuna** gizatalde horri⁷⁴.

2) **Hizkuntzaren beharra**. Eta hemen finkatzen digu Estatuaren eta Nazioaren arteko diferentzia. Nahiz-eta hizkuntza mota asko mintza gizatalde baten, halere posible dateke Estatuaren batasuna; aitzitik, nazio bat egin ahal izateko beharrezkoa epaitzen da hizkuntza «komun» bat

⁷⁰ Ikus: J. Staline, «Le marxisme et la question nationale», 1913, Editions Naim Frasher, Tirana, 1968, 13-gn. or.

⁷¹ Ikus: ibidem, or. 7.

⁷² Ikus: ibidem, or. 7.

⁷³ Ikus: ibidem, or. 12.

⁷⁴ Ikus: ibidem, or. 8.

edukitzea⁷⁵. Hizkuntza **komun** bat, dio. Komuntasan honek zer esan nahi ote du? Alkar-ulertzeko **bitartekotasuna** esan nahi du, zeren ez bait da eskatzen nazio hainbat hizkuntza⁷⁶. Euskara bezain mintzaira komun lirake, beraz, espainol eta frantsez hizkuntzak gure gaurko Euskal Herrian. .

3) Beharrezko da **lurralde** baten lekutzea. Lekuan lekukoak lotzen bait du gizonen bizimoldea, ezin gorde dezake sakabanaturik dagoen gizatalde batek benetako alkartasun-girorik, ezin senti eta ezin bizi aberri-ahaidetasunik, baldin ez bada bere lurraldean lekutzen⁷⁷. Esate baterako, juduoen aberritasunik-eza probatzeko argudio hau. bera erabilia izan da. Stalin-ek honela dio konkretuki:

«Arrazoa zera da batez ere, alegia juduoen artean ez dagoela lurrari atxikirik legokeen gizatalde iraunkor bat; eta lurra oinarrizten nazio bat, oinarritu ez bakarrik armazoi bezela, baita merkatu “nazionala” bezela ere»⁷⁸.

4) Alkarte **ekonomikoaren** beharra. Hau gabe ez legoke naziorik. Gizatalde baten barnean lotuta ekonomikoak erdi-desegiten badira, esaterako feudal-haro guzian zehar gertatu ohi zenez, esan daiteke han ez dagoela nazioa osatzeko biderik⁷⁹. Horrelako zerbaite jasoko zen Oinaztarren eta Ganboarren denborako Euskal Herri hartan.

5) Eta, azkenik, «izakera psikikoa». Elemento hau ez da behin betiko emana etortzen, gizatalde batek bere jatorrizko izakera betiko balekar bezela, ez: gizatalde bati bereizgarri zaion formakera psikiko honek denboran denborako kondizionamenduen soinetatik jazten du bere nortasun psikikoa⁸⁰. Aldakorra da, beraz. Bidasoako ur bustiek hitz egin lezakete hontaz zerbaite.

Honerarte mugaketaren azalpena. Orain hemendik jaulkitzen diren ondorio batzuk aipatuko ditugu.

Lehena. Gizatalde bat noiz bilakatzen den nazio jakin ahal izateko, printzipio hau ematen da, hots: mugaketa hortan emahdako elemento bakoitza behar-beharrezko gertatzen da eta osotara harturik bakarrik dute elemento horiek beren esan nahi jatorra⁸¹.

⁷⁵ Ikus: ibidem/or. 8.

⁷⁶ Ikus: ibidem, orr. .8-9.

⁷⁷ Ikus: ibidem, or. 9.

⁷⁸ Ikus: ibidem, or. 68.

⁷⁹ Ikus: ibidem, orr. .10-11.

⁸⁰ Ikus: ibidem, or. 12.

⁸¹ Ikus: ibidem, or. 14.

Stalin-ek ez du zuzenki esaten, nazioa kontzetuarekin egin duen bezela, gizatalde bat noiz bilakatzen den «nazionalidade eta noiz «nazio». Esaten duena da elemento guzti horik zehazki mugatu behar direla gizatalde baten «aberrri» kontzetoa aplikatu ahal izateko; beraz, arrazoin bategatik ala besteagatik, zehaztasun hori faltako balitz, gizatalde horri Nazio kontzetoaren ordean Nazionalidarearena legokioke. Hauxe ateratzen dugu zeharkako bidez, eta batez ere Kaukasia-ko nazional arazoaz teorizatzean ematen dituen arrazoinak kontsideratu ondoren⁸². Beste zenbaitetan berriz lehen sarreran aipatu dugunez, kidekotzat bezela darabiltz nola «nazionalidade» hala «errejio» kontzetoak.

Bigarrena. Springer eta Bauer-en kontra ari delarik, «nortasun nazionala» delako hori, bakarka harturik elemento hori, ez dela funtsezko elemento **determinatzailea** eta beste elementuak haren **kondizionatzaile soilki**, baiestuko du⁸³.

Beste pasarte batetan hau bera honela arrazoituko digu:

«Izpiritu nazionalik ez da existitzen, zeren zientziak, materialisma dialektikoaren bitartez, aspaldi erakutsi bait zuen ez dela eta ezin izan daitekeala izpiritu nazionalik. (...) Beraz, ez den zerbait lojikuki defenditzea absurdokeria bat da»⁸⁴. Zentzu honetan, beraz, nazional arazoaren ikuspuntua ezin daiteke galdera eta erantzun kategorietan sar. Arazoaren egoera beti baldintzaturik bait dator historian zehar, astakeria bat litzake horrela jokatzeko. Eguzkiaren ona ala txarra bezelatsu da, dio: on ala txar izanen da, segun-eta zein sasoiatarako⁸⁵.

Hirugarrena. Nazioa, fenomeno historiku bat izaki, ez gehiago eta ez gutxiago, bere izatea lege historikoaren zortera makurturik dago egon, nola bizirik irauteko hala hiltzeko⁸⁶. Herriak hiltzen badira beste nazio batetan integratzeko, begoz hor lurpean, baldin nazioarteko langilerien komenientzia hala bada.

b) Abertzaletasuna.

Bi zatitan bananduko dugu atal hau. Lehenengoan zenbat nazionalismo mota dagoen azalduko da eta, bigarrenengoan, Sozial Demokraziak nola definitzen dituen nazional errebindikazioak.

⁸² Ikus: ibidem, orr. 38-108.

⁸³ Ikus: ibidem, or. 14.

⁸⁴ Ikus: « Oeuvres de J. Staline », I-gn. tomoa, or. 55.

⁸⁵ Ikus: ibidem, or. 54.

⁸⁶ Ikus: « Le marxisme et la question nationale », Ed. Franschëri, or. 13.

1.- Hiru abertzaletasun-mota. Abertzaletasunaz zuzenki judikatzeke, hona hemen Stalin-ek zer dion:

«...historian zehar, haro ezberdinetako klaseari zegokion interes edo xede berezien pean planteatua izan da»⁸⁷.

Georgia-ko klase azterketari lotzen delarik, aberri arazoaz hiru ikusmolde bereizten dizkigu.

a) Erregezale eta feodalen abertzaletasuna. Hauen abertzaletasuna Nobleziak Georgia Errusiarekin alkartzera galduta zituen pribilejioen eskabideetan oinarritzen zaigu. Bankaetxeen eta merkatuen sortzearekin batera hiri eta nekazari gizartetan sendotzen datorren klase-burrukak itoko dute mugimendu hau⁸⁸. Bainan erabat pott egin aurretik bitan zatituko da: batzuk, negozioen irabazpideak zirikatuz autokratekin alkartzeko dira; beste taldekoak, berriz, klerikalismoaren babestuko dira⁸⁹.

b) Burgesiaren abertzaletasuna. Georgia-ko burgesia gazteak «atzerriko» kapitaldunen kompetentzia somatzen duenean, Georgia independentearen alde aldarrikatzen du nazional demokrateen ahotik. Eta aberriaren izenean langileriari dei eginik, «atzerriko» txupazaleari muga nazionala kontrajarriko dio⁹⁰.

Bainan nazionalismoa mota hau ere laster joango da pikutara. Alde batetik, Errusiako, Georgiako eta Armeniako langileria alkartzuz gero, marxistak indartsuago agertuko dira; eta, bestetik, Errusiako eta Georgiako burgesia aurreratuen artean ekonomiazko alkatua ematen etorri delako, burgesia hau batasun ekonomiko eta politiko batetara iristen dira⁹¹.

d) Langileriaren abertzaletasuna. Errusia-ko langileriaren interesak batetik eta Tsaren autokrazi-errusoarenak bestetik alkarren artean kontrajartzeak erakutsiko digu hobekien zer-nolakoa den hirugarren mota hau.

Hona hemen langileriaren interesak zein diren: langileak oro alkartzeko, nazionalidadeekiko ezberdintasunari begiratu gabe, alkartzeko ere, eta mugak zokoratuz. Esaterako: errusoak, georgianoak,

⁸⁷ Ikus: « Oeuvres de J. Staline », I-gn. tomoa, 1901-1907, « Comment la „Social-Démocratie comprend-elle la question nationale ? », or. 40.

⁸⁸ Ikus: ibidem, or. 40.

⁸⁹ Ikus: ibidem, orr. 40-41.

⁹⁰ Ikus: ibidem, or. 41.

⁹¹ Ikus: ibidem, or. 43.

polonesak, juduak, armenioak, eta abar⁹².

Autokraziaren egitekoa, berriz, hauxe zen: Errusia-ko nazionalidadeen kultura nazionala zapaldu: ohiturak, egiturak, eta abar. Etsaigoak sortuz gero, muga nazionalak zaindituko ditu eginahalean eta langileriaren kaltetan.

Bi interesok kontrajarriaz gero, Sozial Demokraziak Honela lekutzen digu nazional arazoari buruzko egitekoa :

«...nola bota ote daitezke muga eta berezitasun nazionalak Errusia-ko iangileak geroz eta alkartuago izan ditezten?»⁹³.

Galdera honekin plantatzen da langileria abertzaletasunaren aintzinean. Asko esan nahi duen galdera iruditzen zaigu hauxe!

2.- Abertzaletasunaren elemento osatzaileak. Orain, hemen, Sozial Demokraziaren klase ikuspegitik aztertutako nazional arazo honen elemento osatzaileak zeintzuk diren ikusiko dugu.

Lau elemento aipatzen dira.

a) «Errusia-ko nazionalidadeen berdintasun zibila», eta honek programako 7-gn. artikulok dakarrenez hauxe esan nahi du:

«Berdintasun osoa herritar guztientzat, erlijio, sexu eta arraza mailan eta nazionalidade mailan, ezertan berezitasunik gabe»⁹⁴.

b) «Errusia-ko nazionalidadeentzat hizkuntzaren askatasuna». 8-gn. artikulok honela dakar:

«Herri-hizkuntzan eskolatua izateko eskubidea, hontarako beharrezko diren eskolak sortuz Estaduaren eta administrazio autonomoaren bitartez; batzarretan beren hizkuntzan mintzatzeko eskubidea, Estaduaren hizkuntzaren pareko delarik edozein leku publikotan eta administrazioko lekutan»⁹⁵.

⁹² Ikus: ibidem, or. 43.

⁹³ Ikus: ibidem, or. 43.

⁹⁴ Ikus: ibidem, or. 49.

⁹⁵ Ikus: ibidem, or. 49.

d) «Errusia-ko nazionalidadeentzat autonomia administratiboa», zeren, onarturik Errusia-ko Estadu pean ba dagoela zenbait berezitasun eta egitura berezi, hauen komenientziarako da 3-gn. artikuloa:

«Estaduaren konstituzio jenerala norberak aplika beza aprobetxagarrien zaionez»⁹⁶.

e) Nazionalidadeen «kultura nazionala» ere onartzen, baina kondizionalki.

Aurreneko hiru elementuetan zentralkeriazko politika markatzen zen; eta hau bi arrazoiagatik.

Lehenengoa: orduko bilakakera ekonomikoak «ertzekaldeko nazionalidadeak Errusia-rekin» lotzen dituen zubi bat zabaldu du.

Bigarrena: langileriak, printzipio orokor bezela, ez bide du sostengatu ohi «nazional separakuntzarako» mugimendurik, zeren mugimentuok, ordurartekoan behintzat, burgesiaren faboretan gertatu bait dira⁹⁷. Baina honek ez du esan nahi beti horrela gertatuko denik. Horregatik, oraingo baldintza ekonomiko eta politikoak hortaratzen dutenez gero, burgesia, aurrerazalearen mugimentuok noizpait eta «ebentualki» langileri-konziientziaren onetan bilaka balitez eta «separakuntza desira», ordurako litzake «kultura nazionalari» buruzko 9-gn. artikuloa. Batez ere, zer gertatukoaren usmotan ematen den «zuhurtasunaren» adierazle dugu numero hau⁹⁸; ebentuala, beraz.

Hemen ekarri ditugun lau elemento hauk, langileriaren onerako izanik, klase-eskabidearen izakera daramate; eta zentzu honetan ez da atzematen hor «interes nazionalik», langileriaren konziientzi-klasearen onerako ezik⁹⁹.

Abertzaletasunari buruzko begirada zabal hau egin ondoren, gatozen «kultura» kontzetoaren mugatzera.

Demagun lehenik **kultura** kontzetoaren beraren testuingurua. Stalin-ek: Kaukasia-ko nazio arazoaz jarduten duenean aztertzen du arlo hau, Likis-ek deidurakoek¹⁰⁰ proposatutako

⁹⁶ Ikus: ibidem, or. 50.

⁹⁷ Ikus: ibidem, or. 52.

⁹⁸ Ikus: ibidem, or. 48.

⁹⁹ Ikus: « Le marxisme et le question nationale. ». Edt. Franshïri, or. 121.

¹⁰⁰ «Likis»-en deidurakin «mentxebiken» talde politikoa izendatzen da. Trotski buru zelarik, 1912-ean Viena-n egin zuten Batzarraz ari da.

antolaketaen kontra ari denean, hain zuzen ere.

Likis-en proposamenduak honela zion: Kaukasia-ko lurralde osoarentzat «autonomia errejionala» proposatzen da eta Kaukasia barneko nazioentzat, berriz, «kultur nazionala» deituriko autonomia. Stalin-ek ez du onartzen plangintza hori. Zergatik ote? Beste arrazoin batzuren artean, eta kaso konkreto honetan, Stalin-ek berak kulturaz beste pentsakera bat duelako, noski.

Stalin-en aburuan, bi kultura mota ematen dira. Bati «aurreratua» deitzen dio eta besteari «atzeratua». Bereizkuntza honen neurria jakintzaren aurrerapenean datza. Adibidez, «atzeratua» izanen da literatura propiorik ez duen hizkuntza, edo beste kultura batetatik xurgatzen duena, edo beste kultura nagusiago batek erdi-bereganaturik dadukana, edo pentsamolde atzerakoiekin bizi dena, eta abar. Honelako zerbait ikusi bide du Kaukasia-ko nazioetan eta, bidenabar, hau proposatzen du:

«Kaukasia-ko nazional arazoa ezin erabaki daiteke nazio eta herri atzeratuek kultura nagusiago baten arrastorik bideratu ezik. (Azpimarkatua, gurea.) Hauxe da Sozial Demokraziak aurrerapiderako onar dezakeen bide bakarra»¹⁰¹.

Euskal-kulturaz zer esango ote zukeen? Levi-strauss-en «Race et Histoire» gainbegiratu duen edozeinek, esaterako, gutxienik zalantzan jarriko luke testo hortako baiezkuntza.

Printzipio gisan, ondorio hau ateratzen da hemendik: nazio bateko kultura benetazko kultura «aurreratua» bilakatzen ez den bitartean, alperrikako nazio arazoa autonomia mailan planifikatzea, zeren, horrela jokatuaz gero, pauso bat aurrera eman ordeztatera ematen bait da.

d) Autodeterminazioa.

Zer den: «Nazioek beren buruez jabetzeko duten eskubidea» da autodeterminazioa. Begira hontaz zer dion, oraino zehatzago:

« ... nazioak, berak bakarrik du bere zortiaz erabakitze eskubidea, ez daduka nehorik nazioaren bizitzaz bortxaz sartzeko eskubiderik, ezta ere hizkuntzan mintzatzen galerazteko eta bere eskubideak oinperatzeko inolako eskubiderik»¹⁰².

¹⁰¹ Ikus: ibidem, or. 95.

¹⁰² Ikus: ibidem, or. 32.

Eta oraindik gehiago zehaztuz, ikus dezagun autodeterminazio honek zenbat posibilitate mota eskeintzen dituen nazioen beren buruekiko askatasunaren soluziobide bezela:

«Nazioak autonomiazop printzipioaren arabera gobematzeko eskubidea daduka. Federaziozko harremanen bitartez beste nazioekin alkartzeko eskubidea ere ba daduka. Baita erabat separatzeko eskubidea ere. Zeren, nazioa bere buruaren jabe bait da, eta nazioak oro dira eskubidez berdinak»¹⁰³.

Testo hau jarraiki, hiru ate zabaltzen zaizkio nazio bati bere hautamena egin orduan, hots: autonomiarena, federazioarena eta separakuntzarena. Hauetatik edozein hauta daiteke, printzipioz eta teori mailan behintzat. Printzipio hau onartuaz gero, halabainan, ba da beste **baldintzazko** printzipio bat ere. Hau ezin banandu daiteke beste harengandik. Eta baldintzazko printzipio honek askatasunerako zein den aterabiderik egokien eta justuena, galdatzen du. Eta erantzunari gagozkiola, emanik nazioa bere buruaren jabe dela, halere, nazioak berak ez bainan Sozial Demokraziak erabakiko du zein eskabide behar den onartu eta zein ez, zeren Sozial Demokraziak juzga bait dezake zein den langileriaren politikazko jomuga eta zein burgesena. Hemen garbi ageri denez, beraz, nazioaren mugabako printzipio hari arras zehatza den baldintzazko kontra-jartzen zaio. Garbiago esanda: Sozial Demokraziaren azken hitzak baldintzatzen du erantzunaren nolakoa¹⁰⁴. Sozial Demokrazia nazioaren autodeterminaziorako eskubidea, printzipio mailan bakarrik defenditzera mugatzen da¹⁰⁵.

Lehen esan den bezela, baldin autodeterminazioa berez absolutoa bada, nondik datorkio baldintzazko mugaketa hori? Stalin-ek berak esplikatuko digu beste pasadizu batetan bi printzipio horien arteko bereizkuntza zertan dagoen. Dio: ez da gauza bera alde batetik «nazioen eskubidea» eta, bestetik, Sozial Demokraziak dadukan antolaketaren «esan nahi zehatza», zeren ba dagoz egon zenbait eskabide, nazioaren partetik «eskubide» horren kontra joan gabe, halere antolaketa edo programazioaren «esan nahi zehatzaren» kontra zuzenki doazenak¹⁰⁶.

Etsenplu batez esateko: nazlo batek edozein erlijiotarako «eskubidea» berekin duelako, Sozial Demokraziak eskubide hori kontutan hartuko du, eta zaindu ere zainduko du errespetatua izan dadin; bai nan, une berean, eskubide berberaren kontra burrukatuko da programazioaren «esan nahi

¹⁰³ Ikus: ibidem, or. 33.

¹⁰⁴ Ikus: ibidem, or. 33.

¹⁰⁵ Ikus: ibidem, or. 33.

¹⁰⁶ Ikus: ibidem, orr. 100-101.

zehatzaren» kontra bait doa¹⁰⁷.

Behin hontara ezkerro, honako galdera datorkigu saltoka: zertan ote datza Sozial Demokraziaren nazional arazoari buruzko antolaketa zuzen eta zehatz hori?

Abertzaletasunaz mintzatu garenean, galdera horren alderdi bat bakarrik ikertu dugu. Orain, autodeterminazioak eskeintzen dituen hiru aterabideak aztertuko ditugunean, galdera beraren beste alderdiarekin topatuko gara; eta lanaren bukaeran, agian, erantzun zehatzago batekin.

1.- Autonomia.

Ez dakar autonomiari buruz definiziorik. Zeharka inguratzen zaio problema honi. Autonomia nazionalaren modela proposatzen duten autoreen testo-inguruan oinarrituz jardungo du. Honela, Austria-ko nazional arazoaz ari delarik, Springer eta Bauer-ek egindako plangintzaren gain abiatuz egingen du bere kritika.

Austria-ko Sozial Demokraten postura hau zen; Bertako nazioen askatasuna (Polonia-koa, Txekoena, eta abar) Estatu bakar baten batasun pean plan-egiten zuten, hor barruan nazio bakoitzari bere autonomia nazionala emanaz. Beraz, Estatu bakarra eta nazio asko. Nazioen barne-egitura egiteko, berriz, ez da erabiliko «lurraldearen» kriterioa, pertsona libreen alkartearena baino. Hontarako, hots, han eta hemen sakabanaturiko abertzaleek nazio pean bil zitezten eta, elkarganatu gero, heuren kultur-nortasuna ardietsi zezaten, «autonomia nazionala» izeneko egitura politikoa proposatuko da aterabiderik bidezkoena bezela. Hemen «autonomia nazionala» nazioen autodeterminazioari emandako aterabide praktikoa bat bezela azaltzen zaigu. Besterik gabe testoiari berari lot gatzazkion Stalin-ek jokabide hori nola epaitzen zuen ikusteko:

«Begien bistan dagoen lehen gauza zera da, alegia ezin ulertuzko gauza dela, ezin justifikatu litekeen gauza, nola nazioek beren buruez jabetzeko duten eskubidearen lekuan «autonomia nazionala» jartzen den»¹⁰⁸.

Zergatik? Autonomiak, Stalin-en ustez, autodeterminazioaren mugatze bat suposatzen duelako. Mugatze hau bi modutara ematen da. Lehenengo: jokabide horrek Estatuaren batasuna inplikatu du. Bigarren: Askatasuna «kultur» barrutira soilki hertsitzen du¹⁰⁹. Gainera, lurraldeari eta lekuan lekuko jendetzari begiratu gabe, han-hemengo pertsona sakabanatuen alkatetz osaturiko nazioaren

¹⁰⁷ Ikus: ibidem, orr. 101-102

¹⁰⁸ Ikus: ibidem, orr. 58.

¹⁰⁹ Ikus: ibidem, orr. 58-59.

egitura «artifizialtzat» hartzen da¹¹⁰, zeren kapitalismaren bultzada pizkorrak joera gehiago bait du jendea barreiatzeko «nigrazioaren» poderioz, alkartzeko baino. Eta migrazioak giza-konposizio berri bat dakar asimilazionalismaren problemarekin batera:

«Emigranteek galtzen dituzte beren antzineko harremanak; ezarritako leku berrian beste harreman berri batzuk hartzen dituzte, belauenez belau ohitura eta gusto berri batzuk bereganatzen dituzte, eta agian hizkuntza berri bat ere bai»¹¹¹.

Bestalde, eta hau Marx-en testo bat konfirmatu nahiz-edo dakar¹¹², klase-burruka gizentzen doaken neurrian nazioetako mugak ere izkutatzen doazke, hala erakusten bait du gizartearen martxak:

«Honeia, bada, “gizadia zatiturik dagoela nazionalki mugatutako gizartez” dion Bauer-en profetia hori, egungo gizadiaren bilakatze abiadak gezurtatzen du. Nazional-mugak gogortzen ordez, desegiten eta erortzen dator etorri»¹¹³.

Hemen profetia bati beste profetia batekin erantzuien zaio, bainan oraino kapitalisma zutik dago, baita aberri arazoa ere, eta edonun. Ohar honekin konstatazio bat bakarrik egin nahi izan dugu, eta egin dugu Stalin-ek autonomia nazionalaz zer pentsatzen zuen ikus eta aus nar dezagun.

Stalin-ek autonomiaren aurrean dadukan postura arras bikoitza da. Ba daki, ordea, ondo jakin ere nundik nora doan. Pundu hau batez ere autonomia «nazionalari» bere autonomia «errejionala» kontrajarriko dionean agertuko da garbiago.

2.- Federalisma.

Federalismaren aurrean hartuko duen jokabidea ere antzekoa da. Bere politikagintzako lehen partean kontrako agertuko zaigu eta, gero azken aldera, aldeko; halere, une bakoitzean nazional arazoaren plangintzan ardatz berdina gordeko du.

a) **Kontrako arrazoiak**¹¹⁴. Hasieratik esan dezagun, autonomia nazionalarekin bezela, federalismarekin ere, problematikaren asaldatzea zergatik praktikoetatik datorrela. Oraingoan Armeniako Sozial Demokrata federalistek nazional arazoaz dakarten honako proposamendu dugu

¹¹⁰ Ikus: ibidem, or. 59.

¹¹¹ Ikus: ibidem, or. 60.

¹¹² Ikus: ibidem, or. 63.

¹¹³ Ikus: ibidem, or. 63.

¹¹⁴ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», I-gn. tomoa, 43-gn. Or.

kezka-iturri, hots:

«*Nazional Alderdi ezberdinak sortu behar dira, eta hauk gero Federazio libro batean alkartu*»¹¹⁵.

Stalin-ek ez du onartzen horrelakorik. Hasiera-hasietatik «erdikakoi» deklaritzen da eta Errusia guzira «bakarra izanen den Alderdia» baizik ez du defenditzen¹¹⁶. Gainera, haren ustez, federalismoa honek ba du beste oker praktikoa bat: Errusia-ko langileri osoaren ikuspegi komuna eta interesen berdintasuna predikatu ordez, batez ere, «nazional diferentzietan» finkatuz hain zuzen ere, nazionalitate ezberdineko langileak alkarrekiko zertan **bereizten** diren pinduak kargatzen dute Armenia-ko federalistek¹¹⁷. Bide honek, dio, goiz ala berandu, Armenia-ko langileria burgesiaren jokoa egitera behartuko du¹¹⁸.

Areago joanik, 1917-gn. urtean emandako arrazoi praktikoez aparte, orain teoriako saiakera bat egiten ahaleginduko zaigu. Eta hontarako aitzaki aproposa, Jos Okoubitch jaunak, Ameriketako 1776-eko esperientziaren oroitzapena ekarriaz gero, Errusia-ri buruz egiten duen Estatu Federal baten plangintzaren proposamenduan aurkitzen digu¹¹⁹.

Federalismaren esperientzia eman den herrietako kasoaren (adibidez, Ameriketako, Kanadan eta Suizan) eta Errusia-ko egoeraren artean ez dago, dio, analogiaren izpirik. Hona proba batzuk.

-Ameriketako kasoan, esaterako, federalismaren bilakakera honela joan zen. Prozesu hau errejio edo kolonia independente izatetik hasten da, gero federazio batetara pasatzen da eta, azkenik, Estatu «unitario» edo bateratu batetan finitzen da. Kaso honetan erabat arrazoiezko deritzaio Konfederazioaren alkatze hori zeren horrela lehen posible ez zen batasun ekonomiko eta politiko oinetara iristen bait da¹²⁰. Bainan Ameriketako modela Errusia-ri aplikatu nahi izatea guztiz negatibo litzake eta arras atzerakoa, zeren hemen, dio, ertzealdeko eskualde edo errejioek Errusia-ko barnearekin dituzten ekonomiazko eta politikazko loturak apurtzea suposatuko bait luke¹²¹.

Ba da oraino beste diferentzia bat. Ameriketako, Kanadan eta Suizan erabilitako federazio-

¹¹⁵ Ikus: ibidem, or. 43.

¹¹⁶ Ikus ibidem, or. 44.

¹¹⁷ Ikus ibidem, orr. 44-45.

¹¹⁸ Ikus: ibidem, or. 45.

¹¹⁹ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», III-gn. tomoa, 1917, «Contre le Fédéralisme» atalean, 30-gn. or. Okoubitch-en artikuloa 1917-1918-ean agertu zen «Dielo Naroda» egunkarian.

¹²⁰ Ikus: ibidem, or. 32.

¹²¹ Ikus: ibidem, or. 32.

kriterioa, «muga nazionalakoa» ez baizik «geografikoa» zen; hemen, aberri talde baino Estatu gehiago dago. Errusia-n, berriz, autonomo bilakatzeko gai diren errejiok (adibidez, Ukraina, Transkaukasia, Siberia, Turkestan, eta abar), berezitasun geografikoz aparte, konposizio nazional berezi batez markaturik daude¹²².

-Esanikoetatik datorren funtsezko ondorioa, zalantzarik gabe, kapitalismaren bilakatzearena dugu. Ekonomi-indarrak **barnerantza** tiratzen duelarik, bistan dago batasunerako joera dakarrela bere erraietan. Beraz, hala bait da kapitalaren bilakakera, federalismaren gorpuzkera ezin izan daiteke «pasadizuzkoa» besterik¹²³. Historikuki probaturik dago, dio, alegia federalismak bete duela «momentuzko» bere misioa¹²⁴.

Kontuan har dezagun Stalin-en argudioek zentralkeriaren pean dauden nazionalidade guztien etsaigorik gabeko batasuna suposatzen dutela; ahaztu egin zuen, ordea, alegia benetako herri-alkarte batek, ekonomiazko eta politikazko eragipen eta baldintzetatik aparte, beste zedozer gehiago ere eskatzen duela, arestian ikusiko denez.

b) **Aldeko arrazoinak**. Hain zuzen ere, 1918-ean federalismaren aldeko itzuli kurioa egiten duenean, honela arrazoituko du bere aldaketa:

«Beharrezko eta posible da Federaziozko gobernu-moldea, zeren Errusia-ko “errejiok”, aintzinateko agintari tsaristen obraz eta graziz, zentralkerira bortxatuak izan bait dira, orain askatasuna nahi dute»¹²⁵.

Stalin-en ustez, ba da garantiarik indarrez ezarritako «unitarismo» hori, arian arian, Errusia-ko herri eta nazionalidade guztien arteko **unitarisma sozialista** bat bilaka dadin. Nola? Federazioaren bitartez¹²⁶. Garanti honen giltza honetan dago: Ameriketako federalisma burgesiaren lana izan zen bezela, Errusi-an politikagintza proletargoaren eskuetan dago¹²⁷.

d) **Aldaketaren egiazko arrazoia**. Stalin-en federalismaren aldeko eta kontrako jokabidea besterik gabe hor utz bageneza, nahaskuntza penagarri bati emanen genioke leku; eta hau ez da

¹²² Ikus: ibidem, or. 32.

¹²³ Ikus: ibidem, or. 32.

¹²⁴ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», IV-gn. tomoa, 1917-1920, «L'organisation de la

¹²⁵ Ikus: ibidem, or. 67.

¹²⁶ Ikus: ibidem, or. 76.

¹²⁷ Ikus: ibidem, or. 67.

or. 1924-ean egiten du ohar hau.

zilegizko, batez ere egileak berak bere jokabideren aztarnak ematen dizkigunean.

Aldaketa honen sakoneko arraz'oaia justifikazio teorikoan baino gehiago halabeharreko **derrigortasunean** dagoela, uste dugu. Stalin-ek, beretzat, federalismari buruz Alderdian «eboluzio» bat egon zela, esaten du¹²⁸. Guk, aitzitik, «eboluzioaren» ordez borondatearen kontrako **inposamendua** gustoago ezarriko genuke. Zergatik? Gertaerak gainezka eginik, bazter guztietatik erabat gaindituak aurkituko zirelako. Hitzez hitz:

«Mugimendu nazionalak uste izan zen baino indar gehiago hartu zuen eta nazioen batasuna korapilatuago bilakatu zen»¹²⁹.

Areago oraindik, Federalismaren kontra egotea ez dirudi pasadizuko gertakari galdu horietako, bat zenik, ez. Alderdian mugimendu abertzaleen kontra zegoen giroaren adierazle dugu jokabide hori. Testo honek hala ematen du aditzera argi eta garbi:

«Iraultzaren lehen haroko gobernuak, nazioen askatasun osoruntz jo ordez, inongo zalantzarik gabe, sarri askotan, mugimendu nazionalak birrintzeko neurri zapaltzaileak hartzen ditu, esate baterako Ukraina eta Finlandia-rekin jaso zen bezela»¹³⁰.

Bi protagonista ditugu egiteko honetan guztiz aipagarri: Lenin eta Stalin. Biak genituen nazional arazoetan lehen aintzindari, eta Stalin-ek berak dakarren Lenin-en testo batetik partiturik (1913-ekoa da), laster asko konturatuko gara bien artean ez zegoela horrenbesteko diferentziarik:

«Gu federazioaren kontra gaude; eta printzipioz gaude gainera kontra, zeren-eta harreman ekonomikoak ahultzen bait ditu; ez du deus balio Estadu batu batetarako»¹³¹.

Testo honen zentralkeria begien bistan dago. Aldaketaren arraz'oaia, beraz, printzipioan eboluzioan baino gehiago, gertaerak hala beharturik, politika mailako eskabideetan dagoela, iruditzen zaigu. Beste modu batera esanda: federalismaren kontra baino gehiago, azken funtsean, federalismak zekarkeen separakuntzaren kontra zeuden egon nola Lenin hala Stalin. «Soluzioak» izeneko atalean agertuko da hobekiago zeinen otxana den eta zeinen arriskurik gabekoa federaziozko molde politiko hori.

¹²⁸ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», III-gn. tomoa, «Contre le Federalisme», 34-gn, «République' Fédérative de Russie» atalean, 71-gn. or.

¹²⁹ Ikus: ibidem, or. 37.

¹³⁰ Ikus «Oeuvres de J. Staline», IV-gn. tomoa, «Intervention du IIIe Congrès», 36-gn. or.

¹³¹ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», III-gn. tomoa, «Contre Fédéralisme», 34-gn. or.

3.- Separakuntza.

Autonomia nazionalaz eta federalismaz arizan garenean, nahiko larrutsik gelditu da autodeterminazioaren «separakuntzarako» posibilitatea. Zentralkerira eta mugen izkutatzera zertzen zen haien egitekoa. Gainera, Stalin-ek, sarri askotan bederen, «autonomia nazionala» eta «federalisma» kontzetuok kidekotzat erabili ohi ditu, «edo» bat tartekatzen duelarik. Zer esan nahi du honek? Bi kontzetuok, garaiko politikarien artean zuteri eraginez, separakuntzaren diztira berbera dutela, nunbait. Honen adierazgarri bezela testo bat hautatzen dugu:

«Estabaidagarria izanen da, organizazioari gagozkiola, federalismaren eta autonomia kultur-nazionalaren artean hari lojikorik ba dagoenentz arazoa. Bainan gauza zihurra da, halere, azkenengo honek mugabako federalisma-giroa sortzen duela eta bere joera separakuntzaraino doala»¹³².

Eta ondoren proba bezela hauxe dakar:

«Austria-ko Sozial Demokraziaren historiak eta Enrusia-ko Bund-zaleen ekintzek klarki ematen digute esandakoaren testigutza»¹³³.

Hungria-ko esperientziaz ere gauza bera dio¹³⁴.

Separakuntza, azkenik, eta hemen dago erreserba guztien eztena, pozo hilgarriaren pareko bilakatzen da langileriarentzat:

«Ba dakigu gizartea nazionalidadeei dagokienez mugatzeak zer ondorio ekartzen dituen. Langileri bakarraren Alderdia desegin egiten du; sindikatoak nazionalidade bakoitzari dagokionez dibiditzen ditu; nazional hasarreak sortzen ditu; beste nazionalidadeetako langileak saltzen ditu; Sozial Demokraten arteko morala erauzten du»¹³⁵.

Euskal Herriko marxista batzuek gauza bera errepikatu dute azken denboraldi hontan, testo hori buruz balekite bezela. Gauza bitxia!

¹³² Ikus: «Le marxisme et la question nationale», Edt. Franshïri, 113-gn. or..

¹³³ Ikus: ibidem, or. 114.

¹³⁴ Ikus: «Ouvres de J. Staline», V-gn. tomoa, 312-gn. or.

¹³⁵ Ikus: «Le marxisme et la question nationale », Edt. Franshïri, or. 114.

II.- ETAPAK. ABERTZALETASUNA NOIZ ETA NOLA SORTUA DEN

Goiko izenburu horren garrantzia benetan da haundia. Stalin hor oinarritzen da gehienbat aberriari buruzko bere ihardunetan.

Hona hemen zenbait puntu sarrera gisa...

«Nazioa» kontzetoa garai konkretu batetako kategoria historiko bat da, une berezi batean eta historiaren jakineko fase batean sortua izan den kategoria kontingente bat. Hain zuzen ere, abertzaletasunaren garai konkretu hori «feodal-harotik kapitalisma-haroko» pasadizu hortan lekutzen da¹³⁶.

Funtsean, abertzaletasunaren sorreran arrazoi **ekonomiko** bat dago, hots, **merkatuaren** kompetentzi-eragina. Bi talde daude merkatuaz nagusitu nahiezko burrukan interesaturik.

Alde batetik goi-burgesia dago. Honek agintzen du dominatzaile den nazioan. Hori dela-eta, **zapalkuntzaren** joku politikoa praktikatu du, merkatuan bere nagusigoa gorde ahal dezan¹³⁷.

Bestaldetik burgesia gaztea dago. Zapaldurik dagoen nazioan agintera igo nahi duen klasea dugu hau. Horregatik, hain zuzen ere, **askatasunaren** aldeko politikaruntz bideratzen da, hontarako indar herrikoiak burrukara deituz «aberi» ikurrinaren interesetan. Halabainan, burgesia honen azkenengo eta zinezko interesa merkatuan indarra hartzea da.¹³⁸

Merkatuaren aurrean helburu berdina agertzen badute ere bi taldeok, politika mailan ez dute berdin jokatu. Bainan, dena dela, zutik dago abertzaletasuna merkatuaren seaskan mutikotu zela dion printzipioa:

«Merkatua: hara hor burgesia gazteari dagokion funtsezko arazoa. Honetan datza bere helburua : bere merkantziak mugi arazi eta beste nazionalidadeen arteko salmenta-txapelgoan garaile irten. Hortik datorkio bere merkatu «propioa», «nazionala», atxiki nahia. Merkatua da burgesiak lehenik abertzaletasuna ikasi zuen eskola»¹³⁹.

Sarrera hau eginaz gero, abertzaletasunaren etapak hiru alditan mailatuko ditugu, Stalin-en

¹³⁶ Ikus: ibidem, 22-gn. or. ; orobat, «Oeuvres de J. Staline», V-gn. tomoa, «Les tâches immédiates du Parti dans la question nationale », 24-gn. or.

¹³⁷ Ikus: «Le marxisme et la question nationale» Edt. Franshüri, or. 26.

¹³⁸ Ikus: ibidem, or. 27.

¹³⁹ Ikus: ibidem, orr. 25-26.

dakarrenez¹⁴⁰.

1.- Feodal-harotik kapitalismora bitartekoa.

Sartaldeko Europa-n kapitalisma hazitzen eta feodalisma urtutzen zihoazen heinean, nazio berri batzuk gorpuzten hasi ziren.

Nazio berri hauen gorpuzkerak, Sartaldeari gagozkiola, ba du bere marka berezigarri bat. Hots: hemen, nazio bakoitzak bere Estadia du. Esate baterako: Frantziak, partzialki Alemaniak, Italiak, Inghaterrak; eta aparteko kaso bezela Irlanda izendatzen digu Stalin-ek.

Sortaldean, ordea, ez zen horrelakorik gertatu; hemen, nazionaladerik indartsuena zen Estaduaren azpian beste nazionalidade batzuk zeuden; eta hauek, jakina ez zuten beren Estadurik.

Zergatik ote horrelako kontrastea Europaren barruan? Honela erantzungo zaio galdera horri: alde batetik Sortaldeko partean kapitalisma indarge zelako eta, bestetik, inbasioek mehatxaturik, Estadu erdirakoi batetan alkartu beharrean aurkitu zirelako bertako herrialdeak. Honela, adibidez, Errusia, Austria, Hungria. Bainan, gerora, nazionalidade hauk komertzioko ekonomi-bizitzara esnatuko direnean, aberri-mugimenduaren harmadarekin jeikiko dira Sortaldean, Irlanda Inghaterraren kontra altxatu zen bezela Sortaldean.

Beraz, Stalin-en ustez, abertzaletasunaren kaso ezberdinki ematen da Sortaldean eta Sartaldean. Sartaldean nazio bakoitzari bere Estadia dagokio; hauetan ez da ezagutu aberri zapalkuntzarik, zeren Estadu hauen pean ez bait zegoen «inportantzia haundiko» talde nazionalik. Lehen etapa hontako bereizgarririk handiena, beraz, kapitalismarekin batera sortutako nazio arazoa dugu.

Azterketa honetan agertzen diren aburu faltsoak lehen ere markatu bait ditugu, bereziki Lenin baitan, ez goaz ohar berak berritzera.

2.- Inperialisma-haroa.

Sartaldeko kapitalismak, Estadu nazionaleko mugak gaindituz gero, lehen materien eta esku-merkeen bila abiatu rik, hauzoko herri eta urrutikoetan barna egiten duen esplotazio-zapalkuntza dugu bigarren etaparen bereizgarri puntakoena. Hemen, Frantzia, Italia, Inghaterra-eta, Estadu

¹⁴⁰ Ikus: «Le marxisme et la question nationale», Edt. Franshñi, orr. 22-25; « Oeuvres de J. Staline », V-gn. tomoa, orr. 24-27 eta 36-38. Etapei buruz hiru leku hautan aurki daiteke zuzeneko erreferentzia.

«nazional» ez ezik «kolonial» ere bilakatzen dira. Estatu horiek berenganatu dituzten lurralde, berrietan praktikatzen duten zapalkuntza-mota, beraz, bizkia da, hots: une berean nazionala eta koloniala¹⁴¹.

Sortaldean, berriz, paraleloki, nazio menperatuen esnatzea dator. Txekoak, Polonia, Ukraina, Finlandia, Yugoslavia, eta... orain hasten dira esnatzen.

Inperial-guda ondoren, hastapeneko Estatu multinazional edo nazio-askotako desagitea dator eta Estatu nazional berri batzuen sorrera. Halabainan, Estatu berri hauk potentzi haundiko nazio dominatzaileen meneko geratuko dira¹⁴², batez ere militar eta diru aldetik¹⁴³. Bestalde, independente bilakaturiko Estatu nazionalok, klase-zapalketa erabaki ez dutelako hain zuzen ere, une berean heuren barruko nazionalidadeen proberparekin gelditzen dira¹⁴⁴.

Laburtuz: etapa honetako mugimendu nazionalaren matxinada bikoitza da: **koloniala** Sartaldean eta minori **nazionalena** Sortaldean¹⁴⁵.

3.- *Sobiet-haroa.*

Honek dakar, Stalin-en ustez, kapitalismaren eta zapalkuntza nazionalaren azkena. Honela dio:

«Nazio menperatzaile eta menperatuen zapalkuntza, orobat koloni eta metropolikoena, historiaren papertegian gelditzen dira»¹⁴⁶.

R.S.F.S.R.-ek nazional arazoari emandako aterabide politikoak urratzen du etapa hau eta, Stalin-ek dionez, nazionalidadeetan Errusi-Haundiarekiko legozkeen diferentziak oro, historiak erantsitako atzerapen ekonomiko eta politiko eta kulturei zor zaizkie¹⁴⁷.

Mailatze etapista honekin errez egiten zaigu nazional zapalkuntza zenbat modutara praktikatzen den bereiztea. Lau tipokera bereiz daitezke.

Lehen etapan, eta Europa-ri loturik, nazional arazoari buruzko bi politika molde daude:

¹⁴¹ Ikus: ibidem, or. 37.

¹⁴² Ikus: ibidem, or. 37.

¹⁴³ Ikus: ibidem, or. 42.

¹⁴⁴ Ikus: ibidem, or. 26.

¹⁴⁵ Ikus: ibidem, or. 27.

¹⁴⁶ Ikus: ibidem, or. 37.

¹⁴⁷ Ikus: ibidem, orr. 37-38.

- a) Estatu nazionalak edo Nazio bakarreko Estatuak.
- b) Estatu multinazionalak edo Nazio askotako Estatuak.

Bigarrenean, eta oraingoan nazio arazoa mundu guzira zabaltzen delarik, beste bi molde aurkitzen dira:

- a) Estatu kolonialak Sartaldean.
- b) Nazionalidadeekiko Estatuak Sortaldean.

Etapak hauek ba dute alkarren artean bai diferentziarik eta baita komuntasunik ere. Komuntasuna honetan datza: «nazioek zapalketa eta morrontza sufritzen dute»¹⁴⁸; eta diferentzia, berriz, honetan datza: lehen haroan problema nazionala nazio askotako Estatuaren arlora mugaturik zegoen eta Europa-ko zenbait herrialdetara bakarrik mugatzen zen¹⁴⁹; baina, gero, bigarren haroan, lehen Estatuaren barneko problema bat baizik ez zena orain indar inperialisten arteko arazo internazionala bilakatzen da¹⁵⁰.

Stalin, dirudienez, Iberiako penintsulan «Karlismak» eta abar egon zirenik ez zen hain ondo enteratu; Espaniak kolonietaruntz egindako ibilaldietaz ere, nahiko gutti zekien. Harrigarria behetan, zeren ez bait du Espania-ren izena aipatu ere egiten, izanik, zen eta den bezela, protagonistarik errespetagarrietako bat nola nazional hala kolonial arazoetan.

III.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Abertzaletasunaren aurrean nola jokatu jakin nahi bada, bidezko da lehenik galdatzea zer den abertzaletasuna bere funtsean eta zeinen interesen atzetik doan. Gisa honetako azterketan, eta batez ere aberri arazoa politika mailako estrategia eta taktikan nahasten denean, ideologiek ere fite agertzen dute beren sudurra.

1) **Hona hemen nola mugatzen den abertzaletasuna hitzez hitz:**

«...oso garbi dago nazional arazoa kapitalisma hazitzen zihoaneko bilakakera hartan burgesen arteko burruka bat zela. Batzutan, burgesiak bereganatu ahal izan zuen langileria, mugimendu nazionalean parte hartu araziz; eta orduan, itxuraz behintzat, burruka nazionalak herritar tankera hartu zuen, baina itxuretan bakarrik geldituko zen. Bere esentzian beti burgesa izan da,

¹⁴⁸ Ikus: ibidem, or.38.

¹⁴⁹ Ikus: ibidem, or. 38.

¹⁵⁰ Ikus: ibidem, or. 38.

probetxugarria eta desiragarria batez ere burgesiarentzat»¹⁵¹.

Kontuan har azpiko markak bereak direla.

Horregatik, bada, abertzaletasunak «arriskuan» jartzen du langileriaren etorkizuna. Bi arrazoigatik batez ere: a) zenbait eskabide demokratikoen izenpean jokatu, indar popularrak klase-burrukatik aldendu arazten dituelako¹⁵², eta b) nazioen arteko zitalkeria dakarrelako¹⁵³.

Beraz, xede ezberdinen jokia tartekatzen delarik, nazionalisma oztopo mingarri bilakatzen da langileriarentzat, zeren, oztopo hori dela-eta, klase-burruka aurrera eramateko baharrezko den batasuna apurtzen bait da. Estrategiaren aldetik ezin onar daiteke abertzalearen jokabidea. Puntu hau laster ikusiko dugu.

2) **Nolakoa da langileriaren jomuga?** Langileriaren plangintza «internazionalista» da; haren estrategia, mundu guztiko langileak alkaturik, sozialismoruntz abiatzen da. Bainan, bideratze hortan, taktikaren aldetik, bikoitza izango haren politika nazional arazoa dagoen lekuan, hots; zapalkuntza oroien kontra aldarrikatzen duen une berean nazionalismaren kontra ateratzen da.¹⁵⁴

Beraz, mugatuaz gero zeintzuk diren abertzale-mugimenduaren interesak eta zeintzuk langileriarenak, strategiaren aldetik arras ongi mugaturik gelditu da bakoitzaren jomuga politikoa.

Langileriak, bere plangintza osoa nazioarteko harremanen mailan egiten duenez gero, problema naziorialak dauden-mugaz gaindi lekutzen du bere gudaleku estrategikoa. Burgesia orotik libre bilakatu nahiezko ekinaldi honetan langileriaren alkartasun morala inposatzen da aberri-kontsideramendu guztien gaineratik.¹⁵⁵

Mugimendu nazionalak, berriz, aberri mailara mugatuko du bere estrategiazko plangintza osoa, lehen esan den bezela, «esentzialki» burgesa delako. Abertzaletasunaren zortea burgesiarenaren berdina izatera kondenaturik dago¹⁵⁶. Batera jaio eta batera hil. Eta «erabateko pakea sozialismaren erreinuan hasiko da»¹⁵⁷.

¹⁵¹ Ikus: «Le marxisme et la question nationale», Edt. Franshiri, orr. 29-30.

¹⁵² Ikus: ibidem, or. 30.

¹⁵³ Ikus: ibidem, or. 31.

¹⁵⁴ Ikus: ibidem, or. 32.

¹⁵⁵ Ikus: ibidem, or. 32; orr. 114-115.

¹⁵⁶ Ikus: ibidem, or. 34.

¹⁵⁷ Ikus: ibidem, or. 35.

3) **Estrategia eta taktikaren arteko konponketa praktikoa.**

Hemen aberri-plangintza batetarako beharrezko diren premisa edo aurre-baldintzez arituko gara.

Estrategia mailan, hots, helburuei begira, ez da konponketa posiblerik ikusten langileriaren eta abertzaletasunaren arteko antolaketan. Stalin-en aburuan, «bi tipokera ezberdineko erakundeekin aurkitzen gara: nazioarteko elkarte tankerakoa da bata eta nazionalidadeekiko langile-organizazioetara mugatzen dena bestea. Bi modela hauk adiskidetzeko egin ahalek, gaur artenekoan behintzat, ez dute fruiturik eman»¹⁵⁸. Areago oraindik: «utopikotzat» irizten du bide hori.

Problema nazionala ezin planteatu daiteke, beraz, nazionalki eta internazionalki une berean. Bata ala bestea¹⁵⁹.

Estrategiaren aldetik abertzaletasuna internazionalismaren barruan ezin lekutu bada, nola lotu orduan alkarrekiko dituzten zenbait eskabide? nola justifika autodeterminazioa? edota, abertzaletasunaren elemento osatzaileetaz mintzatzerakoan esan zenez, langileriaren onerako diren errebindikazio haik nola eskuratu?

Galdera hauekin **taktika** mailan barneratzen gara. Ikus ditzagun, bada, taktika egoki baterako beharrezko diren premisak.

Nazional arazoari buruzko iraultza bi fasetan bananduko dugu: poterea hartu aurrekoa eta ondorengoa. Fase bakoitzean zein printzipioak agindu behar duen ikusiko da.

a.- Poterea hartu aurretik. Hona hemen printzipioa:

«Nazional arazoa erabaki ahal izateko, mundu guztiko langileak alkartu egin behar dira»¹⁶⁰.

Printzipio honekin batera, beste bat dator zuzenki praktikotasunari begiratzen diona, hots: nazio baten barruan ematen diren baldintza historikoak ikertu behar dira, arazorik nagusia zein den ikusiaz¹⁶¹. Izan ere, gerta ohi da leku batean kezka biderik larriena bezela jotzen dena beste nunbaiten horrela ez izatea. Errusia-n, esaterako, nazio-arazoa baino buruhauste larriagokoa zen nekazaritzaren egoera. Honela, bada, eta kondizionamendu historikoek hala agintzen dutelako,

¹⁵⁸ Ikus: ibidem, orr. 116-117.

¹⁵⁹ Ikus: ibidem, or. 118.

¹⁶⁰ Ikus: ibidem, or. 118.

¹⁶¹ Ikus: ibidem, orr. 37-38.

nekazarien aldeko demokrazi-politika nagusituko zen nazio-arazoen gainetik¹⁶².

Poterea harbidean, zer orduan? Hona erantzuna: langileriak nazionalismarekiko duen ezintasun estrategikoa gainditzeko bide taktiko bakarra herriaren «demokratizazioan» datza¹⁶³. Hontarako, eta batez ere kontuan harturik nazioetan ez dela ematen egitura homojeneorik, «aberri pribilegioak» oro baztertu egingo dira; denen gainetik guzien arteko «berdintasuna» predikatuko da; nola hizkuntza hala ikastolak eta konzientzia mailako beste zenbait askatasun-mota errespetatuak izan ditezela eskatuko da. Hauxe da, eta ez besterik, demokraziaren itzulpen praktikoa; hauxen da nazioetako minoriek eskatzen dutena»¹⁶⁴.

Ikusiaz gero zein elementuk osatzen duten langileriaren abertzaletasuna, zalantzarik gabe esan genezake errebindikazio guzien muga harria «eskabide demokratikoetara» heltzeko taktikazko jokuan konkretatzen dela.

b.- Poterea hartu ondoren. Abertzaletasuna aurrera ateratzeko harmarik praktikoa aberri-mugarik gabeko internazionalismaren estrategiazko plangintza dela diotenen artean, ba da halako harrizko sinismen miresgarri bat poterea hartu gerozko egoeran izango den aterabideaz. Honela diote: behin langileri osoaren alkar-laguntzaren bitartez sozialismora helduaz gero, nazinalidade zapalduerik berez etorriko zaie heuren buruaren jabe izateko eskubidea, baldin aurrez langileria hortarako gertaturik badago.

Honela pentsatzen dutenentzat dakargu, hain zuzen ere, Stalin-en beste printzipio hau:

«Ez dezagun ahanztu herriek beren buruez jabetzeko duten eskubidearen ondoan ba dela beste eskabide bat ere: langileri-klaseak bere poterea indartzekoa noski (azpimarkatua, gurea), eta lehenengoa bigarrenengoaren azpian dago»¹⁶⁵.

Eta baldin bi printzipio hauen artean txokerik sortuko balitz, beste testo honek ez du dudamudatarako astirik ematen:

«Kaso honetan, langileriaren diktadurak primatzen du»¹⁶⁶.

¹⁶² Ikus: ibidem, or. 47.

¹⁶³ Ikus: ibidem, or. 108.

¹⁶⁴ Ikus: ibidem, orr. 112-113

¹⁶⁵ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», V-gn. tomoa, «Discours de Cloture des débats sur le rapport "Les facteurs nationaux dans l'organisation du Parti et de l'Etat"», 1923-ean, estenografoz jasoa, Moskun, 223-gn. or.

¹⁶⁶ Ikus : ibidem, or. 223.

Hain zuzen ere, gauza guztiak nazioarteko maila orokorrean ikusten eta planifikatzen dituen politikari batentzat, nazio-arazoa, beti, zerbait partikularra da, zerbait txikia. Gainera, nazio-arazoa mugaturik dago bai barruko eta bai kanpoko egoeraz; aitzitik, langile-arazoak mundu guzian zehar hedatzen bait dira, arazo hauk ditugu funtsezkoenak»¹⁶⁷.

Atalburu honen bukaerako azken ohar bat. Stalin-ek bere tesiaren defentsarako Lenin-en testoak erabiltzen ditu behin baino gehiagotan. Nazio-arazoa langile-arazoaren azpitik dagoela frogatzeko ekartzen ditu¹⁶⁸.

Orain azaldu dugun bere azken ikuspegi hau XII-gn. Batzarrekoan agertu zuen, Stalin-ek, 1923-ean, Lenin presente egon ez zen Batzarrean hain zuzen ere. Batzar honetan Transkaukasiako Errepublikak federatu ala ez puntuaz eztabaida bat sortu zen. Lenin-ek ahalik eta arinen, aste batzuen gora beheran, federazioaren asmoa atera nahi zuen aurrera; Stalin-ek, aitzitik, Georgia bertan integratzeko hainbateko luzapena ematen dio arloari¹⁶⁹. Hauxe da, guk Stalin-en testoetatik atera dugunez, autore bi hauen arteko estabaidaren hauzia.

IV.- SOLUZIOAK

Soluzioei buruzko ihardespena partzialki bederen emanik gelditu zen autodeterminazioaren hiru posibilitateak aztertu genituenean. Orain, zehaztasunean urrats bat emanik, Errusia-ko aplikazio konkretuetara jautsiko gara.

1.- Autonomia errejionala R.S.F.S.F. eta U.R.S.S.

Stalin-en printzipioen eskubideetan baieztatuko autodeterminazioaren aplikazioa **AUTONOMIA ERREJIONAL** bat onartzera mugatzen da. Bide hau iduri bide zaio abantailarik gehien eskein ditzaken soluzio bakarra. Zergatik? Alde batetik, muga petralkeriak gaituz gero, klase-burruka lekuan lekuko jendearekin muntatzeko erreztasunik gehiena berak dakarrelako; eta, bestetik, gehiegizko zentralkeriari langa bat tartekatuz, lurraldeko indar sortzaileak lantzeko posibilitatea ematen duelako¹⁷⁰. Autonomia errejionala dugu, beraz, bi xede hauen garantia. Hitzez hitz:

«Soluzio bakarra autonomia errejionala da, gorpuztutako batasunen autonomia, Letuaniarena,

¹⁶⁷ Ikus : ibidem, or. 223.

¹⁶⁸ Ikus : ibidem, orr. 224-226.

¹⁶⁹ Ikus: ibidem, orr. 196-197

¹⁷⁰ Ikus: «Le marxisme et la question nationale». Edt. « Franshëri », 111-gn. or.

Ukraniarena, Kaukasiarena, Polonia-rena, eta abar»¹⁷¹.

Soluzio hau 1913-ean proposatzen zuen.

Gero, 1918-ean, gertaerak bultzaturik **R.S.F.S.R.** izeneko batasuna sortzen denean¹⁷², nazional politikak federazioaren formula bereganatuko du. Honek esan nahi du nazional arazoak, funtsean behintzat, federazioarekin ez duela gauza haundirik aldatzen zentralkeriari begira. Autonomiatik federaziora apenas dagoen aldaketarik:

«Heuren bizikera partikular eta nazio-konposizioagatik bereizten diren ertzekaldeko errejioentzat autonomia errejionala baizik ez da gelditzen, eta hau da erdia eta ertzekaldea erdiarekin alkartzeko arrazoiezko bide bakarra; autonomiak josiko du Errusia-ko ertzekaldea erdiarekin federaziozko loturen bidez»¹⁷³.

Eskualde batetik bestera gehiagoko edo gutxiagoko harremanen diferentziak badaude ere autonomia honen aplikazioan, erdira begira alegia¹⁷⁴, halere, azken finean, autonomiaren ardatza «administratibo» mailakoa baizik ez da¹⁷⁵. Eta, azkenik, nazional-konposizioaren garrantzi guzia **hizkuntzaren berdintasuna** proklamatzera lotzen da. Hontaz norbaitek dudarik balu, horra hor testo bat:

«... eskualde hauen egiazko sobietizazioa posible izan dadin, Errusiako zentralkeriari hertsiki lotutako eta berarekin batera Estadu bakarraren bidez sobietikoen herrikide bilaka ditezen, derrigorrezko da lekuko eskolak muntatzeko erakunde bortüz bat, derrigorrezko da hauzitegietan, administraziogintzan, agintaritza-lekutan eta, herriaren hizkuntza eta bizimodua ezagutzen dituen jendea egotea»¹⁷⁶.

Hauxe da hogeitik gora nazionalidade dituen Errusia-ko kasoan Stalin-ek eskualde horien irtenbidetzat dakarren autodeterminazioaren aplikazioa.

Are gehiago oraino: 1923-ean, U.R.S.S. izeneko gobernu-moldea sortzen da. Honek Estadu

¹⁷¹ Ikus: ibidem, or. 111.

¹⁷² Ikus: «Oeuvres de J. Staline.», V-gn. tomoa, «Les principes généraux de la Constitution de la République Socialiste Federative Soviétique de Russie», 76-gn. or.

¹⁷³ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», IV-gn. tomoa, «La politique du pouvoir des Soviets dans la question nationale en Russie », 1920-ean, 312-gn. or.

¹⁷⁴ Iku : ibidem, or. 313.

¹⁷⁵ Ikus: ibidem, orr. 312-313.

¹⁷⁶ Ikus: ibidem, or. 316.

bakar baten pean zenbait Errepubliken Batasuna suposatzen du, R.S.F.S.R.-ekin batera¹⁷⁷. Modela honekin zentralkeria gogortu egiten da eta ertzekaldeko eskualdeen independentzia laburtu egiten. Halere, esanen da, beti legoke separatzeke eskubidea¹⁷⁸. Eta guk gainera genezake: baita haundiak txikiagoa jateko, ez eskubidea, bainan bai tentazioa ere.

Hara nola justifikatzen den nazional politika honen antolaketa:

«Gaur-egun daduzkagun baldintzak ikusirik, nazional arazoak honako formakera konkreto hau hartzen du, hots: herriak militarri, ekonomikoki eta kanpoko harremanetarako kooperatiba batean alkartuko dira. Eginkizun horietarako, beraz, U.R.S.S. izeneko alkartean batuko dira. Gaur-egun forma hau hartzen ditu nazional arazoak»¹⁷⁹.

Esan dezagun autodeterminazioaren separakuntzarako posibilitateak kaxkar xamarrak direla Stalin baitan. Berak dionez, zentralkeriatik separatu-nahia «ertzekaldeko eta erdiko herritarren interesen kontra doa zuzen-zuzen»¹⁸⁰.

2.- Separakuntza herri kolonizatuentzat.

Separatzeko eskubideak aplikatzeko kasorik egokienak kolonial herrialdeak ditugu. Bertako mugimendu nazionalentzat separakuntza eskatzen da:

«Inglaterrak, Frantziak, Amerikak eta Japonen beren ankapean koloniak itotzen daduzkatzen bitartean eta Arabia, Mesopotamia, Turkia, indostan bezela, menperatutako herrialde kolonizatu edo erdi-kolonizatuak legozkeen bitartean, separatzeke eskubidea iraultzalea da, eta jokabide hau baztertzea inperialisten jokia egitea izango litzake».¹⁸¹

Ez dezagun ahantz, beraz, separatzeke eskubidea kolonizatuetakoko herrialdeei bakarrik eskeintzen zaiela; ez bakarrik eskeintzen, baita hartzen behartzen ere iraultzaren izenean.

Zergatik ez da aplikatzen formula hori bera beste herri menperatu eta zapaldu guzietan? Formula hori Estatu Sobietikoan ezin aplika zitekeela erantzuten da; zeren, arrazoitzen denez, R.S.F.S.R. alkartea osatzen duten herriek libreki eta beren borondatez onartu bait zuten elkarte

¹⁷⁷ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», V-gn. tomoa, «Le XII^e Congrès du P.C.R. », 1923-ean, 206-gn. or.

¹⁷⁸ Ikus: ibidem, or. 207.

¹⁷⁹ Ikus: ibidem, or. 207.

¹⁸⁰ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», IV-gn. tomoa, «La Politique du pouvoir des Soviets dans la question nationale en Russie», 311-gn. or.

¹⁸¹ Ikus: «Oeuvres de J. Staline», V-gn. tomoa, «X^e Congrès du P.C.R. », 1921-ean, estenografoz jasoa, 43-gn. or.

hori¹⁸².

Guk, aldiz, atzoko gauzak gaurko egunetik begiraturik nazio arazoak gero eta gaitzagoak bilakatzen ari direla konstatatzen dugu. Ez zen, agian, horrelakorik gertatuko baldin herriek beren «borondatez eta libreki» hautetsi izan bazuten beren etorkizuna.

Errusia-ko kaso honetan ematen diren soluziobideak Euskal Herriari aplikatu ezker, dudarik gabe oso urruti joango ginake ondorioetan. Aplikatzen entseiatu direnek aski ondo ulertu dituzte Stalin-en printzipioak.

¹⁸² Ikus: ibidem, or. 43.

1.- D. III-gn. INTERNAZIONALA eta NAZIONAL ARAZOA

Munduan zehar banandurik dauden Komunista Alderdientzat teoriako aterpe bateratzailearen betekizuna dakar III-gn. Internazionalak; eta honen kolonial eta nazional tesiek izaera kolektiboaren lekukotasuna hartzen dute, zeren politikoki haren kerizpea inposatzen bait zen nun nahi.

Zergatik mintzatzen ote da arazo hontaz III-gn. Internazionala?

Gutxienik, beste arrazoiren artean, bi behintzat apuntatu daitezke premiazko bezela. Lehenengo arrazoina hau da: herri zapalduetako langileri taldeak benetako «mesfidantza» zuela herri zapaltzaileetako langileriari buruz eta nazioei buruz, berriz, gorrotoa¹⁸³. Bigarren arrazoiak II-gn. Internazionalak izan zuen izugarritzko axolokabekeria aurki daiteke, nazio arazoaz ez bait zen fitxik arduratu¹⁸⁴; okerrago dena, burgesen nazionalisma jokua praktikatu zuen¹⁸⁵.

III-gn. Internazionala, beraz, garaiko krisia haundiaren zuloa tapatzera dator etorri; nazional arazoari erantzun kuraitsu bat eman nahi lioke nola teorian hala praktikan. Horregatik, III-gn. Internazionalak aurrekoen jokabidearen salakuntza egiten duen une berean plangintza orokor batzuk proposatuko ditu aurrera begira. Eta honekin nazional eta kolonial arazoari buruzko antolaketan sartzen gara.

I.- ZENBAIT KONTZETOEN AZALPENA

Hemen batez ere nazional eta kolonial arazoa nun nola lekutzen den bereiztera lotuko gara. Izan ere, ez da ematen zuzeneko definizio-rik; kontraesanen edota zenbait ezaugarrien arrastoak' bai, badatoz, 'eta guk hortik helduko diogu orain.

1.- Zertan datza nazional arazoa?

Galdera hau **negatiboki** har ezker, burgesek, klase errealitatez aparte pertsonen berdintasunaren izenean, predikatzen duten nazio eta nazionalidadeekiko herrien berdintasun juridiko eta formala adierazten du «nazional» kontzetoak.

Positiboki hartzen delarik, berriz, bereizkuntza batzuek neurtuko dute kontzeto hori bera politikoki behar bezela ulertua izan dadin. Hona hemen:

¹⁸³ Ikus: «Manifeste, thèses et résolutions des Quatre premiers congrès mondiaux de l'internationale communiste 1919-1923», Textes Complets. Bibliothèque Communiste, Maspero François, 1971, or. 59, 10-gn. zenb.

¹⁸⁴ Ikus: ibidem, or. 59, 5-gn. zenb.

¹⁸⁵ Ikus: ibidem, or. 10, 10-gn. zenb.

Lehendabizi, egoera historiko eta ekonomiko zehatz bati atxikitzen zaio; bigarren, zehazki banakatu behar dira langile zapalduen interesak nazional interesen adierazle baizik ez lirakeen beste klase dominatzaileengandik; eta, hirugarren, klarki banandu behar dira nazio zapaldu eta azpiratuak batetik eta, bestetik, indar koloniatzailez eta diruz zapaltzaile bilakaturiko herri kapitalistak¹⁸⁶.

Guzi honetatik ondorio hauetara iristen gara. Interes nazionalak besterik gabe klase dominatzailearekin parekotzen direnez gero, zapalkuntzaren etsai bezela nazio kapitalistetako minoria hori izendatzen da eta nazio batetatik bestera legezkeen harreman zapaltzaileak etsaigo ekonomiko batetara baizik ez dira mugatzen. Bestalde, nazionalidadeekiko Estaduan posible litekeen inolako zapalkuntza motarik aipatu ere ez da aipatzen. Gauza askotxo ahazten du III-gn. Internazionalak.

2.- eta kolonial arazoa?

Kolonialisma sozialki eta ekonomikoki zapalduerik dauden Sortaldeko herrialdeetara lekutzen da. Kontzeto hau zenbait ezaugarritz taxaturik dator. Hona hemen batzuk:

a) Kolonietan, «zentzu hertsian» hitz eginda, ez dago proletargorik, zeren inperialkeriak bertako industria irendu egiten bait du¹⁸⁷.

b) Jendetzarik gehiena nekazaritzari emana da eta jendeak lehen materien langintzan dihardu batez ere, gero kanporatuak izateko hain zuzen ere. Egoera honek jauntxo lur jabedunen eta gabekoen arteko klase banaketa dakar. Bestalde, normala den bezela, nekazarien ezjakintasuna ezin haundiagoa da¹⁸⁸.

d) Aurreko bi elemento horiek politikagintza arras berezi baten ondorioa dakarte. Hau xe da: iraultza txispak erdi mailako jende ikasien artean sortzen direla, alegia¹⁸⁹.

Bainan, oraino areago joanik esan dezagun kolonizatutako herrialde hautan bi mugimendu mota nabarmentzen datozela geroz eta alkarrengandik aldentuago. Askatasun politikoa eskatzen duen burgesen mugimendu nazionalista da bata; bestea, berriz, zapalketa orotik eta maila guzietan libro

¹⁸⁶ Ikus: ibidem, or. 57, 2-gn. zenb.

¹⁸⁷ Ikus: ibidem, or. 60, 6-gn. zenb.

¹⁸⁸ Ikus: ibidem, or. 60, 6-gn. zenb.

¹⁸⁹ Ikus: ibidem, or. 60, 6-gn. zenb.

nahi lukeen nekazarien eta langileen mugimendua da¹⁹⁰.

Kolonizatutako herrialde bati dagokion testuingurua, beraz, honela muga genezake, hots: nazioarteko harremanetan atzerritar kapitalaren pean dago eta bere etxean, berriz, burgesi abertzalea daduka etsai bezela.

II.- ETAPAK

Nazioarteko estrategia pean eta politikagintza orokorraren begirada pean kolonial eta nazional arazoari zer leku dagokion xedetzat harturik, III-gn. Internazionalak proposatzen aituen zenbait etapa izendatzera gatoz.

Mundu guztiko politikagintza osoa bi bloke edo talde haunditan oposaturik banakatzen da, hots: «Burgesia internazionala Sovieten Errepublikaren kontra burrukatzen da»¹⁹¹.

Lehen estrategia, beraz, etsaigo internazional honek markatzen du eta hemendik printzipio bat ixuriko da. Hau da: Sovieten iraultzatik at ez da salbaziorik posible kolonia eta nazionalidadeekiko mugimendu nazional askatzaileentzat¹⁹².

Printzipio hau aplikatu ahal izateko, mundu guztiko langileriaren iraultza kolonietako iraultzarekin lotzen entseiatu behar da¹⁹³. Iraultza ez da mugatu behar, beraz, II-gn. Internazionalak egin zuen bezela, Europara bakarrik¹⁹⁴. Europako mugak gainditu egin behar dira; eta mundu guztiko elkarte hontarako «instrumentu» bezela eskeintzen da, hain zuzen ere, Internazionala bera¹⁹⁵.

Zergatik eta nundik politikagintza komun honen beharra? Hemen ere konbentzimendu baten printzipioa dator: koloniak bait dira Europako kapitalismaren iturririk emankorrena¹⁹⁶, hortik sortzen den goi-balioen txorro hori agortu arte langileriak ezin menpera ahal izango du kapitalisma¹⁹⁷.

Politikagintza honen praktika mailetan sailkatu datorkigu.

¹⁹⁰ Ikus: ibidem, or. 60, 7-gn. zenb.

¹⁹¹ Ikus: ibidem, or. 57, 5-gn. zenb.

¹⁹² Ikus: ibidem, or. 57, 5-gn. zenb.

¹⁹³ Ikus: ibidem, or. 59, 5-gn. zenb.

¹⁹⁴ Ikus: ibidem, or. 59, 4-gn. zenb.

¹⁹⁵ Ikus: ibidem, or. 59, 5-gn. zenb.

¹⁹⁶ Ikus: ibidem, or. 59, 2-gn. zenb.

¹⁹⁷ Ikus: ibidem, or. 59, 3-gn. zenb.

Lehen ekinaldian, «kolonial eta nazional arazoari dagokionean, nazio eta herri guztietako proletario eta langileen alkartasuna lortu behar da, burgesiaren eta kapital dunen kontra batera burruka ahal izateko»¹⁹⁸. Areago oraindik: alkartasun hori, azken batean, Errusiako Sovietekin bat eginik burutu behar da; alkarte honetan, nola kolonial eta nazioetako hala nazionalidade atzeratuetako mugimendu askatzaileak, bakoitzak berari dagokion formakera hartuko du.

Internazionalismaren helburua errealki gorpuztuko bada, eta hemen beste fase batetan sartzen gara, kolonietan Komunista Alderdiak sortu behar dira. Alderdiaren bitartez posible da nekazarien eta langileen iraultza organizatzea eta, behin organizatuz eta indartuz gero, abertzale burgesak menperatu ahal izatea¹⁹⁹. Honela, bada, kolonizatzailea etxetik botatzerakoan, burgesen abertzaletasunari ez zaio laguntzarik ematen, bai ordea langileri zapalduari bide bat zabaltzen²⁰⁰.

Iraultzak bere pedagogia bat bait du, printzipio komunistok pausoka joan behar dira betetzen²⁰¹. Hau ere kontutan hartu beharreko beste fase bat da. Honela, berrikuntza txiki batzuk eginaz hasiko dira lehenengotan; berrikuntza hauk lurgintzan emango dira batez ere, lurrak zatikatuaz eta abar; halabainan, komunistek ez dute sekulan eskutik utziko beren agintaritza, eta ahaleginak egingen dituzte nekazariok eta langileok ahalik eta arinen Soviets bilaka ditezen, kapitalismaren fasetik pasatu gabe kornunismora zuzen heltzeko²⁰².

III.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Atalburu honetan Estatu bilakatutako sozial harremanen estrategiaz eta taktikaz mintzatuko gara. III-gn. Internazionalak iraultza nazionalki nolaeratzten duen agertu nahi litzake.

Estadu guztien formakera ezberdinki ematen denez gero, bitan zatiturik ekarriko dugu Estadu kapitalisten eta Estado atzeratuen politika gintza berezia.

1.- Estadu kapitalistak

Hara zer dion III-gn. Internazionalak:

«Estadu kapitalisten pean dauden nazionalidade eta minoria nazionalen eskubideen berdintasuna, formulazioetan geiditu gabe, praktikatu egin behar da eta, Alderdia dela bitarteko,

¹⁹⁸ Ikus: ibidem, or. 57, 4-gn. zenb.

¹⁹⁹ Ikus: ibidem, or. 60, 7-gn. zenb.

²⁰⁰ Ikus: ibidem, or. 60, 6-gn. zenb.

²⁰¹ Ikus: ibidem, or. 60, 9-gn. zenb.

²⁰² Ikus: ibidem, or. 60, 9-gn. zenb.

Sovieten gobernuak bakarrik lort dezake berdintasun hori»²⁰³.

Nola lortu? Hemen dator estrategiaren mailatzea:

«Lehenik proletarioak alkartu behar dira, gero beste langileak, burgesiaren kontra burruka ahal izateko»²⁰⁴.

Izan ere, gaineratzen da, burgesen nazionalismak, beren berekoikeri nazionalak eraginda, internazionalisma nazioen berdintasunaren printzipioan itotzen du²⁰⁵. Aitzitik, langileriaren internazionalismak ba du beste eskabiderik. Eskabide hau, batik bat, mundu guztiko langileriaren interesa herrialde bakoitzeko interesen gainetik jartzean datza²⁰⁶.

2.- Feodal haroko Estaduak edo Herri atzeratuak

Nola jokatu holako kasoetan? Pausu batzuk markatzen zaizkigu.

a) Komunista Alderdi guztiek prest egon behar dute mugimendu askatzaileekin batera burrukatzeko; batez ere, eta lehendabizi, metropoliako langileari aktibuki laguntzea dagokio arazo honetan²⁰⁷. Nola jokatu behar den bertako Komunista Alderdiak erabakiko du, baldin bertan halakorik balitz.

b) Kolonietako eta herrialde atzeratuetao nekazaritza hertsiki alkaturik egon behar du Europako komunista Herrialdeetao langileriarekin. Eta ahal den neurrian nekazariak eta beste zapalduak oro Soviets bilakatzen ahalegindu behar da²⁰⁸.

d) Ez iraultzaile eta ez komunista diren mugimendu guztien kontra burrukatu behar da; beraz, Internazionalak ez ditu sostengatuko iraultzaile diren eta burges eta demokratikoen kontra burrukatzen diren partidu garbiki komunistak ezik. Areago oraindik, harremanok arras mugaturik datoz. Hara nola:

«Kolonietan eta herrialde atzeratuetao dauden mugimendo iraultzaileekin III-gn. Internazionalak izango ditu bere harremanak, bainan hauk mementozkoak bakarrik izango dira;

²⁰³ Ikus: ibidem, or. 59, 9-gn. zenb.

²⁰⁴ Ikus: ibidem, or. 58, 9-gn. zenb.

²⁰⁵ Ikus: ibidem, or. 58, 10-gn. zenb.

²⁰⁶ Ikus: ibidem, or. 58, 10-2-gn. zenb.

²⁰⁷ Ikus: ibidem, or. 58, 11-1-gn. zenb.

²⁰⁸ Ikus: ibidem, or. 58, 11-4-gn. zenb.

mugimendu horiekin ez du inoiz ere bat egingo edo «fusionatuko», eta beti gordeko du bere langile izaera, nahi-eta hastapenentan egon»²⁰⁹.

IV.- SOLUZIOAK

Errusiako Errepublika Sozialistan eta beste Soviets Errepubliketan praktikatzen den «federazioaren» printzipioa proposatzen da²¹⁰. «Esperientzi gisa» ematen dela, esaten da²¹¹.

Halabaina, proposamendu hau bikoitza da. Alde batetik formula honen beharrezkotasuna baiezten da. Hara zertako, Soviets Errepublikak denen arteko batasunean alkar-indartuz gero, langileriaren zuzendaritza pean ekonomiazko plangintza internazional bat posible bilakatzeko. Eta, bestetik, formularen beraren momentotasuna berritzen da, federazioa herri guztietako langileria alkatu bitarteko zubi baten gisa dela, esaten bait da²¹².

²⁰⁹ Ikus: ibidem, or. 58, 11-5-gn. zenb.

²¹⁰ Ikus: ibidem, or. 57, 7-gn. zenb.

²¹¹ Ikus: ibidem, or. 58, 8-gn. zenb.

²¹² Ikus: ibidem, or. 57, 7-gn. zenb.

SAIOAK – VI-gn. ASANBLEA

Gure Herrian betidanik egon dira III-gn. Internazionale azken mugaharri harturik, orduarteko marxismak eta batik bat Stalinek, Nazionalidadeekiko Estatuari buruz emandako aterabideak Euskal Herriko nazional arazoari aplikatzen entseiatu direnak. Hara nola, batzuk aipatzeko: Espaniako Alderdieren morroi den Euskadiko Komunista Alderdia, Marxista-Leninistak, Komunistak taldea eta abar.

Eta oraino berriki, beste bi talde agertu zaigu eta gure artera zarata soinu askokin lagundurik sartu dira, hain zuzen ere. Hauen programa, funtsean, hor goiean aipaturiko mugimendu eta aiderdien parekoa da, nahiz-eta gure arteko euskal komunista zenbaitek hauetan deskubrimendu zientifiko eta serioak aurkitu. Honela, bada, duten berri usaiagatik, talde hauk aztertzen eta mugatzen ahaleginduko gara.

Lehendabizi «SAIOAK» taldearen kasoak ikusiko dugu eta, ondoren, «VI-gn ASANBLEA» deitu izan den taldearena.

1.- E. SAIOAK

I.- KONTZETUALIZAZIOA

Guzti honetan kurioso dena hau da: gure artean marxista izanik, Estatu kolonialistaren menpeko nazio menpekotuei buruz Leninek, eta batik bat Maok, eman izan dituzten soluzioak Euskadiri aplikatzen entseiatu direnek ez dutela zientifikoki jokatu, konstatzen dute²¹³. Gure aburuarekin ados doan puntua da hau. Halere, Leninek nazional arazoaren mota ezberdin diren Nazionalidadeekiko Estatuari eta Estatu inperialistaren menpeko Nazio zapaldueri buruz emandako soluziobide eta proposamendu zenbait nahasturik²¹⁴ Euskadiri aplikatzen entseiatzen dira. Ezin onar daitekeen puntua da hau. Ohar hau kontuan harturik, igaro gaitezten kontzetoen mugatzera.

a) *Pribilejioak*²¹⁵.

Lehenik, egoera bat konstatatzen da kontzeto honen bidez. Esaten da: Espaniako Estadua gaur-egun pribilejioz eta barne-ezberdintasunez beterik dago, fazista da, eta egoera hortara bortxaz

²¹³ Ikus: «Sobre el colonialismo», SAIOAK II, or. 14.

²¹⁴ Ikus: ibidem, or. 48.

²¹⁵ Ikus: ibidem, or. 44.

ailegatu da kapitalismaren bigarren fasean²¹⁶. Pribilejio hauk honela konkretatzen dira: kasteilano edo gaztelua espainol bilakatzen da, beste herrietako proletargoaren kulturak ukatu egiten dira, beste herrietako apez eta burges kultura ito egiten da eta, trukean, nazio-handiko klase ideologia pribilejiatzen²¹⁷. Eta egoera honen aurrean proletargoaren egitekoa zein den aipatuko da: herrien artean inolako nazional pribilejiorik eta ezberdintasunik ez da onartuko²¹⁸. Are gehiago: nazional pribilejioei dagokienean bezela beste edozein pribilejio motari buruz ere, proletargoak inolako pribilejio eta ezberdintasun egoerarik ezin permiti dezakeala, baiestuko zaigu²¹⁹.

b) Berdintasuna²²⁰.

Halere, proletargotza, pribilejioen aurka dagoelarik, berdintasuna defenditzera eta errebindikatzera doala, gaineratzen da; eta nazional zapalkuntza errebindikazio horien artean bait dago, internazionalista esijentziak **eskubideetan** eta globalki bakarrik defenditzea eskatzen dio proletargoari²²¹. Aitzitik, nazional errebindikazioaren defentsa praktikoa herri konkretu batetan, nazionalisten errebindikazio bat dela, esaten da. Honetan bereizten dira, beraz, internazionalista baten eta nazionalista baten egitekoak errebindikazioari buruz²²². Orduan, proletargoak praktikan defenditu behar duena bere klase interes edo xede berezietara bakarrik mugatzen da.

d) Menpekotasuna²²³.

Substantibo hau genitibo eta adjetibo zenbaitekin mugaturik erabiltzen da. Batzutan, Euskal Herriaren menpekotasuna aipatzen da²²⁴. Eta «Euskal Herria» delako kontzetoan, SAIOAK ondoko elemento hauk sartzen ditu:

«Herriaren zati guztiak, hots, bere proletargoari, burgesiari eta kapa popularrei dagokie bere etorkizunaren aukera»²²⁵.

Halere, ez da esaten beren nazional etorkizunagatikako burruka guztiei dagokienez; aitzitik, aurrez aipatu dugunez, hori nazionalistei dagokiela baiestuko da. Are gehiago: proletargoak eta burgesiak alkarrekin duten klase interes ezberdinengatik aurkako burruka bait deramate, euskal

²¹⁶ Ikus: ibidem, or. 44.

²¹⁷ Ikus: ibidem, or. 44.

²¹⁸ Ikus: ibidem, or. 45.

²¹⁹ Ikus: ibidem, or. 46.

²²⁰ Ikus: ibidem, or. 46.

²²¹ Ikus: ibidem, or. 45.

²²² Ikus: ibidem, or. 45 : «Incluso algunos pretenden llevar al proletariado “la conciencia de clase nacional”. Esto es una traición monstruosa al proletariado vasco».

²²³ Ikus: ibidem, or. 46.

²²⁴ Ikus: ibidem, or. 46.

²²⁵ Ikus: ibidem, or. 46.

herriaren eta beste herrien menpekotasuna, diferentzia batzuen adierazle den aldetik, traba bat bilakatzen da. Proletargoari traba hori behin betiko gainditzea interesatzen zaiola, esango da²²⁶. Behin ere ez da esango, halabainan, errebindikazio nazionalak proletargoarentzat ere mami errealean bat izan dezakeanik; aitzitik, «**mugak** eta nazional menpekotasunetik datozen trabak deuseztuz gero, burgesia guzien aurka garbi eta zuzen klaseen burruka bat eraman behar da»²²⁷. Honela, nazional menpekotasuna erabiltzean, gauza hori muga kontua besterik ez dela, adierazten da. Beste batzutan, ordea, nazio menpekotu eta nazio menperatzaile kontzetuak erabiltzen dira. Hemen eta orain, Lenin aipatzen zaigu²²⁸. Berak inperialisma fenomenoaren mamia izendatzeko erabili zuena, Espaniaren eta Euskadiren arteko harremana adierazteko ekarriko zaigu.

Eta, azkenik, klasearen menpekotasuna erabiliko da. Honela, klase menpekotasuna, menpekotasun guztien iturri dela, berdin nazional menpekotasunarena ere, esango zaigu²²⁹. Eta beronen garaipena, gaur-egun historikoki progresibo edo aurrerari den klaseak, hots, proletargoak poterea hartzearekin erdietsiko dela, diote SAIOAK-oe²³⁰. Eta, ondorioz, klase estrategia bakar bat beharrezko dela, hots, herri menpekotu guztietako proletargoaren batasun oso bat, alegia. Proletargoari guzizko gardentasuna eskatzen zaio. Geroaga berrituko dugunez, bego hau guzia konstatatze honetan oraingoz.

e) *Asimilazionismo*²³¹.

«Estadu haundi batetan, Penintsulako herri guztiak (ondo esanda, herri gehienak, zeren Portugal ere penintsuleko herri bat bait da; gurea, ohar hau) kapitalisma aberririk gabeak asimilatu edo beretu ditu»²³².

Konstatatze hau egin ondoren berari buruzko epaiak datoz, eta hauk zaizkigu interesatzen.

Asimilazionisma berez ona dela esatean datza bata, hots: «progesista eta iraultzailea»²³³. Kapitalismaren asimilazionisma bortxatua izan bait da, bere egiteko era edo formagatik bakarrik litzake kritikagarri. Gainera, Lenin ere asimilazionismaren aldeko zela, esango zaigu²³⁴. Eta zergatik den ona galdatzean, ondoko honengatik esango da:

²²⁶ Ikus: ibidem, or. 46 : «La opresión del pueblo vasco y de los otros pueblos tor-pedea la recta posición de lucha de las clases antagónicas: el proletariado y la burguesía».

²²⁷ Ikus: ibidem, or. 46.

²²⁸ Ikus: ibidem, or. 48.

²²⁹ Ikus: ibidem, or. 47 : «Los intereses de la clase obrera y de la lucha contra el capitalismo exigen una solidaridad completa entre los obreros de todas las naciones».

²³⁰ Ikus: ibidem, or. 47.

²³¹ Ikus: ibidem, or. 47.

²³² Ikus: ibidem, or. 47.

²³³ Ikus: ibidem, or. 47.

²³⁴ Ikus: ibidem, or. 47.

«Zeren, sorkaritzako eta produkzioko bilakakera sozialista ongi burutu ahal izateko, berak gordetzen bait ditu baldintzarik egokienak ekonomia, politika eta ideologiaren alderditik»²³⁵.

Oraingoz ez dugu honen errealitate ekonomikoa eztabaidatuko, nahiz horretarako leku eman. Bakar bakarrik, orain darabilgun gaiari loturik, hots, nazional arazoari, hauxe esan nahi genuke. Asimilazionisma onartzean, internazionalista mota honek herrien berdintasunaren defentsa, aurrez esan dugunez, **eskubideak** predikatzen du; aurreratuko du, gainera, baldin eskubide horren **aukera** balego, asimilazionismaren aldeko internazionalisten botoa aurkakoa izanen litzakeala. Orduan, nazionalistek gaurtik bertatik aldeko botoa duten bezela, asimilazionismaren aldeko internazionalistek ere gaurtik bertatik dute aurkako botoa nazional separakuntzari buruz. Bego hor gure oharra.

*f) Inperialisma*²³⁶.

«Españiako Estatuaren kapitalisma oligarkikoak Penintsulako herrien mugak hautsi dituelako eta beste oiigarka batzuekin batzeko nazio-haundiaren mugak gainditu dituelako, inperialista da»²³⁷.

Testo honekin definitzen zaigu inperialismaren kontzetoa. Gainera, honen alboan, hau konfirmatzeko bezela, Leninek, inperialismari buruz emandako mugaketa ipintzen digute SAIOAK-oek. Are gehiago, beste urrats bat emanik, Euskadi Espaniako Estatuaren inperialismaren menpeko nazioaren harremanez eginikako herri bezela agertuko zaigu.

Zer diogu guzi honi buruz?

Lehenik, Espaniako Estaduak bere menpeko nazioekin dituen harremanak ez dira espezifikoki inperialismarenak, nazionalidadeekiko Estatuaren menpeko nazioen harreman bereziak baizik. Harreman hau erdirakoikeriaz eta asimilazionismaz kutsuturik daude egon. Beraz, Espaniako Estaduak Euskadirekiko dituen harreman menperatzaileak inperialismarenez aipatzea, kolonialismarenez aipatu izan dutenen bezain abusiboa dateke.

Bigarrenik, Leninek inperialismaren menpeko gertatzen ari zirela zion Estatu horien kaso bera da Espaniako Estatuarena ere. Amerikanoen inperialisma eta Europako beste zenbait Estatu

²³⁵ Ikus: ibidem, or. 48.

²³⁶ Ikus: ibidem, or. 48.

²³⁷ Ikus: ibidem, or. 48.

kapitalistena, gaur-egungo Espaniako Estaduan egiazko errealidade bat da.

Hirugarrenik, kapitalisma, sistema bezela, gaur-egun inperialisma mailara ailegatu bada ere, ez du esan nahi horrek kapitalista den Estatu Oro inperialismaren eragile denik; aitzitik, horietako batzuk sufriztaile dira, zeren kapitalismaren sistimako Estatu monopolizatuenean beren menpeko hartzen bait dituzte estadio honetan beste Estatu kapitalista txikiagoak ere.

II.- KLASEAK

Aztertzen ari garan lan honen buruan, SAIOAK-oeak, Euskadiko zenbait klase aipatuz gero, klase hauen aberri jokabidea nolakoa den mugatuko dute.

1) Aberririk gabeko oligarkak

Berauek Espaniako Estaduko kapitalista monopolista izanik, Espaniako nazio-haundiaren markoa defenditzen entseiatzen dira. Hauetarikoak dira Euskadiko burgesia haundikoak oro. Hauek, beraz, Euskadi nazionalarekin ez dute zer ikusirik; aitzitik, BATASUN NAZIONALA, hots, Espaniako Estatu-Nazioa defenditzen dute²³⁸. Eta berauek, populoaren konzientzia, nazional arazoari dagokionean, usteltzen parterik ba dutela, esango zaigu. Gainera, espainol-haundiari dagokionean, esentzialista eta nazionalista direla. Azkenik, burgesia molde hau, egoera honek Estaduko herri ezberdinen artean sortzen dituen ondorio bereiztaile eta nazkatzaileak beren interesetarako ondo datozelarik, luzatzen entseiatzera behartuta dagoela bere jokabide hori²³⁹.

2) «Jatorra» den burgesia

Kontzeto honekin erdiko eta beheko burgesia izendatzen da²⁴⁰. Klase hau, beste ahizpa zaharrago den burgesia monopolistari poderea kentzen entseiatzen dela eta horretarako Euskadi bezelako herrialde txikien beharrea aurkitzen dela, esaten zaigu²⁴¹. Bera da, beraz, Espaniako Estaduaren menpeko Nazioen aldeko interesen zuzentzaile, hots, nazionalisma txikien defenditzaile. Baina, baldin klase bezela irauten jarraitu nahi badu, Euskadira mugaturik bederen, monopolista bilakatu beharko du²⁴². Honela, nazionalisma mota honek, langileria anitz tronpatzen duelarik, bere ikurrinaren atzetik Euskadiko langile zenbait eta atzeritik bertara etorritako beste mordo bat lerratzen du²⁴³.

²³⁸ Ikus: ibidem, or. 44.

²³⁹ Ikus: ibidem, or. 45.

²⁴⁰ Ikus: ibidem, or. 52.

²⁴¹ Ikus: ibidem, or. 45.

²⁴² Ikus: ibidem, or. 45.

²⁴³ Ikus: ibidem, or. 46.

3) *Kapa popularrak*

Hemen, proletargotik kanpoko langile mota oro sartzen da; hauen artean daude arrantzaleak, nekazariak, ikasleak eta intelektualak²⁴⁴. Hauek, nazional arazoari dagokienean, egitekorik ba dutela, esango zaigu. Batik bat, **aukera** egin behar denean, beren botoa izango dutela²⁴⁵. Halere, batzutan proletargoaren laguntzaile beharrezkotzat aipatzen dira eta beste batzuetan, berriz, proletargoa soilki hartzen da, kapa popular hauk burgesiarako bidean balira bezela-edo.

4) *Proletargotza*

Klase honek inolaz ere ez dezake inolako nazionalisma motarik sostega; aitzitik, bere egiteko erreala nazionalista, bereizkuntza oro borratuz gero, herri esberdinetako proletarioen zenbaki ahalik eta haundienarekin alkaturik eta horiekin bat eginik burrukatzea da poderearen lortzeko²⁴⁶. Eta proletargoaren bereizgarri bezela, nazional arazoari dagokionari, internazionalisma bateratzailea oposatuko zaio²⁴⁷. Honen ondorioz, proletargoak naziorik ez duela, konkludi liteke noski. Dena dela, hor konpon bitez baiezkuntza horren sostengatzaileak. Gutxienez, argi eta garbi dago, proletargoak nazional aska tasunerako burrukan duen egitekoa aipatuko zaigun, guzi hori egintza **taktiko bat** bezela kontsideratu behar dela.

Honela:

«Langile klaseak Euskadiko nazional askatasunaren burruka zuzendu behar duela eta gaur-egun nazionalista gazteak eta langileak alkartze batetara ailegatzen ari direla»²⁴⁸, aitortzen denean, garbi gelditzen da alderdi taktiko hori. Zeren, guzti hau taktiko bezela hartzen ez bada, aintzinago aipaturiko internazionalisma bateratzailearen estrategia ukatzen bait da.

III.- ETAPAK

Aurrekoak aurre, Euskadi Espaniako Estaduaren menpeko bilakatzen den fasea nola mugatzen den jakitea interesgarri zaigu. Honela, bada, eta bera erabaki nahirik, ondoko bareskuntza hau egingo zaigu:

«Gure aurrerapen historikoaren berezitasunek, kapitalismaren lehen fasean ez, bigarrenean baizik, hots, monopolistarenean inposatu dute nazionalidadeekiko Espaniako Estadua»²⁴⁹.

²⁴⁴ Ikus: ibidem, or. 52.

²⁴⁵ Ikus: ibidem, or. 46.

²⁴⁶ Ikus: ibidem, or. 45.

²⁴⁷ Ikus: ibidem, or. 45.

²⁴⁸ Ikus: ibidem, or. 52.

²⁴⁹ Ikus: ibidem, or. 44.

Edota, diotenean:

«Españiako Estatu kapitalista, hots, kapitalaren pilaketa propiotik irtendakoa, kapitalismaren bigarren fasean bakarrik, pilaketaren mugimendurekin indartua eta birregina izan da»²⁵⁰.

Guzti honekin, beste herrietako eskemetatik at, Espāniako azken Errepublikā garaian, Nazio zenbaiti emandako autonomia justifikatu nahi dute. Zeren, berauen eskema linearrarekin guzi hori traba bait da; traba bat da, bai, feudal harotik kapitalismaren inposatzea bitarte hortan, nazional arazoa erabaki gabe egotea.

Eta egungo iraultza mailari dagokionera loturik, zenbat etapa bereizten den ikusiko da.

Lehenik, asimilazionisma bortxatu hori, aukera bat dela medio, asimilazionisma bozkatu batetaruntz bideratu²⁵¹. Eta honi demokraziaren aldeko burruka deituko zaio²⁵². Hontarako, estrategia bakarrean, nazio menperatu guztietako langileak alkartuz gero²⁵³, taktikoki beste anti-oligarkiko diren politiko indarrekin bat eginik jokatu beharko da²⁵⁴.

Bigarrenik, aurkako diren klaseen burruka garbi eta zuzen bat eraman ahal izango bait da, proletargoaren inposatzean bilakatu behar du lehen etapa honek²⁵⁵.

IV.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Beren estrategiari dagokiona agertzeko, frase bat hautatuko dugu:

«Klase estrategia bakar bat da beharrezko, hots, Espāniako Estaduko herri menperatuetako proletargo guztien artean batasun bat osotu»²⁵⁶.

Eta norbaitzuek duda balezate bezela, behin eta berriro eta areago duda ez dezaten, «gauza guztien gainetik proletargoak bere batasuna gorde behar duela»²⁵⁷, adieraziko da.

Honela, bada, berauek proposatzen duten aterabidea proletargo klasearena da. Beronek bakarrik

²⁵⁰ Ikus: ibidem, or. 47.

²⁵¹ Ikus: ibidem, or. 48.

²⁵² Ikus: ibidem, or. 47.

²⁵³ Ikus: ibidem, or. 52.

²⁵⁴ Ikus: ibidem, or. 46.

²⁵⁵ Ikus: ibidem, or. 47.

²⁵⁶ Ikus: ibidem, or. 47.

²⁵⁷ Ikus: ibidem, or. 47.

gaindi dezake Espaniako Nazio-haundiaren nazionalisma; hemen ez zaio lekurik ematen «batasun nazionalaren» aurkako den menpeko herrien nazionalismari²⁵⁸. Halere, Espaniako Estaduaren batasun nazionalaren ideia burgesak praktikatzen duten horiengandik nolabait bereizteko, gauregun Euskadi «batasun nazional» horretan bortxaz aurkitzen dela, esango zaigu; eta egoera hau anti-demokratikoa dela, beraz. Orduan, euskal-langileak Espaniako Estaduaren «batasun nazionala» defenditu behar badu ere, bestalde, burgesek bortxaz ezarritako batasun hori deuseztu egin behar du²⁵⁹. Honela, bada, hauen jokabidea bikoitza da. Alde batetik, Espaniako Estaduaren menpeko nazioen askatasun eragile diren nazionalista eskabideen artean, zerbaitetan bederen, komuntasun bat aurkitzen dute SAIOAK-oeak, hots: nazio hauek beren etorkizuna aukeratzeko eskubidea dute. Bestaldetik, ordea, beste zerbaitetan, bereizketa praktikoa bat daramate xede bezela, hots: aukera horren alde ez agertzean, aurkako jokabidea hartzen dute. Espaniako Estaduaren «batasun nazionala» gogoko dutelako, hain zuzen ere, hartzen dute jokabide hori²⁶⁰.

Eta beren taktikari dagokiona aipatzera igaroaz, «Euskadirako aukeramenaren eskubidea» predikatuko digute. Eta honen antzeko zerbait denez gero P.N.B.-ren «autonomiarako eskubidea», zertan bereizten ote da hau haienagandik? Azkenengo formula honek aldeko aukera eginik duela, suposatzen du. Haienak, aitzitik, autonomiarako eskubidea aukeran jartzea bakarrik eskatzen du. Eta haien estrategiazko printzipioetan ikusi dugunez, ba dakigu aurkako erabakiaren sostengatzaile direna. Zeren, esan dugunez, Espaniako Estaduaren «batasun nazionalaren» alde bait daude, hots, asimilazionismaren alde.

V.- SOLUZIOAK

Beren estrategia Espaniako Estaduko proletario guztien batasuna dela ezarri gero, eta honetarako traba direnak oro gainditu nahirik, (horien artean nazional arazoa), berau erabakitzeke soluzio taktiko zenbait proposatzen saiatzen dira SAIOAK-oeak.

Lehena, nazional eta popular den Frente bat sortu Euskadin²⁶¹. Eta ez dira deskuidatzen «nazional» hori adjetibo bezela darabiltenean zeren horrela denean, nazio horretan dauden (kaso honetan Euskadin) indar politikoen Frentea esan nahi bait du beste bereizkuntza gehiagokorik gabe. Aitzitik, askatasun nazionalerako «popular» Frentea esatean, Euskadiren askatasunaren aldeko aukera proposatzen dutenen Frentea adierazi nahi litzake. Bainan, honetan ere, Espaniako Estaduaren «batasun nazionala» presente dadukate. Are gehiago: heuren aurreko baiezkuntza eta

²⁵⁸ Ikus: ibidem, or. 44.

²⁵⁹ Ikus: ibidem, or. 45.

²⁶⁰ Ikus: ibidem, or. 45.

²⁶¹ Ikus: ibidem, or. 52.

proposamenduarekin harremanean dagoen batasun popularra ere aipatuko dute. Hau oligarkiaren eta kapitalismaren kontrako diren indar politikoek mugimenduan finkatzen eta mugatzen dela, gehiagotzen dute. Batasun popular honen helburua hau da: demokratiko askatasunak lortu eta, nazional arazoari dagokionean, autonomiaren eskubidea **aukeratzeko** errebindikazioak egin²⁶². Honela, sozialisma eta gaineatiko errebindikazioak programa batetan lekutzera ailegatu dira. Eginkizunak modu honetan mailatuz gero, Euskadik daraman askatasun burruka hau sozialismarako burrukan bilakatzen dela jabetzen dira, zeren, kapitalista moldeko egiturak oro hautsiz gero, popular demokraziaren eta askatasunaren aldeko estrukturak edo egiturak predikatzen bait dira²⁶³. Halere, ordea, Euskadiko nazional askatasuna ez da ezeren mamidun kontsideratzen. Eta askatasuna gehiago gabe aipatzea gauza mugagaboa da.

²⁶² Ikus : Ibidem, or. 52.

²⁶³ Ikus : Ibidem, or. 53.

1.- F. VI.-garren ASANBLEA

VI-gn. Asanbleakoak. badira ere «Documento de los presos de Burgos» idazlana argitara dutenak, haien eta Burgos-koen gaur-egungo Euskal Herriari buruzko iraultza teoria arras oposatuak dira.

Agiri horri VI-gn. Asanbleakoek bere egunean egindako sarreran honela zioten:

«Burgos-ko kartzelako gure burkideek izenpetu duten agiri honek ez du agertzen gaur VI-gn. Asanbleak duen teoria elaborazioaren azken maila guztia»²⁶⁴.

Oraintxe berriki eman digute aditzera zertan zegoen orduan zioten «teoria elaborazioaren» diferentzia hura:

«E.T.A.-n ideologiaren aldetik ebaki bat agertu da; VI-gn. Asanblea taldeak zerbaitekin moztu egin du: abertzale ideologiarekin eta politika-ekintzan ideologia honek dituen azalpen guztiekin ebaki du... Horregatik diogu, ez dela aurrerabide batean geldi une bat: egitea, baizik eta ebaki bat egitea, hots: VI-gn. Asanbleak²⁶⁵ abertzaletasunarekin ebakitzen du»²⁶⁶.

Honekin aski dugu sarrera bezela.

I.- KONTZETUALIZAZIOA

Talde politiko honen jokabidea ikasterakoan, beren zenbait kontzeko aztertzea eta mugatzea arras garrantzitsu dela uste dugu. Izan ere, sarritan termino ezagun baten pean, kontzeto berri bat edo modu berezi batez mugatua aurki bait liteke.

1.-Marxista-leninista²⁶⁷.

Hautentzat marxista-leninista izateak ba du bere helburu zehatz bat: proletario iraultzaren alde burruka egitea. Eta honen esan nahia zehaztuaz, honela jarraituko dute:

«Ez jeneralki hartuta, “nazional interesen” alde burruka egitea, edo, oraindik zabalago hartuta, “zapalduen” alde burruka egitea, baizik-eta konkretuki, langile klasearen interesen

264

265

266

267

defentsan burruka egitea eta klase honen askatasunaren alde burruka egitea»²⁶⁸.

Honela, bada, marxista-leninista izatea, proletargoaren xede berezien defenditzaile bilakatzea datzala esango zaigu. Gainera, proletargoari beste klase zenbaitekin komuna zaion interes burruka gutxiago merezi duen zer bait balitz bezela aipatzen da.

2.- Egitekoak²⁶⁹.

Marxista-leninistari ezarritako helburuarekin lojiko izanik, bere egitekoak, hots, sozialistarenak, burges demokratarenekin (burgesiak oro bat harturik) zertan oposatzen diren agertuko digute:

«Sozialistaren egitekoak hauk dira: Euskadin langile mugimendua oinarri garrantzizkotzat eduki behar da. Hau da, sozialista erakujnde batek, bere estrategiaren erdian langile klasearen interesak ezarrik gero, klase honen egiteko historikoen alde burruka egin behar du esplotazioaren desegiteko»²⁷⁰.

Aitzitik, langile abertzaleaz, hau esango zaigu:

«Lantegiko militante izanik ere, nazional zapalkuntzaren alde burruka egiten duen langilea, burges demokrata baten egitekoan ari da»²⁷¹.

Esanaz bezela, nazional eskabidea burgesiarekin sortua denez gero, hori gaur Euskadin defenditzea burgesiaren interesen alde burrukatzea dela. Euskal nazional zapalkuntza ez zaio inolaz ere interesatzen langileriari. Eta horrelako langileen jokabidearen erroa ideologikoa balitz bezela agertuko zaigu:

«Militantzia osoaren barnean kritikoa eta autokritikoa izan den garbiketa bat egin behar da. Hontarako ideologia mailako burruka bat indartukoda erakundearen maila guztietan»²⁷².

3.- Masa mugimendua²⁷³.

Lehen, langileria euskal nazional interesak defenditzen entseiatzea ideologiazko akats bat bezela agertu zaigu. Orain ere berdin: Burgos-ko hauziaren aintzinetik masa mugimendurik Euskal Herrian ez bazen, ideologiazko errakuntza batengatik dela, esango zaigu. Hots, burgesiaren eta

²⁶⁸

²⁶⁹ Ikus : Zutik, zenb. 52, or. 5.

²⁷⁰ Ikus : Zutik, zenb. 52, or. 5.

²⁷¹ Ikus : Zutik, zenb. 52, or. 5.

²⁷² Ikus : Zutik, zenb. 52, or. 11.

²⁷³ Ikus : Zutik, zenb. 52, or. 4.

nazionalismaren ideologia jarriko da kausatzat²⁷⁴. Aitzitik, geroago ikusiko dugunez, Burgos-ko epaituek eta beste zenbait militante marxistek, epe honetan proletargoaren ideologia izanik, errealitatea iraultzeko ezeren prestakuntzarik gabe aurkitzean, masa mugimendura eramango zituen aurre-egintza bat atondu behar izan zutela, esango digute:

«Batetik batik bat kontzientziatzaile eta mugitzaile zen minoria urduritsu bat sortu beharra zegoen eta, bestetik, Euskadin oligarkiarekin beste klase popularrak oposatzea zeia kontradiziorik sakonena erakutsi behar zen»²⁷⁵.

4.- Abertzaletasuna²⁷⁶.

Lehenik, kontzeto hau, oro har eta ezeren bereizkuntzarik gabe, nola mugatzen duten ikusten entseiatuko gara:

«Herri guztien eskubideen berdintasunean finkatu beharrean, desberdintasunean finkatzen den eta internazionalismaren aurkako den zerbait dela esango zaigu»²⁷⁷.

Halere, beren mugatze hau egungo abertzale guztiek, hots, nola teorian hala praktikan, kontzeto hori darabilten euskal klase ezberdin guztiek deuseztatzen duten agerpen bat dela, konstata ezinik ez dago. Orduan, abertzaletasunaren karikatura eta agerpen gezurti bat eman digute honekin. Are gehiago, Burgos-ko epaituek eta beste zenbait militante marxistek praktikatzen duten abertzaletasuna, internazionalismaren helburuak harturik, euskal nazional askatasunaren bila dabilzanen horietakoa da, herri eta nazio guztien berdintasunaren bila dabilzanena alegia.

Eta oraino, E.T.A.-ren abertzaletasuna esplikatzen nahirik, masetatik at eraman duen urduritasun indibidualistaren fruitu dela esango zaigu²⁷⁸. Gainera, **Euskadiren askatasun nazionalerako** ideia, burgesia txikiarena bezela agertzen da²⁷⁹. Beraz, horri esentzialki oposaturik, **Euskadiren askatasunaren** aldeko burruka langileriak zuzendu behar duela, esango zaigu²⁸⁰.

Bi kontzeto horien artean, ordea, ba da diferentziarik, zeren, horientzat Euskadiren askatasunak ez bait du berez Euskadiren askatasun nazionala suposatzen; aitzitik, honen ukoa da. Honela, beste

²⁷⁴ Ikus : Zutik, zenb. 52, or. 4.

²⁷⁵ Ikus : Documento de los presos de Burgos, or. 7.

²⁷⁶ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 5.

²⁷⁷ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 5.

²⁷⁸ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 14.

²⁷⁹ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 3.

²⁸⁰ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 9.

norbaitzuek erabili izan duten honako formula honetan ikus dezakegu horren esan nahia:

«Yankien aurka Espaniarentzat independentzia eta Euskadirentzat askatasuna»

Hau da: Espania-ko Estatuaren menpean Euskadi aske bat egin nahi da. Zertan aske? Hautentzat askatasuna ez da formula hau baizik:

«Nazional zapalketa kapitalismaren ondoren bat da. Sistima desegiteak, lehen mailan Estadua hartuta, zapalketa horrekin buka dezake Iraultzaren bidez»²⁸¹.

Edota, diotenean:

«Egungo kondizioetan Euskadiko askatasunak Iraultza suposatzen du»²⁸².

«Abertzaletasuna historian zehar nazionalki zapaldutako herri batean osotzen diren eta klase ezberdinak lotzen dituen zerbait bezela agertzen da. Nazioaren barruan klase horiek berdina dituzten gauzak agertzen dira, honela berdintasuna absolutizatuaz (kultura, historia, ohiturak...); une berean, klase horiek beren artean dituzten benetako kontradizioak izkutatu egiten dira (zapalduak zapaltzaileen aurka, haundiak eta txikiak)»²⁸³.

Halere, gero ikusiko dugunez, Burgos-ko epaituek eta beste zenbait militante marxista abertzalek argi eta garbi hitzegingo diguten bezela, euskal nazioaren barruan klase horiek berdina duten **ekonomiazko** eskabiderik ez da aipatuko. Izan ere hori aipatuz gero, aterabiderik ez dute. Are gehiago, «klase ezberdinen interes edo xede komunak agertuz gero, Euskal Herriko klaseen arteko burruka izkutatzen zaigula»²⁸⁴, esango da.

Esakuntza hori gezurra da Burgos-ko epaituen abertzaletasunaren kasoan, nahiz-eta burgesia txikiaren nazionalismarentzat egia izan. Halere, gaineratuko dute:

«Onartzen da euskal nazional interesak ez doazela oligarkiarenekin bat; halabainan, langileriak ez du zer-ikusirik horiekin»²⁸⁵.

²⁸¹ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 10.

²⁸² Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 19.

²⁸³ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 3.

²⁸⁴ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 5.

²⁸⁵ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 12.

Ikusten denez, langileria bere xede berezietan hertsiki bilduta nahi lukete ikus.

5.- Txobinisma²⁸⁶.

Bi moldetan bilakatzen da. Bata Euskadi menperatuaren baitan eta bestea Espania menperatzailearen baitan.

Euskadi menperatuaren aldekoen txobinismari dagokionean, honako molde honetan hitzegingo zaigu:

«Honen ideologia askotan arrazakerian eroriz gero, askatasunaren aldetik radikalena den espainolaren kontrako txobinisma da berea»²⁸⁷.

Edota:

«Txobinismak klasearteko batasuna indartzen du nola bertakoaren goraltzeko hala, berez txartzat jotzen delako, kanpokoaren ukatzeko»²⁸⁸.

Bainan ez dute mugatzen txobinisma honen klase hedadura abertzaletasunaren erabiltzaile diren klaseei dagokienean. Aitzitik, Espania-ko txobinismaz edo **imperialismaz**. (Euskadi-ri dagokion harreman berezia adierazteko erabil ez ditekeana) hitzegiterakoan, hori darabilten klaseen hedaduran fite mugatze bat ezarriko dute, esanaz: «goi-burgesia dela beraren sostengatzaile»²⁸⁹.

6.- Internazionalisma²⁹⁰.

«Nazioarteko kapitalisma inperialistaren sistimaren epean, geroz eta hertsiago bihurtzen da esplotatu guzrien batasunaren beharra. Langile mugimenduari berezko zaion nazioarteko hegia eta zenbait denboraz indargabetua ikusi dena, berriro proletargoaren konzientzian eta praktikan berpizten ari da»²⁹¹.

VI-gn. Asanblea-koak, hemendik partiturik, beste kontzeto batetara igaroko dira, hots, langileriaren batasuna justifikatzera:

²⁸⁶ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 11.

²⁸⁷ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 11.

²⁸⁸ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 16.

²⁸⁹ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 5

²⁹⁰ Ikus: Berriak, zenb. 6, or.7.

²⁹¹ Ikus: Berriak, zenb. 6, or. 7.

«Internazionalista gareanez gero, gure azken helburua esplotaziorik eta zapalkuntzarik gabe berdintasun osoan mundu guziko herrien batasuna da; eta hori da gaur beretik praktikan egin behar dena»²⁹².

Espania-ko Estaduko langileei dagokienean, honako hau esango da:

«Askatasun-bidea berdina da guzientzat: indartsuak eta hauen Estadua desegin behar dira. Zeren, Espania-ko, Katalunia-ko eta Galizia-ko langileekin praktikan batzen garen eran menperatuko bait ditugu oligarkia eta bere Estadua»²⁹³.

Bitxia benetan hauen bidea! Batetik, oligarkiaren eta langileriaren arteko kontradizioa besterik ez da aipatzen. Bestetik, berriz, oligarken Estadua hautsiz gero, zer **formatan** gauden ez da aipatzen. Hutsune batetan? Ez bait da fitxik aipatzen, gaurko Estaduaren forma onartzen dela suposatu beharko dugu, noski. Gainera, harreman horren beharra zehazten entseiatuko dira:

«Langile klasearentzat miernazionalisma ez da anaitasun- harre- man abstrakto bat, gizatasun harreman bat bakarrik, baizilc-eta beter behar bat da, bere askatasun osorako beharrezko den izaera bat da»²⁹⁴.

II.- KLASEAK

1.- Langile-klasea.

Lehenik, konstatatze bat egingo da. Hau da, langileria Euskadin zatiturik aurkitzen da nazional zapalketaren aurrean. Eta fite honen iturburuak agertuko dira. Honela esango zaigu:

«Integrazio aldera joko duen kristau sindikal talde bat osotuko du P.N.V.-ek (s.t.v. 1911). Halere, abertzale familia horretan sortuko diren zenbait ezker aldeko tentsioak gogorrak izango dira, batez ere klase burruka urte gorrietan izan zen une berezietan. Beste proletargoaren zati haundi batek oso errez ikusiko du klase burruka eta, era honetan, asturiar mineroekin batera, penintsulako langile klaserik gogorrenetako bat bihurtuko da zati hori»²⁹⁵.

Beste pasarte batetan, langile abertzaleak eta langile sozialistak alkarrengandik bereizten ahaleginduko dira, abertzaletasuna eta internazionalisma esentzialki oposaturik daudela aditzera

²⁹² Ikus: Berriak, zenb. 2, or. 6.

²⁹³ Ikus: Berriak, zenb. 2, or. 6.

²⁹⁴ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 4.

²⁹⁵ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 8.

eman nahiz bezela:

«Abertzalea ideologia duten langileak ez dira bere klasearen interes zuzenen adierazle, zeren Euskadiren askatasun nazionalaz arduratzen bait dira; aitzitik, sozialismaren ideologia izanik, beren klase interes bereziaz bakarrik arduratzen diren horik dira benetako langileak»²⁹⁶.

Langileriak gaur-egun duen berezitasuna zertan datzan ere esango da:

«Klaserik esplotatuena eta zapalduena, ugariena eta hobekien eraturakoa da»²⁹⁷.

Behin hontara ezker, zenbait ondorio ateratzen saiatuko dira. Hona hemen bat:

«Sozialista garen aldetik, Espania-ko Estaduaren menpeko den langile klaseak Espania-ko kapitalismaren aurka klase mailako xede komunak ditu»²⁹⁸.

Testo hortatik hau ondorioztatzen da:

«Batasuna eta laguntasuna behar dira atzerakoi den frankista estaduaren menpean dagoen langile klase guztiarentzat»²⁹⁹.

2.- Euskal burgesia txikia eta erdikoa.

Berriz ere konstatatze bat hasteko. Hau da, monopolista ez den burgesiaz ari dira.

Burgesia haundi honek duen monopolista izaeraren bitartez, burgesia txikia eta erdikoa, klase autonomo bezela, heriotzera kondenaturik daude.

Burgesia honek bere nazional sentipena interklasista moldeko abertzale ideologian bihurtzen du, bere klase interesak serbitzatu nahi ditu, bere atzetik zapalduta aurkitzen den gizarte oso bat eraman nahirik³⁰⁰. Oraindik gehiago ere zehazten da:

«Joandakoa defenditzen du, gizartearen eta historiaren aurrera-bideari oztopo egiten dio eta

²⁹⁶ Ikus Zutik, zenb. 52, or. 3.

²⁹⁷ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 13.

²⁹⁸ Ikus: Berriak, zenb. 2, or. 6.

²⁹⁹ Ikus: Berriak, zenb. 6, or. 7.

³⁰⁰ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 8.

ba dirudi bere helburua desigitea dela»³⁰¹.

Baita ere:

«Burgesia txikiaren berezitasunik haundienetako bat xede berdin batzuk eta politikazko jokabide jakin bat ez izatean datza»³⁰².

3.- Goi mailako burgesia.

Beste batzutan oligarkia deituko zaio.

Industrialen kapitala eta bankaetxeetako alkaturik indartzen den burgesia da hau. Ez da sekulan abertzalea izan. Erabat zentralista da. Burgesia honen interesak Estatu espainolari loturik egon dira beti, eta Estatu honek merkatu zabal bat opa izan dio hari. Hara nola: lanerako jendea merke bilatzen du, atzeratutako nekazari eskualdeetatik jendetza samaldan datorrelarik; aduanetan zerga berezien babesadaduka, eta abar³⁰³.

Are gehiago, guri fazismarengandik eta kapitalarengandik datorkigun menperatasuna burgesia honek ezarria dela, esango da, nahiz-eta hauk Ibarra, Etxeberria, Legizama edo Txurruka deitu³⁰⁴. Oligarkia hau honela epaitzen da:

«Fazista, terrorista eta zapaltzailea da hauen politika eta behin ere eman izan ez dituen askatasun batzuen aitzakiarekin herriaren parte bat tronpatu nahi izan du»³⁰⁵.

III.- ETAPAK

Ikasten ari garen VI-gn. Asanblea izeneko talde honek E.T.A.-rekin ebaki duenez gero, mugimenduaren beraren jokabidea nola mailatzen duten jakitea nahiko interesgarri deritzaigu. Honela, bada, lehendabizi, E.T.A.-ri buruz egiten duten etapen bereizkuntza aztertuko dugu. Gero, ondoren, HERRIA-ri buruz iraultza-ikusmenaren mailatzea aipatuko dugu.

1.- E.T.A. mugimenduari buruzko beren mailatzea.

E.T.A.-k iraultzako bere lehen urratsetan emandako bide bortxatuak, ikasle eta burgesia txikiko

³⁰¹ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 9.

³⁰² Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 3.

³⁰³ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 8.

³⁰⁴ Ikus: Berriak, zenb. 2, or. 8.

³⁰⁵ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 3.

sektore zenbaiten hurbiltzea eta langile gazte abertzaleen militantetza kausatu zuela³⁰⁶, esango da. Molde honetan, bere lehen militanteen iturria, klase etorriari dagokionean, bikoitza da:

«E.T.A. bi klase baitan finkatutako erakunde politiko bat bilakatuko da»³⁰⁷.

Gainera, aurrez aipatu dugunez, E.T.A.-ren praktika ez bait zen epe horretan masen mugimendura iristen eta bere politikagintza urduritasun indibidualean funtsatzen bait zen, E.T.A. erakunde popularista bat baizik ez da izanen³⁰⁸. Sasoin hartan eta Euskadin, E.T.A.-tik aparte, zein beste erakundek piztu dituen masa mugimenduak galdatzea ez legoke batere gaizki. Gainera, Burgos-ko hauzi garaian garatu zen masa mugimenduak ez ote du konfirmatu E.T.A.-k ordurarte jarraitutako prozesu horren benetako justutasuna? Geroago, Burgos-ko epaituek eta beste zenbait militante marxistek guzi honen agerpena nola judikatzen duten ikus ahal izango dugu.

2.- HERRIA-ri buruz duten iraultzaile ikusmenaren mailatzea.

Euskadin nazio zapalketa bat ba dagoela onartuz gero, bera ez dela betikoa esango zaigu, indar produktiboak osotzen diren eran agertzen doana baizik³⁰⁹. Indar produktiboen osotzea, berriz, Euskadiko industriarekin lotzen da eta bera honako molde hautan gertatzen da:

«a) Burges demokratikoaren politikazko iraultzarik gabe, eta b) oso berandu ematen da. Ez “concurrential” deritzan mailan, kapitalisma inperialista garaian baizik. Eta ondo ala gaizki, herri gehienetan, XIX-gn. mendean egindako iraultza burgesean konpondu zena, oraindik hor dago eskabide demokratikoen zati bat bezela kapitalista produkzioa ezarria izan den herrietan, zaristen Errusia-n edo Espania-ko Estaduan bezela, autokratiko eran planteaturik»³¹⁰.

Harrigarritzko irudimenik ba du norbaitek zaristen Errusia eta gaurko Espania-ko Estadia alkar-gonbaratzeko!

Guzi honen irtenbide bezela, sozialista iraultza, hau bere xede berezietan harturik, proposatuko da; hontara iristeko, ordea, egintza hilara luze bat igaro behar dela gehiagotuko dute:

«Sozialista iraultza ez da bat-batean gertatzen, aldeko une bat aprobetxatuaz, mailaz mailako

³⁰⁶ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 3.

³⁰⁷ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 6.

³⁰⁸ Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 14.

³⁰⁹ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 6.

³¹⁰ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 9.

burruka hilara baten burutze bezela baizik»³¹¹.

IV.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Beren strategiaren adierazpena **azken helburuaren** kontzetuz emango zaigu gehienetan. Eta azken helburuaz hauxe konprenitzen dute:

«langile mugimenduak agintea hartzeko egiten duen burruka»³¹² eta «berdintasun osoan, esplotaziorik eta zapalketarik gabe, munduko herri guzien batasuna»³¹³.

Hortik ondorio hau datorkigu:

«Kapitalismaren aurka langile klasearen batasuna proposatzen da: a) internazionalki eta b) Espania-ko Estatuaren menpean dagoen lurralde guziko langileriarena»³¹⁴.

Eta oraino zehatzago, oraingoan Euskadiko langileriaz zuzenki ari direlarik, honela diote:

«Hitz gutxitan laburpen bat: Proletargoaren interesen serbitzuan bakarrik (haren xede berezienean, beraz) egingo ditugu gure azterketak eta gure ekintza konkretoa burrukan zehar. Azken helburu honen serbitzuen eta ez «Euskadiko nazional interesen» serbitzuan... Langile klasearentzat internazionalisma es da anaitasun harreman abstrato bai, ezta ere gizatasun harreman bat bakarrik, baizik eta betebeharrak bat da, bere askatasun osorako beharrezko den izaera bat da. Herri eta nazio guzien berdintasunaren alde egin behar du borroka, zalantzarik gabe egin ere, langile klasearen batasuna defendituz besfe edozein “nazional interesen ginetik”»³¹⁵.

Herri eta nazio zapalduetako eta zapaltzaileetako langile klasearen batasuna proposatzen da hor herri eta nazio guzietan berdintasunaren aterabide bezela. Ederki dago. Halabainan, xede berezi eta klasista horien izenean ginetiko batzuen xede zapalduak eta beste batzuen xede errespetatuak berdintasunera bihurtzeko prediku hori gehiagoko argitasunik eta garantirik gabe onartzea, gure ustez, herri eta nazio zapalduetako langileen berdintasunaren interesak ukatzea litzake. Eta honen adierazle da proposatzen duten estrategia hau. Izan ere, langileri guziarentzat komuna den interesa bakarrik aipatzen da diotenean:

³¹¹ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 12.

³¹² Ikus: Zutik, zenb. 52, or. 15.

³¹³ Ikus: Berriak, zenb. 2, or. 6.

³¹⁴ Ikus: Berriak, zenb. 6, or. 7.

³¹⁵ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 4.

«Sozialista gareanez, Espania-ko Estaduaren menpeko langile klaseak kapitalisma espainolaren aurka duen xede komuna adierazi nahi dugu»³¹⁶.

Honen ondorio bezela, beraz, gehiagoko beste bereizkuntzarik gabe, euskal burgesia oro ezarriko da langileriaren etsai bezela. Oligarkiak eta burgesia txikiak edo erdikoak langile klasearentzat duten etsaitasun komuna besterik ez da bereizten. Aitzitik, ordea, burgesia txikia edo erdikoa langileriarentzat klase mailako etsai izanik ere, zenbait enpresetan horren aliatu ere bilaka daitezke. Hau honela ezarriz gero, hauek aipa dezaketen taktikazko aliantza nahiko zentzu gabea eta irrealia izango da. Hara zer dioten:

«Oraintxe bertatik argi utzi behar dugu ez direla ahaztu behar burgesia txikiko zenbait talde, eta ez estudianteak bakarrik»³¹⁷.

Orduan, burgesia txikia klase bezela harturik, at uzten da. Desklasetutako zenbait elemento bakarrik onartzen da. Gehienera, burgesia zenbaitekin noizbait aliantza ahalezko dela onartuko da:

«Herriak nahi duenaren serbitzuan, zenbait burgesiaren taldekin alkartuko gara ala ez gara alkartuko»³¹⁸.

Eta jokabide hau justifikatu nahirik, 1970-eko abenduko mugimendua ere desklasetuena eta langileriarena bakarrik balitz bezela agertuko digute:

«Abenduko mugimendu haundian, dudarik gabe fazisten zozokeri eta nahikari ankerrak herriko talde askotara (ez klase askotara, beraz) iritxi zen sentipena sortu zuen, ez langilerian bakarrik. Abenduan, proletargo ez diren beste herrikoi maila batzuek burrukan parte bazuten ere (arrantzale, erdi-nekazari, tokietako salerosle txikiak, ikasleak), gaur egungo kapitalismaren bilakakeran kapa horik era sistimaren zampaketaren gai bilakatu direlako gertatu da horrela»³¹⁹.

V.- SOLUZIOAK

Ezin gutxiago. Euskal Herriaren nazional arazoari ere nolabait erantzun egin behar. Hontarako. autodeterminazioaren printzipioa ekarriko digute:

³¹⁶ Ikus: Berriak, zenb. 2, or: 6.

³¹⁷ Ikus: Zutik, zenb. 53, or: 3.

³¹⁸ Ikus: Zutik, zenb. 53, or: 4.

³¹⁹ Ikus: Zutik, zenb. 53, or: 13.

«Behar den unean erabakiko dugu separakuntzaren alde egonen garen ala ez, eta baita ere era honetan zuzenduko dugu gure estrategia eta gure ekintza konkretoa»³²⁰.

Argi eta garbi dago, beraz, Euskadiko askatasun iraultza langileriak zuzendu behar duela diotenean, nazional ikuspegitik at dagoela Euskadiko askatasunari buruzko talde honen proposamendu hori. Are gehiago: ez bait da hartzen nazional askatasunaren aldeko jokabidea, beste norbaiten forma hartu beharko du askatasun horrek; Espania-ko eta Frantzia-ko Estaduaena izango da bera. Autodeterminazioaren une hartan zer izango da iraultza hori? Talde honek egiten duen bezela, aukera gerorako uzten bada, erdirakokeriaren eta asimilazionismaren menpeko izango da Iraultza hori; inolaz ez, beraz, Euskal Herriarena. Halere, autodeterminaziorako aukera garantizatu nahirik, ba dute erremediorik:

«Horregatik, bada, gaur bertatik eta konfiantzarik-eza kentzen joan dadin, iraultzaile guztiek gogorki egin behar dute lan nazio zapaltzaile eta zapalduetako langileriak eta masa herrikoiak nazioarteko pundurik nagusienak ikas ditzaten»³²¹.

Irakasketa hau mugatzen ere ahaleginduko dira:

«Irakasketa hau, zuzenki edozein mailako norberekari nazionala lurperatzera doa; Estaduko beste herrien klasezko anaiekin elkartzearen beharra nabarmen jartzera ere zuzentzen da; ez bakarrik etsai berdinarean aurka joateko, baizik-eta, Marx-ek hain argi ipini zigun bezela, gizarte sozialista eta komunistak gaur bertatik eraikitzen jarraitzeko»³²².

Bainan, bukatu aurretik, gogora dezagun pasarte hau:

«Proletargoak gogorki burrukatu behar du eskubitar nazionalisten politikaren aurka»³²³.

³²⁰ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 4.

³²¹ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 17.

³²² Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 18.

³²³ Ikus: Zutik, zenb. 53, or. 19.

BIGARREN ATALA: KOLONIALISMA eta IMPERIALISMAREN MENPEKO NAZIONAL IRAULTZAK eta beren EUSKALDUN JARRAITZAILEAK

Liburuaren bigarren parte honetan kolonialismaren eta imperialismaren menpeko herrialdeetan nazional arazoa nola bilakatu den aztertzen da.

Kolonialismaren etsenplu bezela Txina-ko eta Viet Nam-go iraultzak ekartzen dira. Imperialismaren kasoa Kuba-n ikusten da batez ere.

Herrialde hauetako iraultzek nazional arazoaz zer berezitasun dakarte? Herrialde hauetako zuzendari politikoek zer eragipen izan dute euskal marxisten artean? Galdera hauen inguruan dabil gure azterketa.

Lehenengo. Mao Txina-ko askatasun nazionalaz mintzo denean, Txina-ko herrialde osoari deitzen dio «Nazio». Kontzeto honekin Txina Haundiko askatasun «nazionalaz» ari da eta ez Txina Haundiko «nazionalidadeen» askatasunaz. Ho Txi Minh baitan ere «nazional» kontzetoak Viet Nam aberri oso eta bakarren batasuna adierazten du eta ez Viet Nam barruko nazionalidadeena.

Pundu hontaz nahasketa haundiegiak egon bait dira, behar-beharrezkoa da bereizketa hau gogoan hartzea autore horien abertzaletasunaz zuzen juzga ahal izateko.

Bigarren. Autore hauen nazional antolaketa, arestian aipatu dugun zentzu hertsian harturik, errusoen berdin-berdina da. **Nazionalidadeentzat proposatzen duten gehien-gehienena autonomia errejionala da.** Autore hauk ez dira Lenin eta Stalin baino abertzaleagoak.

Hirugarren. Herrialde hauetako iraultza kolonialismaren eta imperialismaren kontrako iraultza den aldetik, nazional arazoak berezitasun batzuk hartzen ditu kolonial herrialde hauetan.

1) Abertzaletasuna, hots, Nazio Haundiarena beti, internazionalismaren aplikazio bat bezela kontsideratzen da. Nazioaren askatasunerako imperialisten eta kolonialisten kontra burrukatzen denean, orduan klase-burrukak «nazional» burrukaren forma hartzen du.

2) Atzerritar etsaiaren kontrako erresistentzian **Frente zabal** bat erabiltzen da. Burgesia nazionala salbu, beste herri kapa gehienak sartzen dira, hara nola: proleta.rioak eta nekazariak, burgesia txikia (komertzientak, intelektualak), mugimendu nazionalak, eta abar..

3) Nazio Haundiaren askatasuna eta independentzia iraultzaren **helburu estrategiko bat** da eta ez taktikoa. Helburu hori proletargotzaren xedeen barruan sartzen da.

4) Kolonialismaren eta inperialismaren kontrako iraultzak herri-harmadaren inportantzia jabetu arazten gaitu. Ekintza militarrek herri-eragile bilakatzen dira. Jokabide hau komunista Alderdi errusozaleen kontra doa zuzenki. Hauek, herrialde hautan, inperialkeriaren kontra burrukatzeko, **sindikalisma baizik ez zuten praktikatzen**. Kuba-ko Komunista Alderdiak Kastroren iraultza desestimatzen bazuen, harmadarekin aurrera egiteko posibilitaterik ikusten ez zuelako izan zen.

Kolonial herrietako iraultzek ezin hobekiago frogatzen dute sindikalismo hutsezko ekintzez bakarrik ez dela ardiesten ahal agintea, gutxiago oraino ia gehienak nekazari diren eskualdeetan.

Pundu hautan dago, batipat, autore hauek beste errusoengandik duten diferentzia.

Laugarren. Euskal marxisten artean ere ba da kolonial herrialdeetako marxisten printzipioak gidaritzat harturik, eta errotik abertzaleak direla uste izanik, Euskal Herriari aplikatzen saiatu denik. Bere idazkietatik sonatuena bera bait da, Sarrailh de lhartza-ren ikuspuntuak ekartzen dira hemen. Sartre-ren aipamena zeharka bakarrik dator.

Euskal abertzaletasuna bide hortatik teorizatu dutenek gauza positiborik aski etxeratu badigute ere, nazional arazoaz bederen, gauzak argitu hainbat nahastu ere egin dituztela, esan beharko.

Joera honek Euskal Herria **kolonia** bat bailitzan hartzen du. Epaitz hau erabat gezurra ez bada ere, ez da guztiz zuzena ere.

Mundu guztiak daki Euskal Herria ez dela inperialismaren eta kolonialismaren menpeko herrien berdina, esate baterako Txina eta Viet Nam eta Kuba diren bezela, nahiz-eta zenbait gauzetan komuntasun haundiak eduki. Frantzia-ko eta Espania-ko Estaduek zapalduzkatzen **nazionalidadeetatik bat baino ez da Euskal Herria**. Bestalde, lehen esan dugun bezela, Txina eta

Viet Nam adibidez, beren barruan nazionalidadeak daduzkaten koloni herrialdeak dira. Eta autore, horien abertzaletasuna nazionalidadeetan ez bainan «**Nazio**» **haundietan** funtsatzen da. Euskal abertzale batek bere abertzaletasuna Espania eta Frantzia izeneko Nazio haundietan oinarrituko balu bezela litzake kolonial herrietako marxista horien abertzaletasun-mota hori.

Joera hontako euskal marxistak, egia da, abertzale **independista** bezela agertzen dira beren idazkietan, (GATAZKA kazeta, adibidez). Nazional arazoari buruzko printzipioak argitzerakoan, ordea, literatura marxistatik (nola klasikotik hala modernotik) ez dira rnetro bat ere urruntzen. Hor dago hauen okerra.

2.- A. MAO TSE TOUNG eta TXINA

I.- AGERPENA

III-gn. Inernazionala azken mugaharri delarik, bitarteko marxismaren gidari praktikoak eta, ondorioz, teorigileak dominanteki Errusoak izan direla, gauza jakina da. Orobat, gaurdaino munduko Komunista Alderdi erruso-zale guztiek III-gn. Internazionalako erabaki zenbait, hots, Nazionalidadeekiko Estaduen Nazio arazoari buruzkoa, kolonialismarena eta inperialismarena ere barne, fitxik ere aldatu gabe beren hitzaldi eta programetan errepikatu baizik ez dute egiten. Halere, erabaki horiek, hots, soluziobide horiek, ondorengo praktika baten galbaian igarotzerakoan, hau da, arazo horiek dituztenen baitan bilakatzerakoan, balio gabeak direla jabetzen gara. Honela, praktika berri horiek teoria haien lurjotzea eta berriitu beharra ekarri dute.

Gure lanaren zati honetan hauetariko zenbait etsenplu aipatuko dugu. Kolonialismari dagokionean Txina-ko eta Viet Nam-go kasoak ekarriko dugu; inperialismari dagokionean, berriz, Kuba-koa.

Besterik gabe, Txina-ko marxismaren teorigile haundienaren idazkietara hertsiki loturik, puntu horik aztertzea goaz.

Kolonialisma peko Txina eta bere etorkizun politikoa nola konprenitu zituen Mao-k?

1.- Txina koloni bilabatzen ari.

Lehenik, eta une hartako egoeraz galdutuz gero, honako molde honetan erantzuten du:

*«Japondar inperialismaren pean koloni bilakatzen joateak zertzen du egungo Txina».*³²⁴

Areago mugatuaz, japondarren pean egungo Txina-ren kolonizatzea 1931-eko irailaren 13-ean gertatuaren ondorioz datorrela konstatatu behar da. Izan ere, ordurarteko Txina inperialista zenbaitek alkarrekin partitzen zuten erdi-kolonia bat zen³²⁵. Lehen erdi-koloni zena orain koloni bilakatzeko zorian dago, bada³²⁶.

Beste pasarte batetan, egoera honen ondoria aipatzen digu Mao-k: Txina erdi-kolonia izateak

³²⁴ Ikus: Mao Tse Toung, «Oeuvres Choiesies», I-gn. tomoa, Ed. Pekin, 1967, or. 169.

³²⁵ Ikus: ibidem, or. 170.

³²⁶ Ikus: ibidem, or. 170.

inperialisten arteko eta Txina-ko traidoreen arteko ezin entenitua seinalatzen du. Zeren Estatu zenbaitek menperatutako erdi-kolonia eta Estatu bakar batek azpiratutako kolonia ezberdinak bait dira³²⁷. Eta konstatatze honek ba du politikagintzarako garrantziarik, zeren erdibiturik dagoen erreinua fite galtzen dela esan ohi bait da. Baina alderantziz denean eta zatitzea gogoko denean, orduan herri-batasuna traba bat bilakatzen da. Mao-k egoera honi dio bildur, Txina koloniaruntz doala dionean.

2.- Txina-ren berezitasunak.

Bigarrenik, egoera honetatik at Txina-k berezitasunik ere ba duela konstatatzen du Mao-k³²⁸. Eta berezitasun hauk zeintzuk diren galdatzeari, lau direla erantzungo du.

Lehena: Txina, erdi-kolonia den herrialde bat izanik, nola politikoki hala ekonomikoki modu ezberdinez bilakatzen doa. Hor dago 1924-tik 1927-rako iraultzaren esperientzia.

Bigarrena: Txina-ko gudu iraultzailearen etsaia indartzen doa.

Hirugarrena: Txina-ko gudu iraultzailearen Harmada gorria eskasa da.

Laugarrena: Txina-ko gudu iraultzailearen gidaritza komunista Alderdiak harturik daduka eta honen iraultza nekazari-iraultza da³²⁹.

Estrategiaz eta taktikaz hitzegiterakoan ikusiko dugunez, ez dago dudarik guzi hau interesgarri dela. Baina orain Mao-k funtski eta sakonki aztertuko duen beste ikuspuntu bati helduko diogu.

3.- Txina-n klaseak zertan diren.

Hirugarrenik, orduan, klaseak aipatuko ditugu. Eta puntu hau Mao-ren politikagintza guziaren ardatzean presente aurki ahal izango dugu. Hemen, jopardarren pean sufritzen dauden kolonialismaren aintzinean klaseek zer postura hartzen duten kontutan harturik mailatuko dizkigu. Ikus dezagun, bada, Txina-ko klase ezberdinek nola erantzuten dioten arazo honi.

-Proletarioek eta baserritarrek erresistentzia eskatzen dute³³⁰. Zerbait gehiago seinalatuaz, 1926-

³²⁷ Ikus: ibidem, or. 219.

³²⁸ Ikus: ibidem, or. 216.

³²⁹ Ikus: ibidem, or. 171.

³³⁰ Ikus: ibidem, or. 14.

ean Txina-k bi miloi proletario zituen³³¹. Nekazari hauen artean bi talde sartzen du: nekazaritza numeroz talderik haundiena da. Gainera, erdi-proletarioen artean beste zenbait ere sartzen du, erdizka proletario edo txiro direnak alegia. Azkeriik, lumpen-proletario izenekoak, ezeren lurrik gabe geldituz gero, langabetu direnak daude³³².

-Burgesia txikiak ere erresistentzia eskatzen du³³³. Klase honetan, nekazari propietario edo nagusiak, artesanado enpresetako nagusiak, intelektualen kapa behekoenak eta komertzianta txikiak daude. Nola beren zenbakiagatik hala beren klase naturagatik seriooki hartu beharrekoak dira³³⁴.

-Burgesia nazionalak arazo zail bat dakargu. Horregatik, orain jakin behar duguna ondoko hau da: ea, egungo zirkunstantzietan burgesia nazionalakoak zer mailatakoak diren jakin nahirik, erdiko burgesiakoak, hots, hirietan eta nekazari-eskualdeetan produkzioa sostengatzen dutenak direla, esango digu Mao-k³³⁵.

-Azkenik, **konprador** edo burgesia eroslea eta feodal nagusiak inperialismaren laguntzaile leialtzat epaitzen ditu³³⁶. Gainera, klase hauk, Txina bezala erdi-koloni eta atzeratu diren herrialdeetan burgesia internazionalaren eta inperialismaren baitan bizi ohi dira³³⁷.

Halere, japonarrei ezarritako erresistentziaren ikuspuntutik egindako klase mailatze hau, geroago, eta taktika ezberdinen baitan, beste kontzeto batzuek duten mamiari dagokionean, alkarren arteko lotura diferentziaz emango da. Pundu hau bereziki ikusteak bere garrantziarik ba duelako, honetan saiatuko gara.

Ikustera goazen lehen puntu hau, Mao-k, inperialismaren azken lakaio den konprador burgesiak Txina-ko gudu zibilean zuzendaritza duen epean, hots, 1945-ko abotuz gero, formulatzen du. Hain zuzen ere, oraindik aipatu dugun mailatzea japonarren aurkako erresistentziaren epean egindakoa zen. Ohar honek ba du garrantziarik, zeren orain arte kolonialismaren arazoari hertsiki dagoki ona bakarrik mihatu dugula esan bait du. Orain, ordea, kolonialismaren zuzeneko etsaia garaitu ondoren, inperialismak zuen azken lakaioa menperatzeko herriak zein jokabide jarraitu behar duen markatzen entseiatuko da. Zenbait kontzetoen bitartez karakterizatuko du egungo

³³¹ Ikus: ibidem, or. 13-15.

³³² Ikus: ibidem, or. 171.

³³³ Ikus: ibidem, or. 11.

³³⁴ Ikus: ibidem, or. 171.

³³⁵ Ikus: ibidem, or. 10.

³³⁶ Ikus: ibidem, or. 171.

³³⁷ Ikus: ibidem, or. 10.

iraultza. Honela, proletargoaren zuzendaritza pean popular masa dela hedatuena agertuz gero, inperialisma eta feudalisma eta kapitalisma burokratikoa seinalatuko ditu etsaitzat.

Eta «popular masak» zeintzuk dira? Inperialismak eta feudalismak eta kapitalisma burokratikoak zapaldu, zauritu eta hautsitako jendeak oro, hots: proletarioak, nekazariak, soldadoak, intelektualak, komertzienteak eta beste zenbait abertzale, Txinaren Askatasunerako Harmadak 1947-ko bere Agerian idatzi izan duenez³³⁸.

Eta aipatu berri dugun kontzeto honekin batera, «herri langilearena» erabiltzen du. Honela, burrukaren maila honetan Frente alkartuak gorputz funtsezkotzat **herri langilea** beharko du, geroago popular masen demokraziara ailegatzeko³³⁹.

Are gehiago, oraingo epe honetan ere, beste indar zenbait burkideztat hartuko du. Honela, berriro ere burgesia nazionalaz mintzatuko da, nahiz eta orain aurrez baino kuido haundiagorekin onartu. Hain zuzen ere, burgesia nazionalean eta epe honetan, talde bat inperialismari loturik bezela salatuko du. Halabainan, bertako beste talde bat, ezkerrekoena, herri langileari lotzeko kapaz bezela epaituko du. Talde honi popular masa hedatu hortan parte hartzera deituko zaio³⁴⁰. Azkenik, bihotz oneko nagusi zenbait ere beharrezkotzat eta lankidetzat izendatuko du³⁴¹.

4.- Kontradizioak Mao baitan.

Laugarrenik, eta azkenik, kontradizio edo ukoen mailatze eta bereizte bat egingo du. 1937-eko abuztuan idatzi zuen «De la contradiction» bere liburua aipatu nahi dugu hemen. Liburu honetan teorizatzen du kontradizioez. Halere, gu, orain japonarren aurkako erresistentziaren epean Mao-k zein kontradizio ezagutzen duen errealtzat aipatuz gero, bere epaitzak agertzera mugatuko gara.

Lehen mailatze batetan, kontradizio dominatzailea edo nagusia eta sekundarioa edo bigarren mailakoa bereiztuko ditu. Eta orain guri interesatzen gaizun japonarren aurkako erresistentziaren epean zein den bata eta zein bestea esango digu. Honela, Txina-ren eta Japon-en arteko kontradizioa **dominatzaile** bilakatu da; aitzitik, Txina-ren **barreneko** (kanpokoaz dialektikoki osagarri dena) kontradizioak, hots, Txina-ko klaseen artekoak, **sekundarioak** bihurtu dira.

Txina-n bi kontradizio tailu ikusi izan da denbora luzez: bata Txina-ren eta inperialismaren

³³⁸ Ikus: Mao Tse Toung, «Oeuvres Choisies», IV-gn. tomoa, Edt, Pekin, 1966, or. 215.

³³⁹ Ikus: ibidem, or. 215.

³⁴⁰ Ikus: ibidem, or. 216.

³⁴¹ Ikus: ibidem, or. 215.

artekoa da, eta bestea, feudalismaren eta masa popularren artekoa. Geroztik, hots, 1931-eko irailaren 18-ean gertatutako eginkizunaren ondoren, kontradizioek aldakuntzarik sufritu dute Txina-n. Honela, Txina-ren eta inperialismaren arteko kontradizio **jeneralak** bere lekua utziko dio Txinaren eta Japondarren inperialismaren arteko kontradizio **partikularri**³⁴².

Honekin, Mao-ren kolonialismari buruzko pentsakera eta jokabidea lekutzeko genuen asmoa kumplitutzat ematen dugu.

Besterik gabe, bere kontzetualizazioaren berezitasun garrantzizkoenak aipatzera goaz.

II.- KONTZETUALIZAZIOA

Mao-ren kontzetoak sarritan militar kutsuz ikuturik datozkigu. Hala izan behar ere, zeren bere lan hauk gudu luzeen buruan eginak eta modelatuak bait dira. Esandakoa lehen kontzeto beretik konfirma ahal izango dugu.

*1.- Erresistentzia*³⁴³.

Kontzeto hau arras jakingarria da, zeren, Mao-k duen Herri ikuspegia agertuz gero, marxista batek, arazo ezberdinez beterikako Herri batetan, proletargoaren xede bereziak aurrera ateratzeko entseguan izan dezakeen duda-mudazko aukeraren aintzineari, soluzio ausarditsu bat seinalatzen bait du. Kontzeto honi erresistentzia deituko zaio. Honen ardatzean Txina-ko herriaren esistentziak bere buruaren jabe politiko ez izateko egun duen arriskoa dago orduan, Txina-ko mugimendu politiko guztiek bezela klaseek ere, zer egin behar dute? Erresistitu? Kapitulu? Ala bi soluzio hauen artean kolokan ibili? Honelako galderak ezartzen ditu Txina-ko egoera honek³⁴⁴. Eta Mao-k proletargoaren interesen izenean erresistentzia predikatzen du³⁴⁵. Gainera, nehork hontaz dudarik balu ere, zeren ikusten denez ba zen ados ez zegoen marxista zenbait, Japondarren aurkako egintzak oro gudu zuzenarenak direla baieztuko du. Eta gudu zuzen oro alkar sostengatzen delarik, gudu zuzen-kontrakoak zuzenean bilakatzea leninista baten jokabidea dela, gehiagotuko du³⁴⁶. Halere, Mao-k leninistatzat bataiatu duen hori beronek kolonialismaren aintzinean proposatzen duen taktika beharrezkotik zenbateraino at dagoen, estrategiaz eta taktikaz hitzegiterakoan ikusiko dugu.

Azkenik, kontzeto hau japondarren aurkako gudua izendatzeko bakarrik erabiltzen du. Aitzitik, inperialismaren azkeh lakaioen aurkako guduari, herrialdearen barreneko modelo ezberdinen arteko

³⁴² Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», I-gn. tomoa, orr. 295-296.

³⁴³ Ikus: ibidem, or. 295.

³⁴⁴ Ikus: ibidem, or. 170.

³⁴⁵ Ikus: ibidem, or. 171.

³⁴⁶ Ikus: ibidem, or. 189.

burruga deituko dio³⁴⁷.

2.- Askatasun nazionala³⁴⁸.

Mao-gan kontzeto hau aztertzean bi gauza kontutan hartu behar da. Bata Txina-ko herrialde osoari «Nazio» deitzen diola, da; ondorioz, Txina Haundiko askatasun «nazionalaz» ari da eta inolaz ere ez Txina Haundiko nazionalidadeen askatasunaz. Honetan Errusoen, programa bera aplikatuko da. Bestea, berriz, Txina Haundiko «Nazioa» kolonialismaren menpeko kasoan konprenitu behar dela da.

Honela lekutuz gero, ikus dezagun Mao-ren zenbait aburu.

Erresistentziako guduaren epeari dagokionean, oro erresistentziako interesetara menpekotu behar dela dio. Klaseen barruko xede bereziak ere Erresistentziako interesen pean jarri behar dira. Halere, klaseen esistentziak eta berenarteko burrukak ukatuezinezko errealdade izaten jarraitzen dute Mao baitan. Ez du klase esistentziarik ukatzen, klasetasuna zirkunstantzietara egokitu baizik ez du egiten³⁴⁹. Egungo egoera formula batetan bildurik, ondoko hau emango luke: jopardarren aurkako «nazional» burrukaren menpean klaseen burruka lekutu. Zeren «nazioaren» aurkako etsaiarekin burukatzen denean, klase-burrukak «nazional» burrukaren forma hartzen bait du³⁵⁰. Eta urrats bat emanik, honelako egoeran, hots, erresistentziarenean, «nazional burruka» klase-burrukako eskabide guztien irtenbide izan behar duela, dio³⁵¹. Hemendik dator, beraz, nazio eta klase menperatuen esistentzia³⁵².

Gerra guztiak ardatz honen loturan doazenean bakarrik dira gerra zuzenak, zeren menperatzaileek ezartzen duten menpekotasunak bi forma hauk har bait ditzake.

3.- Herriko indar iraultzaileak³⁵³.

Hauen mugaketa, batetik, ez direnei oposatuaz egiten du. Hemen atzerriko inperialismaren indarrak eta Txina-ren barreneko kontra-iraultzaileenak daude, hots: nagusi txarrak eta konprador burgesiakoak, eta abar. Bestetik, berriz, iraultzaile zein diren seinlatu nahirik, ondoko helburu hauk onartzen dituzten indarrak daudela, dio, hots: Txina, bere lurraldearen osotasuna gozatuaz gero,

³⁴⁷ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», IV-gn. tomoa, or. 15.

³⁴⁸ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», II-gn. tomoa, Ed. Pekin, 1967, or. 211.

³⁴⁹ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», II-gn. tomoa, Ed. Pekin, 1967, or. 211.

³⁵⁰ Ikus: ibidem, or. 231.

³⁵¹ Ikus: ibidem, or. 231.

³⁵² Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», I-gn. tomoa, or. 188.

³⁵³ Ikus: ibidem, or. 179.

Estadu libro eta independente nahi dutenak³⁵⁴.

Baina, ez da hau guztia, zeren ondorengo idazkietan kontra-iraultzako indarrek nazional frentea alkartuaren barrenean ere esistentzia ba dutela esango bait du: Trotskista deituko dituen indarren esistentzia da hau³⁵⁵. Hauen jokabidea, Txina-n burgesia-ren iraultza demokratikoa eginik dagoela esan ondoren, egun sozialista iraultza egin behar dela predikatzena bihurtuko da³⁵⁶. Honela, hauk japonarren aldeko jokabidearen jarraitzaile bezela salatuko ditu³⁵⁷.

4.- Demokrazia eta askatasuna³⁵⁸.

Kontzeto hauk aztertzerakoan behin ere ez da ahaztu behar erresistentzjaren egoeran lekutzen dela Mao. Eta politiko mailan, demokrazia eta askatasuna erdiesten entseiatzea dela erresistentzian garaitzeko premisa bakarra, baieztuko digu³⁵⁹.

Erresistentziak herrialde barrenean pakea eta batasuna eskatzen dituela, dio, eta xede horik lortzeko nola demokrazia hala askatasuna baldintza batzuk baizik ez direla. Areago, erresistentziak herriaren mobilizazioa eskatzen duelarik, demokrazia eta askatasuna dira horren katea³⁶⁰. Orduan, erresistentzia jokabide delarik, horretarako herrialdearen barreneko pakea behar bait da, honek demokrazia eskatzen du. Eta interesen hirurko honen bilakatzearekin japonarren aurkako guduan garaitzeko prest sentitzen da Mao³⁶¹.

Bestalde, demokrazia eta askatasuna helburu bezela ere aipatzen ditu, dionean:

«Komunista Alderdia, Kuomintang eta herria ondoko hiru helburu hauk erdiesteko alkartu behar dira: Nazional Independentzia, demokrazia eta askatasuna eta herriaren zoriona»³⁶².

Halere, ez da guztia hemen bukatzen; aitzitik, kontzeto honen alde baikor edo positiboa ere aipatuko da. Demokrazia berriaren kultura, hots, popular masen kultura inperialisten eta feudalen kontrakoa dela, esango zaigu; kultura hori proletargoaren ideologiak eta kulturak bakarrik zuzen

³⁵⁴ Ikus: ibidem, or. 179.

³⁵⁵ Ikus: Mao, «Oeuvres Choiesies», II-gn. tomoa, or. 215.

³⁵⁶ Ikus: Mao, «Oeuvres Choiesies», I-gn. tomoa, or. 187.

³⁵⁷ Ikus: Mao, «Oeuvres Choiesies», II-gn. tomoa, or. 215.

³⁵⁸ Ikus: Mao, «Oeuvres Choiesies», I-gn. tomoa, or. 299.

³⁵⁹ Ikus: ibidem, or. 299.

³⁶⁰ Ikus: ibidem, orr. 299-300.

³⁶¹ Ikus: ibidem, or. 301.

³⁶² Ikus: ibidem, or. 303.

dezakete³⁶³.

5.- *Abertzaletasuna eta internazionalismo*³⁶⁴.

Nork ez daki komunisma bere definizioz internazionalista deia? Hortan ez dago dudarik. Baina, internazionalismo honen baldintzak zeintzuk diren erabakitzean, nahaste berraste haundiak egon ohi dira. Eta hauetariko bat abertzaletasunak ezartzen diona da. Halere, Mao-k ba du hontaz bere aburu tinkorik. Bere aburuan komunista batek abertzale izan behar du. Baina, abertzaletasun bakoitzaren mamia mugatzea baldintza historikoen baitako zerbait da.

Bi abertzaletasun mota dagoela, dio. Bata menperatuena da, hots, gurea; bestea, komunistek aurkatu behar duten menperatzaileena, hots, japoniarrena, edo Hitler-ena, edo...³⁶⁵

Azkenik, eta guzti hau askatasun «nazionalako» guduetan, abertzaletasuna internazionalismaren aplikazio bat dela esanaz amaituko du.

Gainera, une berean, internazionalismo ere praktikatzeko dutela agertuko du, zeren Txina-ko burruka internazionalismaren helburu den inperialismaren aurkakoa bait da. Eta honetaz inork dudarik badu, bere diskurtsoa koroiatuko duen baiezkuntzarik ausarditsuena gogo araziko diogu:

«Gu, Txinok, azkenengo odol tantoraino etsaia burrukatzeko prest gaude, galdurik duguna gure kuraiarekin erdieste erabaki bait dugu, nazioarteko harremanetan gure maila gordetzera ailegatu bitartean»³⁶⁶.

III.- ETAPAK

Txina-n eramandako jokabidean etapa zenbait bereiztuko digu Mao-k.

Lehenik, eta hasiera bezela, 1924-tik 1927-ra arteko burgesia mailako iraultza demokratikoa aipatzen duelarik, amaitu gabekotzat epaituko du etapa hori³⁶⁷. Izan ere, gudu epe hau proletargo internazionalak eta txinoak beren partiduekin Txina-ko burgesia nazionalagan eta bere partiduagan zuten politiko eraginaren baldintzen pean eta kooperatze politikoaren seinale pean igaro zela esan bait liteke. Baina, guduaren eta iraultzaren momento kritiku batetan, burgesiaren azpijokoa zela medio eta iraultzaileen mailan oportunitas, iraultzaren zuzendaritza galdu zenean,

³⁶³ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», II-gn. tomoa, or. 399.

³⁶⁴ Ikus: ibidem, or. 212.

³⁶⁵ Ikus: ibidem, or. 212.

³⁶⁶ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», I-gn. tomoa, or. 188.

³⁶⁷ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», I-gn. tomoa, or. 187.

gudu iraultzaile hau frakaso batetan bilakatu zen³⁶⁸.

Bigarrenik, Txina-ko Komunista Alderdiaren zuzendaritza pean jarraitzen duen 1927-tik 1935-ren abendu arteko nekazari-iraultza dator. Hau ere burgesia mailako iraultza demokratikotzat epaitu du, zeren inperialismaren eta feudalismaren aurkakoa izanik ere, ez bait zen kapitalismaren aurkakoa³⁶⁹.

Hemen, zenbait baldintza berri ematen da. Iraultza honetan, etsaia, inperialismaz beste, burgesia haundiaren blokea eta feudal nagusi haundiak dira. Burgesia nazionala, berriz, burgesia haundiaren erremolkean jartzen da. Komunista Alderdiak zuzentzen du absolutoki gudu hori³⁷⁰. Honela, 1924-tik 1927-ra arteko lehen nazional fronte bateratuaren frakasuz gero, iraultzak klase guduaren hegi sakonago eta beroago bat hartzen du Txina-n³⁷¹. Epe honen luzaroan Komunista Alderdiak, Tchen Tou-sieou-ren eskubiko oportunistaz eta Li Li-san-en ezkerkeriaz at, beste bi failu eduki du. Bata ezkerreko oportunisma da, 1931-tik 1934-ra arteko nekazari-iraultzari galera haundiak ekarri dizkiona; bestea, berriz, Tchang Kouo-ta-ren 1935-tik 1936-ra arteko eskubiko oportunisma da³⁷².

Hirugarrenik, 1935-eko abenduaren 9-ean Mao-k finkatzen duen Japon-en aurkako gudu nazionala dago. Eta epe berri hau bitan bereiztuko du.

Lehena 1937-eko otsailean amaituko da, hots, Kuomintang-en Komite zentralaren hirugarren batzarrarekin. Epe hontako xede getaria raazional osasunaren aldeko iharduna izanen da. Hortarako, hau da, Japondarren aurka burrukatzeko, nazioaren barneko pakea zen xederik nagusia.

Bigarrena, berriz, japondarren aurkako gudu nazional iraultzailearen epe honetan gero hain ezaguna izan den lau klaseekiko fronte bateratua agertzen da Txina-ko iraultzan. Bertan daude gizarte horren goi mailako diren gobernu giroko zenbait ordezkari, esaterako: erdi mailako burgesia nazionala eta burgesia txikia, eta behe mailako proletario oro. Honela, japondarren inperialismaren aurkako burrukan «nazioko» kapa sozial esberdinen soldatze bat bezela egiten da³⁷³.

Mao-rentzat etapisma behar-beharrezkoa da, bada. Hurrengo puntuan ikusten entseiatuko garenez, horren koska, edota nahi eta nahiezko baldintza, langileriaren mugidak bere zuzendaritza

³⁶⁸ Ikus: ibidem, or. 214.

³⁶⁹ Ikus: ibidem, or. 187.

³⁷⁰ Ikus: ibidem, or. 214.

³⁷¹ Ikus: ibidem, or. 229.

³⁷² Ikus: ibidem, or. 215.

³⁷³ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», IV-gn. tomoa, or. 403.

eraman behar duela izango da.

IV.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Kontzeto hauen esan nahia, Mao baitan, bikoitza dela aipatzez hasiko gara. Eta zertan dago beren bikoiztasuna? Batetik estrategia-taktika militar zentsurik hertsienean erabiltzen du. Bestetik, berriz, taktika iraultza osoaren mailako eginkizun bereziak aipatzeko dakar; eta iraultza osoaren interesak izendatzeko estrategia ezik, **egitekoa**, **objetiboa** eta abar erabiltzen ditu. Fite, bada, bi maila hau konkretuki nola garatzen diren ikustera igaroko gara.

Estrategia bere militar zentsurik hertsienean nola erabiltzen duen ikusteko, zenbait testo aipatuko dugu:

«Linea barrenean bere estrategia gure harmadak eraman duenean arrazoi eduki du, nahiz-eta horren truke 300.000 hil eta zauritu eta etsaiari lurralde zabalak utzi izan behar, zeren horri esker gure harma-dak une eta leku guzietan bere iniziatiba gorde ahal izan bait du»³⁷⁴.

Seinalatzekoa da ere **estrategia** kontzetoa bere zentzu hertsian erabiltzean, batzutan **egitekoaz** izendatzen duela. Areago, lehen helburu edo objetibu printzipalaren kontzetoa ere zentzu berean erabiliko du:

«Askatasunaren aldeko popular harmadak estrategia zuzen bat hautatu zuen, zeren lehen helburua Kuomintang-en indar biziak garbitzea bait zen eta ez lurraldeak gordetzea»³⁷⁵.

Zentzu hertsian honetan helburu baten barreneko etapan zirkunstantzietara egokitzean egongo da taktika.

Baina, guretzat une honetan duen interes bereziagatik, iraultza osoaren mailako estrategia eta taktika kontzetoak mugatzea da garrantzitsuago. Honela, bada, Mao-ren pentsakeran, Txina-ko iraultza osoari dagokionean, estrategia sinplea ezik konposatua ere ba da. Hots: Txina-ko iraultza azken garaipen osora ailegatu arte etengabe zuzendu beharra dago. Garaipen hau anitz izanik, proletargoaren alderdiak edo partiduak hauetariko bakoitzaren aintzinean parte hartu behar duela, hori argi eta garbi utziko du Mao-k. Honela, batzutan hau bera **egiteko** kontzetuz aipatuko du:

³⁷⁴ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», IV-gn. tomoa, or. 143.

³⁷⁵ Ikus: ibidem, or. 315.

«Txina-rentzat egiteko haundia da bere askatasuna eta independentzia erdiestea. Eta honek jopardarren inperialismarekin eta Txina-ren barreneko kontra-iraultzarekin gudu bat eskatzen du»³⁷⁶.

Beste batzutan lehen helburu bezela agertzen zaigu:

«Gure lehen helburura jo behar dugu, hots, jopardarren inperialisma eta Txina barreneko traidoreak garaitzera»³⁷⁷.

Azkenik, egiteko esentzial bezela aipatuko du:

«Oraindaino proletario, nekazari eta hiriko burgesia txikiaz osaturik egon den gure gobernu, jopardarren inperialismari Txina-ren menpekotasuna oposatzea egiteko esentziala delarik, nazional iraultzan parte hartzeko prest dauden beste klaseetara ere iriki behar da popular errepublika izendatuaz»³⁷⁸.

Estrategia hau Txina-ko komunista Alderdiak bere funtsezko egiteko bezela azaltzen du:

«Nazional guduaren epean Txina-ko komunista Alderdiaren egitekoa, gudu hau bere indar guziekin garaipenera eramaten ahalegintzea da»³⁷⁹.

Aintzineko marxistek kolonietako Komunista Alderdien jokabideari buruz ziotena, Mao-k, testo horietan ikus daitekeenez, sakonetik deuseztatzen du. Izan ere horietarik pentsakerarik aurrelariena zuenak berak ere, hots, Lenin-ek, «PREMIERE ébauehe des thèses sur la question nationale et coloniale» 1920-eko idazkian, ondoko hau zion:

«Internazional Komunistak kolonietako burgesia mailako mugida nazionalik ez du sostengatu behar; komunista elemento horik beren nazioko burgesia demokratikoaren mugiden aurkako burrukaren egitekoan hazi gabe baldin badaude; fusionatu edo bat egin, hori inoiz ere ez du egin behar»³⁸⁰.

Mao-k, aitzitik, burgesia mailako mugida demokratiko horik proletargoaren helburuen barruan sartzan ditu. Nazional fronte bateratuaren sabelean Harmada gorriaren eta Komunista Alderdiaren

³⁷⁶ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», I-gn. tomoa, or. 179.

³⁷⁷ Ikus: ibidem, or. 181.

³⁷⁸ Ikus: ibidem, or. 183.

³⁷⁹ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», II-gn. tomoa, or. 211.

³⁸⁰ Ikus : lan hortan or. 28-29.

papera zuzendari izatea da. Lenin-en sostengatze baldintzatutik, hots, **ez fusionatzetik**, Mao horien **zuzendaritzara** igarotzen da. Mao-rentzat burgesia haroan sorturiko eskabide anitzek proletargoaren mugidarekin bakarrik dute aterabide.

Inperialisma japonsarraren aurkako kolonial gudian iraultza osoaren mailako taktika, Frente nazionalarena da Mao-rentzat. Zein da Komunista Alderdiaren egiteko taktikorik funtsezkoena? Frente nazional bateratu eta iraultzaile bat sortzea eta ez besterik. Halere, iraultzailearen egoera aldatzean, iraultzaren zuzendaritzaren metodoak eta taktika bera ere birberritu egin behar dira³⁸¹. Gainera, esanen du, zerbait haundi erdietsi nahi badugu, antzinateko zirkulo itxitik atera beharrean gaude; iraultzaile den taktika sano bat atzeman behar dugu³⁸².

Guzi hau marxista-leninista al da?, galdatzen da Mao. Nik baietz diot, erantzuten du: nazional frente bateratuarena da eta inola ere ez «ate itxiekiko» egoera³⁸³. Baina marxista leninista izatea zertan den mugatu beharko dugu, zeren, aipatu berri dugunez, Lenin-en baitan ez bait zen horrelakorik sartzen.

Ikus dezagun, bada, Mao-ren arrazoiketa: marxisma-leninisma iraultzaren zenbait mailatan agertzen den haurtzaroko gaixoari oposatzen zaio. Eta haurtzaroko gaixoa hauxen da: «ate itxiekiko» taktika defenditzen jarraitzea³⁸⁴.

Mao-rentzat argi-eta garbi dago, beraz, marxisma-leninismak kolonialismari buruz emandako printzipioak, dotrina horren jarraitzaile den harentzat ere, ez direla akabatuak eta funtsezkoak.

Azkenik, Txina-ko Komunistak Alderdiak eta herriak, internazionalismaren muga gorde dezaten, japonarren aurkako frente bateratuak munduan zehar esistentzia duen pakearen aldeko frentearekin alkartzea erdietsi behar dutela, dio Mao-k. Pakearen irizpidea agresiorik-eza izango da, erasorik-eza. Gainera, inperialista diren potentzia guztien aurka ere ez dago frente bateratua zergaitik jarririk, japondarrei erresistitzeko bait da³⁸⁵.

V.- SOLUZIOAK

Kolonialismaren menpeko Herrialde den Txina-n Komunista Alderdiak ba du biderik gudu kolonialean japonarren inperialismaren kontra garaile irtetzeko. Hona hemen bidea: nazional

³⁸¹ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisies», I-gn. tomoa, or. 179.

³⁸² Ikus: ibidem, or. 180.

³⁸³ Ikus: ibidem, or. 182.

³⁸⁴ Ikus: ibidem, or. 182.

³⁸⁵ Ikus: ibidem, or. 296.

frente bateratuaren taktika nola demokratiko hala espezifikoki sozialista diren eskabideak oro banan banan eta guztiak erdietsi arte etengabeko iraultzan entseiatu. Bide horretan, proletargoaren interesen garaipenera heltzeko bi gauza hartu behar dira kontuan: bata Komunista Alderdiaren eta Harmada gorriaren zuzendaritza da; eta bestea, gudu kolonial horren buruan Komunista Alderdiaren independentzia gordetzen ahalegintzea.

Ikus dezagun guzti hau nola konstatatzen duen Mao-k; egun iraultzaile eremuaren berezitasuna osotzen duena Harmada gorriaren eta Komunista Alderdiaren ondo egokiturikako esistentzia da³⁸⁶.

Areago, jopardarren aurkako fronte bateratua Harmada gorria eta Komunista Alderdia esistitzen eta bilakatzen diren hainbatean bilakatuko da. Izan ere, molde honetakoa da Komunista Alderdiaren eta Harmada gorriaren paper zuzentzailea³⁸⁷. Iraultza langileriaren azken garaipen batetan bilaka dadin, fronte honen gobernuan proletarioak eta nekazariak izan behar dira nagusi, Komunista Alderdia zuzendari delarik; orduan, beste klase batzuk ere hor barruan egoteak ez du arriskorik ekarriko³⁸⁸. Oraino, iraultza hori garaile bukatzeko proletargoak dadukan zuzendari papera nahi eta nahiezko da³⁸⁹.

Komunista Alderdiaren zuzendari eginkizun hau printzipio bat ez ezik, praktika bat ba dela erakutsiko du Mao-k. Txina-ko Herri guztiaren aintzinean eta hamabots urteren luzaroan Komunista Alderdia bere laguna dela argi utzi da. Zeren, iraultzaile gudian beti lehen mailan jokatuaz gero, bere interesak defenditu eta bere askatasuna eta jasokuntza gudukatu bait ditu etsai guztien aurka³⁹⁰. Halere, Mao baitan, esandako guztia beste zerbaitez osotu behar da: Frente bateratuko Alderdi ala mugimendu bakoitzak, ideologian, politikan eta bere erakundean independentzia gorde behar du³⁹¹.

³⁸⁶ Ikus: ibidem, or. 183.

³⁸⁷ Ikus: ibidem, or. 185.

³⁸⁸ Ikus: ibidem, or. 187.

³⁸⁹ Ikus: ibidem, or. 306.

³⁹⁰ Ikus: ibidem, or. 215.

³⁹¹ Ikus: Mao, «Oeuvres Choisis», I-gn. tomoa, or. 216.

2.- B. HO TXI MINH eta VIET NAM

Horrenbeste denboraz animatzaile eta gidari izana den gizonarekin perpausa bat eginaz etorriko gara aztertzen Viet Nam-go herriak askatasun bidetan zehar egindako joanaldi luzea. Hain zuzen ere, herri bateko iraultza gidari baten politikagintzarekin pertsonafikaturik etorri ohi bait da sarritan. Guri Viet Nam-go iraultzan izan duen eraginagatik interesatzen zaigu batipat Ho Txi Minh.

Mao-k Txina-rekin bezela, Ho Txi Minh-ek bai ote dakar teorigintza marxista berri bat? Hori da guri interesatzen zaigun gaia. Bere politikagintzaren lehen aztarnak aspalditik datozenak izaki, erantzuna, garaiko xedeen arabera, zatiturik datorke.

Orain, sarrera gisa, teoriaren aldetik nola gertuturik zegoen agertuko dugu. Gero, ondorengo ataletan, praktikan nola jokatu zuen arloari lotuko gatzaizkio.

I.- ATARIKO GISA

Ho Txi Minh 1920-30 urte-inguru horretan politizatzen da gehienbat. Europa-ko komunista-giroan eta konkretuki Frantzia-ko Komunista Alderdian militatzen du³⁹². Viet Nam kolonizaturik dadukan Frantzia-ko politika-giroan. eta bertako Alderdian integraturik lekutzen dugu Ho Txi Minh-en hastapeneko ekintza politikoa. Testu-inguru honek duen garrantziaz konturatzeko, xifre batzuk aurreratzen ditugu:

«Frantzia-ko koloniak 55. 571.000-eko jendetza daduka bere azpian, lau kontinenteetan zehar hedaturik...; eta koloni-herrialde guzi hautan merkatalgoa eta industria arras exkakak izan dira, bertako jendea ia erabat nekazaritzari emana bait dago, hots, %-eko 95»³⁹³.

Kolonial arazo honi nola erantzuten dio Frantzia-ko Komunista Alderdiak? nola, Internazionalak?

Ho Txi Minh bere kontura oso gutti «teorizatu» duela³⁹⁴, esan izan da. Ba dirudi baieskuntza honetan ez dagoela akats haundirik. Teorigilea ez bazen ere, halare, zuhurtasun bizkorra erabili zuen bere politikagintzaren problematikaren alderdi «teorikoa» eta «praktikoa» alkarrengandik zehazki bereizten. Ho Txi Minh-entzat hitzek hainbat balio dute obrek. Hauxe da lehenik konstatatu nahi

³⁹² Ikus: Jean Lacouture, «Ho Chi Minh», Editions du Seuil, 1967, «Le militant» atalean, orr: 28-44.

³⁹³ Ikus: Ho Chi Minh, «Oeuvres choisies» (1922,-1967), Maspero, 1970, «Intervention sur la question nationale et coloniale au V^o18 Congres mondial de l'internationale communiste» (1924), or. 39.

³⁹⁴ Ikus: Jean .Lacouture, «Ho Chi Minh.», «CI6s pour un revolutionnaire», or. 189

genuen oharra.

a) **Teoriari** gagozkiola, Lenin-engandik hartuko du osoki kolonialismari buruzko teoria. Hare n izena oso goitik aipatzen du, dionean bera izan dela lehenik jabetu zena kolonial arazoek mundu guziko iraultzarekiko zuten garrantziaz eta herri horietan mugimendu nazional-etaz ontsa baliatzeak zekarzkikeen abantailez³⁹⁵. Oraindik areago joango da:

«Nazional arazoaz, Lenin-ek Errusia-n emandako Sobieten soluzioa eta Komunista Alderdiaren jokabidea, propaganda-bide arras ziztagarri zaizkie herrialde kolonizatupei»³⁹⁶.

Testo honetan agertzen denez, kolonialismari buruzko teoria jadanik emanda dago. Soluzio-bide etsenplugarririk ere ez da falta.

Bainan gauzak ez dira nunbait uste bezain sinpleak. Honela, bada, eta ikusirik maixuen irizpideek uniformetasunik ez zutela, Ho Txi Minh bere bidetik abiatuko da kolonial-tesia eraikitzen, edota jokabide politikoak bere kontura hartzen.

Ho Txi Minh-en ustez, Sartaldeko Europa-ko iraultza hertsiki itsasirik dator herri kolonizatueta mugimendu abertzaleekin eta inperialkeriaren kontrako guduarekin. Nazional arazoa langileriaren iraultza osoaren zati bat bezela kontsideratzen du³⁹⁷.

Trotskyen kontra noski, iraultzaren barne-antolaketan zuzenki «proletario» ez diren beste indar batzuk ere sartuko ditu, hara nola nekazariak, abertzaleak, eta abar. Maila honetan ez zaio zalantzarik izpirik somatu ahal izan. Errotik kondenatzen du, beraz, Trotskyen jokabidea:

«Trotskye-i dagokienez, horiekin ez alkarterik eta ez kontzesiorik... Horiek politikoki garbitu egin behar dira»³⁹⁸.

b) Kolonial politikagintzaren hegi **praktikoa** aztertzen duelarik; Ho Txi Minh-ek arlo hontan egiten duen salakuntza biziki zorrotza da. Segarekin bezela ebakitzen du garaiko praktika komunistak kolonial barrutian ereindako bedar txarra. Eta bere lehenehgo akusamendua zuzanki II-gn. Internazionalareri kontra doa; kolonial herrietan inperialisten jokua mantendu zuelako

³⁹⁵ Ikus: Ho Chi Minh, «Oeuvres choisies», «Lenine et l'Orient» (1926), orr. 31-312.

³⁹⁶ Ikus: ibidem, or. 32.

³⁹⁷ Ikus: ibidem, «Intervention sur la question nationale et coloniale au V^e Congrès mondial de l'Internationale communiste», or. 34.

³⁹⁸ Ikus: ibidem, «La ligne du Parti durant la période du Front démocratique» (1936- 1939), or. 85..

kondenatzen du batez ere haren jokabidea. Berak:

«Bere kolonial politikan, beste inork baino gehiago, II-gn. Internazionalak egiazko organizazio burges txikiaren jokua egin du»³⁹⁹.

III-gn. Internazionalaran jokabide praktikoa ere, barruko zuzendarien teori-eztabaideetatik at, negatibutzat epaitzen du.

Komunista Alderdien kolonial ardura zeinen kamutsa zen konstatatzeko, aski indartsua iruditzen zaigu Ho Txi Minh-en testigutza hau:

«Arazo honetan gure Alderdiak egin duten guzia ez da gauza asko. Eta nik ene partez, Frantziak kolonizatutako herri batetako eta Frantzia-ko Komunista Alderdikoa naizenez gero, garrantasun haundiz aitortu behar dut gure Alderdiak oso gutti egin duela kolonien alde»⁴⁰⁰.

Zergatik? Lau arrazoi ernaten ditu egoera honen ulertzeko.

Lehenengo: Frantzia-ko kolonien geografiazko hedatasunetik dator lehen zailtasuna. 4.120.000 k-2 dituzte (8 bider Frantziaren lurraldea) eta 48.000.000 biztande. Herri hautan hogeitazik gora mintzatzen bait dira, ez da posible egiten marxisma-leninismaren propagandak bere mezu iraultzailea barreia dezan⁴⁰¹.

Bigarren: koloniei buruz hiri-nagusietako edo metropoliako langileria hotz eta arrotz sentitzen da. Ez da interesatzen, beraz⁴⁰².

Hirugarren: Langileri-alkartasuna falta delako, aurre-iritziak daude bi alderdietako langileriarengan. Alkar-ezagutu ezik, beti mesfidantzan bizi behar⁴⁰³.

Laugarren: Komertziorik eta industriarik ez dagoelako, inork ez daki zer den klase-burruka⁴⁰⁴.

Hemen ematen diren arrazoi hauk ez dira batere makalak, ezta ere egun batetik bestera gainditu

³⁹⁹ Ikus: ibidem, «Lenin et l'Orient», or. 31.

⁴⁰⁰ Ikus: ibidem, «Intervention sur la question nationale et coloniale au V^e Congrès mondial de l'Internationale communiste», or. 35.

⁴⁰¹ Ibidem, «Quelques reflexions sur la question coloniale (1922)», atalean, or. 5

⁴⁰² Ibidem, or. 6.

⁴⁰³ Ibidem, or. 7.

⁴⁰⁴ Ibidem, or. 6.

ahal modukoak.

Zailtasunak zailtasun, esan dezagun ba dela Ho Txi Minh-en aburuz traba horik kentzen ahalegindu den Alderdi bat. Errusia-ko Alderdia da bera⁴⁰⁵. 1920-ean Bakoungo Batzarrekoan eraikitako «Sortaldeko Ikastetxeagatik» hauxe dio:

«Lehenengo aldiz anaikero alkarri eskua ematen diote Sartaldeko Estadu irabazleetako langileriak eta Sortaldeko herri zapalduetakoak, eta batera deliberatu dute nola efektibuki bota guzieren etsaia den inperialkeria»⁴⁰⁶.

Errusia-ko izar bakar horrek ez du emanen, ordea, beste Alderdien (berezi ingelesez eta frantsesez) pasibukeriaren gau iluna argitzeko hainbat argi⁴⁰⁷. Ezin justifika daiteke, ezta inolaz ere!, Alderdien epelkeria hori.

Honerate Ho Txi Minh Europa-n ikusi dugu, Europa-tik milaka kilometrotara dauden kolonietaruntz begira ikusi ere. Bere begiek, lehen esan dugunez, III-gn. Internazionalaren teori-ikuspuntuetatik begiratzen dute.

Bere herrian zer-nola jokatu duen, beste ataletan agertuko da. Besterik gabe, goazen bigarren pundura.

II.- KONTZETO NAGUSI BAT: EMULAZIOA

Nahiko jakineko gauza da Ho Txi Minh ez zela gehiegi sartu eztabaida teorikuetan. Bere hildoak batez ere enpiristikuki urratu zituen⁴⁰⁸. Ba dakigu, bestalde, III-gn. Internazionalan eskolatua izan zela.

Kontzetoen mailan gauzak argitzen lanik ematen ez badigu ere, ba da, halere, Ho Txi Minh baitan bere iraultzari halako nortasun berezi bat ematen dion ideia gidatzaile bat. «Emulazioa» da bera. Kontutan har ehun bider darabilela bere idazkietan⁴⁰⁹. Ideia honekin iraultzaren **norakoa** markatzen du. **Moral** zentzuan darabil.

⁴⁰⁵ Ibidem, «Intervention sur la question nationale et coloniale au V^e Congrès mondial de l'Internationale communiste (1924)» atalean, or. 34.

⁴⁰⁶ Ibidem, «L'URSS et les peuples coloniaux (1924)» atalean, or. 20; orobat, ikus «Le procès de la colonisation française» atalean IV-garren zatia «La Revolution russe et les peuples coloniaux», or. 75.

⁴⁰⁷ Ibidem, «Intervention sur la question nationale et coloniale au V^e Congrès mondial de l'Internationale communiste (1924)» atalean, or. 25.

⁴⁰⁸ Ikus: «Ho Chi Minh», Jean Lacouture, «Cles pour un révolutionnaire» atalean, 189-gn. or.

⁴⁰⁹ Ikus: ibidem, or. 189.

Zer da «emulazioa»? Zertarako? Erantzuna, piskabat estutuaz, hiru elementuetara laburtzen da:

1) Emulazioak, helburu bezela, komunismogintzara darama gizartea⁴¹⁰. Produkzioa bizkortzeko eta ekonomia zuzen batetarako beharrezko diren elementuak (hots, lehen materialak, denbora, lan-indarra, eta abar) ongi erabiltzeko, emulazioa lagun on bat da⁴¹¹.

2) Honela, emulazioak abertzaletasuna eta internazionalisma errealki praktikatzeko bidean jartzen gaitu, zeren «Errusia-ko herriek, Txina-k, eta beste zenbait herri lagunek ere bai, emulaziozko esperientzia anitz eman bait digute»⁴¹².

3) Eta, azkenik, emulazioak, lanaren bidez gizon berri baten bilakatzea dakar:

«Emulazioa praktikatzea gizona bir-hezitzea da»⁴¹³.

Hemen ere konstatazio bat egin nahi litzake: alegia langileriaren bilakatzeak, bere iraultzaren sua gordeko badu behintzat, beharrezko duela emulazioaren indar-eragilea; edota, nolabait esateko, halako etikotasun baten beharra argitan jartzen du Ho Txi Minh-en kontzeto honek.

III.- ETAPAK

Lau emanaldi berezitan banatuko dugu Viet Nam-go iraultza.

1.- Lehenengo etapa Indotxina-ko Komunista Alderdiaren sortzeak seinalatzen du. 1930-gn. urtea da. Kontutan har dezagun, 1884 ezkerko Frantziaren menpean zegoela Indotxina kolonia. Komunista Alderdia sortuaz beste hiru talde komunista ere han bait zebiltzan bakoitza bere bidetik, denak Viet Nam-go Komunista Alderdiaren izen pean alkatuko dira⁴¹⁴.

Alderdi honen hasierako xedeak ondorengo hauk dira.

Lehenengo. Viet Nam-go herritik frantsesen inperialkeria uxatuz gero eta bizirik dauden feudal eta burges atzerakoien arrastoak garbituz gero, Indotxina guzirik askatasun osoa lortu nahi da, masak **askatasun demokratikoen** jabe izan ditezen. Lehen pauso bezela, askatasun demokratikoak

⁴¹⁰ Ikus: «Ho Chi Minh», «Oeuvres Choisies», «Allocution a la seance d'ouverture du Congres national des combattants d'emulation et des cadres modeles (1er mai 1952)». atalean, 135-gn. or.

⁴¹¹ Ikus: ibidem, or. 189.

⁴¹² Ikus: ibidem, or. 141.

⁴¹³ Ikus: ibidem, or. 142.

⁴¹⁴ ibidem, «Appel a l'occasion de la formation du Parti communiste indo-chinois (18 février 1930)» atalean, 82-gn. or..

eskatzen da, beraz.

Bigarren. Esplotatazaile guztien ondasunak konfiskatuz gero, ondasun horik langileek, nekazariak eta soldaduek eraturako gobernuaren zaindaritza pean jarri nahi dira⁴¹⁵. Xede honek gizarte-egiturak aldatu nahi ditu.

Epe honetako antolaketak, 1936-1939 tarte hortan, abertzaletasuna utzirik, **internazionalismo** praktikatzen du. III-gn. Internazionalak «fazisten kontrako Frontea»-ren estrategia inposatzen du⁴¹⁶ 1935-eko VII-gn. Batzarraren ondotik. Ho Txi Minh politikagintza honi makurtzen zaio. Nazionalismaren inguruan sekulako mesfidantza dago.

Viet Nam-go Komunista Alderdiak, beraz, legezko erakunde politiko bilakatzen delarik eta bere jomuga eskabide demokratikuetara soilki mugatzen duelarik, Frente Demokratiko Nazionala muntatuko du. Frente honetan sartuko direnak, ez dira Indotxinoak bakarrik izango, baita frantsez aurrerazaleak ere; ez langile-klasea bakarrik, baita burgesia nazionala ere⁴¹⁷. Alderdiak ez dio inposatuko bere zuzendaritza Fronteari»⁴¹⁸.

Internazionalismaren haroa izaki, Mosku-ko haizeak darabil Viet Nam-darren ikurrina.

2.- Bigarren etapan, 1941-eko maiatzaren 19-ean Pao Bo (Ipar Viet Nam-en) egindako VII-gn. Batzarrekoan, Alderdiak **abertzale** joera hartuko du. Orain «VIETMINH» edota «Viet Nam-en Askatasunaren aldeko Frontea» sortzen da⁴¹⁹.

1940 eskero Indotxina okupatzen zuten japonesak eta aspaldiko frantsez kolonialista zaharrak dira oraingo etsaiak⁴²⁰. Etsaia atzarritarra da. Eta honen kontra Frontean burrukatu direnak, nortzuk ote dira? Begira, 1945-ean, harmetan altxatzeko deia egiterakoan, zer dion:

«Viet Nam-go Askatasunaren aldeko Ligak miloika sinpatizarite du eta giza-kapa guzietarikoak dira: intelektualak, nekazariak, langileak, finantziariak, soldaduak; baita nazionalidade

⁴¹⁵ Ibidem, 84-gn. or.

⁴¹⁶ «Ho Chi Minh», Jean Lacouture, «Cles pour un revolutionnaire» atalean, 194-gn. or.

⁴¹⁷ «Oeuvres Choisies», Ho Chi Minh, «La ligne du Parti durant la période du Front démocratique (1936-1939)» atalean, 85-gn. or.

⁴¹⁸ Ibidem, 85-gn. or.

⁴¹⁹ Ibidem, «Leftre de l'étranger (1941)» atalean datorren oharra ikus: VIII-garren Batzarrean bildu zirenak, hona hemen: partidu politikuak, organizazio popularrak eta nazionalistak. Guzira, 60 delegadu. ikus, 87-gn. or.

⁴²⁰ Ibidem, «Declaration d'indépendance de la République démocratique du Vietnam, (2 septembre' 1945)» atalean, 96-gn. or.

guzletarikoak ere, hara nola Tho, Nug, Muong, Nam. (...) Aberrikide guztiak batzen dira hemen, diruari eta erlijio-desberdintasunari begiratu gabe»⁴²¹.

Abertzale-mugida honek bi dato interesgarri dakarzki berarekin. Bata: 1945-eko irailaren 2-ean Viet Nam Errepublikak Demokratikoa Askea deklaratu da⁴²². Japonesak kanporatuaz gero muntatzen da gobernu probisionala.

Bestea: 1945-ean hau ere, Indotxina-ko Komunista Alderdia izkutatzen da. Desegite hori Frente Nazionalaren ohoretan egiten da⁴²³. Gauza bitxia benetan, Alderdia funtzezko zerbait bezela ikusia bait da marxisma-leninismo baitan

3.- Hirugarren etapa 1945-etik 1954-ra doa. «Erresistentziako gerra» nagusitzen da sasoi honetan. Orain, «frantsez kolonialistak botaz batera, aberri-batasuna eta askatasuna» lortu nahi dira⁴²⁴.

Testo honek agertzen du hobekien oraingo politikak zer jomuga duen:

«Demokrazia berria sozialismoruntz bideratu behar da, erresistentziaren bidez bideratu ere»⁴²⁵.

Zergatik erresistentziaren bitartez? Frantzia-rekiko pake-girozko hitzegite diplomatikoak «paper hutsean» gelditu direlako, erantzungo zaigu⁴²⁶. Eta eskatzen den askatasun osoa, ez da Viet Nam-entzat bakarrik eskatzen, Cambodge eta Laos-entzat ere eskatzen da⁴²⁷. Etapa honetan bi dato ditugu aipagarri.

Lehenengoa. 1954-ean Ginebra-n egindako Batzarraren ondoren, etsaigoak bukatu egiten dira. Erresistentzia zenbait Akordioen baldintza petan koroiatzen da⁴²⁸.

⁴²¹ Ibidem, «Appel à l'insurrection générale (Août 1945)» atalean, or. 93.

⁴²² Ibidem, «Declaration d'indépendance de la République démocratique du Vietnam (2 septembre 1945)» atalean, orr. 97-98.

⁴²³ «Ho Chi Minh», Jean Lacouture, «Cles pour un révolutionnaire» atalean, or. 196.

⁴²⁴ «Oeuvres Choisies», Ho Chi Minh, «Aux camarades du Bas Bo (1^{er} mai 1947)» atalean, or. 112.

⁴²⁵ Ibidem, «A l'occasion de la clôture de la 6^e conférence des cadres du parti (18 janvier 1949)» atalean, or. 120.

⁴²⁶ Ibidem, «Au peuple vietnamien, au peuple français, aux peuples des pays alliés (21 décembre 1946)» atalean, orr. 109-111 orobat, «Proclamation au peuple au retour des négociations en France (23 octobre 1946)» atalean, orr. 105-108.

⁴²⁷ Ibidem, «Rapport à la 6^e Conférence du Comité central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean II-garren zatia: «Nos tâches nouvelles», or. 159.

⁴²⁸ «Ho Chi Minh», Jean Lacouture, «Le vainqueur» atalean, orr. 167-167.

Xede hortara nola heldu ahal izan den esplikatzen du testo honek :

«Munduko egoerak eta gure herrikoak eraginda eman diren aldaketek egin dute posible Ginebra-ko Hizketaldia»⁴²⁹.

Bigarrena. Frenteari habe sostengatzaile zekion, Langileriaren Alderdia sortzen da 1951-ean. Alderdi hau Viet Nam-darra izango da eta ez Indotxina-ko Alderdiaren kopia bat⁴³⁰.

4.- Laugarren etapan, 1954-etik aurrera, egoera berri bat tartekatzen delako, politikagintza berri bati emateri zaio hasiera.

Oraingo etsai nagusia amerikar inperialkeria izango da⁴³¹.

«DIEM-en administrazioa aitzakitzat harturik, Hego Viet Nam Amerikanoen koroni ena militar-leku bilakatzen da. Honela, bada, 1956-ean herri osoaren bozken bitartez eman behar zen Viet Nam-go birbatasuna trabatu egiten da»⁴³².

Orain, amerikar inperialkeria etsai nagusitzat hartuaz gero, frantsesei buruz «berdintasuna» predikatuko da «nola ekonomikoki hala politikuki»⁴³³. Ekintza «diplomatikua» «harmadaren» uztarkide egingo digu Ho Txi Minh-ek. Une berean militar «ezkertiarren» kontra eta «eskuindar» biguinen kontra burrukatzen da⁴³⁴.

Etsai diferenteen guruzatzeak uneko iraultzaren xedeen aldaketa dakar. Lehendabizi «Errasistentzia azkenerarte» zen xedea; orain, aldiz, «Pakea, batasun nazionala, askatasuna, demokrazia»⁴³⁵.

Burruka honetan, «amerikano-zale ez den edozein pertsonak eta edozein herririk, probisionalki noski, gurekin batera osa dezakete fronte alkartu bat»⁴³⁶.

⁴²⁹ «Oeuvres Choiesies », Ho Chi Minh, «Rapport a la 6^e Conference du Comite central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean, or. 157.

⁴³⁰ «Ho Chi Minh», Jean Lacouture, «Cles pour un revolutionnaire» atalean, or. 196.

⁴³¹ «Oeuvres Choiesies», Ho Chi Minh, «Rapport à la 6^e Conference du Comite central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean, or. 159; orobat, orr. 162-163.

⁴³² Ibidem, « Dixième anniversaire de la Republique Democratique du Vietnam (Septembre 1955)» atalean, or. 165.

⁴³³ Ibidem, « Rapport à la 6^e Conference du Comite central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean, orr, 159-160.

⁴³⁴ Ibidem, orr. 161-162.

⁴³⁵ Ibidem, or, 159.

⁴³⁶ Ibidem, or. 163.

Bidenabar, Hego Viet Nam-en, 1960-ean sortuko den Frente Nazionalak ere postura berdina mantentzen du. Hona hemen nortzuk hartzen duten parte Frentean:

«F.N.L.-ek herri maila edo kapa guztiak alkartzea nahi du, klaseak eta nazionalidadeak, alderdi eta talde politiko guztiak, erakunde guztiak, erlijio mota guztiak, nahiz politika bateko nahiz besteko izan, berdin dio. Inperialisten eta Diem-en uztarria hautsiz gero, askatasuna, demokrazia, pakea, neutraltasuna eta Aberriaren bir-batasuna lortu behar ditugu»⁴³⁷.

Frente hau, etxeko diktadura eta kanpoko inperialista botatzeko muntatua dagoen ezker, demokrazia mailan gelditzen da bere antolaketa; halere, radikalki jokatu du Frente honek aurrez-aurreko zapaltzaileari buruz, eta hori edozein mailatan⁴³⁸.

IV.- TAKTIKA ETA ESTRATEGIA

Viet Nam-go iraultza, oro har, estrategiari zer dagokion eta zer taktikari bereiztea, ez da hain gauza erreza. Hontaz irizpiderik ez digu eskeintzen Ho Txi Minh-ek.

Pasarte batetan hauxe irakurtzen diogu:

«Taktika eta strategiari buruzko edozein okerbide aienatzeko, Komite Zentralak kontrola beza Alderdiaren prentsa»⁴³⁹.

Testo hortan datorrena hain da zabala, ezin gindezke hor geldi.

Iraultza bere osotasunean hartzen badugu, hots, bere azken xedean eta horretarako bideetan, orduan esan dezakegu Aberriaren nola askatasun nazionala hala sozialisma Viet Nam-go iraultzaren estrategian sartzen direla. Eta helburu hauetara iristeko erabiliko diren bide guztiak, sarritan arras ilunak eta zehaztu ezinezkoak behar bada, taktika mailan egongo dira.

Bainan ba da, hortik aparte, estrategia eta taktika ulertzeko beste modu bat. Iraultzaren azken xedeak garaiean garaikoari eta lekukoari erantzunez konkretatzen bait dira, maila honetan bai

⁴³⁷ Ikus: «Front National de Liberation du Sud. Viet Nam». Documents. Editions Giai Phing. Sud Viet Nam - Decembre, 1968-an, «Manifeste du Front National de Liberation du Sud Viet Nam», or. 12 ; «Programme Politique du Front National de Liberation du Sud Viet Nam», orr. 53-61.

⁴³⁸ Ibidem, ikus F.N.L.-ren programaziua, orr. 17-30. Gainerako dokumentuen giharra antzekoa da, esaterako berdina.

⁴³⁹ «Oeuvres Choisiées», Ho Chi Minh, «La ligne du Parti durant la periode du Front democratique (1936-1939)» atalean, or. 86

estrategia eta bai taktika konkretizazio honen adierazgarri bezela hartzen baditugu, laster konturatuko gara etapa ezberdinetako baldintzek kanbieraz dezaketela haien plangintza. Zentzu honetan galdatzen da, esaterako: zein da orain egitekorik nagusia? hau da: zein da orain eraman behar den estrategia? Hau adierazteko Ho Txi Minh-ek «objetoak», «printzipioak», «egitekoak» eta abar, kontzetoak erabiltzen ditu⁴⁴⁰. Eta «objeto» edo helburu horien aintzinean, taktikari, ez strategiari, nola jokatu behar den galdeginen zaio. Honako testo honek argirik eskain dezaiguke:

*«Gure printzipioak begoz tinko, bainan gure taktika bedi zuhurra».*⁴⁴¹

Hau guzia etsenpluen bitartez ikusiko da hobekienik.

Esate baterako, 1930-tik 1940-ra doan unealdian, eta batez ere 1936-tik 1939-rakoan, Indotxina-ko Komunista Alderdiaren estrategia «askatasun demokratikoak» lortzera mugatzen da. Frentea helburu hori lortzeko instrumentu taktiko bat baizik ez da izango. Eta fase honetan internazionalisma inposatzen bada eta Viet Nam-darren abertzaletasuna erdi amatatzen, estrategia internazionala, orduko nazioarteko baldintzek hala beharturik, nazionalari gainezkutzen zaiolako izanen da⁴⁴².

1945-ean, Indoxina-ko Komunista Alderdia izkutatzen da Frent Nazionalari bere lekua uzteko⁴⁴³. Aldaketa hontaz asko eta asko eztabaidatu izan da; oraindik ez dakigu errusoen taktika bat ala Ho Txi Minh-en ikusmolde politiko bat zenentz⁴⁴⁴. Bego hor eztabaida. Guk konstatatzen duguna zera da: hastapenetan internazionalisma nagusitzen zen bezela, ondorengo politikagintza abertzaleagoa da. Frent nazionala xede abertzaleek eraginik sortu zen...

Gero, 1954-ean, Viet Nam, Laos eta Cambodge, lurralde estrategiko berberan kabituko dira⁴⁴⁵; handik piska batera, ordea, aberri-askatasunari gagozkiola behintzat, bir-batasunaren eskabidea Ipar eta Hego Viet Nam-era bakarrik mugatzen da. Laos eta Cambodge, herri biok adiskide bezela kontsideratuko dira, alkarren lagunkide politika arloan bainan bakoitza bere herritasunean⁴⁴⁶.

⁴⁴⁰ Ibidem, «Rapport à la 6^e Conference du Comité central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean, orr. 159-163.

⁴⁴¹ Ibidem, or. 163.

⁴⁴² Ibidem, «La ligne du Parti durant la période du Front démocratique (1936-1939)» atalean, orr. 85-86.

⁴⁴³ Ibidem, «Appel à l'insurrection générale (Août 1945)» atalean, or. 93.

⁴⁴⁴ «Ho Chi Minh», Jean Lacouture, «Cles pour un révolutionnaire» atalean, or. 195.

⁴⁴⁵ «Oeuvres Choisies», Ho Chi Minh, «Rapport à la 6^e Conference du Comité central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean, or. 159.

⁴⁴⁶ Ibidem, «Rapport à la 6^e Conférence du Comité central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean «Tâches et travaux concrets» zatia, 9-garren numeroa, or, 163 ; orobat, ikus «Front National de Libération du Su Viet Nam». Documents. Edit. Giai Phong, orr. 27-28, F.N.L.-ren VIII-garren ataleko. 3-garren puntua.

Bukatzuz: Viet Nam-go kasoak bertan ibilitako strategiaren bikoiztasuna somatzeko hainbat arrasto uzten dizkigu. **Abertzaletasuna** eta **sozialisma** beti gelditzen dira zutik zinezko bi konstante bezela. Beste gauza bat da, arras diferentea noski, nola ulertzen den sozialisma eta nola abertzaletasuna Viet Nam-go kasoan. Gu ez gara puntu hontan sartzen.

V.- SOLUZIOAK

Viet Nam-go nazional arazoari buruzko politika ondoagotik zehazteko, etorkizunari begira zer soluziobide proposatzen den ikusiko da.

1.- *Internazionalki*

Testotik bertatik partitzen gara:

«Gure gobernuak behin eta berriro deklaratu bide du Viet Nam-go problemaren soluziobide bakarra eta zuzena ondorengo baldintza hauk betetzea dela, hots: amerikar gobernuak hitzez hitz aplikatu behar ditu 1954-ean Ginebra-n izenpetu zituen Akordioak, hau da, R.D.V.-ko goberbuaren lau puntuak eta Hego Viet Nam-go F.N.L.-ren bost puntuak onartu behar ditu»⁴⁴⁷.

Ipar Viet Nam-go Errepublikako Demokratikoaren lau puntuak hauk dira: pakea, aberri-batasuna, askatasuna, demokrazia.⁴⁴⁸

Hego Viet Nam-go F.N.L.-nak, berriz, hauk: askatasuna, demokrazia, pakea, neutraltasuna, Aberriaren bir-batasuna.⁴⁴⁹

Biek eskabide berdina egiten dute.

2.- *Nazionalki*

«Nazionalki» esatean Viet Nam **aberri** bezela hartzen dugu. Kontzeto hori zentzu hortan harturik, bi gauza baiesten dira:

a) Viet Nam, oro har, Aberri bat eta bakarra da. Ho Txi Minh-ek, Viet Nam Frantziarekin gonbaratuz, honela dio:

⁴⁴⁷ «Oeuvres Choisies», Ho Chi Minh, «Appel du 20 juillet 1965» atalean, or. 169.; orobat, «Appel à la nation (17 juillet 1966)» atalean or. 177.

⁴⁴⁸ Ibidem, «Rapport à la 6^e Conférence du Comité central du Parti des travailleurs du Vietnam (15 juillet 1954)» atalean, or. 159.

⁴⁴⁹ Ikus «Front National de Liberation du Sud Viet Nam». Documents. Edt. Giai Phong. or. 12.

«Ez litzake on Frantzia zatitzea. Ezta Viet Nam ere»⁴⁵⁰.

Ho Txi Minh oso tronpaturik dabil hemen. Ez dakigu zihur zergatik. Behar bezelako informaziorik ez zuelako, agian. Halere, ezjakintasunak ezjakintasun, Frantzia-ko Estadia nazionalidade askotakoa zela ikasteko hainbat denbora igaro zuen Frantzia-ko Alderdian. Gainera, norbaiti irakurri genionez, Euskal Herritik ere itzulitxo bat egin omen zuen. Horregatik, bada, oso posible da irakurri dugun pasarte hori joera politiko berezi baten ezaugarri **ere** izatea. Izan ere Estadurik gabeko etniek, edota gorputz sozial haundirik gabeko herriek, edota Estaduaren erdirakoikeriak muga batez erdibiditutako herri zapalduak ez dute aparteko arrerarik merezi izan marxista eta komunista gehienen partetik. Hontaz jabetzeko aski da «Les Temps Modernes», 1973, 324-325-326 zenb. irakurtzea. Ba dirudi jendea oraintxe hasi dela esnatzen.

b) Aberritasuna ukatu zaiolako, herriek beren buruez jabetzeko duten eskubideen printzipioa Viet Nam-go herrian aplikatua izan dadila eskatzen da⁴⁵¹.

Marxisma klasikoak sostengatu duen bezela (ikus Lenin, Stalin, III-gn. Internationala), koloniek bakarrik dute separakuntzarako eskubidea. Jabetasun osoraino doa autodeterminazioaren printzipioa **kolonial eskualdeetan bakarrik** aplikatzen da, beraz. Pundu hau garbiago geldituko da oraino Viet Nam-go nazionalidadeak zertan diren ikusiko dugunean.

3.- Viet Nam-go nazionalidadeak

Viet Nam-en nazionalidadeak egon zitezkeenik ere, apenas entzun eta irakurri ahal izan dugun gure artean. Nahi diren bezelakoak izango dira, baina hor daude.

Zer aterabide proposatzen da nazionalidade hauei buruz ?

Lehenengo. Nazionalidadeekiko herriak Frentearen barruan burukatzen dira. Herri horien politika F.N.L.-ren politikan gorputzen da. Hona hemen F.N.L.-an herri hauei buruz aurkitzen den jokabidea:

«Nazionalidadean batasuna gogortu egin behar da eta alkarren arteko berdintasuna eta alkar-

⁴⁵⁰ Ibidem, «Proclamation au peuple au retour des negociations en France (23 octobre 1946)» atalean, or. 107.

⁴⁵¹ Ikus: ibidem, «Messsge aux Chefs d'Etat de l'U.R.S.S., de la Republique populaire de Chine et des autres pays socialistes (24 janvier 1966)», or. 173; orobat, ikus «Front National de Libération du Sud Viet Nam, Giai Phong, or. 39.

laguntza praktikatu»⁴⁵².

Testo honek, beraz, nazionalidade guztiak nola eskubidez hala obligazioz berdinak direla aldarrikatzen du.

Bigarren. Kulturari gagozkiola, ekintza osoa beren hizkuntza eta ohiturak gordetzeko eskubidea ba dutela esatera mugatzen da⁴⁵³. Hots, nazionalidade hauekiko nazional arazoa «kultur» arlora hertsitzen da.

Postura hau arras klasikoa bilakatzen marxismaren tradizioan, hots: **nazional arazoa, funtsean, kultur arazora** mugatzen da batipat.

Hirugarren. Soluziobide politiko bezela bi formula agertzean zaizkigu, gizarte-egituraren aldetik ez bait dira nazionalidade guztiak gorpuzkera berdinekoak.

a) Gizarteki **atzeraturik** dauden eskualdetan, kuadroak aktibuki gertutzen saiatu behar da, bertakoak autogestiorako kapaz izan dite zen⁴⁵⁴.

b) Jadanik gizarteki gorpuzturik dauden minori nazionalentzat **autonomia errejionala** proposatzen da:

«Libro eta bere buruaren jabe den Viet Nam-go herrian errejio edo eskualde autonomoak sortuko dira»⁴⁵⁵.

Errusia-ko aterabide berbera. Gogoan har Stalin.

Bai, ba dakigu Viet Nam-go sozio-politikazko egoera eta Euskal Herrikoa ez direla berdintzeko modukoak. Halabainan, ezin buka dezakegu lan hau galdera bat egin gabe: Viet Nam-go iraultza herri kolonizatu eta nazionalki zapalduetako baten burruka bada, zein neurritan ote da abertzalea?

Honezkero konturako zen irakurle zuhurra, euskaldunen abertzaletasuna eta Viet Nam-darrena ez direla ez arras berdinak ezta ere arras ezberdinak. Hau frogatu ezinik ez dago, baldin behar

⁴⁵² Ikus: «Front National de Liberation du Sud Viet Nam», Giai Phong, or. 78.

⁴⁵³ Ikus: ibidem, or. 78.

⁴⁵⁴ Ikus: ibidem, or. 75.

⁴⁵⁵ Ikus: ibidem, or. 75.

bezela irakurtzen bada lanaren azken parte hau.

2.- D. FIDEL KASTRO eta KUBA

Kuba-ko iraultzaren aurrean plantatzen garenean, klarki dager zeinen desafio ausarta izan zen Sierra Maestra-ko bizardunaren harmada hura marxisma klasikoan maixu bezela kontsagratuentzat. Liburuz ontsa hornituriko teorigilea eskubide osoz kezka zitekeen noski, zeren Kuba-ko esperientziak mantxatzeko arriskuan jartzen bait zuen marxismaren kutxa garbia.

Kuba-ko esperientziak sozialismurako bide bat baino gehiago ba dagoela frogatzen du. Guk, lehenik, esperientzia horren konstatatze bat egin nahi dugu. Kastro-ren bidea marxista zuzen batena zenentz arloa, puntu hori berari utziko bere bidez esplika dezan. Hontara gatoz orain.

I.- ZENBAIT KONTZETOEN AZALPENA⁴⁵⁶.

1.- Kastro-ren marxisma.

Kastro iraultzaile ote da? marxista ote? beti sinistu ote du marxisman? aurre-iritzirik izan ote du? Gisa honetako galderak askotan errepikatuak izan dira, galdetuz bezela: nolakoa ote zen Kastro-ren konbentzimendua uztailean 26-eko Mugimendua gidatu zuenekoan? Kastro-k zintzoki erantzuten du:

«Bai, nik erabat sinisten dut marxisman..., eta uztailean 26-eko. Mugimenduan ere bai... Zenbait aurre-iritzi ere izan nituen»⁴⁵⁷.

Beste pasarte batetan:

«Garai hartan, hots, 1953-eko uztailaren 26-garrenean, ezin dei gindezken gu marxistaleninista izenez. Bainan uztailean 26-eko Mugimendua antolatu zuen gazte talde hark Marx-en eta Lenin-en obrak ikasten zituen. Moncada-ko gaztelua asaltatzera joan ginaneko hartan, beste zenbait liburuen artean, Marti-ren eta Lenin-en liburu batzuk ere ba zeuden...

Ba genuen iraultzarako bokazioa, hori bai; ba genituen iraultzaile izateko garra eta baita xedeak ere. Bainan ez geunden teoriaz jantzita. Eta teoria ez bide genuen egun batez ikasi, ezta bide teorikoetatik bakarrik ikasi ere; errealitatean ikasi dugu, nehork erakutsi gabe eta gure

⁴⁵⁶ Ikus: Fidel Castro, «Discours de la Revolution» (Textes choisis et presentes par Christiane Glucksmann), Union Générale d'Éditions. Paris, 1966.

⁴⁵⁷ Ikus: ibidem, or. 35, «Extrait du discours prononcé à la séance inaugurale du neuvième cycle de l'université populaire, à La Havane, le 2 décembre 1961»

kontura...»⁴⁵⁸

«*Marxisma ez dugu liburuetan bakarrik ikasi, bizitzak erakutsi digu batez ere*»⁴⁵⁹.

Nahikoa da autobiografia antzera eskeinitako Kastro-ren atariko hau bere marxista-nortasunaren berezitasunaz jabetzeko. Ez bide du bere burua nehoiz agertu izan maixu teorizaleen posturan. Kontzetoen teknikaz baino gehiago, bere politikagintza batez ere praktikotasunaren begi intuitiboz begiratu izan duela deritzaigu. Kastro ez da agertzen kontzetoen definitzaile bat bezela, Lenin, edo Stalin, edo Mao, edo... izan litazkeen modura. Horregatik, kontzetualizazioari gagozkiola, ezin alkargonbara ditzakegu irizpide berdinez autore hauk, horrela jokatzea arriskugarri bait litzake. Gainera, herriari zuzenki eta aurrez-aurre mintzo zaionaren hizketa-moldea ez da prestatzen filosofiazko neurketa haundietarako. Eta Kastro-ren kasoan, bere garaiko eta lekuko pedagogia iraultzaile batek masarekiko beste metodo bat erabiltzea eskatzen zuen: metodo zuzena, beroa, berri-emailea. Hemen honela lekutzen dugu, bada, Kastro-k marxisma nola ulertu dueneko arloa.

Zer da marxisma berarentzat? Han-hemen bildutako oharrek alkar-josiaz inguratuko gatzazkio galderari.

a) Marxisma ez da **dogma bat**. Ez da behin betirako eta egoera guztietarako esplikaturik dagoen teori-xorta bat. Gaur-egungo mundu-komplexotasunak ez du horrelako gauzarik permititzen. Gainera, iraultza garaian garaiko iraultzaileek praktikatu behar dute. Marxisma benetakoa izan dadin, beraz «interpretatzen» jakin behar da, eta «zuzen» interpretatuz gero, praktikara eramaten; orduan bakarrik bilakatuko da iraultzailea. Ikuspegi honek marxismaren barruko pluralisma edo aniztasun batetara garamaz, zeren, Kastro-ren hitzekin esateko:

«*Zenbait egoeren ezberdintasunak derrigorrez interpretazio-aniztasun batetara eramaten bait du*»⁴⁶⁰.

b) Marxismaren indarra batez ere bere eguneroko praxisaren efikazitasunean datza. Mesfidantza merezi dute filosofiazko kategorien ganbaran gelditzen diren marxistek. Zergatik? Sozialismagintza mila modutako korapilo praktikoek tratatzen bait dute, horiek kentzeko behar-

⁴⁵⁸ Ikus: ibidem, or. 36.

⁴⁵⁹ Ikus: ibidem, or. 38.

⁴⁶⁰ Ikus: ibidem, or. 215, «Discours prononcé le 3 octobre 1965, au theatre “Chaplin”, lors de la cérémonie de présentation des membres du Comité Central.»

beharrezkoa da praktikotasuna:

«Marxisma-leninismaren eginkizuna, beraz, ekintzarako argibide bat izatean datza»⁴⁶¹.

Gidaritza horrekin langileriak ba dakike nola joka zapaltzailearen aurrean eta honen kontra.

d) Egiatzko komunista izateko **postura** bat hartu behar da. Langile bezela konportamendu zintzo bat eraman behar da bizitzaren eta iraultzaren eta herriaren aurrean. Konportamendu hau ez da tituloz erosten ahal, eguneroko ihardunean irabazten baino⁴⁶².

Bainan ez da hemen bukatzen marxismaren konplexotasuna. Kapitalisten sistemari kontrajartzen zaion eta jakineko bere lege eta metodo batzuk dituen sistema bat denez gero, zenbait formulazioen jazkera dakar marxismak. Teknika industrial eta zientzi-jakintza asko aurreratu badira ere, gizarte-jakintza nahiko mugatua dago haien gonbarazioan. Horregatik, bada, giza-zientziei buruzko azterketak erdoiturik gelditzeko arriskua dago, baldin ideiak ez badira gizartekotzen eta bakoitzak bere modura mamitzen ez baditu. Kastro-k, ondorengo testu honetan ikus ahal daitekeenez, esperientziari leku haundi-haundia ematen dio:

«Zenbait formula entzun dugu, zenbait liburu irakurri ere bai, bainan iraultza batek bezanbat ez dezake nehork erakus ahal; eta herri bakoitzeko esperientziak behar bezela onartzen eta estimatzen baditugu behintzat, herri bakoitzak ahalegindu behar luke beretik zerbait eskeintzen, honela aberatsago bilakatuko bait dira erdi-landurik dauden sozial eta politika zientziak.

Guk geure ideiak osatzen ditugu. Marxista-leninista deidurako ideiek uneoroko bilakatzea eskatzen dutela, uste dugu. Maila honetan halako geldotasun bat sortu dela, uste dugu; zenbait formula unibersalkiro onartzen dela ere, ikusten dugu. Jokabide hau, gure iritziz, marxista-leninismaren esentziazatik at dago egon»⁴⁶³.

Horregatik, kontseilu antzera, hauxen dio:

«Sozialisma eta komunismari buruzko problemetan ausnartu egin behar dela, uste dugu,

⁴⁶¹ Ikus: ibidem, or. 218.

⁴⁶² Ikus: ibidem, or. 166, «Extrait du discours prononcé à la radio et la television cubaines le 26 mars 1962», orobat, or. 234.

⁴⁶³ Ikus: ibidem, or. 226, «Extrait du discours prononcé le 1^{er} mai 1966».

pentsetu, ikasi, aztertu eta bilaketan ihardun deskantsurik gabe»⁴⁶⁴.

e) Esanak esan, baiesta ote genezake marxisma kategoria filosofiko bat dela eta zentzu honetan, zientifikoa denez gero, zerbait absolutoa? Kastro baitan hala dela dirudi. Haren ustez, sozialisma zientifikoa kabitzen da edozein filosofia, edota «sozialisma zientifikoz» kanpoko filosofiarik ez dago:

« ... zintzoki esaten nizuen, alegia guk marxisman sinisten dugula, bera dela uste bait dugu teoririk egokiena, zientifikoena, egiazko teori bakarra, egiazko teori iraultzaile bakarra»⁴⁶⁵.

Intelektual eta artistei buruz ari den pasarte batetan antzeko baieskuntza batekin topatzen gara:

«Arduraz zegoen, jakin nahirik ea izkiria ote zezakeen bere sentimenduek eta bere ideologiak eskatzen ziotenez; hain zuzen ere, haren pentsakera ez bait zen prexiso Iraultzaile batena. Ekonomia eta sozial-arazoetan ados zegoen Iraultzarekin, ez ordea filosofiari zegokionez»⁴⁶⁶.

Behin hontara ezkerro, galdetzen dugu: zer da Kastro-rentzat marxisma? Gaitza da galdera eta gaitza, orobat, erantzuna.

Esandakoak oro laburtuz, ondorio hautara heltzen gara:

- Marxisma ez da dogma bat, ikerketa bat baino.
- Gizartearen bilakaketa bihurritua bait da, marxisma ezin lot daiteke formula batzuetara.
- Marxisman, halabainan, oro kabitzen da eta berak esplikatzeko du zientifikoki gizartearen nolakoa eta norakoa.

Bego hor bere ikuspuntu hori. Irakurleak on luke baldin irakur ahal balintza Jose Azormendi-ren lan kritikoak. Ez da galtzen aterako.

2.- Herria, Aberria, Etnia.

Herriaren izenean edozein jokabide justifika ohi da. Iraultzak ere herriaren interesen eskabidez muntatzen dira. Bainan sarritan gertatzen den bezela, eta hemen dago zenbait kontradizio edo ukoen

⁴⁶⁴ Ikus: ibidem, or. 226.

⁴⁶⁵ Ikus: ibidem, or. 158, «Extrait de la conference prononcé à l'Université Populaire de La Havane le 2 decembre 1961».

⁴⁶⁶ Ikus: ibidem, or. 236, «Paroles aux Intellectuels».

bitxi-tasuna, herri-serbitzuan dabiltzala dioten indar iraultzaileak oro ez dira kidekotzen

Ikus dezagun zer den Kastro-rentzat Herria. Zalantzarik gabe, Kastro-ren herria zapalduen herria da. Zein dago zapalduerik? Kastro-k dekarrenez, zapalduetakoak modu askotakoak dira:

«Herria deitzen diogu, iraultzaz mintzo garealarik, lanarik gabe dauden seirehun mila kubatar; beren aberritik kanpora bizitzekoaren bila joan gabe ogia honraduki irabazi nahi luketen guzi horik; txabola miserabletan dauden bostehun mila nekazari langile talde hori, hots, urtean lau hilabetez lan eginda gero beren umetxoekin miserian bizi diren horik; herria dira, lur pusketa bat lantzeko ez dutelarik, errukarri bilakatzen diren horik... herria dira fabriketako eta esku-laneko larehun mila langile talde hori, irabaziak kentzen ari, erretiroa beti airean, etxe-bizitzak modu tristean, soldata patroiaaren eskutik txupatzailearen eskura, jornala beheraka jausten, deskantsurik gabe, heriotzerarte, bizitza guztian lanerako kondenatua; Herria dira maiztertzan lurrak landuz bizi diren ehun mila baserritar koxkor tristezia haundiz beti lurrari begira eta antsika, Moisesek agindutako lurra igurikatzen zuen bezela, eta hor hilko dira fitxik lortu gabe; ... Herria, hogeitahamar mila maistra-maixu eta erakusle horik dira, lanari gogorki emanak gazteri berriaren geroa urdinago izan dadin, bainan hor daude gaizki ordainduta eta bazterrera botata; herria, hogeitamilakomertziante ttipi horik dira, leporaino zorrez josita, krisiak jipoituta eta usteldutako funtzionario txakur-pandila baten kontribuzioz ederki kargaturik beti; herri dira, hamar mila intelektual gazte horik, hots, sendagileak, injeniedoreak, lege-gizonak, albaiteroak, hezitzaileak, dendistak, farmazeutikoak edo botikarioak, kazetalariak, margozlariak, eskultoreak, eta abar.

Horra hor herria, hara hor zoritxar guztiak jasanik ere iraultzan kuraiarik sendoena agertzen duen herri hori»⁴⁶⁷.

Herritasuna, beraz, ekonomiazko zapalkuntzatik dator etorri. Kastro-ren **herri** kontzetoa sozial sistimaren ikuspegitik heltzen da.

«Herri» kontzeto hau garbiago geldu dadin, ondoan «etniarena» ekarriko dugu:

«Gure herriak, ikusi duzuten bezela, etnia askotariko konposizioa darama bere barnean, zeren kontinente guzietako nahaskuntzatik sorturiko ondorio bat bait da; horregatixe sentitzen da hain

⁴⁶⁷ Ikus: ibidem, orr. 43-44, «Extrait de “L'histoire m'acquittera”, plaidoyer de Fidel Castro devant ses juges, le 16 octobre 1953».

hurbil hego-ameriketarik, Afrikatik, kontinenteko edozein herrietatik... »⁴⁶⁸.

Kontzeto honen bitartez, beraz, egun Kuba osatzen duen jendetzaren jatorri-ezberdintasuna konstatatu baizik ez da egiten. Etniak, nazional arazoaren aldetik, ez dio herriari deus erasten eta deus kentzen. Etniak hor daude, bainan nazionalki ez du kondatzen.

Eta «aberria», zer? Gure arteko zenbait politikari batzuen artean eztabaidatua izan da Kuba «nazio» denentz, eta hala baldin bada, noiztik den. Dena dela, gure ustez, Kastro-ri segururaski ez zaio sekulan burutik pasatu izan bereizkuntza horren premiarik. Halere, biziki kurioa delako, konstatazio bat eginen dugu: Kastro-k, hitzaldi baten ondoren edota politikoki edozein agiri seilatzen duenean, «Aberria ala Heriotza» sigiluz izenpetzen du, edota baita ere «Kuba-ko Herria», edota «Ameriketako lurralde librea».

3.- Nazionalisma eta intemazionalisma.

Nazionalisma bi modutara uler daiteke, hau da: zentzu onean eta zentzu txarrean.

a) **Negatiboki** hartzen delarik, nazionalismak «txobinisma» esan nahi du. Hauxen dio:

«Txobinismak eta nazionalismak harrokeriazko ideia berekoi bat suposatzen dute, xede nazionalak xede unibertsalen gainetik igaro nahiezko ideiak daduzkate, xede nazional kaxkar batzuen probetxurako interes unibertsalak menperatu nahi dituzte»⁴⁶⁹.

b) Berez nazio bateko langileriak ez bait daduka zertan kontra egonik bere mugaz haruntzko edozein nazioetako langileriarekin, ba dago nazionalisma **positiboki** nun lekutua eta lekutu beharra ere. Nazionalisma hau baldintza objetibo eta subjektibo batzuek osatzen dute:

«Garbi dago herri bakoitzak ba dituela bere baldintza konkreto batzuk; garbi dago iraultza bakoitza herri berezi batean heltzen dela, hots, nazioarteko ingurumaria guztik partikularra den une batean, halako bilakatze berezi baten hesitu pean. Faktore hauk aparte, ba dira beste motor-eragile subjektibo batzuk, hots: herriei dagozkien ohitura bereberak, herrien berezkotasun aparteko hori...»⁴⁷⁰

Beste pasarte batetan, oraingoan herri batek beste batengandik duen ezberdintasunaz ari delarik,

⁴⁶⁸ Ikus: ibidem, or. 314, «Discours prononce a la seance de cloture de la premiere Conference de Solldarite des Peuples d'Asiee, d'Afrique et d'Amerique Latine, le 15 janvier 1966».

⁴⁶⁹ Ikus: ibidem, or. 141, «Extrait du discours du 2 janvier 1965, prononce a l'occasion du sixieme anniversaire de la Revolution».

⁴⁷⁰ Ikus: ibidem, orr. 141-142.

«partikularitasun» hitza mentatzen du:

«Herri batek bere partikularidadeak ditu (ohiturak, historia, tradizioa) eta bere problema bereziak»⁴⁷¹.

Herri batek, «partikularitasun» hortan finkaturik hain zuzen ere, bere kabuz eta buruz gobematzeko eskubidea daduka.

Testo hauk irakurri ondoren, ez dezagun ahantz ordea herr, nortasunerako zein elemento den objetibuzkoa eta zein subjelibuzkoa. Dударik ez dago, Kastro baitan, partikularitasun horik guziak zerbait **subjelibu** direla. Guk hizkuntza, foklore, tradizioa, historia eta... deitzen dugun hori ez da objetiboki sartzen herritasunean. Kastro-ren herria, goitik behera, sistema sozialaren arabera modelatua da.

Internazionalismaren jatortasuna bi elementuek zertzen dute gehienbat: bata **eskubideen** bidetik dator eta bestea, zinezko **komunismaren** eskabidetik.

Lehenengoari gagozkiola, nahiz herri haundi eta poteretsu nahiz ttipi eta ahul, herri oroztat «eskubide-berdintasuna» eskatzen da⁴⁷².

Bigarrengoari gagozkiola, komunismaren humanisma unibertsalitik du argudiatzen, dionean:

«Behar-beharrezkoa da, oraintxe bertatik hasita, gure herria hezitzea, gure umetxoak zentzu hortan hezitzea, biharko egun batez, gure oraingo beharrak beteaz gero, gure ideala dirua izan ez dadin. Lagun ditzagun atzeratutako herriak. Gerora begira izan bedi hau gure ideala. Hez dezagun gure herria nazioarteko kontzeto pean»⁴⁷³.

4.- Kultura eta irakaskintza.

Ba du Kastro-k kulturaren eta irakaskintzaren arloan zerbait berezirik. Pedagogia berri baten bila dabil. «Langileak lan egiteko eta ikasleak ikasteko» esaera honen bikoiztasunaren kontra doa⁴⁷⁴. Zinezko heziketa batetarako, kulturak «lana = ikasketa» bikotearen ekilibrioa gorde behar

⁴⁷¹ Ikus ibidem, or. 259, «Texte abrégé du discours de Fidel Castro au meeting de Santa Clara le 26 juillet 1965».

⁴⁷² Ikus: ibidem, or. 259.

⁴⁷³ Ikus: ibidem, or. 259.

⁴⁷⁴ Ikus: ibidem; orr. 231, «Extrait du discours prononcé le 1^{er} mai 1966 ».

du⁴⁷⁵. Lanak ez du izan behar ekintza profesional bat, ezta ere bizitzeko bide bat; lanak bere leku bat du gazteriaren heziketan⁴⁷⁶.

Ez da hor bukatzen heziketaren arazoa. Emanik edozein jakintza ez dela gauzen jakitate huts, ezpirituak oro duten «askatasunaren» muga hori nun degoen galdatzen da. Kastro-ren hitzekin esango dugu:

«Eztabaidaren zuzterra zer-esan edo kontenidoaren askatasunean datza»⁴⁷⁷.

Ikusirik alor hontako hauzia labantasunean lerratzen dela, Kastro-ren arrazoiketa bereizkuntza pare bat eginaz bideratuko da:

a) Intelektualen artean bada kategoria bat, bizitzaren aurrean jokabide iraultzailea hartzen ez dutelarik halere beren helburuekiko zintzoak direnak. Kaso honetan:

«Iraultzak errealitate hau ulertzen saiatu behar du eta ahaleginak egin artista eta intelektualen talde honek, garbiki iraultzaile ez diren horiek alegia, leku bat izan dezaten Iraultzaren barruan, leku bat lanerako eta kreatzeko»⁴⁷⁸.

b) Helburuen ezberdintasunak oinarritzen du «iraultzailearen» eta «zintzoaren» arteko diferentzia:

«Iraultzaileak gauza guztien gainetik begiratzen du, norbere-ezpiritu sortzailearen gainetik. Guztien gainetik, Iraultza dago. Eta baldin artista bat bere bokazio artistikoa Iraultzaren izenean sakrifikatzeko prest balego, orduan iraultzaile bilakatuko da»⁴⁷⁹.

«Iraultzaile baino gehiago artista den bat ezin egon daiteke gurekin ados»⁴⁸⁰.

Zergatik? Iraultzaren helburua herri-barruan murgildurik egoteak justifikatzen duelako eta, errealitatea aldatuz, gizona bir-kreatu nahi duelako. Hori da erantzuna. Kastro-k kultura zapalduen

⁴⁷⁵ Ikus: ibidem, or. 217, «Extrait du discours du 3 mars 1964 prononcé à la séance de clôture de la Première Rencontre nationale pour l'émulation».

⁴⁷⁶ Ikus: ibidem, or. 223, «Extrait du discours prononcé le 2 décembre 1964 à la Cité universitaire José Antonio Echeverría».

⁴⁷⁷ Ikus: ibidem, or. 236, «Paroles aux Intellectuels».

⁴⁷⁸ Ikus: ibidem, or. 237.

⁴⁷⁹ Ikus: ibidem, or. 234.

⁴⁸⁰ Ikus: ibidem, or. 235.

serbitzurako nahi du:

«Guk ikuspegi hontatik begiratzan ditugu gauzak oro. Irizpide honen pean neurtzen eta estimatzen difugu gauza bakoitzaren ontasuna eta utilidadea eta edertasuna»⁴⁸¹.

5.- *Demokrazia.*

Demokraziaz asko teorizatu izan da, eta ia beti giza-eskubideei dagozkienetan herrikideek alkarrekiko duten berdintasunaren pareko bezela ulertua izan da. Euskal Herria betidaniko ohituretatik demokratikoki gobernatua izan dela dion esaera arras ezaguna da gure artean. Berriki puntu hontaz «Euskal-berdintasuna» izeneko liburu bat argitaratu du LUR editorialak. Interesantea iruditzen zaigu, batez ere, Kastro-k hemen egiten duen bezela, politikagintza osoa klase-ikuspegi soiletik egiten denean, demokrazia zer den galdatzea.

Kastro-rentzat bi demokrazia mota daude: bata «burgesena» da eta bestea «langileena».

Lehenengoak klase-zapaltzailea errepresentatzen du, eta hori ez dagokio demokrazia deitzeko eskubiderik.

Bigarrenak, zapalduen boza bait dakar, berekin ditu «demokrazia» jator baten kontzetoa sostengatzeko eskubideak oro.

Nahiz bi demokrazia mota egon, burgesiaren ukazioa den demokraziak bakarrik esistitu behar du, zeren:

«Ez bait dago eskubiderik zapaltzaileentzat; beraz, ez da onartuko zapaltzaileen alderdi politikorik»⁴⁸².

II.- ETAPAK.

Kuba-k Hego Ameriketako herrien antzeko historia daduka. Zapalkuntza ekonomikoaren historia garbi bat da berea; zer-nolako garaietan era ezberdinez eramana izan da, baina, funtsean, hasieran eta bukaeran, hor daude urre-otsa eta diru-gosea⁴⁸³:

⁴⁸¹ Ikus: ibidem, or. 235.

⁴⁸² Ikus: ibidem, or. 243, «Texte abrégé du discours de Fidel Castro au meeting de Santa Clara le 26 juillet 1965».

⁴⁸³ Ikus: ibidem, or. 98, «Extrait du discours prononcé le 16 avril 1961, veille du débarquement de Playa Girón, à l'enterrement des victimes des bombardements du 15 avril».

Historian zehar nola zapaldua izan den ikustera mugatuko gara orain, zeren puntu honek, bidenabar, askatasunerako eman pausoak zer-nundikakoak izan diren ikusten lagunduko bait digu.

Hiru etapa markatuko ditugu.

1.- Espainolen kolonialisma-haroa: 1492-tik 1898-ra⁴⁸⁴. Haro honetako berezgarririk garrantzitsuen espainol kolonialisten kontra egindako burruka da, arrotzak eta zupatzaileak zirelako hain zuzen ere. Kubatarrek aberri-askatasuna nahi zuten (1853-ean hasi eta 1895-ean lortua), Kastro-k geroago, 1965-ean, esango duen bezela:

« ... gure gerra hau, gaur-egun inperialkeriaren kontra beste herriekin batera alkar-uztartuz daramagun gudaketa hau, orain dela ia gizaldi bat hasia zen; gure aberria esplotaturik zegoen kolonial moldeko morrontzaren aurka altxatu ziren lehen gizon haiekin hasi zen»⁴⁸⁵.

Iraultzaileak ote ziren lehenengo gudari haik? Bai, hala ziren, radikalki izan ere, posible izan zitzaien modu bakarrez:

«Lehenengo haik ez ziren marxista-leninistak, Carlos Manuel de Céspedes ez zen, Marti ere ez, zeren emanik orduko baldintza historikoak ezin izan bait zitezkeen. Garai bakoitzeko eragile-determinatzailea, gure herriaren historian zehar, iraultza izan da»⁴⁸⁶. Horregatik, bada, «Independentziaren aldeko burrukak» ez zuen helburutzat hartu langileriaren iraultza bat egitea, Espainia-ko kolonial poterearen kontra askatasuna lortzea baino»⁴⁸⁷.

Haro honetako burruka honela bil daiteke: burruka hori iraultzailea zen Aberriaren askatzeko zen aldetik, bainan ez zen artean proletarioa adinik ez zuelako.

2.- Ipar-amerikanoen Inperialkeri-haroa: 1898-tik 1953-ra⁴⁸⁸. Ipar-amerikanoen inperialkeria da kubatarren epe honetako etsai zapaltzailea. Zertan berezten da hau espainolen kolonialismatik? Inperialkeriak ezartzen duen zapalketa mila bider maltzurragoa dela esanaz erantzuten du:

«Yankien inperialkeria etsai askoz haundiago eta askoz peligrosoago da»⁴⁸⁹.

⁴⁸⁴ Ikus: Claire Pailler-Staub, «El Castrismo», Masson et C^e, Paris, 1970, or. 6.

⁴⁸⁵ Ikus: Fidel Castro, Textes Choisis, or. 271, Discours prononcé le 13 mars 1965 à l'Université de La Havane, à l'occasion du huitième anniversaire de l'assaut du Palais présidentiel.

⁴⁸⁶ Ikus: ibidem, or. 272.

⁴⁸⁷ Ikus: ibidem, or. 272.

⁴⁸⁸ Ikus: Claire Pailler-Staub, «El Castrismo», or. 6.

⁴⁸⁹ Ikus: Fidel Castro, Textes Choisis, or. 272, «Discours prononcé le 13 mars 1965 à l'Université de La Havane, à l'occasion du huitième anniversaire de l'assaut... »

Kuba politikoki libro bazen ere nolabaiteko itxura batetan, bere demokrazia hura inperialkeriaren gutzi ekonomikoari saldurik zegoen; horregatik, kolonialismak orain, hots, inperialismaren haroan, beste tankera bat hartzen du. Kolonialisma beste modu batera praktikatzen da, Kuba-ko gobernu-agintariek inperialisten interes politikoak serbitzatzeko bait dituzte.

Hain zuzen ere, 1925 ezker, Kuba-ko lendarriak oro Washington-ek kontrolatuko ditu⁴⁹⁰. Epe honetako etsaia zein den ondo jakinik ere, orairidik zailtasun gotor bat dago zintzilik; yankien inperialkeria hiltasun gotor bat dago zintzilik; yankien inperialkeria hiltzeko nundik nora bideratu behar da iraultza? Puntu hau hirugarren etapan erabakiko da.

3.- Kastrismotik sozialismoruntz.

Hemen Iraultza bakarraren bi aurpegi bezela ikusten ditugu. Egoki iruditzen zaigu etapa hau bi erdi-harotan banatzea:

a) 1953-tik 1959.-ra. Kastro-k ematen dio hasiera iraulzari. «La historia me absolvera» izeneko agerpenean dator bere antolaketa politikoa. Hara hemen pundurik nagusienak:

- Herriari jabetasun osoa eman eta 1940-ko Konstituzioa aldarrikatu, berriz ere herriak hori bera berritu edo aldatuko duen bitartean.
- Nekazariei luraren jabetza eman.
- Langileei enpresentan parte har dezaten eskubidea eman.
- Gobernuak gezurrez jasotako ondasunen garbiketa egin⁴⁹¹.

Eskabide hauk, ikusten den bezela, demokratikoak dira. Hasiera hartan Iraultzak proposatzen zuen zuzen-zuzeneko xedea hauxe zen:

«Lurgintzaren problema, industriarena, etxegintzarena, langabeziarena, heziketarena eta herri-osasunarena, horra hor indar guziz eta fermuki landu behar ditugun sei puntu konkretuak; gauza hauk eginaz batera, askatasun publikoaren eta demokrazia politikoaren alde jokatu gara»⁴⁹².

b) 1959-tik 1969-ra. Etapa honek agintea hartuta gero sozialismagintzan egindako bidea zabaltzen du. Bide zaila bezain eztabaidatua hauxen, bereziki ekonomiaren aldetik haundiak bait

⁴⁹⁰ Ikus: Claire Pailler-Staub, «El Castrismo», or. 6.

⁴⁹¹ Ikus: Fidel Castro, Textes Choisis, «Extrait de “L'histoire m'acquittera”», plaidoyer..., orr. 40-48.

⁴⁹² Ikus: ibidem, orr. 46-47.

dira trabak.

Oraino etsaia barrutik bait zegoen (yankien monopolioa alegia), Kastro-k ba zekien Batista botatzea ez zela aski. Desmonopolizatzeko bide bakarra, beraz, ondasun guztien desjabetzea izango da; eta hontarako metodorik zorrotzenak erabiliko dira. Lurraren erreforma praktikatzen hasiko da; hasieran mantso mantso⁴⁹³ eta gero, are radikalago, ekonomiazko iturburuak nazionalizatzeari ekingo dio⁴⁹⁴.

Testo honetan ikusten da argien zeinen mamu beltza den amerikanoen inperialkeria:

«Amerikar monopolioa estua den herrietan, edo oligarkiaren esplotazioa ezin gehiagozkoa den herrietan, edo langileri eta nekazari egoera toperaino eginda dagoen lekuetan, kaso guzi hautan indar politikoa gero eta basatiagoa bilakatzen da; gogorkeriz zanpatzen dira masataldearen agerpen deskontengaitzak; demokraziaren esperantza ere galtzen da; goiko klase dominatzaileek praktikatzen duten diktadura basatiak berezitasun aparteko bat hartzen du orain. Eta orduan derrigorrezko gertatzen da herrien asaldatze iraultzailea»⁴⁹⁵.

Eta Kuba hauxe zen: «erdi-hazitako eta kolonizatutako» herri bat⁴⁹⁶.

III.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Atal honetan hirugarren etapako lehen epealdiko matxinadari atxikiko gatzazkio, hau da, 1953-tik 1959-ra mugatzen den epeari. Hain zuzen ere, hementxe dago Kastro-ren iraultza-ekintzaren unerik bereziena.

Bi sailetan mailatuko ditugu puntuak. Lehenengoan iraultzako premisak edo aurre-baldintzak ikusiko dira eta bigarrengoan iraultzaren helburu eta bideak.

1.- Iraultzarako premisak.

Premisa hauen azterketak baldintza **objetibo** batzuk martxan jartzea eskatzen du baldin iraultza bilakatuko bada. Iraultzak Kastro-k dioen bezela, ez dira gizonen kaskoan jaiotzen⁴⁹⁷. Kastro-k

⁴⁹³ Ikus: ibidem, orr. 63-69, «Conference a un “forum” de delegues d’Amerique latine a La Havane en juillet 1959».

⁴⁹⁴ Ikus: ibidem, orr. 69-71, «Extrait du discours prononce le 26 septembre 1960 a la tribune de l’Assemblee Centra le des Nations Unies a New-York ».

⁴⁹⁵ Ikus: ibidem, or. 119, «Extrait du discours prononcé le 16 avril 1961, veille du débarquement de Playa Girón, à l’enterrement des victimes des bombardements...»

⁴⁹⁶ Ikus: ibidem, or. 80, «Extrait du discours prononce le 26 septembre 1960 a la tribune de l’Assemblee Generale des Nations Unies a New-York ».

⁴⁹⁷ Ikus: ibidem, or. 158, «Extrait de la conference prononcé à l’Université Populaire de La Havane le 2 decembre

zuhurki eta begi zorrotzez ikusi zuen zapalkuntzaren baldintza larrienak nun ematen ziren. Klaserik zapalduena, lehen ikusi denez, **nekazariena** da; nekazariak ez dute lur-jabetzarik, gehienetan lanik gabe dira, eta abar⁴⁹⁸. Oraindik areago: izerdiz produkzitzen dutena arras merke saldu behar izanen dute gero merkatuan garesti erosteko⁴⁹⁹. Gure herrian antzeko zerbait gertatzen da. Nekazarien egoeran finkatzen da iraultzaren ziment-harria:

«Gure herrian aurkitzen ziren badintza objetiboez baliatu nahi izan dugu. Batez ere, eta lehenengo, nekazarien egoera dago. Hauk sistematikoki esplotatuak dira. Ez zitlaigun sekulan bururatuko nagusi haundi-maundi gizenik ez legokeen herri batetan burrukari ekiterik»⁵⁰⁰.

Iraultzarako lur goldagarria hor zegoela, historiak arrazoin eman dio Kastro-ri, teoriak teori.

2.- Iraultzaren helburu eta bideak.

Izenburu honen testuinguruan lekutzen dugu estrategiari eta taktikari buruzkoa.

Kastro-ren politikagintzan gauza bat bederen nahiko garbi tinkatua, hots: alperrikako zela geroko etorkizunaren nolakotasunaz amets egitea, baldin lehenik, bertako diktadura botaz gero, xede demokratikoak betetzen ez baziren. Esandakoaren froga bezela hego Ameriketako esperientzia dakar:

«Iraultzak egin behar duen lehen gauza, agintzen dagoen errejimena anka gora bota ondoren, haren harmadaz jabetzea da. Ondo dakigu jakin hori bakarrik ez dela nahikoa iraultzarako, baina beharrezkoa da halere»⁵⁰¹.

Beste behin:

«Errejimena sostengatzen duen militar aparatua suntsi daiteke»⁵⁰².

Honela, bada, gaineratuko du, oraingoan xedeak gehiago zehaztuz:

« ... gure iraultzako estrategia osoa agintea lortu beharreko pentsaketa iraultzaleari itsasirik

1961».

⁴⁹⁸ Ikus: ibidem, or. 49.

⁴⁹⁹ Ikus: ibidem, or. 49.

⁵⁰⁰ Ikus: ibidem, or. 48.

⁵⁰¹ Ikus: ibidem, or. 60.

⁵⁰² Ikus: ibidem, or. 57.

zegoen»⁵⁰³.

Nola lortu agintea? Galdera honi erantzuteko, Kastro-k iraultza-bidean emandako pausorik garrantzitsuenak izendatuz etorriko gara.

a) *Gerrilaren politikagintza*. Gerrila askorentzat utopikeria bat zirudikeen, baina ez ordea Kastro-arentzat. Honek dio:

«Esan beharrik ez dago bene-benetan sinisten genuela gerriletan. Gure herriko baldintzak, hego Amerikako beste herrien antzera, ederki egokitzen zirelako sinisten genuen guk gerriletan»⁵⁰⁴.

Gerrila aurrera aterako bazen, hots, mendietatik herritartuko bazen alegia, jendearekiko harremanak behar-beharrezkoak zirela judikatzen zen. Kastro-k ondo zekien «agintea ez zuela 10, 12 edo 100 gizonekin ardietsiko»⁵⁰⁵.

Zegoen egoera bereziagatik **nekazaritzan** zedukaten gerrilerok beren harmarik zulakarriena. Kastro-ren politikagintza nekazaritzaren **politizatze**ra bideratzen da, beraz,⁵⁰⁶ masa-mugimendua sor zedin. Honela, bada, gerrilaren taktikak, herriarekin bat eginik, posible egin zuen iraultzaren helburu estratejikoak. Testo honek ederki agertzen du taktika horren zuzentasuna:

«Zeinek asaldatu ditu masak? Gerrila zen indar-eragilea, berak piztu zuen burruka eta berak argitu zuen zapalkuntza; berak bistatu zituen errejimenaren kontradikzioak. Herriak hartzen du agintaritza; masak agintzen du. Horra hor funtsezko lehen oharra»⁵⁰⁷.

Eta beste pasarte batetan:

«Taktika honen baliotasuna ikusi zenean, herria alkatzen hasi zen, iraultzaileak ere bai; eta, honela, Kuba-ko mugimendu iraultzailearen eta iraultzaile guztien taktika eta burruka bilakatu zen»⁵⁰⁸.

b) *Frentearen muntaketa*. Lehen esan dugu, «herria» kontzetoaz aritu garealarik, Kastro-

⁵⁰³ Ikus: ibidem, or. 48.

⁵⁰⁴ Ikus: ibidem, or. 54.

⁵⁰⁵ Ikus: ibidem, or. 48.

⁵⁰⁶ Ikus: ibidem, or. 52.

⁵⁰⁷ Ikus: ibidem, or. 57.

⁵⁰⁸ Ikus: ibidem, or. 56.

rentzat nortzuk diren herria: zapalduak oro, nahiz-eta maila eta era desberdinez zapalduarik egon. Irizpide hau bera erabiliko du frentea muntatzerakoan. Hitzez hitz:

«Inperialkeriaren eta feudalkeriaren kontrako burrukan posible da herriko jenderik gehiena alkartzea askatasunari buruzko programaketa baten pean, hots: langile-klasea, nekazariena, intelektualena, burgesia txikiarena eta nazioarteko zatirik aurreratuarena. Sektore hauk, herriko jenderik gehiena hor sartzen bait da, sozial indar gotor baten adierazle dira. Ba da hor inperialkeriaren zapalkuntza iraultzeko eta feudalkeri atzerakoia erauzteko indarririk aski... Mugimentu honek (frenteak) onar ditzake harmadako indar aurrerakoenak, militar yankien lotsa sufritzen duten horik danak... »⁵⁰⁹

Jakina, frente honen barruan xede ezberdinetako klaseak dauden ezkerro, pasa gaitezen gidaritzaz zehar dagokion mugatzera.

Frentearen zuzendaritza, **langileriak, intelektualek eta nekazariak** daramate:

«Nekazaritzak, ezjakintasunean eta bakardadean hesiturik egon den klasea izaki, langileria eta intelektual iraultzaileen zuzendaritza iraultzailearen eta politikoaren beharra daduka, eta honen laguntzarik gabe eta bakarka ezin abia daiteke burrukara eta ezin lortu gurenda»⁵¹⁰.

Burgesia zuzendaritza kanpora gelditzen da:

«Gaur-egun hego Amerikan ematen diren baldintza historikoak kontutan hartzen badira, garbi dago burgesiak ez dezakeala gida feudalkeriaren eta inperialkeriaren kontrako burruka. Esperientziak erakutsi du, gure herrietan, nahiz-eta burgesan interesak yankien inperialkeriarekin kontradizio egon, klase hau beti indarge azaldu izan dela hari kontra egiteko, zeren sozial iraultzak eta masa zapalduak bildurra ematen bait diote»⁵¹¹.

IV.- KASTRO-K KUBA-RI EMANDAKO ATERABIDEA

Hemen ere bi etapa mailatuko ditugu: 1959- gn, urte aurrekoa eta horren ondorengoa.

Oposizioa nola zegoen gainpasada bat eman ondoren, hobekiago dastatuko dugu seguraski Kuba-ko iraultzaren berezitasuna. Azter ditzagun, beraz, oposizioko indarren jokabideak.

⁵⁰⁹ Ikus: ibidem, orr. 121-122, «Seconde declaration de La Havane, votée le 4 février 1962».

⁵¹⁰ Ikus: ibidem, or. 120.

⁵¹¹ Ikus: ibidem, or. 121.

1.- 1959-gn. urtea aurretik.

Esanik dugu jadarrik Kastro-k zein kontsideratzen dituen iraultzaile: langileria, nekazaritza, intelektualak, burgesia txikia⁵¹². Ikus dezagun oposizioan zeinek zer errepresentatzen duen.

a) P.S.P. (edo Sozialista Alderdi Popularra), edo Komunista Alderdiaren jokabidea⁵¹³, bere politikagintzaren helburu nagusi bezela, langileriaren eskabideetara soilki mugaturik zegoen, Alderdia sortu zen egunetik beretik egon ere. Inperialkeriaren kontra jokatzeko, eta bide bakarra bezela, **sindikalisma** baizik ez du praktikatuko⁵¹⁴. Ez du onartzen, ezta taktika mailan ere, edozein mailatako burgesiarik⁵¹⁵.

1958-ean Mugimendu iraultzaileari itsasten zaio; gurdia idien atzetik bezela, ezin bestean egingen du; halabainan, iraultzan ez du nehoiz ere zuzendaritzarik eramanen⁵¹⁶ eta «organizazio paralelo edo kideko» bezela jokatuko dira bakoitza bere bidetik⁵¹⁷.

Zergatik ote horrelako mesfidantza? Alderdiak Kastro-ren iraultzan sinisten ez zuelako:

«Hain zuzen ere, Komunista Alderdiak iraultza desestimatu bazuen (gero berak 1960-ean aitortuko zuen bezela), harmadarekin aurrera egiteko posibilitaterik ikusten ez zuelako zen»⁵¹⁸.

b) Uztailaren 26-eko Mugimendua. Mugimendu hau Kastro-k- zuzentzen zuen 1953 ezker⁵¹⁹. «Estrategia eta taktika» deitu atalean agertu genuen Mugimendu honen zenbait zehaztasun. Gauza bat konstatatu nahi litzake hemen: Kastro-k Alderdi klasikoaren tradizio inposatzailea hautsirik, beste poibiltate batzuen giltza eskuratzen du askatasun sozialekiko politikagintzan, zeren:

«Errusia-n edo Txina-n ohi zenez, hemen ez baitzen sozialisma harmadaren hasierako helburua»⁵²⁰.

⁵¹² Ikus: ibidem, or. 149, «Extrait de la conférence prononcée á l'Universite Populaire de La Havane le 2 decembre 1961».

⁵¹³ Ikus: ibidem, or. 317, Julio Antonio Mella-k sortu zuen 1925-ean. Legalitatean zenbat denbora eginaz gero isilera pasatu zen.

⁵¹⁴ Ikus: ibidem, or. 17; «Introduction».

⁵¹⁵ Ikus: ibidem, or. 17.

⁵¹⁶ Ikus: ibidem, or. 9.

⁵¹⁷ Ikus: ibidem, or. 17.

⁵¹⁸ Ikus: ibidem, or. 17.

⁵¹⁹ Ikus: Mugimendu honen nahiko kideko «Directoire Révolutionnaire du 13 mars» da ; Echeverria-k zuzentzen zuen ikasleen talde iraultzailea da bera. Ikus, or. 315.

⁵²⁰ Ikus: ibidem, or. 9, Introduction

Sozialismuruntz pausoka helduko da. Lehenik gertuagoko beste xede batzuk erreko dira. Bedi lekuko «La historia me absolvera» deitu agiria. Komunista Alderdiak zeraman politikaren kontrako erantzuna da Kastro-rena:

«Esan beharra dago, guk egin dugun esperientziarik ikuskarrienetako bat sozialistak izan gabe irautza sozialista egitea izan zela. Garai hartako idazterakoan iraultzaren meritu hori azaldu beharko da. Izan ere, garai hartan, komunisten kontrako aurre-iritzia hain zen lodia, komunista bat eginkizun batetarako izendatu ezker, nahiz eta kargu txikietarako izan, zuzmurrak altxatzen ziren kezkek eta gaizki-esanak lehertzen»⁵²¹.

Pasadizu honek agintea hartu ondorengo herri-giroa zertan zegoen garbiki adierazten digu. Komunisten kontrakoa zen errotik.

d) Burgesiaren jokabidea. Burgesiak bere xede batzuk ba dituen ezker, bere politikagintza ere xede horien gerizatza makurtzen da. Azukrea esplotatzen zuen goi-burgesia, bankaetxe eta finantzari haundi kapitalduna, erro-errotik Batista-ri saldurik zeuden⁵²². Burgesia txikia, berriz, Batista-ren politika ustelduari gorroto ziolako batetik eta amerikanoen pribilegioak zanpagarri zitzaizkiolako bestetik, Iraultzaren alde zegoen. Halabainan, burgesia hau ez zen guztiz fidagarri, arestian ikusiko den bezela⁵²³. Burgesiaren politika beti interesduna dela konstatatuko da.

2.- 1959-gn. urtea geroztik.

Sozialismaren epea dugu hau batez ere. Agintea hartu ondorengo Kastro-ren jokabidea nola zen jakitea guztiz interesgarri zaigu:

«Gaur-egun munduan zehar gudukatzen diren bi ideologia politiko eta ekonomikoen artean, guk gure jokabide berezi bat dadukagu. “Humanisma” deitu diogu, zeren guk bildur eta zapalkuntza eta dogmakeria guztietatik salbatu nahi bait dugu gizona. Kapitalismak gizona zapaldu egiten du. Komunisten Estaduak, bere ikuspegi totalitarista dela medio, gizonaren eskubideak zapaltzen ditu. Horregatixe ez gaude ados ez batekin eta ez bestearekin»⁵²⁴.

Kuba-k, beraz, berari dagokion sozialisma hautatuko du, kopiarik gabekoa eta herriak irents dezakeen modukoa. Testora etorririk:

⁵²¹ Ikus: ibidem, or. 149, «Extrait de la conférence prononcée à l'Université Populaire de La Havane le 2 décembre 1961».

⁵²² Ikus: ibidem, or. 11, Introduction.

⁵²³ Ikus: ibidem, orr. 11-12, Introduction.

⁵²⁴ Ikus: Claire Pailler-Staub, «El Castrismo», or. 8.

«Iraultzak inperialkeriaren kontrako eta sozialismaren aldeko bidea jarraitu behar du. Hau da, industria eta komertzio haundiak oro nazionalizatu egin behar dira eta jabetza guzietan egin; orobat, baseko produkzio-bideak oro, nazionalizatu eta guzietan egin»⁵²⁵.

Erreformen eta kapital-iturrien desjabetzea aurrera eramatekoan eta iraultza sozialki radikalizatzean, bi gauza jartzen dira agerian.

Lehenengo. Sozial-hautapena egin duen jokabide aurrerazalearen aurrean **eskubi aldeko jira hartzen du burgesiak**. «Directorio Revolucionario» eta «Uztailaren 26-eko Mugimenduaren» barruan ezkerre- [TESTUA FALTA DA JATORRIZKOAN, (2017)]

Bigarren. Ezker iraultzailearen batasun politikoa gogortzen hasten da. Honela, 1961-ean, hiru erakunde politiko elkartzen dira, hots:

«Uztailaren 26-eko Mugimendua» (Fidelena), «Directorio Revolucionario» eta Komunista Alderdia⁵²⁶.

1965-gr. urteaz gero Komunista Alderdiak bakarrik zuzenduko ditu herri-interesak oro⁵²⁷. Burokraziaren irrisuak eta Alderdiaren barruko etsaigoak ez dira itzaliak oraino.

3.- Bukatuz.

Politika arazoa karanboletan jokatzea ez delako, danok dakigu Kuba-ko iraultza ez dela txiripa baten fruitua izan. Zer orduan? nolakoa dugu modelo hori? marxismarena? humanismarena? kastrismarena? Nork daki! Agian, Kastro-k berak ere ez.

Guk Kuba-ko esperientziatik ohar batzuk jasotzen ditugu.

-Iraultza beti ikasten jarraitzeko ateak zabalik daduzkan eskola bat baizik ez da.

-Kuba-n, nekazaritza, zapaldua den aldetik, langileria bezain iraultzailea izan da eta burrukan aparteko leku bat dagokio.

-Burgesiaren alderdi iraultzailea ezin gal daiteke alferrik, bereziki baste indarren kontrola dakarrenean garanti bezela eta zuzendari

⁵²⁵ Ikus: Castro, Textes Choisis, or. 157, «Extrait de la conference... 2 decemb. 1961».

⁵²⁶ Ikus: ibidem, or. 162, «Extrait de la conference... 2 decembre 1961».

⁵²⁷ Ikus: ibidem, orr. 196-216, «Discours prononcé le 3 octobre 1965, au theatre Chaplin, lors de la cérémonie de présentation des membres du Comité Central»

2.- E. JEAN-PAUL SARTRE eta BURGOS-KO EPAITZA

Jean-Paul Sartre Euskadiko politikagintzan zuzeneko protagonista ez bada ere, haren lanek ba dute guk darabilgun lanerako zeharkako zer ikusirik. Eta hau bi arrazoiengatik batez ere.

Lehenengoa: nazional eta kolonial arazoaz kezkatu eta teorizatu duen autore ba da. Kolonial arazoaz, esaterako, izkiriatu du jadanik gauza baliosik. Albert Memmi-ren «Portrait du colonise» liburuan datorren bere hitzaurrea irakurri besterik ez dago.

Bigarren arrazoa guri arras hurbiletik ikutzen digun gertakizun haundi bati loturik dator. Burgos-en epaitutakoen eskabideari erantzunaz, Gisele Halimi-ren «Proces de Burgos» izeneko liburuari beste hitzaurre mamitsu bat eskeintzen dio. Ondo dakigu hemen Sartre-k ez duela gauza berririk asmatzen, baina lehen guk esandakoak orain Sartre-k bir-esateak ba du guretzat halako indar berezirik.

Sartre, beraz, teorigile baino gehiago, gure herriari buruzko lekuko bezela dakargu. Esan nahi honetan ulertu behar da Sartre jaunari eskeintzen diogun atal hau.

Eta sarrerako ohar hau eginik, Sartre-k Burgos-ko epaitz ataritik Euskadiko iraultza nola aztertzen duen agertzeraz pasatuko gara.

1.- KOLONIALISMA.

Sartre-n nazional arazoiari buruzko tesiak ETA-ren planteamenduari erantzun nahi bezela dio:

«Gu ez goaz frankismaren kontra bakarrik, baizik-eta guk lehendabizi Espaniaren kontra burrukatzen dugu»⁵²⁸.

Gatozen tesiaren defentsarako darabilzkien kontzetuetara.

«Euskadi kolonia bat ote da?» galdatzen da⁵²⁹. Hala bada, zergatik eta nola? Erantzunaren azken funtsezko argudioak bi maila ezberdinetatik jasotako elementoen bitartez ematen dira. Euskadi kolonia bat dela frogatuko duten arrazoinak, beraz, bi modutakoak dira: ekonomikoa da bata eta etnikoa bestea.

⁵²⁸ Ikus: «Le Procès de Burgos», Gisèle Halimi, Gallimard, 1971, Préface de Jean-Paul Sartre, VIII-gn. or.

⁵²⁹ Ikus: ibidem, XIII-gn. or.

a) *Euskadi «ekonomikoki» zapaldurik dago*. Baiezkuntza hau, horrela kolpetik esanda, nahiko txokantea dirudike, zeren, Sartre-k dionez:

«Sistema kolonialista batean, metropoli industrializatuak modu onean eskuratzen bait ditu herri kolonizatuetatik datozkion lehen materiak eta jateko sorkariak»⁵³⁰.

Eta, jakina, Euskadiko kasoan ez bide da hain borobilki aplikatu ahal izango printzipio hori, izanik Bizkaia eta Gipuzkoa, diren bezela, Penintsulako beste herrialdeen gonbarazioan arras industrializatuak. Zentzu honetan, bada, herri kolonizatua (Euskadi) aberats litzake eta kolonizatzailea, aitzitik, pobre eta nakazalgoari atxikia (Penintsulako beste herrialdeak)⁵³¹.

Bainan, Sartre-k gaineratzen duenez, «paradoxa hori itxurazkoa baizik ez da»⁵³², zeren, eta hemen lekutzen du bere kolonial lasiaren hasamendu ekonomikoa, industrializazio marduleko herriaren mezpreziotan, kolonizazio klasikoan eman ohi diren funtsezko elemento bi ikusten ditugu. Euskal Herrian, alde batetik **lapurketa bat** eramaten da -berdin da lapurketa hau fiskala izatea ala beste modu batetako-⁵³³; eta, bestetik, Euskal Herriko langileria goi-esplotatu egiten da»⁵³⁴. Bi elemento hauen ondorio bezela beste hirugarren bat erasten da, hots: jendetzaren harat-honakoa edo migrazioa. Euskal Herriatik bertakoa jendea kanporatzen da eta kanpokoa bertaratzen⁵³⁵. Hau egia da baldin kontuan hartzen badira Euskal Herriko bere bi alderdiak, hegoa eta iparra.

Espania-ko gobernuak Euskadiri txupatzen dion dirutzak ematen du, beraz, zapalkuntza ekonomikoren neurria eta kolonialisma kontzetoaren baliotasuna. Fenomeno hau bera Bidasoaz bestaldetik, hots, Iparraldetik garbiago dago. Hain zuzen ere, hemen Iparraldean, «Hego Nafarroa sistimaz desjabetua, narrutua, jipoitua izan da frantsez kolonialismaren bitartez»⁵³⁶.

Euskal Herriko kolonialismari dagokion puntu honek merezi du gure partetik ohartxo bat. Euskal langileriak sortzen duen dirua atzerriratzen dela egia bada ere, horrek ez bide du esan nahi, ordea, Euskal Herriaren kasoan herri kolonizatu baten berdina denik, «kolonia» kontzetoa bere zentzu hertsian hartzen bada behintzat. Beste nonbaiten argitu dugu puntu hau, Lenin baitan

⁵³⁰ Ikus: ibidem, XIII-gn. or.

⁵³¹ Ikus: ibidem, XIV-gn. or.

⁵³² Ikus: ibidem, XIV-gn. or.

⁵³³ Ikus: ibidem, XV-gn. or. Lapurketa fiskal hori numerotan honela irakurtzen da: 3 mila miloi 500 000 pezeta.

⁵³⁴ Ikus: ibidem, XVI-gn. or. «Renta per capita» delako etorria Penintsulako igoenetako bat da, baina une berean jomalen etorria besteen aldean baxuagoa da: 1955-1967 bitarte hortan, Espanian %-eko 6,3-ekoa zen eta Euskadin, berriz, %-eko 4,15-ekoa.

⁵³⁵ Ikus: ibidem, XVI-gn. or.

⁵³⁶ Ikus: ibidem, XIV-gn. or.

kolonialismaz ari izan garenean hain zuzen ere, Bego hor.

b) Euskadi «nasionalki» zapaldurik dago. Etniaren hil nahiak agertzen du hobekienik kolonial moldeko praktikaren beste aurpegi hau⁵³⁷.

*«Gaur Euskadin dagoen kultur ofizial hori unibertsalista hutsa da, gizon euskalduna gizon unibertsal batetan bilakatu nahi bait du. Hau da, euskalduna bere nazional jatortasun orotik erantzia nahi luke eta erabat espainol baten antzeko litzakeen giza abstrato bat bihur arazi... »*⁵³⁸

Horregatik, bada, hau ondorioetuko da berehala:

*«Euskaldunak euskaldun direlako goi-esplotatzen dituzte espainolek»*⁵³⁹.

Honek esan nahi du, alegia gizon unibertsalaren gainetik eta azpitik ba dela beste guztiengandik erabat berezia den «euskalduntasun» delako entitate bat. Hitzez hitz:

*«Zentralkeriazko aurre-iritziak at, eta historiari lotzen gatzaizkiozlarik, argi ageri da euskal etnia arras ezberdina dela hauzoko beste etniengandik eta ez duela sekulan galdu izan bere nortasunaren konzientzia. Nortasun hori modu berezi batez markaturik aurkitzen da gaurdaino gorde duen bere izakera biologiko bereziagatik eta bere hizkuntza den euskaragatik, hau ez bait da indo-europeo izeneko hizkuntzen familiakoa»*⁵⁴⁰.

Etniazko nortasunik gabe zutitutako gizon unibertsala errorik gabeko gizon bilakatzen da, haren izaera funtsean abstratoa da. Hain zuzen ere:

*«Gizonak, zapalduen zapalduenik daudelarik ere, ez dira gauza huts bilakatzen... gizonarengan beti dago gainezkatze bat eta niorabide bat»*⁵⁴¹.

Etniak ezarritako berezitasun aparteko bat tartekatzen da, beraz, espainol baten eta euskaldun baten artean eta biok ezin uztarturiko nortasunaren jabe dira. Hizkuntzak, etniaren bereizgarririk funtsezkoena izaki, ba du bere «egitura berezia, ba du pentsatzeko eta sentitzeko modu berezi bat»⁵⁴². Kolonizaturik dagoen gure herri-egoeran, beraz, euskaraz mintzo dena berez bilakatzen da

⁵³⁷ Ikus: ibidem, XVIII-gn. or.

⁵³⁸ Ikus: ibidem, XX-gn. or.

⁵³⁹ Ikus: ibidem, XVII-gn. or.

⁵⁴⁰ Ikus: ibidem, XI-gn. or.

⁵⁴¹ Ikus: ibidem, XIX-gn. or.

⁵⁴² Ikus: ibidem, XIX-gn. or.

iraultzaile⁵⁴³. Euskaraz mintzatzea iraultzaile izatea da. Eta euskalduna, berari dagokion jatorrasunez erantzia izan delako, bere senara bihur dadin, «ukaziozko» kultura bat praktikatu beharko du. Hau da, «lehen-lehenik, bakotxari ezarria izan zaion gizon espainol hori ukatu beharko dute euskaldunek»⁵⁴⁴.

II.- ETAPAK. ABERTZALETASUNAREN SORRERA

Sartre egiazko dato batzuk konstatatzen hasiko da:

«U.R.S.S.-en bertan, Errepublika asko dago zentralkeriatik ihes egin nahirik, esate baterako Ukrainiakoa; oraindik berriki egin bide du Ziziliak bere banaketa; Yugoslavian, Frantzia, Espanian, Ipar irlandan, Belgikan, Kanadan, eta abar... arazo sozialak etnia mailan mugitzen dira; “probintzia” izenekoek aberri bezela ikusten dituzte beren buruak eta aberritasuna eskatzen dute nahiko modu agerian»⁵⁴⁵.

Ikusten denez, Sartaldeko Europako nazional arazoa gairik zegoela zion teoria (hortan zeuden Lenin eta Stalin), ez dirudi hain egiazkoa testo hau irakurriaz gero.

Zergatik, bada, «separatista» deituriko joeraok? Ez ote da, bada, abertzaletasuna burgesiaren seme?

Sartre-ren arazoak bi mailatan errenkara daitezke. Lehendabizi, gaur «nazio» izeneko n batasuna nola lortua izana den eta, bigarren, abertzaletasunaren mugimendua hain gogorki zergatik berri den, ikusiko da.

1) Nazioen batasuna «etnien mugak» saltatuz egin da. Gertaera honen lehen kausa zentralkeriatik inposatutako ekonomiazko batasunean datza. Esate baterako, Frantziako batasun nazionala Erreboluzio eta jakobindarkeriatik ezarritako eta gero industria harok areago gorpuztutako batasunaren ondorio bat baizik ez da⁵⁴⁶. Batasun hori herri-nortasunik gabekoa delako, hain zuzen ere, salatzen da nazio horien paltsokeria:

«Ba dakigu gaurko mugak klase dominatzaileen interesei dagokienez muntaturik daudela, eta ez herritarren asmoen onerako; ba dakigu, baita ere, indartsuek hain harroki aldarrikatzen duten

⁵⁴³ Ikus: ibidem, XIX-gn. or.

⁵⁴⁴ Ikus: ibidem, XX-gn. or.

⁵⁴⁵ Ikus: ibidem, IX-gn. or.

⁵⁴⁶ Ikus: ibidem, VIII-gn. or.

batasun horren azpian etnien zapalkuntza dagoela eta baita isileko eta ageriko bortxakeria ere»⁵⁴⁷.

Zapalkuntzan sinisten dutenentzat puntu hau garrantzi haundikoa bait da, txit harrigarri gertatzen da etniari buruzko jasoera hauetaz nehor ere ez konturatzea edo ez arduratzea, zeren, Sartre-k dioen bezela, «puntu horri buruz, nola komunistak hala sozialistak ados daude kontserbadoreekin»⁵⁴⁸. Ba dirudi justifikagarri dela ekonomiaren laboratorioan, herrien hiltentseguan, jasotako nazio horien egitura postizoa.

2) Abertzaletasunaren pizkundan bi arrazoin daude: atomoaren desegintzea bata eta deskolonizatzearen fenomeno bestea⁵⁴⁹. Ikus dezagun hurbilagotik.

Orain arte, zentralkeriaren batasun zaleek norbere herria hauzokoen erasoetatik zaindu egin behar zela, zioten; bainan, gaur, harma atomikoak txantaje horren gezurra bistan jarri du, zeren Sartre-ren hitzetan esateko:

«Guda hotzezko zentralkeria Washington eta Mosku-tik zehar praktikatzen bait da; eta ez probintzietara begira, nazioetara baino»⁵⁵⁰.

Bigarren arrazoina lehenengoari loturik dator. Azken gudatearen ondoren hiru kontinenteetan zehar ematen etorri den deskolonizazioaren habaila da bera. Etsenpluak hor daude: Arjelia, Viet Nam, eta abar⁵⁵¹.

III.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Hain eraman-ekarria den euskal politikagintzaren problema estrategiko eta taktikoaz, Sartre-k bi puntu nagusietara zertzen du bere pentsakera.

1) *Estrategiak euskalduna izan behar du.* Euskal politikak lurralde estrategiku bezela Euskadira lekutu behar du bere burruka eta ez penintsula mailara. Arras zehatza da Sartre-ren jokabidea puntu hontaz: euskaldunek, strategiaren aldetik, «bakarkako» politika jokatu behar dute; eta Franko-ren diktadura botatzeko beste mugimendu iraultzaileekin izango diren harremanak «taktikoak» izango dira. Beraz, dio, «strategiaren aldetik ezin onar daiteke zuzendaritza komun

⁵⁴⁷ Ikus: ibidem, IX-gn. or.

⁵⁴⁸ Ikus: ibidem, VII-gn. or.

⁵⁴⁹ Ikus: ibidem, X-gn. or.

⁵⁵⁰ Ikus: ibidem, IX-gn. or.

⁵⁵¹ Ikus: ibidem, XI eta X-gn. orr.

bat»⁵⁵², hots, penintsularra alegia. Zergatik? Hona hemen hiru arrazoin:

a) Euskal langileriak espezifikotasun bat du. Besteengandik ezberdina da. Hain zuzen ere, ezin pareka daitezke Madrilgo eta Euskadiko langile baten eskabtdeak zentrakeri negatibo batetan jautsi gabe⁵⁵³. Dio:

«Euskadiko kasoan, ekonomia eta sozial arazoa nazional mailan planteatzen da»⁵⁵⁴.

b) Penintsula mailako estrategia batek inolako garanti-segurtapenik ez dakar. Honetan esperientzia bera dugu lekuko:

«Errepublikari ere beharritik tira behar izan zitzaion; herri sozialistak, gaur eta hala nahirik, kolonialista bilakatu dira»⁵⁵⁵.

d) Euskal iraultza, ez espainol herriaren kontra, Espaniaren kontra baizik doa:

«Herri kolonizatu batek ezin dezaioke esplotazioari errematerik eman, baldin, jauntasun osoz, kolonizatzailearen kontra zuzenki jeikitzen ez bada»⁵⁵⁶.

«Espaniaren kontra» esan ordez Espaniako Estaduaren kontra esan baleza, zuzenago litzake egian bere esaera. Zehaztasun haundirik gabe, errezegei behar bada, erabiltzen ditu Sartre-k zenbait kontzeto. Hara nola: «espainol gizona», «euskaldun gizona», «Espania», eta abar...

2) ***Euskal iraultzaren konstanteak***. «Askatasuna eta sozialisma» dira bi konstante hauk. Bi helburuok burruka bakar baten bitartez lortu behar dira. Helburu bikoitz honen bideratzeak frentearen egitura nolakoa izan behar duen aztertzeraz garamaz. Nortzuek dute leku euskal iraultzan? Hara hemen Sartre-ren erantzuna :

«Langile klaseak gidatu behar du iraultza, hura bait da ugariena»⁵⁵⁷.

Halabainan, eta beti langileriaren zuzendaritza pean, «burgesia txikiaren eta intelektualen

⁵⁵² Ikus: ibidem, XXI-gn. or.

⁵⁵³ Ikus: ibidem, XVII-gn. or.

⁵⁵⁴ Ikus: ibidem, XVII-gn. or.

⁵⁵⁵ Ikus: ibidem, XXI-gn. or.

⁵⁵⁶ Ikus: ibidem, XXI-gn. or.

⁵⁵⁷ Ikus: ibidem, XXII-gn. or.

printzipioa onartu beharra dago», zeren, «iraultzaile den eta bere eginkizunaren konzientzia dadukan mugimendu batek, kolonia batean diogu, ezin onar bait dezake gidaritzat metropoli batean baizik sentidurik ez duen «klasea klasearen kontra» delako printzipio hori»⁵⁵⁸.

Euskal-ekonomia zentralkeriaren faboretan txautzen duen goi-burgesia, «herri-komunidadetik at gelditzen da»⁵⁵⁹.

IV.- SOLUZIOAK

Soluzioei buruz, hiru proposamenduen eta hiru praktiken berri dakar.

1) Euskadiko Komunista Alderdiaren jokabidea.

«Sozialki **aurrelari** eta politikoki kontserbadore» dela, dio⁵⁶⁰.

Estrategiaren aldetik so ezkerro, Komunista Alderdiarentzat ez da esistitzen Euskadi:

«P.C.-ek Euskadi leku geografikutzat bakarrik daduka sinpleki»⁵⁶¹.

Eta, geroxeago, beste pasarte batetan:

«Euskal langileak klase burruka “kimikuki garbi” batetara bultzatu nahi lituzkete»⁵⁶²
Alderdikoe.

2) P.N.B.-ren jokabidea. Honek lehen mailako helburu bezela «askatasuna» ezartzen du eta gerorako uzten ditu sozial konponketak⁵⁶³. Bainan gizarte konponketak gerorako uzteak garanti kaxkar xamarrak ditu berarekin, zeren orduan ere, «konpradores» horien bitartez, kolonialismak USA-ren eskuetan jarraituko bait luke⁵⁶⁴.

3) ETA-ren politikagintza. Aipaturiko bi Alderdi horiek emandako erantzunaren eskxatasuna ikusirik, E.T.A.-k «askatasunaren eta sozialismaren» helburu bikoitza proposatzen du. E.T.A.-ren

⁵⁵⁸ Ikus: ibidem, XXII-gn. or.

⁵⁵⁹ Ikus: ibidem, XVI eta XVII-gn. orr.

⁵⁶⁰ Ikus: ibidem, XXI-gn. or.

⁵⁶¹ Ikus: ibidem, XXI-gn. or.

⁵⁶² Ikus: ibidem, XX-gn. or.

⁵⁶³ Ikus: ibidem, XXII-gn. or.

⁵⁶⁴ Ikus: ibidem, XXII-gn. or.

plangintza lau frentetara mugatzen da: langile frentea, kultural frentea, politiko frentea eta militar frentea⁵⁶⁵.

E.T.A. noruntz doan ongi dakiela uste bide du Sartre-k, dionean:

« ... partidu iraultzaile batek zuzenduriko herri heroiko honek beste sozialisma mota bat erakusten digu; dezentralizagilea eta konkretoa da bera. Hauxe da, bada, euskaldunen unibertsalisma berezia, ETA-k, hain zuzen ere, zapaltzaileen zentralkeri abstratoari oposatzen diona»⁵⁶⁶.

Bainan antolaketa hau aurrera eramango bada eta autodeterminazioaren printzipioa bete, aurretik gaurko mugen garbiketa on bat egitea eskatzen da, eta radikalki eskatzen gainera⁵⁶⁷.

Eta bukatuz, galdetzen du : hau guzia marxisma ote da? Eran tzuna Guevara-k emango dio:

«Gu marxistak? Nik deus ez dakit... Ez dugu guk errurik baldin errealitatea bera marxista bada»⁵⁶⁸.

⁵⁶⁵ Ikus: ibidem, XXV-gn. or.

⁵⁶⁶ Ikus: ibidem, XXIX-gn. or.

⁵⁶⁷ Ikus: ibidem, XXIX-gn. or.

⁵⁶⁸ Ikus: ibidem, XXX-gn. or.

2.- F. SARRAILH DE IHARTZA eta EUSKAL-HERRIA

Kolonialisma eta inperialisma espezifikuenaren menpeko nazio eta nazionalidadeekiko elkarte izanik, beren iraultzan marxista metodoekin osotako estrategia eta taktika erabiliaz gero, askatasun nazionala eta soziala erdietsi izan dutenen esperientzia hauk gure Euskal-herrian aplikatzen entseiatzen den norbait dugu Sarrailh de Ihartza. Batetik hori dela eta, eta bestetik gure egungo Euskal-herriaren egoera, hots, Euskal-herria kolonialisma edo inperialismaren menpeko diren herrialde haiekin ezin gonbara litekeala uste izanik, gogor eztabaidatua izango da autore hau. Eta gure aburua, Euskal-herriaren kasua besterik dala ere da, hots, Sartaldeko Europan, kapitalisma monopolistaren menpeko den nazionalidadeekiko bi Estaduen nazio menperatu bat garela. Ordea, bere kontzeto eztabaidatu horien pean Euskal-herriari buruz egindako bere zenbait azterketa agertzeak ba du garrantziarik, anitz bider arrazoi bait du. Honetara igarotzen gara, bada.

I.- KONTZETUALIZAZIOA

Ez da harritzeko gauza izango bere kontzetoak miitar kutsuz bustirik baldin badatoz, zeren lehenago, kolonialisma eta inperialisma espezifikuenaren kasuan iraultza eramen dutenen teoriak ikasterakoan, konstatatze bera egin bait dugu.

a) *Gerrila.*

«Gaurregun ulertzen denez, Askatasun Nazionalerako guduetan estrategia osoaren zati bat da»⁵⁶⁹. Halere, eskabide ekonomikora mugatzen den langile burruka (edo beste edozein ekintza), gerrila izatetik hurrun dagoela gehiagotuko da⁵⁷⁰. Zeren, «gerrila zuzeneko burruka bat baino gehiago eginkizun politiko bat bait da»⁵⁷¹. Kontzeto honekin batera «gerrileroen ejerzitua» eta «gudu iraultzailea» kontzetoak ere erabiltzen dira. Lehenengo, «gerrileroen ejerzitua» erabiltzean, herri oso baten abanguardia harmatua adierazten da. Bigarrena, «gudu iraultzailea», batetik, militar Estrategiak erdietsitako mailarik gailurrena bezala eta, bestetik, bere nahiak gorpuzten dituen idealagatik burrukatzen den herriaren mobilizazio osoa izendatzeko erabiltzen da⁵⁷².

«Gudu popularra» ere aipatzen da. Kontzeto horrekin jendetza zibilaren gudurako doktrinatzea ulertzen da; burruka honen hegi emozionala kulturaren bitartez arrazoiiezko eta kontzientziadun bilakatu nahi da⁵⁷³. Gainera, inperialista eta atzeraikoi diren politiko indarren bortxa errealidade

⁵⁶⁹ Ikus, Branka 2, «Estrategia guerrillera», Sarrailh de Ihartza, 1966, 20'gn. or.

⁵⁷⁰ Ikus, Branka 3-4, «Estrategia guerrillera», Sarrailh de Ihartza, 1967, 53'gn. or.

⁵⁷¹ Ikus, ibidem, Branka 2, 20'gn. or.

⁵⁷² Ikus, ibidem.

⁵⁷³ Ikus, ibidem, 21'gn. or.

delarik, baidin herri menperatuek horri beren bortxa eta erresistentzia kontra ezartzen ez badie, behin ere ezin aska ahal izango dira⁵⁷⁴.

b) Askatasun Nazionalerako borroka.

«Askatasun Nazionalerako burrukek, beti eta beti, demokratiko eta aurrelari mamia ohi dute, gainera, zenbait kasutan sozialista dira»⁵⁷⁵. Are gehiago, nazionalisma iraultzaile bat bilaka dezaketen herriek bakarrik dira aurrelariak⁵⁷⁶. Eta inperialismaren haroan, burruka iraultzaileei beren indar determinatzailea inposatzen diena, hegi nazionala⁵⁷⁷. Halere, askatasun nazionalerako burruka munduko zati bakoitzean espezifikoki ematen da⁵⁷⁸. Eta askatasun nazionalerako bidea, gaitza eta hertsia izanik ere, ahalezko da. Gainera, kasu guztietan da ahalezko, Vietnam'go, Chipre'ko, Argelia'ko eta inperialisten uztarria gainditu duen beste zenbait herrik frogatu izan diguten bezala⁵⁷⁹. Ordea, Europako herri batetako askatasun nazionalerako burrukak, sozialari dagokionean ere, mugimendu iraultzaile izatea eskatzen du⁵⁸⁰. Gehiagotzen da ere, askatasun nazionala ez dela sekula erdietsi izan pake bide deritzan hortatik, menperatuei gelditzen zalen irtenbide bakarra, burruka harmatua da⁵⁸¹. Halaz eta guztiz ere, aldaketa guzti hau piskaka etorriko denez gero, askatasun nazionalerako burruka luzea izango da⁵⁸². Honen arrazoa, euskal gerrilak beste iraultzekin duen kultural diferentzian ezatzen da, hots, «bond» kualitatibo deitzen duen kulturaren nazional izaeran⁵⁸³.

d) Etnia minoritarioak.

Gerrila hobekien bilakatzeko baldintzak aipatzen hastean, onenak Asian eskeintzen direla baieztuko da, zeren bertan ematen bait dira komunki nazional eta sozial mailan bestelakotutako eta menperatutako herriak. Gainera, gehiagotuko da, berdinak ez esateagatik, antzekoak dira Europan etnia minoritarioen baldintzak. Eta etnia minoritario hauk zertan dira diferenteak Europako gairieatiko herriekin? Ihardesten da:

«Españian lau frentetako burruka eman ahal izanagatik ere, euskal iraultzaile Estrategiatik ezberdin da, zeren Espaniako kultural franteak ez bait du Euskal-herrikoaren dimensiorik»⁵⁸⁴.

⁵⁷⁴ Ikus, La Cuestion Vasca, Sarrailh de Ihartza, E.T.A.'ren edizioa, Euskaki 1970, « Lucha » atalean.

⁵⁷⁵ Ikus: ibidem, Movimiento de liberacion, atalean.

⁵⁷⁶ Ikus: ibidem, Branka 2, 25'gn. or.

⁵⁷⁷ Ikus: ibidem, 25'gn or.

⁵⁷⁸ Ikus: ibidem, La Cuestion Vasca, Independencia vasca y socialismo atalean.

⁵⁷⁹ Ikus: ibidem, Branka 2-3, 64'gn. or.

⁵⁸⁰ Ikus: ibidem, La cuestion vasca, Lucha atalean.

⁵⁸¹ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Tipo. de lucha atalean.

⁵⁸² Ikus, ibidem, Branka 2, 22'gn. or.

⁵⁸³ Ikus, ibidem, 24'gn. or.

⁵⁸⁴ Ikus, ibidem, 2-3'gn. or.

Hemen gogoaritzen zaigun dimensio hau kulturak duen nazional dimensioa da, noski.⁵⁸⁵

Baina, Espainian fronte kulturalak ba du kuantitatibo hedaduraz gain kualitatibozko dimensiorik eta eginkizunik ere, hots, burgesiaren kultura dena proletargotzarenean bilakatu. Nahiz eta lehen partean ezartzen duen nazional dimensioaren diferentzia egiazkoa izan (eta Sarrailh de Ihartzak jartzen ez badu ere, berdina da beste hiru frentetarako) une berean klase dimensioa gehiagotu behar zaio fronte hauetariko bakoitzari (eta hau ere Sarrailh de Ihartzak gutxiturik isiltzen digu).

Klase dimensio hau nola Espainian edo Frantzian hala Euskadin kualitatiboki berdina da nahiz kuantitatiboki, hots, baldintzei, zirkunstantziei eta beste mila gauzel dagokienean, berezitasunik izan hark batetarako eta bestetarako. Gainera, honetan datza, Saioak-VI Asambleak eta beste Euskadiko asimilazionismoaren aldeko internazionalistek, nazional dimensio oro gure arazoari ukatuz gero, klase dimensioari nunahiko eman nahi dioten berdintasun totalaren errua.

e) Nazionalidadea.

Aurrez esan berri duguna kontuari hartzen badugu, berehala jabetuko gara, Sarrailh de Ihartzarentzat «nazionalidadea kulturara mugatzea»⁵⁸⁶ arras bidezko dela. Are gehiago, kultura eta bere egintza, berriz, euskerara eta euskalduntzera⁵⁸⁷ mugatuko ditu. Honela, ondoko hau baieztuko digu, «Euskal-herriaren iraultzaile burrukan hizkuntza oinarrizko nazional faktorea da»⁵⁸⁸. Eta Euskalherriaren kultural arloan diferentzia kualitatibo bat dagoela konstatatuz gero, «Estadu erdirakoiak (hobeto pluralean balego, noski) zuzendurik, jazarpen beraren eragileen artean, beste maila batetan bederen, euskal kultural jazarpen bat dagoela ondorioztuko da»⁵⁸⁹. Are oraino, nazionalismaz menperatu beharrezko zerbait den bezala mintzatzen diren sozialista eta errebisionista guztiak daude⁵⁹⁰. Hemendik, Euskadin, gerrileroen Goi Zuzendaritzak bere eskuetan daduzka, besteek ez dituzten harma berezi batzuk, hots, festa folkloriko bat, nazional hizkuntzan egindako ikastola bat eta abar⁵⁹¹.

f) Euskalduntzea.

«Hizkuntza gizartearen nazional bereizkuntzen ezarlari da eta bereizkuntza hauk berriz, kultura ezberdinen nahi eta nahiezko oinarri dira. Honela, bada, hizkuntzazko forma berezi batek behartuki

⁵⁸⁵ Ikus, ibidem, 23'gn. or.

⁵⁸⁶ Ikus, ibidem, 24'gn. or.

⁵⁸⁷ Ikus, ibidem, 24'gn. or.

⁵⁸⁸ Ikus, ibidem, 27'gn. or.

⁵⁸⁹ Ikus, ibidem, 35'gn. or.

⁵⁹⁰ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, independencia vasca y socialis mo atalean.

⁵⁹¹ Ikus, ibidem, Branka 2, 36'gn. or.

«kultural frente» bat eskeini behar du, hots, nazional iraultzaren baldintza estrategiko guztien gainerik lehenbizikotuko dena⁵⁹². Euskal iraultzaileen aurre-euskalduntze bat gabe egindako euskal iraultza farsa garbi bat besterik ez da izango⁵⁹³. Beraz, nazional iraultzaren tenperatura hutsik gabe neurtzeko termometrorik onena, hizkuntza ikastea eta erabiltzea izango da⁵⁹⁴.

g) Kolonialismo eta inperialismo.

Ia beti bi kontzetuak baturik enplegatzen ditu. Eta Euskal-Herria, hauen pean judikatzen du.

«Europako herri minoritarioentzat ere kolonialismo eta inperialismo etsai hilkor dira».

Halere, Europan sufritzen den kolonialismoari **barrenekoa** deituko dio, beste kontinenteetakoetatik bereizturik, eta nazional mugimenduen eginkizun historikoa kolonialismo horren gainditzea da⁵⁹⁵. Eta kolonial zanzazioaren sistema gainditzeko, berriz, herri hauk bortxaz iraultzeko prestatu behar dira, zeren, Europan, kolonialismoaren menpeko diren herriek ezin bait dezakete karidadezko laguntzarik itxaron menperatzaile kolonialisten partetik⁵⁹⁶. Halabainan, Euskal-Herriak Espaniako eta Frantziako kolonialisten aurka burruka egiten badu ere, aitzitik, eta hau oso goitik esan behar da, ez da ari herrialde hautan tirania eta esplotatzea sufritzen duten indar demokratiko eta aurrelarien aurka⁵⁹⁷.

h) Erresistentzia eta iraultza.

«Erresistentziako gudu nazio osoaren gudu iraultzaile da»⁵⁹⁸. Iraultza ezin bihur daiteke, beraz, ekonomiazko erresistentzia hutsera, zeren, honek langile burrukak eta huelgak besterik ez bait lituzke emango. Aitzitik, iraultzara ailegatzeko modu bakarra burruka harmatuarena da⁵⁹⁹. Baina, hari bai, askatasun nazionalerako burrukan, lehen, kultural erresistentzia da⁶⁰⁰.

II- KLASEAK

a) Nazio-Estaduko burgesia.

Honetaz hitzegiten duenean, ez du esan nahi, Euskal-Herriko monopolista burgesia at uzten. denik, aitzitik, Estadu-Nazioan lekaturik dago. Honela, beste batzutan, burgesia hispana deituko du,

⁵⁹² Ikus, ibidem, Branka 3-4, 70'gn. or.

⁵⁹³ Ikus, ibidem, 55'gn. or.

⁵⁹⁴ Ikus, ibidem, 60.'gn. or.

⁵⁹⁵ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Movimiento de liberacion nacional atalean.

⁵⁹⁶ Ikus, ibidem, Lucha atalean.

⁵⁹⁷ Ikus, ibidem, Qué hacer atalean.

⁵⁹⁸ Ikus, ibidem, Branka 3-4, 57,gn. or.

⁵⁹⁹ Ikus, ibidem, 53'gn. or.

⁶⁰⁰ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Resistencia cultural atalean.

eta horrek in bat eginik dagoela esango du Euskadiko errebisionismu ezker-tiarra⁶⁰¹.

b) *Burgesia nazionala.*

Honetan euskal burgesia popularra sartzen da. Bera, berriz, monopolista burgesiaren aurka herriarekin batzen ikusi dugula, esango zaigu. Baita ere, proletargoak euskal burgesia nazionalaren parte honekin duen aliantzak arras aberritar sentidu duela⁶⁰², dio. Gainera, hau dela eta, herri menperatzaileetako «iraultzaileek» (?) herri menperatuen aurka askatasun nazionalerako burrukatzaileekin batera nazional burgesiaren elementuak parte hartzen dutela botako dute aurpegira. Ez dago dudarik, burgesia nazionalakoek ere, espoliatzea eta kolonialismoa sufritzen dute⁶⁰³.

d) *Proletargotza.*

Bitan bereiztuko da. Politikoki Espaniako Estatuaren erdirakoikeria eta asimilazionismoa onartzen duena, eta hortik at eta kontra dagoena. Honela, berak: «Euskal proletargotzaren diktadura, andaluziakoarenetik baldintza ezberdinetan egin behar da, zeren poterearen erdiestea euskal proletargotzari dagokionean, Espaniako proletargoarenetik ezberdin bait de»⁶⁰⁴.

Eta ekonomiko frentearen eragile bezala proletargotza ezarriko da. Baina arazoa, «proletalgoaren estrategia jeneralaz» denean, ekonomikoa funtsezko izanik ere, politikoak primatu behar du⁶⁰⁵.

e) *Masa popularrak.*

Aurreko hau osotuz, egiteko iraultzailea masa popularrena dela, hots, guduaren suertea herriak egiten duela, esango da. Eta masak eratzeko politikazko bide zuzen bat mugatu behar da, hots, langile masen eta konkretuan proletargo eta baserriarren nahi funtsezkoiei erantzun behar zaie⁶⁰⁶.

III.- ETAPAK

Zenbait mailatze egingo da.

Lehenik, industrial iraultza eman den eta ez den herriak bereiztuko dira. Eta kasu batetarako eta bestetarako ondorio ezberdinak proposatuko dira. Honela, «industrial iraultza emandako herrietan,

⁶⁰¹ Ikus, ibidem, movimiento de liberacion nacional atalean.

⁶⁰² Ikus, ibidem, Branka 2, 32'gn. or.

⁶⁰³ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Movimiento de liberacion nacional atalean

⁶⁰⁴ Ikus, ibidem, Branka 2, 36'gn. or.

⁶⁰⁵ Ikus, ibidem, 29-3'0'gn. orr.

⁶⁰⁶ Ikus, ibidem, 40'gn. or.

niilitargintza aparte, beste hiru fronte ezarriko da, hots, ekonomikoa, politikoa, eta kulturala»⁶⁰⁷.

Bigarrenik, herri industrializatuen artean, herri minoritarioak banakatuko dira.

«Zeren berrietan proletargotza ez bait dago drogaturik, ez eta inperialisten mahaitik datozen ogi papurren zai. Aitzitik, proletargotza honek kolonietako modura bikoitz edo hirukoitz den esplotatze bat sufritzen du, hots, ekonomikoa, kulturala eta soziala»⁶⁰⁸.

Halere, inperialisma haroa bi zatitan emanik dator. Lehen haraoan, zentzu zenbaitean, burgesiak oro elkartzen dira proletargotza zapaltzeko. Bigarrenengan, eta geroztik, ezin ikusiak sortzen dira burgesia horien barrenean. Honela, lehen kolonialista zen zenbait potentzia, orain Estatu kolonizatuaren baldintza pean sartzen da⁶⁰⁹.

Hemendik bi burruka tailu bereiztea igaroko da. Bi tailu hauk, menperatuen askatasun burrukari dsgokionean, honoko honetan konkretatuko dira:

«Lehena, hiru frentetako burruka da, politiko frentearen primatasuna absolutoa delarik. Bigarrena, lau frentetako borroka, kultural frenteari primaturik. Lehena, Andaluziarako litzake. Bigarrena, berri., Euskadirako»⁶¹⁰.

Gerrilak herriarekin duen harremanaren gehiagotzean ere hiru epe bereiztuko da.

Lehenengan, masak gerrilaren bidez landuko dira, hots, propaganda eginaz, eat abar; honela, herrial gogoz gerrileroak lagunduko ditu. Heziketa honen bidez bakarrak erdiets daiteke garaipena; herri laguntzarik gabe gerrilak ez du etsaia bentzitu. Molde honetako eratze eta politizatze baten faltan, masak beren indarren agertzeko ahaltsunik gabe lirake. Halere, une honetara ailegatuz gero, eta tropak militar ofentsibara ingarotzerako, denbora aldi nahiko lue bat joaten da. Hots, aurreko hau baino lehenagoko den defentsibaren epea da bera⁶¹¹.

IV.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Lehenik, hauen mugaketa hedatuena ematen den formularen aipatzez hasiko gara.

«Estrategia, gudu guztirako garaipena erdiestea baimentzen duen jokabide izanik, aitzitik

⁶⁰⁷ Ikus, ibidem, 22'gn. or.

⁶⁰⁸ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Lucha atalean.

⁶⁰⁹ Ikus, ibidem, Branka 2, 32'gn. or.

⁶¹⁰ Ikus, ibidem, 33'gn. or.

⁶¹¹ Ikus, ibidem, Branka 3-4, 63'gn. or.

taktika, burruka bakoitza ahalezko egiten duen forma da»⁶¹².

Hemendik gure estrategia ondoagotik mugatzera igaroko da.

Baldin itsu jokatu nahi ez badugu, iraultzaile izan behar da, hots, Europako kasuan askatasun nazionalaren eta sozialaren alde egon behar da»⁶¹³.

Eta euskal kasuan bi helburu hontara iritxi nahi ez bada, ez da hontara inolako proletargo alderdirik ailegatuko, baldin eta Euskadiko proletargoen alderdia, euskal askatasun nazionalaren aldeko eta autozefalu bilakatzen ez bada⁶¹⁴.

Zeren Euskadiko gerrilaren eta Espainiakoaren artean, kualitatibozko den ezberdintasun batek, hots, nazional kulturaren zapalketak strategiaren diferentzia eskatzen bait du⁶¹⁵. Behin ere ez du, ordea, nazional ekonomiaren, politikaren eta abarren zapalketarik maila honetan aipatzen, nahiz aipatzekoak izan. Nazional gudu eta sozial gudu iraultzaileen artean komuntasunik ba dagoen arren, halere, strategiaren aldetik ezberdinak dira. Hori dela-eta, unez etsai komun bat birentzat badago ere, Espainiako (sozial gudu dena) eta Euskadiko (nazional gudu dena) estrategia komun bat ezartzea ezineko gertatzen da⁶¹⁶. Gainera, batetarako eta bestetarko baldintza espezifikoak ere estrategia partikular bat eskatzen dute. Zeren herri bat bere herrikideekin osoturikako gobernu baten pean ez dagoenean, hots, burgesia estrainu baten interesen errepresentatzaile denean (euskal burgesia monopolista ere hor dagoela ahazten zaio, noski), euskal kasuan bezala, honelako herriaren erreakzioak, etnia berekoen errailetatik irtendako gobernuaren sozial espoliatzearen menpekoenak ez bezalakoak dira⁶¹⁷ hain zuzen ere. Halere, euskal strategiaren azken fina proletargotzarena izango da, zeren, Sarrailh'ek esaten duenez, sozialismoaren agerpenarekin askatasun nazionalareko burrukek beste maila sakonago bat erdietsiko bait dute⁶¹⁸. Baina, bere nazional soberania gabeko herri batentzat, gizonak gizona esplotatzen duen egoera kentzeko martxan, hori erdiestea dela lehen egitekoa esaten da. Eta orduan bakarrik bidera ahal izango da sozialismoaruntz⁶¹⁹. Honela, bada, euskal iraultzako helburuetaz hitzegingo zaigu. Honoko hauek izendatuko zaigu: nazional askatasuna; Euskadiren separakuntza; industrian eta bankan, produkzioko bitartekoen sozializazioa. Eta euskal iraultzak nazional iraultzaren forma eraman behar bait du, euskal nazional burgesiak ba

⁶¹² Ikus: ibidem, La cuestion vasca, Lucha atalean.

⁶¹³ Ikus, ibidem, independencia vasca y socialismo atalean.

⁶¹⁴ Ikus, ibidem, Branka 2, 23'gn. or.

⁶¹⁵ Ikus, ibidem, Branka 3-4, 55'gn. or.

⁶¹⁶ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, independencia vasca y socialismo atalean.

⁶¹⁷ Ikus, ibidem, Branka 2, 29'gn. or.

⁶¹⁸ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, independencia vasca y socialismo atalean.

⁶¹⁹ Ikus, ibidem, Branka 2, 35'gn. or.

du egitekorik⁶²⁰. Estrategiak dituen erakundeak euskal iraultzaile burrukaren lau frentek kontuan harturik egin behar ditu bere planak. Are oraino, askatasun nazionalerako burrukaren lau frentek alkarrekin harreman hertsian egon behar dute⁶²¹. Halere, laugarren frentek, hots, kulturalak esistentzia duenean bera da gailurreneko⁶²².

Honerarte estrategiaz aritu geranez, orain taktika gora-behera igaroko gara. Bera, aliantza konkretuaren pean erabiliko da. Bi moldetakoak lirake berak, hots, nazionalidadeekiko estatu baten menpeko nazio ezberdinen artekoak eta nazio bereko klase ezberdinen artekoak. Nazionalidadeekiko Espaniako estatuaren menpeko nazioen artean, hots, Euskal-Herriaren eta gaineatiko nazioen artean, gehien gehienik ere aliantza taktikoak eman daitezke; beraz, espainol indarrarekin estrategiazko aliantzak ezartzen dituanak, «nazional» burruka baztertzeko du⁶²³. Klase arteko aliantzei dagokienean, proletargotza oinarri eta neurri bezala hartuz gero, berekin zeintzuk joan litezkeen mugatzen entseiatzen da. Honela, proletargotzaren esplotatzeak, European, etnia zapalduetako abertzalea askatasun nazionalerako burruketan aliatu naturala duela⁶²⁴ baieztuko da. Eta kolonialismoaren menpeko nazioetan, Estatu-Nazioko proletargotza burgesiaren gurdian sartu danek gero, hots, Frantziar Komunista Alderdia Arjeliaren aurka jarri zenean bezala, esplotatutako nazioeko proletargotzak bertako nazional burgesiar aliatu berriak izango ditu⁶²⁵.

Azkenik ibiltzen den taktikaren beste kontzeto bat aipatuko dugu. Honela, gerrila askatasun nazionalaren alde eramaten den burrukaren barruan beste indar askatzaileen bilakakera baimentzen duen taktika bat besterik ez dela esango zaigu⁶²⁶.

V.- SOLUZIOAK

a) Nazional Frentea. - Bera adierazteko modua ere arrazionala da Sarrailh de Ihartza baitan. Euskal-Herria kolonialismoa eta inperialismaren menpeko nazio bezala mugatu duenez gero, lehenik, «bertako inperialisten indar kontrako (hots, Espaniako estatuaren erdirakoikeria eta asimilazionismoaren aurkako diren) nazional aliantza bat proposatzen du. Eta honela eginikako Askatasun Nazionalerako frentek berekin demokratiko askatasunak, personal askatasuna, politikoa eta kulturala ekarri behar ditu⁶²⁷.

⁶²⁰ Ikus, ibidem, Branka 3-4, 60'gn. or.

⁶²¹ Ikus, ibidem, Branka 2, 31'gn. or.

⁶²² Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Lucha atalean.

⁶²³ Ikus, ibidem, Branka 3-4, 55'gn. or.

⁶²⁴ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Lucha atalean.

⁶²⁵ Ikus, ibidem, Branka 2, 32'gn. or.

⁶²⁶ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Tactica de la guerra atalean.

⁶²⁷ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Tactica de la guerra atalean.

b) Euskalduntzea. - Honetan ere aurrez ezarritako bere printzipioekin lojiko agertzen da, zeren Euskal-Herriko iraultzaren berezitasuna kulturaren nazional hegian ezarri bait digu. Kultura hau euskaldun izaeraz mugatu eta bereiztu behar da, behin eta berriro⁶²⁸.

Honela, ondoko hau ondoriotuko du: Euskal iraultzaren, kasuan ere fite konturatuko gara, garrantzizkoena gizonak eta honen indar intelektuala, ideologikoa eta morala direla. Eta askatasun nazionalerako burrukan kultural faktorea lehenbiziko dalarik, benetako iraultzailea euskaldunen kasuan Demokrazia Berriaren postura onartzen duena izango da. Inperialistek (Españiako Estaduko erdirakoi eta asimilazionista zaleek) ezarritako kultura aldatzean burrukatzen duena da iraultzailea⁶²⁹.

Eta fite konkretatuko da: independentzia nazionalerako burruka hau euskalduntza iraultzailearen haizez inspiraturik behar dela, honela Euskal-Herriaren euskalduntze osoa erdiesteko⁶³⁰.

d) Autodeterminazioa. - Formula hau edo antzeko oro zeharo deuseztatuko du tronpagarri besterik ez den filosofiazko metafisikokeriatzat salatuz. Gainera nazio menperatzaileek publiko egiten dituzten gizonen eskubide eta autodeterminazio agerpenez, parre egiten dutela bere baitako esango baita. Agerpen guzi horiek biguinenak tronpatzeko bestetarako ez dute serbitzen, hots, askatasun nazionalaren aldekoen burruka-garra itzaltzeko⁶³¹.

e) Erantzun falta bat. – Sarrailh de Ihartza'ri buruzko lan honen buruan agertzen joan garan aketsetatik at, horietako batetan nahi genduke kokatu bereziki.

Honoko hau da: Euskal-Herriaren iraultza bi fasetan eta helburutan bereiztuz gero, bigarrenari dagokionean ez digu ezeren aurrerapenik eman. Ba dirudi, bi fase eta helburuen artean, diferentzia erreal bat dagoela, hots, absolutoki bereizten direla iraultza prozesuari dagokionean. Honela, bakarra eta berdina den iraultzaren bilakakeran bi fase eta bi helburu izan beharrean, iraultzaren prozesu desberdinetako bi fase eta bi neiburu bilakatzen dira Sarrailh de Ihartza baitan. Eta hau proletargo interesen aldeko izanik, askatasun nazionalerako erakunde den batentzat bere uko da. Langile interesen aldeko hegia ez da garantizatzen; aitzitik, langile interesen aldeko borroka

⁶²⁸ Ikus, ibidem, Branka 3-4, 55'gn. or.

⁶²⁹ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Política y resistencia atalean.

⁶³⁰ Ikus, ibidem, La cuestion vasca, Política y resistencia atalean.

⁶³¹ Ikus, ibidem, Lucha atalean.

gutxiturik eta deskuidaturik agertzen da. Eta, honela, askatasun nazionalerako aliatu behar lukeen burgesiaren menpean itozeko arriskuan uzten da Euskal iraultza.

HIRUGARREN ATALA. BURGOS-KO EPAITUEN eta BESTE ZENBAIT MILITANTE MARXISTA-LENINISTEN TESIA

Lenin, Stalin eta III-gn. Internazionalak mundua ekonomikoki **hiru estadio edo harotan** zatikatzen dutelarik, haro bakoitzari, nazional arazoari dagokionean, bere aterabidea proposatzen diote.

Jokabide horrek Euskal Herriko kasoarentzat ez duela balio epaitzen da liburuaren hirugarren atal honetan. Izan ere, marxisma praktikoaren guraso haiek Sartaldeko Europa-ko Estadoetan sor zitezkeen mugimenduak oro **berez** atzerakoitzat eta historiaren zentzuan aurkakotzat ematen zituzten. Baina, Espania-ko Estadoan Euskal Herriak daraman nazional mugimendua oligarkiaren egitura politikoen aurka doanez gero, proletargotzaren internazional mugimenduaren neurriko eta zentzuko epaitzen da.

Tesi hau defenditzen dutenek ondoko puntu hauk dituzte aipatzen:

Lehenengo. Marxisma-leninisma, nazional arazoari dagokionean, **metodo** edo **azter-bide** bezela hartu behar da.

Bigarren. Hori horrela, Euskal Herriko nazional arazoa klase ikuspegi xehenetik lekutu behar da.

Hirugarren. Oligarkia eta monopolioak ala popular klaseak eta langileria, hori da une honetan lehen kontradizioa.

Laugarren. Euskal Herriko nazional burgesiak, nola erdikoak hala ttipiak, independentziaren eskabidea aurrera ateratzeko ahaltasunik ez duela agertu izan du. Batetik, burgesia honen parte bat ekonomikoki monopolioen serbitzuan jarririk dago. Bestetik, beste parte batek gure Herriaren sortea ezeren baldintzarik gabe atxikirik daduka Espania-ko soluzioari. Burgesia zati honek bere politikazko jokabidea **autonomia** eskatzera mugatzen du, azken finean.

Bostgarren. Langileriak Euskal Herriko independentziaren aldeko ikurrina bereganatu behar du. Langileriaren xede berezien alboan, Herriaren independentziaren aldeko eskabidea oso garri eta osasuntsu da.

Seigarren. Euskal langileriak iraultza mailatu eta jarraitu bat egin behar du.

Zazpigarren. Praktikan batera badoaz ere, soluziobideak bitara bihurtzen dira:

a) Euskal Askatasun Nazionalerako Frente bat egin. Euskal popular burgesia hor barrenean egongo da.

b) Proletargotzaren eginkizun bereziak garantizatzeko, euskal langile klasearen batasuna indartu.

BURGOS-KO EPAITUEN eta BESTE ZENBAIT MILITANTE MARXISTA-LENINISTEN TESIA⁶³²

Aurreko ihardunaldietan ikusi ahal izan dugun bezela, sozialista iraultza emana izan den zenbait herrialdetan, gaindituak, berrituak eta kontrajarriak izan dira ordurarteko marxismak, III-gn. Internazionalaz gero, kolonialisma eta inperialisma peko nazional arazoaz emandako proposamenduak.

Euskal Herrian eta E.T.A.-ren inguruan horrelako zerbait gertatzen da gaur-egun: izan ere, marxismak, III-gn. Internazionala oinarritzat harturik, Nazionalidadeekiko Estaduetarako proposatzen duena, behin eta berriro, gainditurik eta zenbait pundutan kontrajarririk aurkitzen dugu E.T.A.-ko militante hauen tesian.

Besterik gabe, igaro gaitezen guzti honen ausnartze xehe batetara.

I.- KONTZETUALIZAZIOA

«E.T.A.-ren V-gn. Biltzarrean hartutako erabakiak gaur oraindik bere osotasunean izenpetzen ditugu, nahiz-eta erabaki horik oraino berritzeak, konkretatzeak eta osotzeak izan. E.T.A.-ren historiako urratsik garrantzitsuenak Batzar hortan ematen dira»⁶³³.

Han markatu zen ideologiaren eta estrategiaren eta taktikaren jokabidea ukatzen duen guztia, beraz, militante hauek onartzen jarraitzen duten E.T.A.-ren bidetik at dago. Eta une honetan aztertzeraz goazen lan hau bera, Batzar hartan markatutakoaren osogarri bezela hartua izan behar da.

I.- Marxisma-leninisma⁶³⁴

Hasteko, konstatatze batekin datoz etorri:

«E.T.A., V-gn. Batzarrekoan, erakunde sozialista deklaritzen delarik, sozialismaren tipokerari dagokionean, humanista eta erreformista ez bainan marxista-leninista izendatu zen. Eta honekin E.T.A.-k ordurarte erabili zuen Nazional Frentearen definizioa baztertutik gelditu zen. Izan ere,

⁶³² Lan hau «Zutik» 63-tik osoki hartua da, euskarazko aldaketa batzuk salbu.

⁶³³ Ikus: «Documento de los presos de Burgos», or. 5.

⁶³⁴ Ikus: ibidem, or. 6.

absurdoa da sozialista ez den Nazional Frentea»⁶³⁵.

Gaur-egun marxisma-leninisma mila modutara ulertzen. bait da, euskal arazoari dagokionean zertan jarraitzen dioten adieraziko digute:

«Errealitatearen azterlietsrako marxisma-leninismaz baliatzen gara. Marxisma-leninisma, batik bat, une bakoitzean aurkatuak dauden klase interesen azterketara mugatzen da. Hemen klase bakoitzaren xede materialak bistarazi nahi dira, klase batzuen eta beste batzuen interesen arteko kontradizioak zertan diren argituz. Marxista-leninistaren egitekoa, beraz, ikerketa hauk bururatzeari baizik ez da.

Marxista-leninisten programa politikoa ez da ezjakinak harrapatzeko teknika bat, langile-klasearen interesen agerpen zintzo bat egitea baizik»⁶³⁶.

Guzti honek, marxismak gaurdaino nazional arazoaz emandako soluzioak bir-kontsideratzea ekarriko du, batez ere gure euskal-kasoaren aintzinean. Hain zuzen, egungo Euskal Herriko egoeraz ikerketa zehatz bat egin gabe hartutako soluziobideak, marxisma-leninisma, edo printzipio dogmatiko eta monolitikoen multzo bat bezela, edo jakineko eta hala-ohizko jokabideen multzo bat bezela, hots, anti-dialektikoki hartzen dela adieraziko luke.

2. Nazional eta klase burrukaren hegiak⁶³⁷

Sarritan erabiltzen da «nazional hegia» formula hau. **Nazional hegia** edo **ikusgunea** delakoaren bitartez:

«Espania-ko eta Frantzia-ko Estatu oligarkikoen agintearekin bukatzeko, euskal klase popular guztiek alkarrekin batera egin behar duten burruka adierazten da»⁶³⁸.

Aterabide bezela, herritarra, askea eta bere buruaren jabe izanen den Euskal Estatu bat eskatzen da⁶³⁹. Diote:

«Langileriaren interesen defenditzaile garen ezkerreko, klase popularrek oligarkiaren aurka duten burruka komun honek ez digu ahaztu arazi behar iraultza berorren funtsezko beste ikusgune

⁶³⁵ Ikus: ibidem, or. 6.

⁶³⁶ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 2.

⁶³⁷ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 11.

⁶³⁸ Ikus: ibidem, or. 11.

⁶³⁹ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 11.

batetaz: klase burrukaren hegia da hori»⁶⁴⁰.

E.T.A.-k nola bata hala bestea berekin daramaz.

Beste pasarte batetan, hegi nazionalari beste deidura bat emango zaio. **Hegi popularra** deituko zaio:

«Kapital monopolistaren aurkako burruka iraultzailea popular hegiduna bait da eta ez proletargoarena soilki»⁶⁴¹.

Kapitalisma monopolista irauli nahi bada, beraz, iraultza honek, sozialista izanaz batera, popularra ere izan beharko du. Proletargoak beste klase aliatuekin batera jokatu beharko du⁶⁴².

Klase burrukaren alderdia, beste batzutan, **proletargotzaren** hegi deituko da. Klase burrukaren egiteko bakarra eta berezia proletargotzaren xede berezien erdieste delako adierazi nahi litzake hemen. Ondorioz, Euskal Herriko klase popularren arteko aliantzak duen hegi nazionala, hain zuzen ere, Espainia-ko eta Frantzia-ko Estaduek duten nazional formen aurka dago egon ere⁶⁴³.

3.- Euskal Herria⁶⁴⁴

«Euskal Herriak ez du bere baitan erabateko batasunik, burgesek eta beren intelektualek nahiko luketen bezela. Euskal Herria arras ongi bereizturiko klaseek osatzen dute, nahiz guztiak nazionalki zapalduak eta kuantitatiboki eta kualitatiboki txupatuak egon oligarkiagatik»⁶⁴⁵.

Testo hortan ez da ukatzen herritasunak duen bere alderdi etnikoa eta geografikoa; dialektikoa dena eta klasista ez dena hautatzen da hor. Honekin baturik, beti kontuan duten printzipio bat berritzen zaigu: «Abertzaleak gara bai, baina klase konkretu batekoak izanaz gara izan. Burruka egiterakoan klase mailako xede ekonomiko batzuk jartzen ditugu jokoan»⁶⁴⁶.

Hain zuzen ere, baldin Herria definitzerakoan bere klase ikuspegia ahazten badugu, gure borroka Espainia-ko eta Frantzia-ko nazional formei ez ezik horien nazional **komunidadei** ere

⁶⁴⁰ Ikus: ibidem, or. 11.

⁶⁴¹ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 2.

⁶⁴² Ikus: ibidem, or. 2.

⁶⁴³ Ikus: ibidem, or. 3.

⁶⁴⁴ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 12.

⁶⁴⁵ Ikus: ibidem, or. 12.

⁶⁴⁶ Ikus: ibidem, or. 12.

oposatzen dela ondorio bait liteke. Eta hau esatea ankerkeria haundi bat da. Euskal Herria ez doa Espania-ko herriaren aurka, Espania-ko oligarkiaren aurka baino. Frantzia-ko herriari dagokionean beste hainbat gertatzen da. Areago:

«Euskal Herria, Espania-ko eta Frantzia-ko herriek oligarkia zapaltzailearen aurka daramate n burrukan, horiekin lankide sentitzen da»⁶⁴⁷.

4.- Nazionalisma⁶⁴⁸

«Euskal nazionalisma Euskal Herriaren bir-batasunerako eta independentzia nazionalerako jokabidean datza»⁶⁴⁹.

Eskubiko euskal nazionalismari bere mezu iraultzailea kendu nahi diotenen kontra ateratzen dira autore hauk: Jokabide honek abertzaleak oro «eskubian» lekutzen ditu eta aberkideak aldiz, «ezkerrean». Bereizketa hau ez da onartzen, zeren onartuko balitz, euskal burgesiaren nazionalisma euskal iraultzaileen etsai dela baiesta beharko bait litzake⁶⁵⁰. Halabainan, 1970-ko Abenduan argi eta garbi frogaturik gelditu zen, euskal burgesiaren nazionalismak, proletargoaren xede batzuekin bat etorririk, oligarkiari aurkatuz gero, objektiboki iraultzaile den egitekorik ba duela⁶⁵¹. Gehiagotzen da, baita ere, nazionalisma oro ez dela berdina:

«Mende erdi bat baino luzeagoko epealdian zehar, euskal nazionalisma burgesek zuzendu dute. Bainan, gerora, Espania-ko Estaduan aginte monopolista ezarriz gero bereziki, kontraesanak eta eginak geroz eta haundiagotzen etorri dira hor barruan; epe honetan proletargoak zuzentzen du nazionalisma»⁶⁵².

Halabainan, nazional burruka honetan proletargoak irabazitako urratsek ez dute burgesia nazionalistaren sarrera ukatzen, bigarren mailara pasa arazten dute baizik. Guzi honetatik ondorio hau gardenki ixurtzen da :

«Euskadin proletargoa sozialismaren alde burrukatzen da nazional askatasunerako iraultzan parte hartzen duenean»⁶⁵³.

⁶⁴⁷ Ikus: ibidem, or. 12.

⁶⁴⁸ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 4.

⁶⁴⁹ Ikus: ibidem, or. 4.

⁶⁵⁰ Ikus: ibidem, or. 4.

⁶⁵¹ Ikus: ibidem, or. 4.

⁶⁵² Ikus: ibidem, or. 4.

⁶⁵³ Ikus: ibidem, or. 5.

5.- *Internazionalisma*⁶⁵⁴

«Euskal Herria ez doa Espania-ko herriaren aurka, Espania-ko oligarkiaren aurka baizik; gainera, Euskal Herria Espania-ko herriarekin oligarkia zanpatzailearen aurkako bere jokabidean lankide sentitzen da. Gauza bera Frantzia-ko herriari dagokionean; Euskal Herria Frantzia-ko oligarkia zanpatzailearen aurkako bere jokabidean lankide sentitzen da. Euskal Herria inperialismaren aurka burrukatzen diren munduko herri guztiekin ere lankide sentitzen da»⁶⁵⁵.

Guztia honako hontara mugatzen da: gure herria oligarkiak daraman txupatzearen alde ala kontra egotera. Honen kontra egoteak, gure kasoan, herritarra, askea eta bere buruaren jabe izan den Euskal Estatu bat eskatzen du⁶⁵⁶. Are gehiago: Euskal Herriaren eta Espania-ko eta Frantzia-ko herrien artean, gure borondate guztien gaineratik, harreman objetibo eta historiko batzuk aurkitzen dira. Horregatik, erakunde eta partidu popular euskaldunen eta nola espainolen hala frantsesen arteko harremanak, gaur-egun esistentziarik gabeak, ahalik eta gradurik haundienean indartu behar dira. Halabainan, oinarri bezela, burruka hauetariko bakoitzaren hegi bereziak onartu beharko dira. Gure kasoan: Euskal Herriaren burruka nazional askatasunarena dela eta, ondorioz, demokrazia popularraren moldeko. Euskal Estatu inde pendiente bat lortzea dela gure jokabidea⁶⁵⁷.

Kontzeto horren agerpenarekin bukatzeko, guzi hau koroiatzen duen autore hauen beste frase bat aipatuko dugu:

«Nazional mugen arazoa erabaki nahia, gaur-egun, amets zoragarri bat da. Gaur-egungo arazoa inperialisma menperatuko duen internazionalismo sakon bat egitean datza, eta helburu hau ez da neholaz ere euskal nazionalismarekin oposatzen, harentzat beharrezko bilakatzen da baizik. Euskadiko proletargotza internazionalismo aurkitzen ari da. 1970-ko Abenduan Euskal nazionalismo eta internazionalismo GAUZA BERA izan dira»⁶⁵⁸.

6.- *Autodeterminazioa*

«Iraultzaren ondoren Euskal Herriak bere etorkizuna hautatuko duela esatea, tranpa bat izanik, teorikoki ere faltsua da. Zeren, burrukan ari den Herria, zer besterik egiten ari da, bere etorkizuna hautatzen ezik?»⁶⁵⁹

⁶⁵⁴ Ikus Documento de los presos de Burgos, or. 12.

⁶⁵⁵ Ikus ibidem, or. 4.

⁶⁵⁶ Ikus ibidem, or. 12.

⁶⁵⁷ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 13

⁶⁵⁸ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 6.

⁶⁵⁹ Ikus: ibidem, or. 6

Argi eta garbi dago, bada, Herria bera baldin bada euskal nazional askatasunerako burruka daramana, Herriaren autodeterminazioa gaur beretik finkatzen da burruka horren helburua. Eta guzti hau Burgos-ko epaituekin egina izan den propaganda gezurtia deuseztu nahirik aipatzen da. Hau esaten zaigu:

«Haiek (Burgos-koek noski) Euskal Herriaren autodeterminazioa etorkizunerako utziko dutela, predikatu bait da»⁶⁶⁰.

Hori gezur bat zen. Burgos-en epaitutako E.T.A.-ko gudariak ondo baino hobekiago zekiten E.T.A.-ren esistentzia bera ere Euskal Herriaren eguneroko autodeterminazio horretatik zetorrela etorri⁶⁶¹. Honela, bada, «euskal abendua» deitua izan den hartan, eta euskal kaleetan zehar, herriaren autodeterminazioa egiazko zerbait zela frogatu zen⁶⁶².

7.- Interesak eta formak⁶⁶³

Interesei buruzko esanaldiak nahiko zabalak dira. Hasteko, guziekiko xedeak zeintzuk eta norentzat diren ikusiko dugu. Honela, interes komunak edo guziekiko xedeak «nazionalak»⁶⁶⁴ direla esango zaigu:

«Xede horik popular klase mailako euskaldun guztiei, Popular Iraultza egin bitartean bederen, komunak zaizkie»⁶⁶⁵.

Halere, guzietiko xede hauen alboan, klase bakoitzak bere xede ekonomiko bereziak bait ditu, hauetaz mintzatuko dira.

Honela, bada, euskal iraultzaren lehen fasean euskal nazional burgesiaren klase interes ekonomikoak zeintzuk diren galdegiten delarik, ihardespen hau ematen da: euskal nazional burgesia industrialki monopolista den eta diru-agintea duen oligarkiak menperaturik daduka.

Eta euskal proletargotzaren klase interesak zeintzuk dira? Ez dago dudarik kapitalisten kontrakoak direla; kapitalisma lurperatu eta sozialisma edo klaserik gabeko gizartea muntatu arte ez duke langileriak garaipenik. Burruka hori irabaztean datza, egon ere, langileriaren azken helburua.

⁶⁶⁰ Ikus: ibidem, or. 6

⁶⁶¹ Ikus: ibidem, or. 6

⁶⁶² Ikus: ibidem, or. 6

⁶⁶³ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 14.

⁶⁶⁴ Ikus: ibidem, or. 14.

⁶⁶⁵ Ikus: ibidem, or. 14.

Helburu hori gogoan harturik, eta iraultzaren lehen fasean, monopolisten kontrako burrukara mugatuko ditu langileriak bere egin-ahalak; eginkizun hortarako nazional burgesiarekin alkartuko da⁶⁶⁶. Fase honetan hor geldituko da kapitalista sistimaren kontradiziorik funtsezkoana, baina beste modu batez agertuko da orain. Hara nola: kapitalismaren monopolista fase honetan, proletargo-klasearen eta burgesiaren zati aurrelariaren interesen arteko kontradizioa bigarren mailan lekutzen da; bidenabar, proletargoak eta nazional burgesiak monopolista moldeko produkziozko harremanak aldatzeko duten xede komuna lehen mailan jartzen da⁶⁶⁷. Halare, langileriaren interesak ez dira inoiz ere nazional burgesiarenetara mugatzen. Esan den bezela, langileriak klaserik gabeko gizartea du bere azken helburu. Hortara ailegatzeko bide bakarra, ordea, popular iraultza demokratikoarena da⁶⁶⁸.

Azkenik, gaur-egungo kapitalisma monopolistaren aurkako burruka iraultzaileak molde anitz hartzen duela, esango zaigu.

Molde horien komuntasuna, honetan datza: Popularrak eta oligarkiaren kontrakoak dira. Molde horiek ba dute, halabainan, beren komuntasunaz aparte, berezitasunik ere, lehen aipatu dugun bezela. Hori bai, klase burrukaren barruan iraultzak nazional tankera hartzen du⁶⁶⁹.

II.- KLASEAK

Jadanik esanik dugu, marxisma-leninisma, nazional arazoari dagokionean, errealitatearen analisirako bide bezela onartzen dela. Eta, jakina, errealitate honen analisisian, beste gainera guztien artean, klase diferentziak, interesak eta harremanak datoz etorri. Orduan, harreman horik aztertzen eta mugatzen hasiko dira aurrera beste urratsik egin baino lehen.

1.- Langileria

«Langile klasea iraultzailena delarik, berak zuzendu behar du Euskal Iraultza. Hauxe erabaki genuen V-gn. Biltzarrekoan. Langile Klaseak eta euskal nazional burgesiak bideratuko dute, Askatasun Nazionalerako Frente batetan alkatuaz gero, sozialismarako oinarriak ezarriko dituen Popular iraultza. Halabainan, langile klasearekin burruka berezia sozialismaren aldeko burruka da; Euskal Herrian klaserik gabeko gizarte bat erdietsi arte iraultzan jarraituko du»⁶⁷⁰.

Euskal Herriko langileria, egun, monopolio moldeko kapitalista sistimarekin aurkatzen bait da

⁶⁶⁶ Ikus: ibidem, or. 14.

⁶⁶⁷ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 2.

⁶⁶⁸ Ikus: ibidem, or. 2.

⁶⁶⁹ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 3.

⁶⁷⁰ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 8.

aurrez aurre, langileriaren eta nazional burgesiaren artean ezin ezar daiteke etsaigorik, beste bereizkuntzarik gabe. Hain zuzen ere, langileria bezela, nazional burgesia ere kapitalisma monopolistaren eragile den oligarkiaren aurka doa fase honetan. Euskal langileriaren eta nazional burgesiaren arteko kontradizioa bigarren mailara pasatzen da, beraz⁶⁷¹.

2.- Nazionalisten burgesia

Beste batzutan **burgesia popularra** deituko zaio. Nahiz burgesia izan, kapitalismaren monopolista fasean oligarkiaren menpeko den burgesia mota bat da hau. Eta beronek oligarkiaren aurka duen ekonomiazko xedeegatik, proletargotzareri aliatu edo kide kontsideratzen da Popular Iraultzaren fasean⁶⁷². Burgos-koak, nazionalisten burgesia, «eskubia» dela esanaz, gure Iraultzatik erabat baztertu nahi duten horien kontra jeikiko dira, diotenean:

«Baldin nazionalisten burgesia eskubia bada, oligarkia ere hala da: biak dira eskubiak eta, ondorioz, proletargotzaren etsaiak. Baina, esan liteke ere burgesia popularra oligarkiaren ezkerre delako. Orduan zar da gehiago, eskubia ala ezkerre? Bere oinarrian klase-aliantzarik ez lukeen politiko-aliantzarik ez dago»⁶⁷³.

Ikus dezagun «eskubiarekin» aliantza oro ukatzen dutenek arazo honi zer aterabide ematen dioten: klase mailako aliantzak ez baina politiko mailakoak egin behar dira. Hau horrela izatekotan, klase bakar batek eta klasegabetutako banako zenbaitek osaturen lukete, beraz, nazional egitura: «proletarioek, nekazariak, arrantzaleak, ikasleak, liberal bizibidekoak». (Ikus VI-gn. Asanblearen agiria.)

3.- Oligarkia

Klase hau, kapitalisma monopolistaren fasean, produkzioaren eta gizarteko beste kontrolen gidari da. Beronen kontra doa euskal popular klaseek alkarrekin daramaten burruka. Beraz, euskal popular klaseen aurka Espainia-ko eta Frantzia-ko oligarkak daduzkagu. Gainera, aurkatze honek nazional forma bat ba duela esango zaigu⁶⁷⁴. Ez da ahaztu behar, halabainan, Euskadiko klase dominatzailea ere Espainia-ko eta Frantzia-ko Estaduetan integratutako euskal oligarkia dela⁶⁷⁵.

III.- ETAPAK

⁶⁷¹ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 2.

⁶⁷² Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 8.

⁶⁷³ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 3.

⁶⁷⁴ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 11.

⁶⁷⁵ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 2.

Bi zatitan emango dugu ataltxo hau. Lehendabizikoan, E.T.A., mugimendu bezela eta V-gn. Batzarraren baitan, zer den agertuko da. Bigarrengoan, E.T.A.-k, HERRIA-ri begira eta V-gn. Batzarraz gero, zer proposatzen duen ikusiko,da.

1.- E.T.A. mugimenduari dagokionean

Nahiz E.T.A. V-gn. Biltzarrean erakunde sozialista bezela proklamaturik gelditu, honek ez du esan nahi bere segidako praktikan hala zenik. Nahiko aise esplikatzeko ahal da hau guziaz. Batetik, masa burrukaren maila eskasa bait zen, beharrezko zen minoria konzientziatzaile eta mugitzailearen burrukak primatuko zuen etapa bat. Bestetik, Euskadiko lehen kontradizioa, funtsezkoena ez izanik ere, nazional zapazioaren mamiz hornitutakoa da; hemen popular klaseak oligarkiarekin aurkatzen dira.

Egoera horren aintzinean, E.T.A.-ri **frente-zale** izatea zegokion. Honek ez du esan nahi, ordea, E.T.A.-k frente bat egin behar zuenik. Ez horrelakorik. Esan nahi du E.T.A.-k, erakunde sozialista den aldetik, frentearen aldeko aurre-lana egin behar zuela⁶⁷⁶. Gauza horrela ulerturik, E.T.A.-ren lehen etapa frente-zale zela esango da. Bainan, berehala, frente-aurreko etapa honek beste jite bat hartu behar zuela gaineratuko digute, hain zuzen ere herri-iraultzaren bilakakeran aldi berri bat sortzen bait da. Giro horri erantzunez, E.T.A.-k orain Langile Frentea deituriko erakunde bat sortuko du. Honela E.T.A.-ren bigarren etapan sartzen gara. Langileriaren ideologia edukitzeak eta praktikan frente-zale izateak emanen diote etapa honi beren berezitasuna⁶⁷⁷. Langile Frente erakunde hori, sortu eta handik bi urtera, benetako langile euskaldunen Alderdiaren ernemuin bezela agertzen zaigu. Gainera, une honetan, nola teoriaz hala praktikaz, langileena da erakunde hori.

Azken finean, E.T.A.-ren hirugarren etapa Langile Euskaldunen Alderdian bilakatzea izango da⁶⁷⁸. Eta azkenengo etapa hortan langile klasea zuzendu eta eratuko duen erakunde aurrelarian bilakatu behar da E.T.A.⁶⁷⁹

2.- HERRIA-ri dagokionean

Euskal iraultza pausoka mailatzen bada ere, klaserik gabeko gizartea erdietsi arte ez da pausatuko iraultza hori. (49) Hori dela- eta, E.T.A.-k ez du etapisma absolutorik, hots, estrategikorik defendituko; errelatiboa, hots, taktikoa baizik. Hau kontutan izanik, ikus dezagun zertan datzan bera.

⁶⁷⁶ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 7.

⁶⁷⁷ Ikus: ibidem, or. 7.

⁶⁷⁸ Ikus: ibidem, or. 8.

⁶⁷⁹ Ikus: ibidem, or. 8.

Lehen faseari **popular iraultza** deitzen zaio. Epe honetan, E.T.A.-ren egitekoa, euskal popular kapa guztiakin Askatasun Nazionalerako alkarturik, kapitalisma monopolistaren klase dominatzaile den España-ko eta Frantzia-ko Estaduen oligarkia garaitzea izango da⁶⁸⁰. Garaitza honek, berriz, honako xede hauk erdiestea suposatzen du:

«Monopolista moldeko harremanen lekuan sozialismaren lehen forma den popular demokrazia ezarri. Honela pauso bat aintzintzen da klaserik gabeko gizartea lortu-bidean»⁶⁸¹.

Eta klase popularrak Euskadin nazionalak direnez gero, haien popular demokrazia Euskadiren nazional askatasunean bilakatuko da. Honela, Estaduek esistentzia duten epe honetan nazional askatasuna konkretatzeko bide bakarra Estaduarena bait da, Euskadin popular Estadua ezarriko da⁶⁸².

Bigarren fasea klaserik gabeko gizartearena edo sozialismarena deituko da. Arestian aipatu ditugun garaipen guzti haik langile klasearentzat interesdunak badira ere, ez dira, ordea, berari modu bereziz interesatzen zaizkion horietakoak. Honek ez du esan nahi, halabainan, langileriari bereziki interesatzen zaizkionak bakarrik, eta ez besterik, interesatzen zaizkiola. Absurdoa da hori baiestea.

Langileriak, gaurtik bertatik gure herriaren iraultzaren zuzendaritza lortuaz, azken garaipeneraino, hots, klaserik gabeko gizarteraino zuzentzen jakin behar du gure askatasun nazionalerako den euskal iraultza⁶⁸³. Gizaldi erdi baten buruan popular burgesiagatik zuzendurik egon den euskal iraultza, España-ko Estadua kapitalisma monopolistaren fasean sartuz gero, euskal proletargotzaren zuzendaritza pean bilakatzen da⁶⁸⁴.

IV.- ESTRATEGIA ETA TAKTIKA

Estrategia izendatzeko kontzeto zenbait erabiliko da. Hauetariko bat **objetibo** edo **helburu** da. Honela, helburu oso edo objetibo totalaz hitzegiterakoan, lehen faseko burrukari **popular** edo **nazional** iraultza deituko zaio; eta langileriaren xede bereziak zaintzen dituen bigarren faseko burrukari, berriz, **sozialisma** edo **klaserik gabeko gizartearen** aldeko iraultza⁶⁸⁵.

⁶⁸⁰ Ikus: ibidem, or. 8.

⁶⁸¹ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 2.

⁶⁸² Ikus: ibidem, or. 8.

⁶⁸³ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 8.

⁶⁸⁴ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 4.

⁶⁸⁵ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 8.

Azken helburu kontzetoa ere erabiltzen da gauza beraren adierazteko:

«Bai, egia da, gu kapitalisten kontrakoak gara. Ez dugu etsiko kapitalisma lurperatu eta sozialisma eraiki arte, orduan bakarrik libratuko bait gara atxikirik gauzkan ekonomiazko zapalkuntzatik. Eta hau da burrukaran azken helburua.

Iraultzaren lehen fasean, klase mailako xede ekonomikoak monopolisten kontrako burrukara hertsitzen dira soilki. Nazional burgesiarekin batera eramango da burruka hau.

Langileriaren azken helburua, klase bezela, diru-agintea eta industriako monopolioa bere menpeko dituen oligarkiarekin bukatzen da»⁶⁸⁶.

Hontaz dudarik egon ez dadin, gaur bertatik agertu behar da argi eta garbi zein diren gure burrukaren klase mailako xedeak⁶⁸⁷. Beste batzutan, **soluzio** edo **ate rabide** kontzetoa aipatzen da:

«Nazional burgesiarentzat azken soluzioa dena langile klasearentzat pasadizokoa baizik ez da. Burgesia honen azken aterabidea, oligarkia menperatuz gero, Euskal Estadu Demokratiko bat lortzea da. Honela, euskal popular klase guztien interesak betetzen dira: batetik nazional independentzia eta bestetik klase mailako xede ekonomikoak. Bestalde, gure gaurko iraultzaren barrenean, nazional interesek duten garrantzia ez da nolana hiko; hauek dira gure herriaren politikazko urduritasuna bortizkien zirikatzen dutenak; hauek dira Popular Iraultza egin bitartean Euskadiko popular klase guztien batasun iraultzailerako oinarririk funtsezkoena eskeintzen dutenak; hauek dira, azkenik, gure gatazkaren nazional hegia mugatzen dutenak»⁶⁸⁸.

Guzti hau koroiatzeko, beste honako hau esango zaigu:

«Gure benetako iraultza eta honen helburua iraultza Sozialista bat egitea da, klaserik gabeko gizarte bat jasotzea, alegia»⁶⁸⁹.

Taktika, berriz, **aliantza** edo **elkarte** kontzeto pean mugatuko da gehienbat. Hona hemen testoa bera:

⁶⁸⁶ Ikus: ibidem, or. 14.

⁶⁸⁷ Ikus: ibidem, or. 15.

⁶⁸⁸ Ikus: ibidem, or. 15.

⁶⁸⁹ Ikus: ibidem, or. 17.

«Popular iraultzan, klaseen aliantza objetiboak prozesu guztiaren oina egiten du. Honengatik, proletargoak ez dezake egin ahal bere klase batasuna burruka erreal hortatik at; aitzitik, klase batasuna etsai batzuen aurka burrukatuaz eta iraultzaren beraren abiadan, nahi ala ez, sortuko diren aliantzen alboan borobildu behar da. Proletargotzaren interesak eta popular iraultzarenak ezin oposa daitezke kanpoz. Bi gauza ezberdin badira ere, biak datoz hertsiki loturik. Honela, proletargotza Euskadin askatasun nazionalaren alde burrukatzen denean sozialismagatik burrukatzen ari da»⁶⁹⁰.

V.- SOLUZIOAK

Azkenik, gaur-egun, Euskal Herriak eta bere Iraultzak E.T.A.-ri, langilleriaren mugimenduari, planteatzen dizkion arazoentzat aterabide zenbait proposatzen da.

Lehenik, langileria eta nazional burgesia alkartuz gero, Euskal Askatasun Nazionalaren aldeko Frente bat osatu⁶⁹¹.

Autore hauen aburuan, ondorengo baldintza hau kontuan hartuz antolatuko litzake Frente hau:

«Euskal Askatasun Nazionalerako Frente batetarako hiru oinarri hauk dira beharrezko:

- 1) Ipar eta Hego Euskaldi batuko dituen euskal Estatu independente bat sortu.*
- 2) Euskaldi osoa euskaldundu. Iraultzaileki zuzenduko litzakeen bi hizkuntzazko egoera baten bitartez Euskadiren euskalduntze oso batetara ailegatu.*
- 3) Oligarkiaren ekonomiazko iturriak, guztiak, nazionalizatu»⁶⁹².*

Eta euskararen gora-behera beste pasarte batetan oraino gehiago mugatuko zaigu:

«Iraultzaren helburuetan esplizituki adierazia behar den euskalduntzearen arazoak oligarkiaren aurkako burrukan bere mami iraultzailea erdiesten du. Hau da: euskal kultura inposatu behar da euskara nazional hizkuntza bilaka dadin»⁶⁹³.

Eta aurreko harira bir-itzuliaz, hau esango zaigu:

⁶⁹⁰ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 5.

⁶⁹¹ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 8.

⁶⁹² Ikus: ibidem, or. 17.

⁶⁹³ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 6.

«Euskadiko Popular Iraultza aurrera ateratzeko fasean, Euskal Askatasun Nazionalerako Frentea nahi eta nahiezko lanabes da»⁶⁹⁴.

Bigarrenik, proletargoaren eginkizun berezi den euskal langile klasearen batasuna lekutuko da:

«Askatasun Nazionalerako Frentea egin ala Klase batasuna egin, ez da nahi eta nahiez bietarik bat proletargoak hautatu beharreko gauza. Aurkariak izanik ere, batasun dialektiko bat osotzen dute. Hotz, proletargoak bere programaren bidez Askatasun Nazionalerako Frentea osotzen du. Orduan, programa berberak, batetik klase erakundea eta batasuna osotzen du eta une berean, bestetik, beste klasee kiko aliantzara hedatzen du bere jokabidea.

Popular iraultzaren oinarri soziala klaseen aliantza da; Askatasun Nazionalerako Frentea, berriz, aliantza hortatik jalitzen den forma politikoa da. Orduan, popular iraultza definitzen duen kontradizioak berak mugatzen ditu Askatasun Nazionalerako Frentearen hegia eta bere programaren mamia. Eta Frente honen xedeak, bestalde, popular iraultzarenak berak dira; eta hauk, une berean, Frentea osotzen duten indar ezberdinen programa baitan guziekiko xedeak besterik ez dira»⁶⁹⁵.

Testo hortan aipaturiko urrats horiek herritar, aske eta bere buruaren jabe den Euskal Estadu batetara bideratuko gaituzte⁶⁹⁶. Honela, etengabe jarraitzen duen gure burrukaren bigarren fasea, hau da, klaserik gabeko gizartea zuzenki egitera iritxiko ginake.

⁶⁹⁴ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 18.

⁶⁹⁵ Ikus: Zutik, zenb. 62, or. 5.

⁶⁹⁶ Ikus: Documento de los presos de Burgos, or. 11.

LAUGARREN ATALA: ONDORIOAK

3.- A. BILDUMA

Lan honek zerbait klarki agertu badu, zera da: egun Euskal Herrian, nazional arazoa marxista analisiaren bidez erabaki nahi dutenen artean, joera ezberdinik ba dela, alegia.

Lehen joera batek, nazionalismo berez burgesa dela aitortuz gero, Lenin, Stalin eta III-gn. Internazionalak nazional arazoari buruz hartutako erabakiak egungo Euskal Herrirako hitzez hitz onartzen ditu. Joera honen barrenean daude «Saioak»-oak eta «VI-gn. Asanblea»-koak.

Delako erabaki horik, laburturik, ondoko hautan daude:

1.- Nazionalismo, historikoki, burgesiaren eskabide demokratikoekin batera sortua izan da. Orduan, nazionalismo **berez** burgesa da.

2.- Delako marxista teoriko hoiere beren garaiko mundua, sozial egiturari dagokionean, mailaturik agertzen zaie:

a) Batetik, Sartaldeko Europa-ko Estaden kasoa dago. Herrialde hautan 1729-tik 1871-rako epean burutu izan dira burgesiaren iraultza demokratikoak. Orduan, Sartaldeko Europa osatzen duten Estaden (hau dugu Frantzia-ko eta Espainia-ko Estaden kasoa), nazional arazoan finkatzen diren politiko mugimenduak oro atzerakoiak eta historiaren zentzuan aurkakak dira.

b) Bestetik, Sartaldeko Europa-ko Estaden kasoa dago. Hautan oraino zutik dira feudal eta absolutista moldeko Estadoak. Ondorioz, Estado horietako nazional mugimenduak masa mugimendu eta popular klaseen arrastatzaile gertatzen dira. Estado hautan, beraz, proletariotzaren internazional mugimenduak nazional arazoari buruzko **egitamu** bat eratu behar du. Hau zen Errusia-ko kasoa.

d) Finean, Hirugarren. Munduko Estaden kasoa aipatzen da. **Kolonial** moldeko egoeraren berezitasunak seinatzen dira. Ekonomia-ko argudioetatik partiturik, horietan nazional mugimenduak duen esan nahi aurrelaria konstatzen da. Hori horrela, Estado horietako

proletargotzaren internazional mugimenduak, nazional mugimenduaren zuzendaritza kontrolatzeko duen ahaltasunaren neurrian bakarrik, ez areago, sostengatuko du nazional mugida hori. Berarekin bat egin, hori nehoiz ere ez.

3.- Ondorioz, Sartaldeko Europa-k eta Hirugarren Munduko Estadoetarako, eta horietarako bakarrik, proletargotzaren internazional mugimenduak nazional arazoari buruzko **egitamu** bat prestatu behar du. Egitamu hori baldintza batzuetara mugaturik egon behar da.

a) Marxista batek sekula ezin onar lezake nazional estrategia bat. Aitzitik, marxista baten estrategia Komunista Internazionalafen erabakietara loturik joan behar da. Eta Komunista Internazionalaren estrategia proletargotzaren xede berezietatik at ezin heda liteke.

b) Komunista Internazionalaren jarraitzaileek, nazional arazoa bideratu gabe duten Estado atzeratuetan, nazional mugimendua daramatenen aintzinean eman behar duten erantzuna beti **taktikoa** izango da.

d) Erantzun taktiko hori **printzipioen** politika bat jarraitzera lotu behar da.

e) Printzipioen politika hau ondoko hontara mugatzen da: autodeterminaziorako eskubidearen praktika predikatzeraz.

f) Autodeterminaziorako eskubidearen errealizazioa kuidatu behar da. Honen esan nahia hau da: nazional arazoa dutenek beren etorkizuna **libroki hauta dezatela bozen bidez**.

g) Marxista bat, ordea, bere ekonomiazko potentzia eta erdirakoitasuna geroz eta haundiagoak izango dituen Estadoaren alde jarri behar da. Estado ttipietan herriak banatzea joera atzerakoa bait da. Orduan, autodeterminazioaren errealizazioko unean, marxista bateri irizpidea Estadoaren ekonomiazko potentzia eta erdirakoitasuna hobekien errespetatuko dituen soluziobidea sostengatzea izan behar da. Hontarako, bide egoki bezela, **autonomia errejionala** proposatzen da.

Oraindainoko laburpen hau, Lenin, Stalin eta III-gn Internazionalako gidariek, nazional arazoari soluzio-bide bat eman nahirik, aurreratu digutena da.

Baina, guzti hau nola egokitzen dute joera hontako euskal marxistek Euskal Herriko kasorako?

Joera hontako euskal marxistak, **lehenik**, Lenin-ek Espaniar zuen iritzia ukatzeaz hasten dira. Izan ere, Espania-ko Estadao nazionalidade ainitzeko izaten jarraitzen duela baieztu beharrean aurkitzen bait dira. Egin ere honela egiten dute.

Bigarrenik, Lenin-ek ekonomiazko bere ikuspegian erabat finkaturik alkartzen zituen ekonomiazko aurrerapena eta politikazkoa Espanian ez direla batera eraman onartzen da. Izan ere, Espania-ko Estadao ekonomiazki kapitalisma monopolistaren fasean sarturik badago ere, politikoki feudal eta absolutista moldeko esturturekin jarraitzen duela aitortu beharrean aurkitzen bait dira.

Adierazi ditugun salbuespen hauk eginaz gero, arras komodoa da aipatu dugun nazional arazoari buruzko eskemari jarraitzea. Eta horrela egiten dute autore hauek.

Hara hemen hauen pundurik nagusienak:

1) Euskal Herrirako autodeterminazioaren aldeko printzipioa predikatzen dute.

2) Gainera, autodeterminazioa ezarria izan dadila eskatuko dute.

3) Aldi berean, asimilazionista eta anexionista proklamatzten dira, hots: Espania-ko Estadaoaren egungo batasunaren aldeko deklaratzten dira. Arrazoiak: ekonomiazko potentzia haundi eta erdirakoituak aurrelari eta iraultzaile direla batetik eta, bestetik, Estadao ttipfen sortzea historiaren zentzuari kontrajartzea dela, esango zaigu.

4) Beraz, hori horrela, autodeterminazioaren errealizazioko unea Euskadiren independentziaren aurka joateko erabiliko dute.

Bigarren joera batek euskal proletargetzaren internazional mugimenduak bere bidean nazional mugimendua hautatu behar duela baieztuko du.

Hemen Sarrailh de Ihartza eta bere jarraitzaileen tesiak daude.

Hautapen hau justifikatzerakoan, Mao-k Txina-ren kasoan agertzeko erabilitako tesiak aurreratuko dira. Eta oinarrian, Euskadi **kolonia bat** dela ezarriko da. Klaru da, oinarri hau frogatuz gero, kolonia egoerako herrientzat Lenin-ek, Stalin-ek eta. III-gn. Internazionalen gidariek emandako egitamua jarraitu besterik ez dago.

Baina Euskadi kolonia bat ote da? Kontzeto honen zentzu klasikoan, ez noski. Dena dela,

Euskadi kolonizatzaile eta kolonizatueta partitzen da. Kolonizatuen parte bat ere, hots, konprador burgesiarena, kolonizatzaileen artean sartzen da. Gainerako herrikideak, hots, nazional, burgesiakoetatik hasi eta proletargotzarainokoak, kolonizatzaileen aurkako fronte batetan alkartzea proposatzen da. Eta fronte horrek nazional mugimenduaren forma hartuko luke.

Fronte horren barrena, bere erakunde autonomoa gordeaz, proletargotzaren internazional mugimenduak nazional mugimenduaren zuzendaritzako kontrola erdiesten ahaleginak egin behar ditu. Molde horretan, proletargotzaren internazional mugimenduak, kolonizatzailearen aurkako garaipena erdietsirik ere, iraultza azken helburuetaraino jarrai ahal izango du. Orduan, nazional mugimendua etapa bat gertatzen da.

Kaso honetan bozez hautatzeko jartzen dena ez da Estado baten zatiketa, Estado bateko poderearen gidaritza baizik. Orduan, marxista batek gidaritza aurrelarien eta iraultzaileen errepresentatzen duena hautatuko du. Kolonizatuen gidaritza, noski, nahiz eta kolonizatuen arteko klase-egoera bereizten ahalegindu.

Guzti hau Euskadiko kasora egokituaz, honela labur daiteke:

- 1.- Euskal abertzaleen frontea da lehen beharra.
- 2.- Frantzia-ko eta Espania-ko Estadoen aurka arituko da.
- 3.- Euskal Herriaren independentziaren alde burukatuko da.
- 4.- Euskaldunak beren politikaz jabetuko direnean, orduan ere klase burrukak jarraituko du.

Hirugarren joera batek euskal nazionalismoa beharrezkotzat onartzen du, Euskadin ematen ez diren eskabide demokratikoak erdietsi ahal izateko eta euskal gizartea sozialismorako bidean tinkatzeko. Hori bai, proletargotzaren azken helburua bere xede berezien ezarketa dela aitortuko da.

Molde honetan, Lenin, Stalin eta III-gn. Internazionalen gidariek Sartaldeko Europa-ko Estadoetaz egindako analisian justutasun gabe baztertzen da. Espania-ko Estadoak, bera politikoki harturik, feudal eta absolutista moldeko egiturak dituela konstatatzen da. Eta Frantziako Estadoak bere politiko egituretan kapitalismo monopolistaren maila erdietsi badu ere, bere menpeko nazionalidadeekin eramandako asimilazionismoa abortatu egin beharko duela, esaten da. Izan ere, ustez asimilatutako zenbait nazio berri beren autonomiaren bila jeiki bait dira. Nazional mugimendu berri hauek hartzen duten sozial programa, bestalde, proletargotzaren internazional mugimenduaren helburuekin horniturik dator etorri. Beraz, nazional mugimenduak berez ez direla burgesak konstatatzen da. Nazional mugimendu horiek kontrolatzen dituzten klaseen baitan legoke mugimendu horien sozial izakera. Eta baldin langileriaren aldeko diren gidaritza pean balira,

proletargotzaren internazional mugimenduaren izakera izanen lukete.

Egungo nazional mugimendu bat, gaurko bere testuingurua, marxista analisi baten bidez aztertuz gero bakarrik epai litekeala, esango da. Eta Euskal Herriko kasoan, joera honen ustez, lehen analisi batek ondorio hauk ateratzen ditu:

1.- Euskal nazional mugimendua, egungo Espania-ko eta Frantzia-ko Estadoen zuzendaritza duten kapitalista monopolisten aurka dagoen popular mugimenduak daramalarik, aurrelari eta iraultzaile da.

2.- Euskal Herriko kapitalista monopolisten politikazko jokabidea nazional mugimenduaren aurkakoa eta Estadoen aldekoa da.

3.- Euskal nazional mugimenduaren sorreran zuzendaritza izan duen popular burgesia, bere barneko kontradizioak medio, eskabide demokratikoen defentsarako ere lain ez dela izan, behin eta berriro erakutsi da.

4.- Eta une beretik, euskal proletargotzaren internazional mugimenduak, herriak beharrezko dituen eskabide demokratiko horien ikurrina kontrolatzeko bide guztiak libro ditu.

5.- Hauk honela, nazional mugimendua langiletiar gertatu da.

3.- B. EGUNGO EUSKAL IRAULTZAREN BARRENETIK

Hemen, bukatzeko eta azken laburpen gisa, egun, 1973-ean, euskal nazionalisma zertan den agertzen da.

Lehen joerako euskal marxisten aurka, nazionalisma burgesiarekin sortua izan dela aitortuz gero, berez ez dela burgesiaren mugimendua, adieraziko da. Aitzitik, nazional mugimendu bakoitza, bera zuzentzen eta kontrolatzen duen klasearena dela, aitortzen da. Eta nazional mugimendua, proletargotzaren internazional mugimenduarekin alkaturik, aintzinerat eraman ezinik ez dagoela. Beraz, nazional mugimenduaren helburuak proletargotza internazionalaren mugimenduaren helburu berezien osagarri bezela hartu behar dira. Finean, ekonomiazko potentzia eta erdirakoitu diren Estadoak aurrelaritzat eta iraultzailetzat hartzea, kapitalisten tesi bat besterik ez da.

Bigarren joerako euskal marxisten aurka, euskal nazionalismari proletargotzaren internazional mugimenduak eman behar dion sostengoa justifikatzeko, Euskadi kolonia bat dela frogatu beharrik ez dagoela, esango da. Izan ere, **kolonia** kontzetoak klasikoki duen esan nahitik arras urrutik bait dago Euskal Herriaren egoera. Gainera, Ipar aldeko gure Herrian «barren kolonialisma» deituriko kontzetoaren esan nahia aplikatu baliteke ere, Hego aldeko kasoak besterik da.

Halere, **hirugarren joerako euskal marxisten artean**, nazional mugimenduari ematen zaion **berezko baloreaz** irizpiderik aurki dezakegu.

Adibide bi emango dugu:

Bata, «Euskal Herri eta bere Langile klaseari» izendaturik E.T.A.'k bere VI-gn. Biltzar Nagusiko lehen partearen ondorio bezela argitaratutako testoan dago:

«Gizona ez da ingurumariko baldintzetatik at dagoen norbait; aitzitik, izaki arras konkreto bat da, bere xede eta bere arazo arras zehatzak dituen horietariko bat, noski. Euskaldunak gara, Euskadiko langileak, aberri guztiz zertu eta mugatu batekoak, egoera berezi-berezi batetan gaudenak, hots, nazionalki zapalduak.

Euskal langile bezela daramagun burrukan ezin dezakegu ez ahantz eta ez bazter

abertzaletasuna. Gure askatasuna ez da osoa izango baldin gure errealitatearen osotasuna kontutan hartzen ez bada, baldin zehastasunak oro biltzen ez baditugu, bidenabar kontutan harturik gaitzak direla gure giza-egitekoak langile eta euskaldun bezela.

Euskal kultura sozialista baten alde gaude, hau da: kultura burges eta atzerritarrak ukatzen dituen kultura askatzaile bat nahi dugu eta, Euskadiko langile klase garen aldetik, gure aberri nortasuna baieztatu dugu.

Euskadiko Herria guziz euskaradun bilakatu arte ez dela erabat bukatuko Euskal Herriko arazo kulturala, diogu; hortarako, onarturik hiru-hizkuntzazko gure oraingo egoera, iraultzaile bezela jokatu nahi dugu esandako helburuen erdiesteko».

Testo honetan agertzen denez, garbi bereizten da nazional mugimenduaren berezko kontenidoa. Antropologiazko ikuspegi oso bat dago. Euskal nazional mugimendua ez da pauso soil bat, ez da pasadizoko egoera huts bat, ez da aldakortasunera mugatzen den zerbait. Berez du bere balioa nazionalismak.

Bestea «Soria-ko gartzelatuek E.T.A.-ko Biltzar Ttipiari egindako Gutuna» idazkian dator:

«Jo aurrera gure herriaren independentzia eta bir-bateratzea erdiesteko burrukan, Euskal Estado aske eta batu baten aldeko burrukan. Gaur bertatik Euskadiren independentziaren alde burrukatzea behar iraultzale den aukera iraultzaile bat da, zeren sozialismagatik eta Estado burgesa lurperatzeko burrukatzen bait gara. Hau da: lehen-baitlen eta indarren bateratze haundinez oligarkiaren aurka burrukatu behar gara. Izan ere, sozialisma jasotzeko oligarkia hori lurperatzen igaro beharrean gaude.

... Nazionalki zapalduko herri batean, baldin behe herriko langileria gehien laguntzen duen aterabidea independentziarena deia ikusten bada, hori hautatu behar du marxista-leninista batek. Testu inguru hontan aztertu behar da gure burrukaren barnean proletargotzaren internazionalismak duen esan nahia. Zeren, baldin esaten badugu gure herriaren independentzia iraultzaile behar bat dela, gainerako guztian gaineratik langileriaren interesak jarriaz egiten dugu, eta ez Euskadiko langileriaren interesak bakarrik, egungo Espainia-ko Estaduko langileria-renak ere bai. Marxista-leninista gara (baina, marxista-leninista euskaldun, hots, nazionalki zapalduko herri baten kideak).

Funtsean, gainerako guztiaren gaineratik sozialismarako burrukaren interesak jartzen ditugu,

zeren gure herriaren independentziarako burruka bait da Espania-ko Estaduko langileriaren burrukan ere estrategiazko helburu esentzialena den oligarkiaren Estadoa erauzteko biderik gogorrena eta efikazena. Burruka hau da oligarkiak ezin bereganatu duen nazional arazoa erabaki dezakeen bide bakarra».

Ba dirudi, hemen, euskal mugimendua masen mugitzeko bitartekorik egokiena delako bakarrik onartzen dela. Eta, honela, nazionalismak bere barne balore iraunkorrik ez du, Proletargotzaren internazional mugimenduaren bidean urrats eragile delako onartzen da. Eta hau beste ikuspegi bat da!

Guk, geure aldetik, nahiz oraingoz nazional arazoaren atea seilatzeko asmorik ez izan, aterabide batetarako iker behar lirakeen aurrebaldintza batzuk aurreratu nahi genituzke.

Gure iritziz, nazionalismaren kontenidoan hiru alderdi bereiztu behar da:

1.- **Herritasuna** (hizkuntza, folklorea, tradizioa, historia, arbasoen ondore material eta espiritual oro).

2.- **Podere politikoa**. Nazioek beren nortasuna eta autonomia gorde eta aurrera bidean ikusteko, aginte maila ezberdinak behar izaten dituzte historian zehar. Gaur egun, Estadoen epean gauden ezkerro, nazio baten jitea bilakatzeko nahi eta nahiezko gertatzen da Estado autonomo eta independentearen beharra.

3.- **Sozial sistema**. Nazional mugimenduak bera zuzentzen eta kontrolatzen duen klasearen neurriko sozial sistema hartzen du. Nazionalisma berez ez burgesa eta ez langiletiarra da. Hori bai, errealizatzean, burgesa ala langiletiarra izanen da. Bietarik bat, nahi eta nahiez.

Oraingoz bego hontan gure lanaren neurria!